
Emilio Lopez Adan

Euskal iraultza libertarioaren pentsalari

Pako Sudupe Elortza



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UEU

Emilio Lopez Adan: euskal iraultza libertarioaren pentsalari

Pako Sudupe Elortza

Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea
Bilbo, 2020

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Euskal Herriko Unibertsitatea
© Pako Sudupe Elortza

UPV/EHUren ISBNa: 978-84-1319-246-8

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo
Azalaren diseinua: Igor Markaida
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus
www.ueu.eus

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Liburu honek UEUren argitalpengintzako ebaluazio-prozesua gainditu du.

Oihana, Haritz, Ainhoa eta Andoniri!

Aurkibidea

SARRERA 7

I. BIOLENTZIA POLITIKOAREN MEMORIAK 11
1. LEHEN URRATSAK ERAKUNDEAN 13
2. V. BILTZARRAREN GARRANTZIA..... 19
3. PROSELITISMOA..... 23
4. PERTSONALISMOAK 25
5. 1970EKO VI. BILTZARRA..... 29
6. *GATAZKA* ALDIZKARIA ETA EUSKAL ASKAPEN NAZIONALERAKO FRONTERAKO PROPOSAMENA (FLNV) 35
7. BURGOSKO PROZESUA ETA AUZIPERATUEN GUTUNA..... 41
8. ETA V.AREN VI. BILTZARRERANTZ: ETA BAKARRERANTZ 45
9. ERAKUNDETIK KANPO, LAIA ETA KOMANDO AUTONOMOETATIK HURBIL 53
10. TRANTSIZIOA. KAS. LAIAREN ZATIKETA 59
11. EZTABAIDA BERRIAK. MUGIMENDU SOZIALAK. ESPAINIAKO KONSTITUZIOA ONARTZEKO ERREFERENDUMA. BORROKA ARMATUA..... 69

II. IRAULTZAREN ETA BORTXAREN ARTEKO HARREMANA..... 71
1. IRAULTZAREN ETA BORTXAREN ARTEKO HARREMANA 73
2. ETAREN HASIERAKO URTEAK..... 77
3. ETAREN BILAKAERA..... 85
4. 1978KO URRIAREN 28KO MANIFESTAZIOA..... 95
5. SARTRE CAMUS-EN AURKA, EDO IRAULTZA ETA ERREBOLTA..... 101
6. DANY COHN-BENDIT..... 105
7. TERRORISMOA ETA BIOLENTZIA IRAULTZAILEA 107
8. BIZITZA EZ DA OROZ GAIN DAGOEN BALIOA 113

III. IRAULTZA SOZIALERAKO IDEIAK ETA ERREFERENTEAK ..117
1. DEMOKRAZIA AUTORITARIO ERREFORMISTA SENDOTZEN, ESTRATEGIA BERRIEN PREMIA 119
2. NAZIOA ETA ESTATUA. NAZIONALISMOA ETA HUMANISMO UNIBERTSALA. DEMOKRAZIA ETA NAZIOTASUNA 125
   2.1. Borroka abertzalea edozein estaturen aurka eta iraultza komunista ekologikoaren alde 125
   2.2. Euskadi desegituratua egituratu, eta sor dezagun denentzako demokrazia 128
   2.3. Demokrazia eta naziotasuna 136
   2.4. Altermundialismoaren ildotik 140
3. IPARRALDEAREN AZKEN 150 URTEETAKO HISTORIA ETA EGUNGO EGOERA 143
   3.1. Iraultza eta Hexagonoko nazio ukatuak 144
   3.2. Egungo esperantzak eta arazoak Ipar Euskal Herrian 147
4. MARX ETA IRAULTZA, EZKERRA EUROPAN 151
5. EZKER ABERTZALEAREN ESTRATEGIAREN ANALISIA, ETA NEGOZIAZIOEN NONDIK NORAKOENA 163
6. INTELEKTUALAREN ZEREGINA 173
7. LITERATUR ERREFERENTZIAK ETA INTELEKTUAL HURBILAK 179
   7.1. F. Krutwig 182
   7.2. M. Legasse, F. Likiniano (C. Hernaez, M. Chiapuso) 185
   7.3. Txillardegi 188
   7.4. Jon Mirande 193
   7.5. Murray Bookchin 196

IDAZKIEN ZERRENDA 201

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK 209

Sarrera

Denbora azkar joaten da, eta trebezia ikaragarria dugu iragan hurbila bera ere azkar ahazteko. Duela berrogeita hamar edo berrogeita bost urte gurean —Franco hilurren zela edo hil berritan— eta nazioartean ere puri-purian zeuden gaiak —artean mendebaldearen eta sobietar munduaren arteko *gerra hotza* indarrean—, erabat hilak ez baina baztertuak bai badaude.

Bizitzen ari garen COVID-19 koronabirusaren pandemiak oraindik, egia esan, sumatzen ez ditugun aldaketaren batzuk ekar ditzake, baina esan bezala, duela lauzpabost hamarkada kontzientziatuen eta borrokalarienen artean iraultza soziala burutan ateratzeko boladan zeuden pentsamenduak atzenduak ditugu, are garai hartan gogoan erabili genituenok ere, eta, jakina, zer esanik ez, garai haiek bizi ez dituzten belaunaldi eta gizabanako gazteagoek.

Liburu honetan barneratzea memoria-ariketa bat egitea da, besteak beste. Emilio Lopez Adanek ETAn egindako ibilbidea eta praktikarekin batera hark erreferentetzat hartutako pentsalarien ildoan garatutako pentsamenduaren nondik norakoak aletzen hasi aurretik, atariko gisa, egoki deritzot memoria kolektiboaren garrantzia eta batez ere berrogei urteko diktadura faxista-frankistaren ondotik memoria demokratikoaren axola berebizikoa azpimarratu duten autore zenbaiten ideia batzuk biltzeari.

José Vidal-Beneytok, esaterako, Jean Viarden liburu bati jarraituz, *Memoria democrática* deritzan liburuan, honela dio:

> Pero la memoria colectiva no sólo «sirve para establecer la identidad de cada grupo sino que es el instrumento político (…) que contribuye a fijar las relaciones de poder entre ellos». De aquí el inevitable conflicto entre memorias en toda comunidad, de la que la excelente monografía de Rousso, sobre las «memorias partisanas», que proliferan en la historiografía francesa después de la Segunda Guerra Mundial, es un aleccionador ejemplo. Para la prevalencia definitiva de unas sobre otras, el proceso de su respectiva construcción —con la función que cumple, por una parte, la selección/objetivación/simbolización de los hechos y, por otra, la legitimación de los discursos rememorativos— es absolutamente determinante (Vidal-Beneyto, 2007: 136-137).

Aurrerago, honela zehazten du Vidal-Beneytok espainiarrek daukaten lantegia beren memoria demokratikoa finkatzeko:

> Quienes venían del franquismo legalizaron a los que habían luchado contra él, aceptaron los principios y valores y juntos formaron la clase política actual [hemen ñabardura asko egin beharko lirateke, bereziki Euskal Herriari dagokionez]. Ahora sin fintas ni timos tienen que asumir su historia. No se trata de nostalgias seniles ni de anacrónicos ajustes de cuentas sino de fundar definitavemente en ella nuestra identidad democrática.
>
> Por eso hay que preservar todo lo que alimente nuestra memoria democrática y estimular a que la hagan posible quienes fueron sus protagonistas. Antes de que desaparezcan (…). Hemos de acometer la tarea de acopiar y salvaguardar los materiales existentes y de producir otros nuevos, realizando entrevistas y videos, suscitando memorias y textos, promoviendo investigaciones y tesis, multiplicando las lecturas de una historia que no puede ser monopolio de los partidos (…). Todas ellas, sin duda alguna, legitimas, pero, por propia opción, parciales y partidarias, formando una constelación abierta y fragmentaria que exige ser colmada e integrada con muchas otras lecturas de esa misma realidad pasada que son por ello necesarias. Y que no se intranquilicen, por favor, los historiadores profesionales y no intenten achicar esta memoria colectiva pretendiendo que ya tenemos demasiados relatos y memorias, y que ya está todo «historiado» (…). No hay identidad que no esté anclada en un pasado. El deber colectivo de memoria, la obligación pública de constituirla corresponde al derecho individual de reclamarla, a la posibilidad personal de ejercerla. Sin timos ni trampas. El derecho a la memoria es uno de nuestros derechos esenciales. Del que no puede privársenos (*Ibid.*: 176-177).

Espainiakoa Euskal Herrira ekarrita, aldeak alde, eta ez dira txikiak, eta neure xumean, horrelako zerbait egin nahian dihardut nire lan guztiekin, gizabanakoei eskainitakoekin bezala 50eko hamarkadari eskainitakoekin. Guk ez daukagu, bestalde, historia gehiegi izatearen aitzakiarik gure memoria-eskubideari erantzun eta hura baliatu nahian iragan hurbilaren historia finkatzen eta osatzen ez enplegatzeko. Eta badakigu gure gisakoek egiten ez dutena beste batzuek egingo dutela bestelako asmo eta xedeekin.

Eta zergatik hautatu dut oraingoan Lopez Adan «Beltza»[1], iragan hurbilaren berreskuratze kultural honetarako? Joxe Azurmendik jarri ninduen haren bidean, eta ez zait damutzen lan honi ekin izana.

Hasteko, ondo dator gogora ekartzea Lopez Adanek bere azken liburuaren atarian Erri de Luca-ri ostu dion aipua: *«Kontatzen duen gaia baino txikiagoa izan ohi da idazlea. Istorioa alde guztietatik eskapatzen zaiola erakutsi behar du, bakarrik haren zati mehe baten idazteko gauza dela nabaria utzirik»* (Lopez Adan, 2014a: 4). Nik ere hala aitortzen dut atariko honetan: Lopez Adanen obraren zati bat baino ez dut agertzen. Gaur arte bederatzi liburu eta liburuxka bat, eta berrehun artikulutik gora argitara eman ditu, horietarik asko aski luzeak. Testu andana horretan guztian ezinbestean aukerak egin behar izan ditut, eta zenbait lan baztertu.

1. Hemendik aurrera «Lopez Adan» bakarrik erabiliko dut. Anarkista gisa idatzi duenean «Beltza» izengoitia erabili du, eta, intelektual moduan idatzi duenean: Emilio Lopez Adan.

Eta, zer dago liburu honetan, bada? Aurkibidean, ikus daitekeen bezala, hiru partetan partitua da. Lehen partea, biolentzia politikoaren memorien gainekoa da.

Lopez Adanen jardueran alde ideologiko-intelektuala gailentzen da; gehiago izan da teorikoa ekintzailea baino[2]; hori esan orduko erantsi behar da, baina, alde teorikoa praktikarekin oso loturik garatu izan duela beti, eta, jakina, ez berak bakarrik, bere erreferentziek ere bai —bat itzal handikoa F. Krutwig—. Horregatik, batzuetan eragin handiagoa zuten esan dezagun Lopez Adan bezalako intelektualek militante ekintzaileen gainean, eta beste batzuetan, militante ekintzaileak ziren erabakiak hartzen zituztenak, teoriko-intelektualekin eta erakundearen barne-egiturekin kontatu gabe —batzar orokorra, biltzar ttipia, exekutiboa—.

Militantziari dagokionez, erabat harturik, 1964tik 1974ra ETAn militatu zuen[3]. Erakunde horretan sartze-irteteak ez zituen militante-txartelak egiaztatzen, eta, beraz, beste irizpide batzuei kasu egin behar, argitasun zerbait egiteko. Gauzak argiago zituelako eta militantzia aldetik antolatuago zegoelako hain zuzen 1964ko urtea jo liteke erakundeko kide egin zen urtetzat.

Erakundean engaiatuena noiz egon zen? Esan liteke 1966ko amaieratik 1968ko iraila arte. Biltzar Ttipiko kide izendatu zuten 1967an, ETAren V. Biltzarraren bigarren partean, Getarian egindakoan. Bi urte inguruko tarte horretan medikuntza-ikasketak utziak izan zituen, denbora erabat erakundearen zerbitzuan enplegatzeko. Ondotik, Bruselara erbesteratu zen beste batzuekin batean (1968ko udazkenean, etakide gailenak Bruselan J. Madariaga eta F. Krutwig ziren). Beste bospasei urtetan, 1973 arte, oso lotua egon zen erakundearen bizitzarekin.

Eta irteera noiz, eta nola, gertatu zen? Lehenik, ez zuen gutun publiko edo pribaturik idatzi erakundetik aldentzeko zituen arrazoien berri zehatza emanez. 1973-1974etan ez zeukan erakundean antolakuntza-ardurarik, eta militante libre gisa ibili zen. Ingurukoei bazihoala esan zien, eta Langile Fronteko jendearekin joan zen —haiek fronte militarrekoei egiten zizkieten kritikak: zentralismoa, aktibismoa eta langileen alderdiaren kalterako fronte nazionalaren aldeko jarrera nazionalista burges-txikia—. 1976ko hasieran itzuli zen Bruselatik Angelura.

LAIAkoek edo Komando Autonomoetakoek haren ikusmoldeak erabili izan dituzte. LAIArekin harreman estua bai izan du, sorkuntza politiko-estrategikorako hausnarketan elkarri lagunduz, baina militantzia organikorik ez.

XX. mendeko 70eko hamarkadatik XXI. mendera etorriz, Iparraldeko Abertzaleen Batasunaren «karta» edo militante-txartela izan du 2003tik 2012ra, hain zuzen ETAk ABko militanteak «torturaren konplizeak» zirela esan zuenetik, ETAren

2. Honela jaso zuen Antoni Batista Viladrichek *Madariaga. De las armas a la palabra liburuan* (2007): «*DM dijo públicamente, años más tarde, que Txillardegi, Krutwig, Txabi Etxebarrieta, Beltza y Argala habían sido los teóricos más lúcidos de toda la historia de la organización*»; DM delako hori «De Madariaga», Julen Madariaga da (Batista, 2007: 130).

3. Puntu hauei buruz, Lopez Adanek berak eman dizkit argitasunak, 2014-06-08an igorritako posta elektroniko batean. Hari buruzko beste testuetan, 1963-74 azaltzen da.

su-etena arte. Helburua: kaltegarritzat jotzen zuen ETAren estrategia armatuarentzat bukaera duin baten bila aritzea, ezker abertzalearen barnetik horretan ausartzen ziren adiskideen laguntzaile moduan. Hondarrik hondarrenean, etika iraultzailea baztertu izana leporatzen zien etakideei; herriaren askatasunaren aldeko borrokara irten etxetik, herriaren sostengua bilatzetik aldendu, eta leninista autoritario zanpatzaile bilakatu izana.

Bigarren partean, berriz, iraultzaren eta bortxaren arteko harremanez Lopez Adanek aditzera emandakoak tolesten dira. Zerikusi handia dute gorago aipatu dugun etika iraultzailearekin. ETAren faseak ondo bereizten dira, frankismotik hasita, eta Lopez Adanen iritziak beste analista frantses eta amerikarrekin eta erkatzen dira. Asko markatu gaituen gai bati buruz argudio ugari, askatasun eta erantzukizunetik.

Hirugarren partean, zenbait gai jakingarri jorratzen dira: nazioa eta estatua, nazionalismoa eta humanismo unibertsala, demokrazia eta naziotasuna; Iraultza eta Hexagonoko nazio ukatuak; egungo esperantzak eta arazoak Ipar Euskal Herrian; Marx eta iraultza, Ezkerra Europan; Ezker Abertzalearen estrategiaren analisia, eta negoziazioen nondik norakoena; intelektualaren zeregina: literatur erreferentziak eta intelektual hurbilak: F. Krutwig, M. Legasse, F. Likiniano, Txillardegi, Jon Mirande.

Iruzkinez zipriztindu ditudan artikuluetan ematen diren argudioak eta egiten diren gogoetak oso argigarriak dira egun bizi dugun egoera sozioekonomikoa eta politiko-kultural-linguistikoa hobeki ulertzeko. Urteak eta hamarkadak ere iragan arren, ez dute interesik galdu. Irakurlea baieztapen hori ukatzera edo berrestera gonbidatzen dut, astiro irakurri ondotik.

Bizpahiru esalditan, honela laburbil liteke Lopez Adanen izaera eta ibilbidea, beharrik, burutugabea, jarraitzen baitu ideiagintzan, mintzagintzan eta idazgintzan: euskaltzale porrokatua, abertzale eta independentista, baina estatuaren etsai —estatua beti gutxiengo bat gehiengo bati nagusitzeko tresna zapaltzaile bat da Lopez Adanentzat—, eta horregatik, balizko euskal estatuaren aurkakoa, azken helburu gisa behinik behin; humanista, baina iraultzaile gisara, askapenerako bortxaren beharra onartzen duena; ezker abertzalearen munduan sortu, hezi eta hazia, baina ENAM gobernatu duen militarismo autoritarioaren aurka, eta ikusmolde libertarioa atxikiz beti, 70eko hamarkadaren hasieratik honaino.

Horretxegatik egiten diogu gorazarre modukoa testu xume honekin: bere posizioari irmo eusteagatik, hamarkadarik hamarkada, eta argudio interesgarriak oparitzeagatik.

ESKER EMATEA

Eskertzen diot Joxe Azurmendiri Lopez Adanen bidean jarri izana; eta, Lopez Adani bereziki, testu hau idazteko eman didan laguntza zinez handia. Okerrak nireak dira; eta, zuzenetan asko harenak.

I. Biolentzia politikoaren memoriak

1. Lehen urratsak erakundean

Gorago adierazi bezala, 1964an lotu zitzaion erakundeari. Nolatan lotu zitzaion erakundeari?, nork edo nortzuek bildu zuten erakundera?, zer egiten zuten erakundean lehen urte haietan?

Lehen galderari dagokiola, oroz lehen, gerra-galtzaileen familietako giroari ematen dio garrantzia, eta aldi berean orduko zapalkuntza itzelari erantzun beharrari eta erantzun nahiari:

> Gure familietan, oro har, giroa euskaltzale eta errepublikanoa zen. Gerlako galtzaileen haurrak. Andoainen [V. Biltzarraren lehen partea Gaztelun egin zen, ez Andoainen. Aurrerago azalpena] gure artean zen Jesus Estradak, demagun, osaba izan zuen Azazetan fusilatua (...). Zapalkuntzaren azpiko isiltasuna astuna zen, lodia, likitsa. Zeozer egin behar zela hasi ziren ETAko lehen militanteak eta ber-bidetik ekin genion gure belaunaldikoek, Araban 1963 inguruan: isiltasuna hautsi, zapalkuntzari erantzun (Lopez Adan, 2014a: 5).

Horretaz gainera, erakundeko zein liberatu hurbildu zitzaizkien? «*Guregana gero heldu zirenak, Buruzagitzaren ordezkariak ziren: gogoan dut Xabier Imatz bizkaitarra. Bazen gero Bulego Politikoa, ideia berriren sortzailea, eta haren aldetik Angel Uresberueta eta Barrutia anaiak ezagutzen genituen*» (*Ibid.:* 6). Oker interpretatzen ez badut, ematen du hasierako une hartan Lopez Adanek ez zuela erakundean inor izan itzal handia utzi zionik. Geroago, F. Krutwig bat, eta beste banaka batzuk, baina hasierako unean eragin handirik inorengandik ez zuela jaso iduri du.

Zer egiten zuten?:

> Biziki gustuko genituen mendiko egun bereziak, Urbikoak bezala, euskaldunen artean biltzekoak (...). Handik behera, askotan erromerietan erosten ziren dominak papoan joaten ginen. Medailan Ama Birgina, bai, baina hiru xingola mehe ere, zuri eta berdea (...). Euskarari ere atxikiak ginen (...). Beste militanteak bezala, ETAk emandako urratsak guk ere eginak genituen. Euskalduntasuna historiarekin (hain hurbila) eta hizkuntzarekin lotzen genuen. Biolentziaren beharra onartua geneukan (...). Oro har, askatasuna lortzeko biolentzia erabiltzea beharrezko eta eragingarritzat jotzen zen, berdin iraultza sozialistaren bidean edo kolonialismoaren aurka. Arazoa ez zen aukera, baizik eta gaitasuna (...). Biolentziaz, Gasteizen ez genuen deus egin. Ilegala, asko, batez ere paper-banaketak eta tinduak, baina frankismo pean gauza asko zen legez kanpokoa (*Ibid.:* 5-6).

Gorago jaso dugu berarengandik labur-zurrean familiaren printzipioen berri. Eta ikasketak? Medikuntza ikasketak Valladoliden hasi zituen, eta gero Bruselako Unibertsitate Librean bururatu Ginekologia-Obstetrizia espezialitatean. Gorago adierazi dugu erakundearen barruan ardura handiagoak bereganatu zituenean ikasketak utzi egin zituela 1966. urtearen amaieran, eta berriz 1968ko irailean ekin ziela Bruselan, eta han bururatu zituen.

Valladoliden ikasle eta irakasle interesgarriak ezagutu zituen; han egin zituen marxismoaren lehen ezagutzak, eta jada han ikusi omen zuen argi: jainkorik ez zela eta nagusirik ere ez zuela nahi, hots, bi konbentzimendu anarkista nagusien jabe egin zen.

Garai hartako Lopez Adanen zenbait alderdi publikoren berri Eduardo (Teo) Uriartek eman dizkigu bere memorietan. Harreman handia izan zuten biek haur- eta gazte-denboran, baina ibilbide politiko-ideologiko oso ezberdina egin dute, eta Uriarteren memoriak irakurrita, garbi sumatzen da erakundearen baitan egindakoak hastio dituela, eta gaztetasuneko abentura eta erokeriatzat jotzen dituela hortxe nonbait, Lopez Adanen ikuspegitik oso urrun. Paragrafo honetan kontatzen digu garai hartan nola bilakatu zen erreferente Lopez Adan, jendaurreko hitzartzeen bidez:

> Emilio López Adán (...), siempre había sido un estudiante brillante, pero empezó a destacar con sus intervenciones públicas. Con un estilo quizás un poco ampuloso, empezó a sobresalir con descaradas declaraciones políticas, tomando un protagonismo que se nos hacía un poco extraño en una generación forjada en la uniformidad y el anonimato. Iba de nacionalista. Recordaba hechos como el que se había producido dos años atrás, cuando pusieron una bomba en el Gobierno Civil. Pocos días después, la policía hizo en Bolueta una masacre con un turismo, posiblemente porque confundieron a sus ocupantes con los que habían puesto la bomba en Vitoria. Le gustaba comentar hechos como ésos. Se convirtió en un referente (Uriarte, 2005: 54).

Beste paragrafo honetan kontatzen du hark nola erakarri zuen erakundera:

> Salimos a pasear una tarde por los alrededores de Vitoria. Me echó un discurso previo bastante notable: dijo que los de enfrente eran mercenarios y no se batían con moral y convicción por el régimen, cosa que era más falsa que los duros de madera. Terminó preguntándome si yo quería entrar en ETA. Y, quizá para su sorpresa, dije que sí. No cabe duda de que tenía una gran capacidad de seducción, pero aún mayores eran mis ansias de aventura y mis sueños de cazar leones. Esa noche no pude dormir por la emoción de haber entrado en una sociedad tan secreta y elitista como era ETA. Se iba a enterar el mundo, y de paso mi padre, de lo que yo era capaz (*Ibid.*: 59)[4].

Goragoko ohar baten adierazi dut ETAren V. Biltzarraren lehen partea Gaztelu herrixkan egin zela eta ez Andoainen. Lopez Adan eta beste hiru burkide *obrero* gasteiztar —bera, orduan, estudiantea zen—, Andoainen zeuden gelditua erakundeko norbaitekin —handik 20 km errepidez Gaztelura—, baina azken momentuan ez zen inor azaldu eta Gasteizera itzuli ziren. Oso ziur ez badaki ere, iruditzen zaio

4. Beren ibilbidea karikaturizatuz erakundearena karikaturizatu nahi izan dutela iruditzen zait.

erakundearen barruan eztabaida ideologikoak puri-purian zeudela eta deitzaileek irabazi nahi zutela bozketan eta ez zirela gasteiztar militante ezezagun samarrez fidatzen, obreristegiak edo agian. Nolanahi ere, V. Biltzarreko lehen zati horretan 18 militante baino ez ziren elkartu, eta Getarian, aldiz, 1967ko martxoan berrogei elkartu bide ziren, eta han bai, Lopez Adanek txostena aurkeztu zuen, eta beste bederatzi burkiderekin batera Biltzar Tipiko (BT) kide izendatu zuten. Esan beharra dago lehen parterako ez bezala, orduan Arabako ordezkaritzari egin baitzioten dei, bigarren parterako zuzenean berari deitu ziotela.

F. Krutwigek V. Biltzarrean ezagutu zuen, eta ez omen zion marxista itxura hartu: «*Bosgarren Biltzar Nagusian ezagutu hindukadanean, hi ez hintzen marxista, eta horretatik aski urrun hintzen: niretzako, gehiago hintzen kubazalea eta anarkista»* (Lopez Adan, 2014a: 13). Segur aski Krutwigek iritzi hori aterako zuen han Lopez Adanek aurkeztu zuen txostenetik. Ez du gordetzen txosten hori, baina horretaz honela dio bere memorietan:

> 1966ko Estatu espainolean ez zen posible testu marxisten lortzea, ez liburutegietan, ez liburu-dendetan, baina marxismoari buruz idazten zena kontsultatuz testu marxisten ezagutza partziala posiblea zen. Hain zuzen, jesuitek aldizkari bat sortua zuten (Razón y Fe) marxismoaren eta katolizismoaren arteko harremanak ikertzeko (…). Irakurketa horietan ikusia nuen jesuiten arazo handia zela klase-borrokaren analisi politiko-sozialen ondoan marxismoak zuen «eskatologia», «kosmologia», «kosmobisioa» eta dena-delakoa, kristautasunarekin parekatua: kasik, bi «fedeen» arteko gatazka gisa (…). Ez nuen formazio filosofiko handirik, ez eta aholkulari onik ere; termino guzti horiekin nahasten nintzen. Baina gauza nintzen metodo zientifikoaren eta erligio kontuen arteko diferentzia egiteko. Bosgarren Biltzar Nagusiaren bigarren partea hurbiltzen zela eta, Branka taldearekin arazoa izanen zela gero eta argiagoa izanik, ponentzia bat antolatu eta eraman nuen, helburua marxismoari atea irekitzea Imatz bezalakoak lasaituz. Bereizketa bat egiten nuen: marxismoa, errealitatea sozio-politikoa ezagutzeko metodo bezala, eta marxismoa, fedea, kosmobisioa, eskatologia edo nik dakita zer. ETAk lehena, metodoa, onartu behar zuen eta bigarrenean militanteen kontzientzia libre utzi. «Kosmogonia» terminoa erabili nuen, desegokia zena; Biltzarrak ez zidan termino konturik hartu eta ponentziaren edukia bai onartu zuen (*Id.).*

Hain justu «kosmogonia» delako hitz hori erabili izanaren lotsaz ez du gordetzen txostena. Lekukotasun horren bidez jabetzen gara, besteak beste, marxismoa ondo ezagutzea garai hartan zein zaila zen Espainian. Arrazoi pertsonalak nola tartekatzen ziren ere bai. Gasteizko taldetxoaren kontaktuetako bat izan zen Imatz, eta ez zuen hura batzarrean baztertua senti zedin nahi, eta horregatik hark onartzeko moduko txostena prestatzen ahalegindu zen, aldatu berri dugun aipu horretan jaso dugun bereizketa hori eginez: marxismoa bai, metodo gisa gizartearen analisirako, baina marxismoaren mundu-ikuskera materialista ez; hots, fede-kontuak militante bakoitzaren gain utzirik.

1964tik 1967ra erakundeak bere bilakaera egina zuen. Kontu egin behar da EAJrekin 1958-59an harremanak eten zituztenetik, erakunde berriak ekintzetan ez

ezik ideologia kontuan ere bere burua finkatu beharra zuela, EAJtik aldendu nahi eta behar ere zuela erakunde beregain gisa finka zedin, eta horretan ari ziren.

Irakurria zuten Larrinagako kartzelan J.L. Zalbidek idatzitako *Carta abierta de E.T.A. a los intelectuales vascos*, *Zutik* 25ean argitaratua, 1964ko irailean, eta haren berrargitalpen osatuagoa *Zutik* 30ean, 1965eko ekainean argitaratua. Gutun gogoangarria da hainbat aldetatik: idatzita dagoen molde erakargarriagatik, mezuaren hartzaile zein jotzen dituen kontu eginik… errepara esaldi hauei:

> Nosotros, militantes de la organización que impulsa este fenómeno, queremos con esta carta exponer claramente en pro de qué y contra qué luchamos (…). El segundo objetivo de esta nuestra primera carta dirigida a los intelectuales vascos, poetas, profesores, pintores,escultores, músicos,sacerdotes, novelistas, periodistas, técnicos, investigadores, filósofos, dramaturgos, actores, cineastas, ensayistas, profesionales liberales…es abrir un sincero diálogo con vosotros (…). No podéis, no tenéis derecho a permanecer ciegos y sordos, neutros, ante las convulsiones que agitan a un pueblo (políticamente, religiosamente, estéticamente, socialmente, culturalmente, en fin existencialmente) en su lucha por su total liberación, por intentar llegar a SER otra vez (…). Quisiéramos, como ya hemos dicho, entablar un sincero diálogo con los intelectuales vascos, y una gran parte del bajo clero vasco constituye hoy un sector nada despreciable dentro de nuestra intelectualidad. ETA no es partido político sino un movimiento [EAJ Espainiako II. Errepublikaldian bezala, alderdia baino gehiago gizarte mugimendu zabal bat] que quiere alcanzar las aspiraciones de libertad y progreso de todos los vascos. A estos efectos, recordamos que nuestra ideología no es un sistema acabado y estático sino la síntesis actual de las ideas de sus militantes y que, desde luego, es susceptible de evolucionar y completarse con la aportación de TODO el pueblo. En esta labor, creemos que los sectores religiosos de Euzkadi deben tomar una parte muy activa[5].

Gutun horren bigarren argitalpenak honela zioen azken orrian:

> ¿Quieres hacer algo positivo por la Revolución Nacional Vasca? Reúnete con unos amigos y discute esta CARTA. Escribe sin miedo las críticas, sugerencias e ideas de todo tipo que hayan surgido a lo largo de la reunión. Pon el escrito en un sobre (…). Entrega el sobre cerrado a cualquier persona de las que tú conozcas relacionadas con E.T.A.[6].

Eta EAJtik aldentzeari zegokionez, errepara adierazpenoi:

> Nuestra ideología pretende, pues, responder a las necesidades de los vascos de HOY. Esto nos permite desprendernos del llamado «nacionalismo histórico», que debe quedar en su verdadera dimensión de HISTORIA VASCA para dar paso a un NUEVO NACIONALISMO o PATRIOTISMO, actual, progresista y combativo, consecuencia lógica de las realidades actuales (…). Nosotros, vascos, tenemos la obligación de construir una sociedad que solucione nuestros problemas y al mismo tiempo pueda aportar algo al concurso de los pueblos; para eso necesitamos primero hacernos con

5. in Hordago (arg.) (1979): *Documentos Y*, III. tomoa, Lur, Donostia, 279 eta 287..
6. *Ibid. Zutik* 30, 10.

> un AUTOGOBIERNO NACIONAL. Autogobierno, es decir, ser nosotros mismos quienes decidamos nuestro destino, y no poderes extranjeros; nacional, es decir, de TODOS LOS VASCOS, de Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Lapurdi, Nafarroa y Zuberoa, no de lo que abarque un Estatuto concedido en un momento de apuro. Resumiendo: INDEPENDENCIA Y REUNIFICACION POLITICA NACIONAL[7].

Gutun horrek txunditu zituen, eta horren egilea J.L. Zalbide, Bergaran, banku baten lapurretan atxilotua, etsenplutzat hartua zuten —kontuan izanik Zalbide laster Iturriozen taldera bildu zela, marxista-espainolistenera esan dezagun, aitortza horretan zor-kitatze gisako bat ere badagoela esango nuke, hots, ideologia aldetik aski hurbil ibilki begiramen gutxi(egi)rekin baztertu izanak sortutako kontzientzia txarrak eragina, hortxe nonbait!— ; eta, gainera, ETAk gaztigatua zuen independentzia gabe ez zela *Euzkadi*rik izango, ez eta euskararik, eta bortxarik gabe ez zela independentziarik izanen, ez euskararik eta ez Euzkadirik. Iraultzaileentzat desjabetze edo konfiskatzeak egitea (banku-lapurretak eta!) beharrezkoa zen.

Zalbide eta Eskubi, Bergarako lapurretaren ondotik atxilotu edo erbesteratuak ez zituzten ezagutzen, Gasteizko ETAren talde txikira heldu zirenak Buruzagitzaren ordezkariak ziren, esaterako, Xabier Imatz, «felipeen» aurkako borrokan oso aktiboa, eta halaber oso kristatu fededuna, eta Bulego Politikoko Angel Uresberueta eta Barrutia anaiak.

Delako intelektualei zuzendutako gutun horretara berriro etorriz, bigarren edizioan, berriro ere, intelektualei lanerako gonbita egiten zitzaien.

> Vosotros, trabajadores intelectuales, habeís experimentado muchas veces la angustia de buscar el camino más justo. Sabeis que hubiera sido para nosotros infinitamente más cómodo presentar unos cuantos principios dogmáticos y escudarnos tras ellos como tras «verdades reveladas». Hemos elegido el camino más duro y estamos orgullosos de ello. A vosotros os corresponde ahora continuar la dificil tarea de edificar una ideología que responda verdaderamente a las necesidades del pueblo vasco en 1965[8].

Ez dugu bilakaera ideologiko horren jarraipen xehatua egitea xede; alabaina, jakingarria iruditu zaigu nola joan zen ideologia eraikitzen eta finkatzen aditzera ematea: 1962ko maiatzean egindako lehen batzarrean onartu zituen ETAk bere printzipioak, baina haiek berrikusten eta osatzen joan zen urterik urte 1966ra heldu arte, eta, azpimarratu dugun bezala, dei argia eginez era guztietako intelektualei lan horretan parte har zezaten.

7. *Ibid.* 284.
8. *Ibid. Zutik* 30, 6.

2. V. Biltzarraren garrantzia

V. Biltzarra axola handikoa izan zen, lehenbizi, erakundearentzat, eta halaber Lopez Adanentzat. Lehen partean ez zen izan Lopez Adan esan dugun bezala, baina han lehen zatiketa garrantzizkoa gertatu zen.

Ideia berrien sortzaile izan behar zuen Bulego Politikoak: han ziren Patxi Iturrioz, Eugenio del Rio, Angel Uresberueta, Antton Elosegi, jende ondo prestatua, erreferentzia klasiko eta modernoen jabea, Lelio Basso eta Ernest Mandel marxista handiak irakurriak, eta:

> Iraunkor izanen zen arazo baten aurrean gertatu ziren: klase langileari begira, Hego Euskal Herriko langile gehienek ez zuten euskal kontzientzia nazionalik; langile guztiok batzeko eta trinkotzeko, bide «zuzenena» hauxe omen zen, bereizkuntza nazionalik ez egitea. Behin urrats hori emana, bigarrena berehala zetorren: kapitalismoak kontrolatzen zuen estatu espainolaren aurka, estrategia bat eta batua Estatu osoan zen «egokiena»; eta, noski, militante euskaldunen nahiak asetzeko, autodeterminazio eskubidea eta euskaldunen ezagutza kulturala onartzen ziren. Hots, estrategia estatalista iraultza sozialistarako, eta autodeterminazio eskubidea arazo nazionalei irtenbide demokratikoa emateko. Baina gu bezalako abertzaleentzat, bide hori ez zen hain zuzen, «egoki» edo begi-bistakoa (Lopez Adan, 2014a: 7).

Eusebio Osa bera ere planteamendu horietara lerratu zen 70eko hamarkadan. Hori zen politika-ildo bat: estrategia iraultzaile estatalista marxista, Euskadirentzat autodeterminazio-eskubidea aitorturik (Sudupe, 2013: 139 eta ond.).

Bigarren politika-ildoa *Branka* aldizkarikoena zen: Txillardegi, Benito del Valle, eta gogaideak. Xabier Imatz izan zen Lopez Adanentzat taldearen berri-emaile eta V. Biltzar Nagusian joera horren ordezkari. Hots, denak fronte nazionalaren aldekoak ziren. Labur-zurrean adierazirik: arazo nazionalak eta sozialak biga ziren, bereiziak, ez txanpon beraren aurkia eta ifrentzua, eta lehentasuna arazo nazionalak izan behar zuen. Estrategia estatalista guztiz gaitzesgarria zen eta baztertu beharrekoa.

Eta hirugarrena eta azkena V. Biltzarrean nagusitu zena, batez ere Jose Antonio Etxebarrietak landutako *Txatarra* txostenean garatzen zena, eta Bruselan Krutwigek eta Madariagak eta landutako *Txosten Berdea*-n, eta gero Jose Mari Eskubik, garai hartan erakundearen buru gisakoa, manipulatu omen zuena; horien iritzian arazo nazionala eta soziala arazo beraren bi alderdi ziren, eta bi alderdi horiek uztarturik, borrokarako indar eta ahalmen gehiago metatuko zen.

Lopez Adanek eta, lehendik ere izan zituzten desadostasunak Bulego Politikoaren ildokoak ziren lagunekin, bereziki *euskalduna* definitzeko orduan: «*Etorkin batek trena hartzen dik Extremaduran, eta espainola duk. Gasteizen jautsi, beti espainola. Lan-kontratu bat firmatzen dik, eta euskalduna duk engoitik, beste ezertan aldatu gabe. Honek esan nahi dik euskalduntasuna ez dela ezer!*» (Lopez Adan, 2014a: 11), eta V. Biltzarraren ondotik zakar hautsi zituen harremanak Jokin Barrutia eta Angel Uresberuetarekin. Zakarregi memorietan aitortzen duenez[9].

ETAren V. Biltzarrak pentsaera finkatze aldetik arrakasta lortu zuen. Zein ziren nazionalismo berriaren ideologiaren harroinak? Lopez Adani hitza emanez:

> Bosgarren Biltzar Nagusian finkatu zen pentsaerak baditu koherentzia eta argitasuna. Horren arabera, Mendebaleko Europan, hizkuntza propio eta jatorri komuna duen jende-multzo zabala dugu «etnia»; bere buruaz kontzientzia duen momentutik eta, bereziki, burujabetasuna aldarrikatzen duenetik, nazio bilakatzen da. Hori ez da posible azpiegitura ekonomiko eta sozial garatu bat ageri arte (…). Nork osatzen du Euskal herria (populua)? Euskal proletariatuak eta beste klase sozialen zatiki zanpatuek. Euskal Proletariatu Nazionala: Proletariatu euskalduna zanpatua da nazio gisa, bere kultura nazionala eta bere hizkuntza kendu dizkiotelako. Proletariatu immigratua: Oligarkiak ekonomikoki zanpatzen du. Zapalkuntza sistema osoki ukatzen du proletalgo horrek, jende ustiatua delako. Baina kultura espainolekoa da, eta bere borrokan ez ditu sartzen euskal herriarentzat utz ezinak diren osakin kultural eta sozialak: horrela egiten duelarik, objektiboki euskal herriaren zapalkuntzari laguntzen dio. Euzkadi eta euskal herria askatzeko prozesuan integratzen diren etorkinak, euskal populuaren partaideak dira (…). Nola garatzen da nazionalismo iraultzailea? Nazionalismo iraultzailea herri borrokaren bidez garatzen da. Orain arteko borroka metodoak euskal nazionalismoan nagusi zen euskal burgesiaren interesen arabera garatu dira: burgesia hori erreformista da arlo nazionalean eta bere interesak defendatzen ditu sozialean. Nazionalismo iraultzailea borroka orokorra da, errealitatearen alor guztiak (kulturala, soziala, ekonomikoa) bere gain hartzen dituena eta horregatik da, bereziki, borroka politikoa (…). Nazionalismo iraultzaileak argi utzi behar du okupatzen gaituzten bi Estatuen jarrera zanpatzailea. Borroka metodoa ekintza-errepresioaren goranzko espirala izanen da, eta hau lau frenteetan (kultural, politiko, ekonomiko eta militar), euskal langileriak boterea hartu arte (*Ibid.:* 15).

Ekintza-errepresioaren goranzko espiralarena Zalbideri zor zitzaion[10], lehenago gerra iraultzailearen nolakotasunaz Madariaga aritua zen *La insurrección en*

9. «*Urteak pasa behar izan ziren nire burua berriz ikusteko eta oso diziplinatu eta sobera motz izan nintzela garbi erabakitzeko. Behar bada, sobera goiz zen ikusteko estrategia estatalista eta nortasun nazionalaren grina dutenak alde batetik, eta estrategia abertzalea eta internazionalismoaren grina dugunok bestetik, elkarrekin eta errespetuan ibil gaitezkeela*» (Lopez Adan, 2014a: 12).

10. «Bases teóricas de la guerra revolucionaria»: «*Supongamos una situación en la que una minoría organizada asesta golpes materiales y psicológicos a la organización del Estado, haciendo que éste se vea obligado a responder y reprimir violentamente la agresión. Supongamos que la minoría organizada consigue eludir la represión y hacer que ésta caiga sobre las masas populares. Finalmente, supongamos que dicha minoría consigue que en lugar de pánico surja la rebeldía en la población, de tal forma que ésta ayude y ampare a la minoría en contra del Estado, con lo que el ciclo acción-represión está en condiciones de repetirse, cada vez con mayor intensidad».* ZUTIK 30, *Documentos Y,* III. bol., Lur, Donostia, 1979-1981, 514. or.

Euskadi-n —mugarria P. Ibarrarentzat (Ibarra, 1989: 57. orrialdetik aurrera batez ere)—; lau fronteena Krutwigek ekarri zuen —*Vasconia* mugarria ere—; hots, aurrera zihoan pentsaeraren finkapena.

Txillardegik eta *Branka*-koek utzi egin zuten erakundea:

> ETA ez da haboro joera desberdinen mugimendua, baizik eta joera marxista-leninista argiko alderdia (…). Gu, sozialistak, ez gara ados doktrina marxista-leninistarekin, ez aspektu filosofikoetan ez eta estrategian ere (…). Euskal Herriaren arazoen irtenbidea, bir-batasunean, estatu independentean eta erakundetze sozialista-humanista batean kokatzen dela. Hori izan da gure helburua, eta haren ondotik jarraituko gara (Lopez Adan, 2014a: 16).

Garai hartan Txillardegi Lopez Adan bezalako koadro gazteentzat urruneko erreferentzia zen, eta hark marxismo totalitaristari egiten zion kritikak ez zien erasanik egin. Orduan kontent zen erakunde marxista-leninistako kide izanik.

Alde ideologikoa finkatzearekin batean —eztabaida sutsuenak alderdi horrek sortu zituen— erakundearen aginte organoen egituratze aldetik ere erabakiak hartu ziren. Alde horretatik Krutwig zen interesatuenetako bat:

> Erakundean agintaritza egitura iraunkor eta errepresentatiboak behar dira, zioen. Bestela, klandestinitatean eta errepresiopean eraberritzen diren Komite Exekutiboetan gerta daiteke Erakundera kanpotik eta berrikitan jinak sartzea, boterea hartzea eta dena alda, inongo kontrolik gabe. Haren ustez hori zen Iturriozen lagunek, ESBA eta FLPko «felipeek» baliatu zuten akatsa. Arrisku horien baztertzeko, Biltzar Nagusiak hautatuko zuen Biltzar Ttipia eta horrek erabakiko zuen bere burua non eta nola kokatu, Erakundearen jarraipena segurtatzeko; BTren eginkizun nagusia Biltzar Nagusiak erabaki lerroa errespetaraztea izango zen. Exekutiboak askatasun osoa izanen zuen linea gauzatzeko, baina aldakuntza estrategiko edo ideologiko nagusi baten obratzea beste Biltzar Nagusiak egin beharko luke eta ez beste inork. Bestalde, Exekutiboak ez luke inongo botererik Biltzar Ttipia kentzeko edo ordezkatzeko, eta BTko partaideen galtzearen figura-kasu guztiak (heriotza, kartzela, desertzioa) aipatuak ziren, irtenbideekin. Gehiengoak ponentzia onartu zuen arazorik gabe (*Ibid.:* 13).

Laster gertatuko ziren gisa horretako erakunde batean, noiz eta frankismoaren errepresio latzaren pean, oso gertagarriak ziren jazoerak: kartzelatzeak eta erbesteratzeak bereziki, eta erbestera joandakoek galduko zuten boterea —esaterako, Krutwig, Madariaga, Edur Arregi eta Lopez Adanek— eta barnekoek bereganatuko, bereziki Etxebarrieta anaiek eta Eskubik, gutxiz gehienen iritzian garai hartako lider gailena ETAn, eta erantzuki egingo zion Krutwigek Lopez Adani V. Biltzarrean onartutako egiturei begirunerik ez izateagatik:

> Barne arazoak ageri ziren, bai, 1967an, baina ez alor doktrinalean, egituretan baizik. Martxoan Julen Madariaga herbestera joan zen, gero Edur Arregi. Barnean ginenen artean KETen zalutasunaren arazoa planteatu zen, erantzun batekin: Hegoaldean zegoen Exekutiboa herbesteko BT urrun baten azpian ibiltzeak ez zuela zentzurik. Ondorioz, Barneko Exekutiboak hartu zuen Erakundearen agintaritza osoa. Egia esan, ez naiz

> gogoratzen zer termino zehatzetan aurkeztu zen arazoa, baina bai buruan ditut hartu genuen erabakia eta handik denbora batera Krutwigek egin zidan erasialdia: «Biltzar Nagusiko egiturak kareletik botatzeko prest hintzen hi Eskubi eta Etxebarrietarekin batera; oraindik ez diakiat nola ibili hintzen, nahitara edo manipulatua!». Eta nik ere oraindik ezin erantzun zehatzik eman. Hain segur konfiantza osoa nuen barneko lagunengan, zalutasuna bilatzen genuen oroz gainetik eta erakunde baten barneko egituren garrantziaz ez nintzen aski ohartua. Dena dela, KET bilakatu zen, bere borondatez, ETAren burua eta Biltzar Nagusiaren erabakien gainetik pasatu zen. Garai haietan, Jose Mari Eskubi zen Erakundearen barneko pertsona ospetsuena. Harekin heldu zen Erakundeko koadroak «profesionalizatzeko» lehen ideia garbia (*Ibid.:* 18)..

Erabakiak non hartzen diren, koadroen txandaketak nola egiten diren, kontu horiek guztiak beti dira axola handikoak erakunde batean, eta gagozkion kasuan ere garrantzi handia izan zuten hurrengo atalean azalduko dugun bezala. Lopez Adan igaro zen exekutiboan egotetik guztiz kanpo egotera, eta V. Biltzarreko printzipio ideologikoak zalantzan jarriak eta eraldatuak izan zirenean, borrokatu zen V. Biltzarreko printzipioak berriz atxikitzeko Krutwigekin-eta batean, harik eta 1973-74an Langile Frontearekin joan zen arte.

3. Proselitismoa

Gorago adierazia berriz adierazita: 1966ko urtearen hondarrean Valladoliden egiten ari zen medikuntza-ikasketak alde bat utzi zituen, erabat erakundeari emana ibiltzeko. Bortxazko ekintza gehiago egiteko erabakia hartu zuen Komite Exekutibo Taktikoa delakoak; horretarako talde berezi bat osatu zuen, eta hark hogei bat ekintza burutu zituen urtebetez: ikur, sindikatu eta hedabide oligarkiko-frankisten aurka, eta guardia zibilen kuartel baten aurka; eta horrekin batean, proselitismoa egiteari ekin zioten, eta Lopez Adan Hegoaldean eta Iparraldean ibili zen, guztira, urte eta erdi inguru, urtebete inguru Hegoan, eta hilabete batzuk Iparrean.

Hegoaldean, Araban ez beste lurralde guztietan ibili zen, eta denboraz epe laburra izan bazen ere, oroitzapen bizia du: han eta hemen aurpegiak desberdinak, baina guztietan kemen eta gogo handia sumatu zuen. Memorian landatutako irudietan hautatzen hasita, Bizkaiko Ibaizabal Ezkerraldekoa datorkio gogora bizienik:

> Alizia eta Solokoetxe edo Santutxuko haren taldea; haiekin, Sestaon, makina handien oinetan, potentzia iraultzailearen itxura ikaragarria ematen zuen Ezkerralde langile trinkoaren erdian, Biltzar Nagusiaren puntuak esplikatu, arazo nazional eta sozialen bateratasuna, klase analisia, borroka armatua… Doktrina eta estrategia horietan sinestuta ginen, bai. Militante oso onak baziren, denok herri-gogoaren lekuko (*Ibid.:* 16-17).

Lopez Adanek adierazitakotik, hartaz bestek esan duenera igaroz, gorago Eduardo (Teo) Uriarteren lekukotasuna jaso dugu. Orain beste burkide batena jasoko dugu: Jose Ramon Goikoetxea *Ardotxi* andoaindarrak honela kontatzen du nola sartu ziren erakundean, eta zein izan zuten bitartekari: «*Andoaindik pasatu zen lehenengo liberatua Emilio Lopez Adan "Beltza" izan zen. V. Biltzarreko erabakiak eta lau fronteen taktika azaldu zizkigun: langileena, kulturala, politikoa eta militarra. Handik aurrera gure taldea ETArekin lotuta gelditu zen ofizialki*» (Goikoetxea, 2006: 52).

Sarreran adierazi dugun bezala, poliziak hurbileko lagunak atxilotzean eta, exekutiboko kideekin desadostasunak zituelarik, Iparraldera igaro zen 1968ko maiatzean. Zer egin zuen han?

Fronte militarreko buru gisa eta errepresioa bere haragian eta inguru hurbilean oso gutxik bezala jasan zuen Juan Joxe Etxabe izengoitiz *Haundixe*-rekin elkartu zen. Pertsonaia bat zen garai hartan Iparraldean. Harekin mintzatu zen, baina arrasatearra ez zen marxismoaz edo klase borrokaz mintzatzeko solaskide egokiena, eta Lopez Adan berehala jarri zen harremanetan *Enbata* taldeko gazte ezkertiarrekin.

Paul Etxemendi, Kristiane Etxaluz eta Andde Galantekin-eta elkartzea aberasgarri gertatu zitzaion: Iparraldekoek ez zuten Hegoaldekoek bezala ezkutuan eta sasian ibili beharrik izan marxismoaz eta iraultzaz blaitzeko, askatasun gehiago zegoen eta horrenbestez, ezagutza gehiago ere; berehala joan zen, esaterako, Etxaluzekin batean Henri Lefebvre bisitatzera; bururik buru *Aski* izeneko talde polit bat bildu zuten, prestakuntza bultzatu eta txosten bat bururatu zuten: *Ipar Euskal Herriko trenpu iraultzaileaz ikerketa objektiboa* izenpean. Etxaluzek eman zion azken ukitua, Iparraldeko azpiegitura ekonomikoa, klase sozialen banaketa, historia, aipatu zituzten; eta, horren ondotik V. Biltzar Nagusiko ideia nagusiak, eta honela bururatu zuten:

> Iparraldeko eta Hegoaldeko indar politiko sozialistek bat egin behar dute burgesia nazionalarekin eta beste indar aitzinazaleekin, eta proletariatu nazionalaren zuzendaritza pean Euskadiko Frente Nazional bat eratu, zazpi probintzietan askapen nazionalerako borroka eramanen duena. Zapalkuntza burges eta kapitalistak gure herri bakarra bitan banatu du; egun, sozialismo nazionala eraikitzeko borrokan, bere batasuna berreskuratzen ari da (Lopez Adan, 2014a: 23).

Ikuspegi hori zenbateraino zegoen hedatua 1968an, Hegoaldeko etakideen artean? Sozialismo nazionala eraikitzeko borrokan Iparraldeko eta Hegoaldeko indarrek bat eginik jokatu behar zutelako ikuspegia? Zabalduena beste hau zatekeen: Hegoaldean iraultza egiteko aukera gehiago sumatzen zenez, Iparraldeko abertzaleek Hegoaldekoei lagundu behar zieten eta aterpea eskaini, eta ez Iparraldea inarrosi Hegoaldekoen segurtasuna arriskuan ezarriz.

Hegoaldera etorriz, urte batzuk lehenago J.L. Zalbidek teorizaturiko ekintza-errepresioa-ekintzaren espirala hasia zen abian Pardines guardia zibilaren, Txabi Etxebarrieta burkidearen eta Meliton Manzanas komisario torturatzailearen hilketekin, eta ondoko errepresio lazgarriarekin. Lopez Adan ikuspegi politiko hau hedatzen zebilen Iparraldean:

> Beraz, Euzkadi askatzeko estrategia bat eta bakarra beharko genuke, lekuan lekuko arazoei aitzina egiteko herrialde bakoitzak askatasun taktikoa duelarik. ETAk Iparraldeko abertzaleak lagunduko ditu bere antzeko ikuspuntu politikoak hedatzeko, eta, agian, elkarrekin borrokatuz sortuko dugu erakunde eta borroka bat batua, Euskal Frente Nazionala (Enbata 84, 1968/ Itzulia) (*Id.).*

Baina ETAko buruzagitzak ez zuen horrela ikusten; igorri zioten etakide bat aditzera emateko konfiantza kendu ziotela, beste bat jarri zutela erakundearen ordezkari, eta libre zela. Orduan Bruselara abiatu zen. Orduantxe ohartu zen lehenbiziko aldiz erakunde baten barneko botere-arazoen garrantziaz.

4. Pertsonalismoak

Pertsonalismoen azterketa egiterik ez dagokigu, baina hori esaten denean zertaz ari garen hein batean jabetzeko, ondo etorriko zaigu urte batzuen buruan ETAko buruzagi nagusietarik izan zirenen artean gertaturiko ika-mikez aipamen laburtxo bat egitea. Julen Madariaga buruzagi izan zen 1964an, eta Jose Mari Eskubi 1966-69 urte bitartean. Ikus dezagun, lehenbizi, Madariagak zer dioen Eskubiz, eta jarraian Eskubik nola jokatzen zuen eta nola interpretatzen zituen Madariagak Bruselatik igorritako gutunak, Mario Onaindiaren lekukotasunaren arabera. Lehenik, Madariaga Eskubiz mintzo:

> Gurekin batera lan egiteko, beraz, Parisen errefuxiatutako bortz etakide gazte genituen, Valoniako baserri hartan: Mikel Azurmendi, Jose Mari Matxain, Xabier Bareño, Balduino Bilbao eta Jose Mari Eskubi Bruno. Azken hori, Bruno, taldetto gaztearen eramailea zen, argi eta garbi. Funts handiko mutila zen, baina nahiko torturatua ere. Beti erraten baitzuen nahiago zuela hila izan, etsaiaren atzaparretan erori baino. Torturaz beldur ikaragarria zen, phobia ikusgarria, eta gerrian ezkutaturik zaraman pistola bat, beti prest. Buru-bero samarra zen. Hitz bitan laburbiltzeko: Pio Barojaren Zalakain abenturazaleari konparatuko nuke. Horiek horrela, gure Bosgarren Batzarra prestatzeko elkarlan politta eraman genuen, hamar egunez. Ernest Mandel pentsalariak parte hartu zuen, trotskismoa (laugarren internazionala…) jorratzeko. Hortik agiri bat idatzi genuen, gero Bosgarren Batzarraren oinarri nagusia izanen zena: El Informe Verde. Ikastaroa bururatu aitzinttoan, elkargandik bereiztea adostua genuen, han geunden zazpiok: bortz gazteak lehenik joanen ziren Euskal Herrira, eta, ondotik, Krutwig eta biok (…). Adostu bezala, lehen gutun bat igorri genion Brunori. Erantzunik ez. Bigarren bat. Erantzunik ez. Hirugarren eta laugarren bat, telephono deiak, erantzunik ez. Gure Bruno desagertua zen, airatua. Berantegi ginen ohartu ahalegin guztiak egin zituela guk Bosgarren Batzar Nagusian ez parte-hartzeko (Madariaga, 2014: 142-143).

Eta Mario Onaindiaren lekukotasuna (1969):

> Después de comer nos enseñó una carta [Eskubik]. Era de Julen de Madariaga contando las maniobras de Krutwig tanto en París como sobre todo en Bruselas. Este había tomado contacto con la embajada china aprovechando que el PC belga era el único partido comunista occidental que había asumido mayoritariamente las tesis de Pekín frente a las de Moscú, y les había convencido de que era el representante de la dirección de ETA para pedirles apoyo financiero y una emisora. Confiaba en que al contar con dinero y con lo que se convertiría en el principal medio de difusión de la organización llegaría a controlarla ideológica y políticamente al poder tener los medios para explicar las causas y objetivos del movimiento revolucionario vasco desde el exterior, algo

> mucho menos molesto que hacerlo in situ, realmente. Lo contaba Madariaga en clave detectivesca describiendo las distintas reuniones celebradas grabadas con cintas magnetofónicas ocultas gracias a la valiosa colaboración de un tal Morci; todo lo cual despertaba nuestra hilaridad porque teníamos la sospecha de que Julen había participado activamente en todo este montaje, pero se curaba en salud avisándonos. «Nadar y guardar la ropa, que se dice», concluyó Maxi [Eskubiren izengoitia]. Pero yo no podía evitar interpretar aquella carta, que Maxi nos la mostrara y realizara los comentarios que hacía para demostrarnos la necesidad de que él se marchara para evitar que el trabajo realizado con tanto sacrificio en el interior no fuera aprovechado por gente que no compartía nuestra visión de la lucha (Onaindia, 2001: 284, 385).

Eta zer diosku Lopez Adanek afera pertsonal horietaz. Belgikara heldu zenean 1968ko udazkenean, ETAren barnean aukera handirik ez zen:

> ala Madariagarekin, ala Krutwigekin. Bien arteko harremanak txarrak zirela, biek erakutsi ziguten haste-hastetik. Hor barnean baziren arazo ideologikoak eta, denen historia partikularretan bezala, arazo pertsonalak ere, berdin domestikoak; pertsonalitate azkarren artean usu gertatzen diren espazioko liskarrak, «hi handi eta ni handi», edozein lekutan agitzen dira.
>
> Erakundearen barne bizitzari begira, hasieran Madariaga eta Krutwig elkarrekin ibili ziren Hegoaldeko buruzagiek Biltzar Nagusiko egiturak aldatzeko joeraren aurka. Gauzak egonkortuta eta barnealdeko botere egitura berriak bermatuta, Madariagak oreka berria onartu zuen eta kanpoaldeko erantzule nagusi bilakatu zen, Eskubirekin harreman zuzenean. Egoera horrek eragin handia izan zuen geroko gertakarietan.
>
> Bruselan eta Lovainan bazen herbesteratu anitz, askotan klandestinitatean elkar ezagutuak, gogo handiarekin formakuntza hobekitzeko eta Erakundearen eboluzioan zerbait egiteko. Abendurako, Krutwigen ondoan multzo trinko eta polita bildu ginen. Gure asmoa, eboluzio marxista-leninista aitzinaraztea Bosgarren Biltzar Nagusiaren printzipioen segidan eta ETAn Kanpoko Federakuntza bat sortzea, beti Erakundearen barnean baina nortasun propio nahikoarekin lanean aritzeko. Madariaga ez zen taldera gomitatua, parte handiz Krutwigen debekuaz, beste partetik beldurrez Federakuntzaren sortzea oztopatuko zuela: garaian, gutiz gehienek eskarmentu zerbait bageneukan botere osoa atxikitzeko jaidurez.
>
> Halere elkarrekin biltzen ginen ETAko herbesteratu guztiak, eta noizbehinka Madariagak irakurtzen zizkigun Eskubik igorritako gutunak, usu desatseginak. Giro txarra (…).
>
> 1969ko otsailean eta Krutwigi isil-gordeka egin zizkioten grabazio nahasien interpretazioaren bidez, konplot bat «deskubritu» zen Belgikan eta Exekutiboari salatu. Akusazio nagusia: komunista txinatarrekin harremanak izan genituela alderdi marxista-leninista berri bat muntatzeko, ETAri konkurrentzia eginen zion alderdia. Akusazio osagarria (hain segur nagusia): ez zela onargarria militanteen artean kritika bat banatzea, Exekutiboaren baimenik gabe.
>
> Federiko Krutwigi, eta errebisionismo errusiarren borrokaren barnean, Espainiako marxista-leninistek argitaratu zioten *La Cuestión Vasca* liburua. Geroztik, Krutwigek

> harreman zuzenak izan zituen Txinatarren enbaxadarekin, bai eta Kubatarrekin ere. Baina alderdi berezi bat sortzeko elkarrizketak… Guk ez genuen deus entzun eta Federikok garbi gezurtatu zuen (…). Krutwig oso haserretua zen konplot istorio horrekin. Hasteko, ustez konfiantzazko jendearen bidez nola manipulatu zuten. Bestalde, gezurren gainetik, kontrol borondate bat ikusten zuen; ideia iraultzaileak aitzinatzeko, zioen, askatasuna geneukan gure artean bai eta gure lagunekin mintzatzeko ere (Lopez Adan, 2014a: 25).

Aldatu ditugun testigantzen arabera, ematen du Madariaga aski bakar gelditu zela une batean Bruselan, Krutwigekin ongi ezin eramanik eta Eskubirekin ongi eraman nahian, funtsean, baina ezinean, besteak beste, Eskubik boterea berak eduki nahi zuelako barneko lagunekin partekaturik, eta ez zelako batere fio Madariagarekin. Horrek ez zuen eragotzi, handik laster, 1970eko VI. Biltzarraren aurka bat egitea Madariagak Krutwigekin, Edur Arregi, Etxabe eta Lopez Adanekin. Gauza horiei buruz zaila da zehatz-mehatz asmatzea, erritmo guztiz bizi eta lasterrean bizi baitziren barneko etakideak bereziki, eta Iparraldean errefuxiatutakoak, eta maila intelektualagoan nahi bada Bruselakoak, baina haiek ere erakundearekin oso engaiatuak.

Arazo pertsonalak aipatu ditugu ideologikoekin lotuak. Azken horiei dagokienez, 1968-69an, espetxean J.L. Zalbidek *K. de Zunbeltz* artikulu mardul bat idatzi zuen: *Hacia una estrategia revolucionaria vasca* izenekoa, eta erakundearen barneko buruzagitzak *Iraultza* aldizkarian argitaratu zuen. Krutwigi ez zitzaion batere gustatu, eta Lopez Adan eta biok bat zetozen testu horrek Bosgarren Biltzar Nagusian aplikaturiko analisi marxistarekin hausten zuela, eta Fronte Nazionalari lotutako dinamika osoaren ordez beste zerbait zekarrela. Eta erakundearen buruzagitzak bere aldizkarian argitaratu zuenez, garbi gelditzen zen J.M. Eskubi eta haren hurbileko kideen oniritzia zuela. Horra barneko buruzagitzaren eta Bruselako —ez bakarrik Bruselako— taldearen arteko hausturaren hasiera, 1970eko abuztuko VI. Biltzarrean lehertuko zena, beste osagai batzuekin batean (Zuzendaritza/Zelula Gorriak zatiketa).

Krutwigen ustez ezinbestekoa zen alderdi marxista-leninista euskaldun bat sortzea, pentsalari marxistengan ez ezik, beste pentsalari komunista batzuen gainean ere bermaturik, txinatarren aldeko marxista-leninista belgikar edo espainiarren eredutik oso urrun, nolabait, Eusko Langileen Alderdi Sozialista bat.

Krutwigek Bruselako euskal erbesteratu taldeari gauza asko argitu zion. Esaterako, kontraesanek zuten garrantzia, edo kontraesan motak, antagonista eta ez-antagonisten arteko bereizketa:

> Kontradikzioan garrantzitsuena ez da orain handi baina behera doan terminoa, baina txikia izanik etorkizuneko bidean dena. Adibidez, euskal langilerian kontzientzia nazional euskalduneko taldea kopuru apalekoa zen, baina iraultza egiteko kontradikzio nagusien eragilea izanik, luzean hark bilduko zuen langileria osoa; halaber, Erakundean boterean zen taldea bide okerretik sartua zen, gu zuzenean ginen, eta denek aitzina

> egiteko gure independentzia Exekutiboak aldarrikatu diziplina baino garrantzitsuagoa zen (*Ibid.*: 31).

Bruselako talde horrek aldizkari bat ateratzea erabaki zuen. Krutwigek esan zien alderdi komunista bai, baina antidogmatikoa eta zientifikoa. Era berean esan zien «marxista-leninista» ez zela egokia, Marx, Engels, Mao, ados, baina baita Proudhom, Bakunin, eta Kropotkin komunista libertarioa ere. Lenin, aldiz, aparatismo eta burokraziaren sortzailea izan zela: ezagutu bai, baina kontuz hartzekoa.

Krutwigen eragina bazen, eta axolazkoa, baina aldi berean gauza ziren beren kasa irakurtzeko eta barneko eta emigrazioko iraultzaileekin biltzeko eta bakoitzak bere bidea egiten zuen, inongo diziplina ideologikorik gabe. Azkenean alderdi marxista-leninistaren formula atxiki zuten, eta Krutwigek elkarte sekretuen bidetik jotzea proposatu zienean, ez zuten onartu[11].

1969. urtearen amaierarako prestatua zuten jada, aurrerago *Gatazka* taldea izan zenaren azpi ideologikoa eta estrategikoa:

> Jende berria ere bildua genuen, Hegoaldean bereziki, eta euskara hizkuntza ohikoa zuten intelektualek eta langileek ematen ziguten nortasun berezia. Plazerrekin oroitzen naiz taldeaz, jakinik gehienek jarraitu dutela abertzaletasun iraultzaile eta euskaldunaren bidetik. Aipa ditzadan, erreferentzia gisa, Baleren B[akaikoa] eta Iñaki U[rrestarazu], sinpleki oraingo bizi politiko eta intelektualean aipatuak direlako, bakoitza berean *(Id.)*.

ETAren VI. Biltzar Nagusirako ponentzia bat prestatu zuten *A los revolucionarios vascos* zeritzana, hala eskatu baitzien zuzendaritzak, nahiz gero ez zuten banatu. Horren lagin bat euskaratua Lopez Adanek berak eman digu:

> Ez da oraino Euskadin euskal alderdi marxista-leninista bat, baina ETAk langile eta intelektual anitz hezi ditu, eta alderdi horren oinarria sortua da. ETAko sektore proletarioa Alderdi bat bilakatzea, zinezko jauzi dialektikoa izanen da. Gauzatu gabe bada ere, Frente Nazionalaren barnean, Alderdia sortuko da. Egoera berezi honetan, ETAko militante marxista.leninistak bezala eta talde batean bildurik, hauxe proposatzen dugu: –Masa ahal den zabalenak batu Frente Nazionalean. –Denbora berean, eta Frenteko zuzendari bezala, proletariatua bildu alderdi marxista-leninista batean, herriaren hezitzaile eta trenpatzailea. –Epe luzerako gerla baterako antolatu, Frente Militarraren aktibitatea gehituz *(Id.)*.

11. Liburu honen 3. parteko 7.1. atalean, berriro aldatzen ditut hainbat zati Krutwigen eraginaren garrantzia behar bezala azpimarratzeko.

5. 1970eko VI. Biltzarra

1970eko VI. Biltzarrean zinez gertatu zenaz ideia argi samarra jasotzea neke da eta gure lan honen mugetatik landa dago. Lehenik, nabarmentzea merezi du eztabaida ideologiko alimalekoa gertatu zela: baiezta liteke hanka sartzeko beldur oso gutxirekin politikaz irakurri eta idazten zuten intelektualen artean zegoela orduko etakide talde handi samarra, eta eztabaida politiko katramilatsuetan murgiltzen zirela, garaiak ere halakoak izaki —68ko maiatza/Vietnameko gerra/ekintza-errepresio espirala Hego Euskal Herrian—, egun bizi ditugunetatik oso ezberdinak. Guardia zibilak eta polizia espainiarrak, eta frantsesak beste neurri batean, errepresioaren eskolan bezala etakideak ekintzaren eta pentsamenduaren eskolan, bietan pulunpatzen ziren.

Letamendia *Ortzi* historialariak kontatzen du ezen 1970eko udaren hasieran, ETA militarrekoak V. Biltzarrean zuzendaritzarako hautaturiko batzuekin elkartu zirela (Letamendia, 1978: 360-361). Madariagak eta Krutwigek irizten zioten ETAko zuzendaritzan zebiltzan aire berriek ez zutela zerikusirik V. Biltzarrean onarturiko nazionalismo iraultzailearen printzipioekin. Eta Letamendiaren adierazpenekin jarraiturik, zioen Lopez Adan ere ETAren ildo berriaren aurka zegoela, Bruselan ezagutu eta trataturiko Krutwigekin batera, eta 70eko martxoan biek aditzera eman zutela ETAren zuzendaritzak ezarritako ildoarekiko beren haustura agertzen zutela. Era berean baieztatzen du Letamendiak Lopez Adan une hartan, batez ere Euskadi kolonia gisa ikustearen teorikoa zela. Eta egia da, Lopez Adanek berak baieztaturik[12]. Baina ideia orokor horietatik Lopez Adanen ikuspegi zehatzago batera etortzeko begira diezaiogun *Notas para una teoría del nacionalismo revolucionario* lanari.

Liburu hartan, Stalin, Lenin, Vietnamgo Giap —gogora Vietnamgo gerra bere gorian zela garai hartan—, eta batez ere Maoren ideia eta kontzeptuak gurera ekarriz, baieztapen eta ondorio hauek jalgitzen zituen, ETAren zuzendaritzaren ikuspegien aurka:

> La guerra de una parte, y la Revolución Rusa de Octubre, de otra, han transformado la cuestión nacional, convirtiéndola de un elemento de la revolución democrático-burguesa en un elemento de la revolución socialista proletaria. En 1916, Lenin decía que el fruto esencial de la cuestión nacional relativo al derecho de los pueblos a disponer de sí mismos había dejado de ser una parte del movimiento democrático general y que se había convertido («devenido») en una parte integrante de la revolución proletaria socialista general (…).

12. 2014-06-24ko mezu elektronikoz baieztatua.

Si hacemos notar que en los pueblos colonizados la contradicción principal es la existente entre ellos y el imperialismo, es decir entre Pueblo Nacional y Colonización extranjera nos daremos cuenta de que la motivación principal de lucha es en estos casos la Nacionalista. Nótese que se ha usado la acepción «extranjera» y no simplemente «imperialista». Hoy en Euskadi, el gropúsculo oportunista enmascarado bajo la utilización indecorosa de ETA y que se pretende llamar «ETA VI», está procediendo a un auténtico camuflaje de la contradicción principal de Euskadi bajo el molde de «antiimperialismo»[13] (…).

El conocimiento de las leyes universales de la lucha de clases, del colonialismo y del imperialismo permite a los nacionalistas vascos darse cuenta que hoy el nacionalismo no puede ser más que socialista, y que el enemigo fundamental de todos los oprimidos es la oligarquía imperialista, con los Estados Unidos a la cabeza. El siguiente paso para el conocimiento de la realidad, es el aplicar el conocimiento de la universalidad a nuestro caso específico y darnos cuenta de que: La Contradicción Universal: Colonias-Imperialismo, se manifiesta específicamente en Euskadi con la contradicción: Pueblo Vasco-Capitalismo Español (Sur) Pueblo Vasco-Capitalismo Francés (Norte) o dicho de otro modo Euskaldun Herri Langilea-Erdaldun Kapitalismoa.

El enemigo concreto en Euskadi no es el imperialismo yanqui, sino el capitalismo español y francés (…) nuestro enemigo no es el «imperialismo a secas», sino los Estados Español y Francés, instrumentos al servicio de capitalistas que usan como factor estructurante sus idiomas, (es decir, como factor destructor del pueblo vasco) el español y el francés (y no el ruso ni el arameo).

Los usurpadores del nombre ETA han «olvidado» dar este tercer paso en el proceso del conocimiento y nos hartan de imperialismo yanqui, no diciendo ni una sola vez que nuestro enemigo concreto es el Capitalismo Erdeldun Español en Euskadi Sur (esto al parecer para ellos es «Chauvinismo racista») (…). Al nacionalismo lo consideran como el freno principal de la lucha de clases en Euskadi. Tratan de negar el hecho nacional vasco con sus tópicos «Todo el que vende su fuerza de trabajo en Euskadi es vasco», «Todo el que está oprimido en Euskadi es vasco» (…). La argumentación de este gropúsculo tiende a difuminar el carácter más notorio y más agudo de la contradicción nacional, la oposición Euskaldun-Erdeldun, y éste es un proceder Contrarrevolucionario ya que lo que ha de hacerse es agudizar las contradicciones, y no atenuarlas (…).

Resumiendo, la práctica nacionalista tiene un papel histórico distinto según la época en que se dé y la clase que la dirija. En la época del Imperialismo y del triunfo de las revoluciones socialistas la lucha por la independencia nacional de los pueblos colonizados, no sólo forma parte objetiva de la revolución socialista, sino que es uno de sus motores. Dicho de otro modo, lucha nacional y lucha de clases no sólo no se separan sino que, de hecho, la lucha nacional es parte de la lucha de clases[14].

13. Garbi dago testu hau 1970eko abuztuan egin zen VI. Biltzarraren ondotik idatzia dela. Aurretik «A los revolucionarios vascos» bidali zioten zuzendaritzari, baina hark ez zuen banatu, frakzioak sortzen laguntzen bide zuelako. Gaur egun galdua da testu hori.

14. 1968an idatzia eta 1974an berrikusia, Hordago-k argitaratua.

Lanaren hasieran argi eta garbi aitortzen du Lopez Adanek F. Krutwigek izan duen eragina lan hori burutzean. Gorago adierazi bezala, gure xedea ez da biltzar horretan elkarren aurka agertu ziren hiru taldeen —Madariagak ordezkaturiko taldea; Zelula Gorriak, Eskubi buru; eta, zuzendaritza, Patxo Unzueta buru— jarrera eta ideia nagusiak erkatzea eta lan xehe bat egitea. Aldatu berri dugun aipu luze horretan dauden ideiekin hein batean jabetu gintezke 1970eko abuztuko biltzarrean beren ordezkari gisa Madariaga igorri zutenek zer desadostasun zituzten, hein batean. Informazio gehiago jasoko dugu aurrerago *El programa del Frente de Liberación Vasco* 1970eko urriko idatziaren berri laburra jasota.

Jada, VI. Biltzarrera etorriz, Iker Casanovak dio 1970eko abuztuan Itsasun egin zen biltzarrean parte hartu zuten 28 etakideetatik 3 baino ez zirela hiru urte eta erdi lehenago egin zen V. Biltzarreko bi parteetan parte hartu zutenak (Unzueta, Eskubi eta haren emazte Mari Asun Goenaga)[15].

Han izan zen Jose Ramon Goikoetxea *Ardotxi*-k —Patxo Unzueta, Petxo Idoyaga, Joxe Iriarte *Bikila* eta horiekin, hots, zuzendaritzakoekin zen garai hartan— honela kontatu du biltzarraren berri:

> Gertatuak gertatu, hala ere, sentsazio traumatiko samarra atera genuen gehienok eztabaida politiko haietatik. Inork baino hobeto ikus nezakeen Haundixek talde militarraren izenean antolatutako maniobra baldarra. Ez zuen aurreko eztabaida politikoetan parte hartu. Klasearteko ikuspuntu nahasietan harrapatuta, mendi giroko jarduera militarraren alde, ez zen jabetu erakundean sortutako joera berriekin, ez eta zelula gorrien eta Hegoaldeko militantziaren artean piztutako arazo politikoekin ere. Nekez uler zitekeen bestela Jose Maria Eskubi «Bruno», zelula gorrietako militante aitortuenetako baten kontra egindako salaketa zentzugabea. Juan Jose Etxabek berak, Edur Arregik, Emilio Lopez Adan «Beltzak», Julen Madariagak eta Federiko Krutwigek sinatutako agirian irakur zitekeenez, iruzurrean omen zebilen Biltzarra manipulatu nahian.
>
> Egia esan, urte asko borrokan emandako militanteak ziren, baina talde nahasi eta berezia osatzen zuten orduan. Beltza erakundetik kanpo zegoen ordurako, eta gainerakoek, Haundixek izan ezik, garai hartan ez zuten erakundearen jarduera politikoan parte hartzen. Adierazgarria izan zen Julen Madariagaren kasua; izan ere, zelula gorrien eta Hegoaldeko posizioen arteko talka entzun zuenean —ondoko gela batean zegoen bakartuta, baina entzun egin zuen— eskutitz bat zuzendu zion mahaiburuari, esanez, informazio zuzena ez izateak ez ziola errealitatea behar bezala konprenitzen utzi. (…) Eztabaidaren beroan, zelula gorriek hartu zuten hitza. Ez zuten ikuspegi estrategikorik planteatu eztabaidan. Arrazoi psikologikoak atera ziren politikoak baino gehiago, eta borroka armatuaren ondorioak aipatu zituzten batez ere. Jarduera militarrak militante despolitizatuak sortzen omen zituen, eta emaitzek ez zuten egin beharreko sakrifizioa merezi. Ildo horri jarraiki, «Makauen» Mikel Etxeberriaren eskutitz bat irakurri zuten. ETAk, bere ustez, jendearen txaloa bazeukan, baina balkoietatik egiten zuen txalo, borrokan parte hartu gabe. (…) Erabilitako metodologiak ez zuen utzi bi

15. Ikus 1970eko abuztuko ETAren VI. Biltzarraz: Casanova, 2007: 110-115.

> joeren azpian zegoen liskar politikoa azaleratzen. Zelula gorrien ustez, ordura arteko praktika politikoa «ideologia burges txikiaren esanetara zegoen, eta nazionalismoan, aktibismoan eta boluntarismoan hartzen zuen oinarri». Hegoaldeko ordezkarien iritziz, berriz, ETAren errealitatearekin zerikusirik ez zuten abstrakzioetan ari ziren lerratzen. Laster konturatu ginen bide hark ez zigula gutxieneko puntu ideologiko batzuk adosten lagunduko.
>
> Isilaldi luze baten ondoren, zelula gorriek baiezkoa eman zioten azkenean, baina, eztabaida ideologikoaren bideak zehazteko, erabaki osagarri bat sartu nahi zuten testuan. Alde batetik, tendentziaren esanahia beren ustez zein zen jakitera emateko, eta, bestetik, Iraultza aldizkariaren betebeharra zehazteko, zeren eztabaida ideologikoa, militanteeengana ez ezik, erakundetik kanpoko jendearengana ere ailegatzea nahi omen zuten. (…) Ikuspuntu honek eztabaida latza ekarri zuen. Ezinezkoa bihurtu zen akordioa. (…) Jesus Maria Larena «Israelek» izan ezik, beste guztiek alde egin zuten (Goikoetxea, 2006: 230-233).

Dena da interesgarria baina zerbait nabarmentzekotan nabarmenduko nuke Julen Madariagaz dioena, hots, biltzarraren aurretik Madariagak eta hark ordezkatzen zituenek ez zekitela zelula gorrien eta zuzendaritzakoen artean zegoen tirabiraren berri, eta horregatik, ezjakintasunagatik, akusatu zutela Eskubi. Julen Madariagak ez du baieztatzen puntu hori bere memoria-liburuan —*Egiari zor* orokorrean ari da, xehetasunetan sartu gabe—, baina Lopez Adanek bai, eta egia izateko itxura guztiak ditu —historia berreraikitzeko zailtasunak ikusarazten dizkigu afera honek, iturrietan dauden kontraesanak—. Hona Lopez Adanen lekukotasuna:

> ETAko Buruzagitzak Biltzar Nagusia arretaz antolatu zuen. Hasteko, bazuen arazo larri (eta ezkutu) bat: Zelula Gorrien etsaigoa. 1970eko Frente Nazionalaren kanpaina Zelula Gorriek gogor salatu zuten. Eskubiren ondoan, Baionan, Parisen, Bruselan eta Lovainan bildu militanteak formazio eta errespetu handiko jendeak ziren; ziotenez, «Batasuna» kanpaina klaseen arteko frente baten alde zen, klaseko frenteari etsaitua, eta horrek frogatzen zuen ETAko zuzendaritza oraindik sobera nazionalista zela (…). Ponentzietan agertzen zenez, bi tendentzia nagusi baziren guk «ofizialistak» bezala identifikatzen genituenen artean: batek, ETAk klase herrikoiak bildu behar zituela oligarkiaren aurka; besteak, berriz, ETA langileen alderdia bilakatu behar zela, iraultza sozialista egiteko (…). Baina, gure arabera, hori guzti hori ez zen gai nagusia. Estrategia estatalistaren irtenbidea ez zen inon aipatzen, guretzat hori izanik desbideratze posible handiena (…). Zelula Gorrien eta Exekutiboaren arteko eztabaidetatik kanpo emanak[16], espainolismoaren edo klase ikuspegi bakarraren beldurrez ginenek ponentzien ugaria ikusi genuen Eskubik eta haren lagun hurbilek sortu ke-gortina bezala. 1969an erori zen Biltzar Ttipia Eskubiren eskutik sortua zela uste genuen eta haren jarraitzailetzat geneukan Petxo eta Patxoren Exekutiboa ere. Haren eta Zelula Gorrien arteko liskar

16. Memorietan kontatzen du (2014a: 35) orduko zuzendaritzak ez zituela banatzen beraien idatziak militanteen artean, haien ordez zuzendaritzak haietaz zuen iritzia zabaltzen zuela haien izen ona zikintzeko, eta horregatik eman zuela bere dimisioa Biltzar Ttipian. Labur-zurrean, zuzendaritza maltzurki jokatzen ari zelako, eta, askatasun ideologikoa atxikitzeko eman zuen dimisioa, eta ez zen bakarra izan —ikus Madariagak *Egiari zor* liburuan kontatzen duena (Madariaga, 2014: 160-161)—. Beste militanteek bazekiten hala zela, eta onartu ere egiten zuten.

> edo desberdintasunen kontzientziarik gabe heldu ginen Biltzarrera (…). Gisa guztiz, aurka ginenak Biltzar berriaren legitimitatea arbuiatzeko erabakiak ginen; horren jakinarazteko gure arteko bat bakarrik ageriko zen, mezulari eta lekuko gisa (…) Julen Madariagari berehala leporatu zioten konspirazioan aritzea eta eztabaidetatik kanporatu zuten. Julen, esana dut, ausardia eta duintasun pertsonal handiko gizona da. Momentu txar bat izan zuen. Zelula Gorrien eta Exekutiboaren arteko ezberdintasunak begien aurrean ikusi zituenean; informazio desegokia genuela onartu behar izan zuen eta errealitatea ez zuela zuzen-zuzena konprenitu aitortu, baina oinarrizko arrazoi politikoetan mantendu zen. Gero etorri zen Biltzar Nagusiko egiazko arazoa, bi tendentzien arteko talka. Patxo eta Bikila alde batetik, Bruno eta Txiki bestetik, sestra biziak izan omen ziren. Zelula Gorriek garbi utzi zuten Exekutiboa eta haren lagunak «(…) ideologia burges txikiaren esanetara zirela, nazionalismoan, aktibismoan eta boluntarismoan oinarrituta» (Lopez Adan, 2014a: 34-35)[17].

Jaso ditugun lekukotasunetatik segitzen denez, ETAren 1970eko abuztuko Biltzar nahasi hartaz pare bat gauza aski garbi gelditzen dira: bata, Madariagak eta Lopez Adanek eta *Manifestu*aren bost sinatzaileek azken buruan, ez zutela Zelula Gorrien eta Zuzendaritzaren arteko aferaren berririk. Biga: manifestua desbideratze espainolistaren beldurrez idatzi zutela, eta hanka sartu zutela Eskubiri leporatzean desbideratze espainolistaren erru nagusia, nahiz delako Eskubi une hartan ezkerreko estrategia estatalistaren alde izan, baina ez zuzendaritzaren buruzagitzan.

Handik aurrerakoa, erabat harturik, badakigu: bosten manifestuaren inguruan ETA militarra ez ezik Txillardegi eta *Branka*koak eta T. Monzon eta *Anai-artea*koak bildu ziren[18], eta aurrerago Egi-Batasuna, eta aipatu dugun biltzarrean zuzendaritzakoak ziren gehientsuenak LKIra igaro ziren 1973an. Gatozen gehiago xehatzera.

17. Ikus halaber Iriarte, 1999: 153. or. eta ond.

18. Hala dio Madariagak *Egiari zor* liburuan, 161. orrialdean, militar eta *Branka* eta *Anai Artea*-koengandik oso hurbil zeudela.

6. *Gatazka* aldizkaria eta Euskal Askapen Nazionalerako Fronterako proposamena (FLNV)

Gorago eman dugu *Gatazka* iritzi-taldearen berri laburra. Delako VI. Biltzar horren ondotik, «konplot, susmo eta salaketa giro itogarririk ez zen gehiago. Argitan mintzo ginen, ETA berreraikitzeko». 1970eko urrian, Euskal Askapen Nazionalerako Frontearentzat proposamen bat apailatu zuten —Lopez Adanek idatzi zuen—, eta abenduan *Gatazka* aldizkariaren lehen zenbakia argitara eman zuten. EANFrako proposamena 1971n argitaratu zuten *Zutik* 59an, jada beste sostengu batzuk bildu zituzten seinale, erakundearen aldizkari ofizialean argitaratzea lortu zutenez gero.

Gatozen, lehenik, *Gatazka* aldizkariaren lehen aleko atarikoari begirada azkar bat ematera. Edukian eta hizkuntzan ere Krutwigek izandako eragina aipatzen ditu Lopez Adanek, baina aldi berean esan behar da lan kolektiboa dela. Euskaraz eman zuten eta nabarmentzekoa da, ohikoa erdaraz ematea baitzen.

Lehen lerroetatik nabarmentzen da «euskal langileriaren» kontzeptua argitzea zutela xede aldizkariarekin: «*Egun, langileria bere egitekoaz ohartzen hasia bada ere, traba, laino eta nahasmendu askorekin topatzen da bere ikusmira garbi eta zabal ahal izateko. Hori dela eta ekiten diogu lan honi*» (Lopez Adan, 1970a: ataria). Eta zergatik fokua euskal langilerian jartze hori:

> Euskal langilegoak interes hauek ditu gatazkatzean: 1.- Oligarkiaren egitura eta bere esku dagozen español eta frantses estatu moldeak hautsi. 2.- Euskal eraikuntza berriak sortu, ekonomia, politika, sozial, eta kultural eremuetan. 3.- Ekonomia aldatuaz, gain-eraikuntza [gainegitura] politiku eta ideologiku osoa eraberritzea, hortarako estatuaren zuzendaritza eskuratuaz eta horrela estatu barreneko eraikuntza eta erakundeak oro herriarentzako jarriaz. Funtsean, euskal langilegoa ESKUKOTASUNA-ren alde gatazkatzen da. Eskukotasuna, herri eskukotasuna aipatzean HERRI-ASKATASUNA edo MENEKOTASUNIK EZA, BATASUNA, EUSKALDUNTASUNA, SOZIALISMA, adierazi nahi ditugu.

Atariko horri «Patriotismo e internacionalismo» artikulua zerraion, Lopez Adanek idatzia. Askatasun nazionala lortzeko iraultza sozialista zen ezinbestekoa, eta hortik internazionalismoa. Bizi zuten egoera politikoak hiru eskakizun zituen: bata, euskal langile komunista independentisten alderdi bat sortzea; biga, askapen nazionalerako euskal frontea, eta hirugarrena, fronte antioligarkikoa:

Hoy no puede existir una auténtica liberación nacional sin hacer una revolución socialista, la época en que las burguesías nacionales podían crear estados propios está ya, al menos en Europa, completamente sobrepasada; desde un punto de vista económico, la única clase que puede planificar la economía nacional rompiendo con las unidades económicas creadas por el capitalismo imperialista, es el proletariado. Sólo con su victoria aparecerán las bases materiales de un estado político vasco independiente, en el que el vascuence sea el idioma útil, es decir, la lengua de la producción, de la planificación y de la cultura (…). Por ello, la lucha del proletariado vasco tendrá dos frentes. En primer lugar se dirigirá a la destrucción del aparato colonialista[19] instaurado en Vasconia, y a la construcción del estado socialista vasco. Para ello, el proletariado ha de organizarse a sí mismo, y ha de reunir a su alrededor a la mayor cantidad de fuerzas progresistas posibles en cada momento histórico (…).

Sobre estos presupuestos, proponemos un camino de actuación:

1.- UNIFICAR A LOS COMUNISTAS VASCOS: … crear bases humanas y políticas para la constitución de una organización propia de los trabajadores vascos.

2.- CREAR EL FRENTE NACIONAL DE LIBERACIÓN: Los contactos entre las organizaciones, la discusión ya desde ahora de un programa mínimo (…). La base principal sería la lucha por la independencia.

19. Zergatik zioten Krutwigek eta Lopez Adanek Euskadi kolonia bat zela? Izan ere, militanteak harritzen zituen kontzeptu bat zen: Iparraldea Frantziak kolonizatua eta turismo-leku kasik huts bilakatua izan dela, ulergarri, baina Hegoaldea, Katalunia eta Madrilekin batean lekurik industrializatuena denean? *Gatazka 1970* aldizkariaren gehigarri batean azaldu zuten. Hona hemen laburturik: «*Nosotros sostenemos que Vasconia está colonizada. Damos a este término un doble contenido. El primero es histórico: creemos que los estados-naciones que se han creado en la Europa Occidental no son el producto natural de la evolución de cada nacionalidad, que habría desarrollado las bases de su unidad económica; son más bien construcciones centralizadas dentro de las fronteras que una burguesía ha llegado a controlar. Francia corresponde a la unidad de mercado (en sentido amplio) controlada por la burguesía francesa, y España a la unidad de mercado controlada por un complejo financiero monopolista-latifundista, que se auto-llama español. En estas naciones burguesas se precisa una unidad idiomática que, necesariamente, se construye sobre la base de la lengua de uno de los pueblos que las componen; en España la oligarquía ha elegido el castellano y lo ha transformado de lengua popular en un idioma oficial que sirve de cimiento a una cultura reaccionaria. Este conjunto reaccionario, cultural e idiomático, es opresor sobre los propios castellanos por su contenido, pero sobre vascos, catalanes y gallegos es opresor tanto por su contenido reaccionario como por su forma (idioma español=castellano). (...)Lo que diferencia una colonia de una región no colonizada NO es su situación económica más o menos 'tercer-mundista', sino el hecho de que la explotación de esa nación, de sus riquezas naturales y de sus habitantes sea hecha o no por unas clases dominantes que se estructuren con una forma no autóctona sino extranjera. Y más aún cuando 'extranjera' significa NEGADORA por la violencia de la lengua, la cultura, las instituciones políticas, etc, de la nación colonizada. Históricamente, pues, creemos que en Europa Occidental el desarrollo de la burguesía y del imperialismo ha creado unas unidades nacionales que NECESARIAMENTE han significado la negación de todas las características nacionales propias de lo que ahora se llaman 'Minorías nacionales'. Definimos esa situación como injusta, como obra de la burguesía, y, por ello, REVERSIBLE. Reversible, naturalmente, mediante le revolución socialista y SOLO mediante ella. En Europa, la época del triunfo del nacionalismo burgués en las nacionalidades oprimidas ha pasado ya*».

> 3.- CREAR LOS FRENTES ANTIOLIGÁRQUICOS: En la situación actual el estado español sería el campo principal de lucha (…). Un primer paso podría ser la constitución de este frente en el territorio de Euskadi Sur, sobre las bases de (1) Aceptación del derecho de los vascos a la autodeterminación. (2) Lucha común por el derrocamiento del fascismo y la construcción de un estado democrático.
>
> Hoy en día ambos frentes (el Nacional y los Antioligárquicos) son necesidades reales para nuestra libertad. De una parte, nos permiten golpear más fuerte al enemigo común; de otra, son ya gérmenes de la futura sociedad. El Frente Nacional lo es de una sociedad vasca, estructurada conforme a nuestros parámetros culturales; hoy, al poner como base de esta unidad el patriotismo y el vascuence, prefiguramos nuestra futura estructuración, Los Frentes antioligárquicos prefiguran un nuevo mundo en el que vascos, españoles, bretones, franceses, gallegos, etc…, respetándose y apoyándose mutuamente crearán una sociedad próspera para todos en la que la opresión del hombre por el hombre y de una nación por otra habrán desaparecido.

Garai bertsukoa da Euskal Askapenerako Fronte Nazionala osatzeko proposamena ere, 1970eko urrian sinatua. Lopez Adanek dioenez, Fronte hori osatzeko bilera sorta 1971ko urtarriletik martxora egin ziren Ziburun. Ekimena Monzonek hartu zuen, gerra aurreko eta ondoko gudariak elkartu nahian. PNV, ELA, EGI-Batasuna, Enbata, Branka eta APV (Ayuda Patriótica Vasca, preso politikoei laguntzeko elkartea), eta ETA V.a, baina ETA VI.eneko bi behatzaile ere bai, Iker Casanovak dioenez (Casanova, 2007: 125). Ez zen aurrera atera.

Jatorrizkoa gaztelaniaz idatzi zen. Testu guztian barrena zazpi euskal lurraldeen batasun politikoa izendatzeko *Euskadi* hitza erabiltzen da, Ipar Euskadi eta Hego Euskadi, eta guk ere hala egingo dugu.

Batasunaren premia sumatzen zutelako bildu ziren. Garbi zeukaten batasun hori ez zela Eusko Jaurlaritzak eskaintzen zuena, hura Euskadiko (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) indar estatutisten batasuna baitzen; ulergarri eta beharrezko gerra-egoeran, baina bere jatorri, portaera eta kideengatik erabat ezdeus euskal iraultza burutan ateratzeko: erabat ezgauza Ipar Euskadiko arazoa ebazteko eta itun estatutista zen neurrian, indar iraultzaile berriek ezin onartua.

Helburu gisa, eztabaidarako sei xede proposatzen ziren:

1. Ipar eta Hego Euskadi batzearen alde borrokatuko zen. Estrategia berbera, nahiz taktika ezberdinak erabili.
2. Euskadiren independentzia helburu. Askatasun osoa geure buruaren jabe izateko, eta, garrantzizkoa, independentzia estatuek ezarritako mugak eraisteko, eta lurreko herri guztien arteko senidetasuna sortzeko.
3. Herria euskalduntzearen alde borrokatuko zen. Euskarak Euskadin hizkuntza baliagarria bilakatu behar zuen, ekoizpenaren, administrazioaren eta kulturaren hizkuntza. Gutxiengoen kultur estatutuak aurreikusiko ziren

frantses, espainiar eta galiziar erkidegoentzat, baina euskaldunei erraztasun guztiak emanen zitzaizkien beren nortasunari iraunarazteko eta garatzeko.

4. Demokratizazioa defendatuko zuen. Guztientzako askatasun demokratikoak: prentsa, biltze, adierazpen eta elkarteak sortzeko, etab.
5. Herriaren aldeko sistema ekonomikoa aldeztuko zuen. Bankuak, Komunikabideak eta garraio publikoak, industria astuna, meatzeak, eta Euskadiren bizitza ekonomikorako beharrezkoak ziren eta oligarken eskuko zeuden arloak nazionalizatu egingo ziren, eta jabego pribatuaren gaineko legediak ekimen pribatua mugatuko zuen; burgesia nazionalaren jarduna onartuko zen, baina bakarrik herriaren interesen aurka ez bazihoan. Gizarte legeek bermatuko zuten askatasun sindikala, klase esplotatuen bizi-baldintzak hobetzea, eta langileen parte-hartzea enpresen kudeaketan, ekonomia nazionalaren plangintzan, eta Euskadiren zuzendaritza politikoan.
6. Nazioarteko politikan jarrera antiinperialista hartuko zuen fronteak. Herri guztien askatasunaren aurka etsai nagusitzat inperialismo yankia jotzen zuten, baina SESBeko agintarien sozialinperialismoaren aurka ere borrokatuko zen; beren askatasun nazionalaren alde gudukatzen ziren herri guztiekin solidarizatuko zen, eta bereziki Europako nazionalitate zapalduekin.

Barne-funtzionamenduari zegokionez, 1. Euskal Askapenerako Fronte Nazionalak aparatu propioa izango zuen, frontea osatzen zuten erakundeen militanteez gain, independenteek osatua. 2. Funts propioak, argitalpen beregainak, eta nazio mailako eta nazioarteko ordezkariak.

Itun antioligarkikoak egingo zituen, Frantzia eta Espainiako estatuen eraldakuntza demokratikoa bultzatu nahi eta euskal egitate nazionala onartzen zutenekin.

Borroka armatuari zegokionez, borroka armatua eta herri-gerra jotzen ziren bitarteko bakartzat programaren helburuak lortzeko. Hura gabe independentziarik ez Euskadirentzat. Fronteak eraman behar zuen borroka armatuaren gidaritza independentzia nazionala lortu arte; lehen fase batean behar hori argi ikusten ez bazen, ekintza-askatasuna utzi behar zien bortxa iraultzailea egiten zutenei. Zehaztu egin beharko zen jarduera haien eta Frontearen jardueren arteko harremana.

Fronte kulturalari zegokionez, gure hizkuntza eta kulturaren aldeko frontea legeztatzera jo behar zen, eta ilegalengandik bereiztera.

Langile borrokari zegokionez, Euskadin klase-borrokak askatasun nazionalaren aldeko borrokaren forma hartzen zuenez, langileen interesek galdegiten zuten Frontea sortzea, eta iraultza langileek berek gidatzea autonomoki antolatuak, eta herri-gerra. Baina horrek ez zuen ahantzarazi behar langileen eguneroko borrokaren beharra; 1. Fabrika mailan, bertako eta etorkinen arteko bereizkuntzarik egin gabe,

eta langileen erakunde autogestionatua sortuaz; 2. Maila sindikalean, fabrikako kontseiluak herri- eta ekoizpen-adarrez bilduaz, patronalaren aurrean. Euskal langileak, berriz, sistema sindikal beregainaz antolatuko ziren Frontearen martxan eragiteko, Euskadiko etorkizuneko ekonomiaren autogestio-erakundeen oinarri gisa, eta, 3. Maila estrategiko orokorrean, Fronteak lehen bi mailak indartuko zituen, eta burgesia nazionala onartuko zuen esplotazio-baldintzak desagertzen ziren heinean, eta haiek langileek mozkinetan eta enpresen kudeaketan parte hartzeko behar ziren tresnak bermatzen zituzten neurrian.

Iraultzaileen batzarra egin, eta handik hiru zer hauek atera behar ziren: 1. Koordinazio-idazkaritza, 2. Aldizkari bat, eta 3. Autogestiorako herri-erakundeak maila guztietan, Frontearen alde lan egiteko.

Gorago aipatu ditugun alderdien arteko elkarrizketez gain, militanteen artekoak ere bultzatu zituzten eta aurrera eraman ere ziren.

Fronte Nazionalaren aldeko proselitismoan ibili zenetako bat Miguel Peciña Anitua gasteiztarra izan zen. 2004an argitaratu zituen ETAn ibili zeneko memoriak. Mario Onaindiak bildu zuen erakundera 1968an; Basauriko espetxean egon zen preso, eta handik askatuta, bere burkideen ihesa prestatzen lagundu zuen, eta 1970eko Urteberri egunean erbesteratu zen; lehenbizi, Donibane Lohizuneko Anai-Artean hartu zuen ostatu eta aterpe. Handik era guztietako jendea igarotzen zela aditzera eman ondotik, honela dio berak 70eko hamarkadako lehen urteetan ezagutu zuen erbesteko —Ipar Euskal Herria; Parisen ere egon zen— mundu horretaz, garai hartan erakundean bizi zen zatiketaz, eta Fronte Nazionalaren aldeko proselitismoaz:

> El mundo del exilio practicaba un sectarismo feroz y se dividía en múltiples capillas de barbas fanáticas. Los refugiados novatos, si no formaban ya parte de algún grupo, sucumbían muy pronto a los encantos doctrinales de unos o a la acción desaforada de otros (…). En el verano del 70 ETA estaba a punto de reventar. La VI Asamblea se celebró en Itsaso y ninguno de los de Basauri participó en ella (…). Tras la escisión, me inclinaba hacia los milis, pero, al comenzar la campaña de movilización del proceso de Burgos, provisionalemente se echó tierra a la división de ETA (…). En enero de 1971 existen dos organizaciones que se autodenominan ETA. En el exterior ETA V, integrada por los milis de Etxabe, los seguidores de Emilio López Adán, Beltza, e individualidades como Julen Madariaga, Krutwig, alejado en Roma, les da su apoyo. En el interior muchos militantes de ETA VI, desorientados, se pronuncian por el diálogo. Todavía hay quien quiere recomponer lo descompuesto. Saben que ETA V no se reduce al exabrupto so españolazos de Aundixe, las tesis colonialistas que defiende Beltza gozan de cierta aceptación. Etxabe, consciente del marasmo, considera que gente «más política» tiene que intervenir en una campaña de explicación en Vizcaya y Guipúzcoa. Junto a Alicia, Roberto y El Pelos formo parte de ese grupo de políticos encargado del acercamiento a las bases (…). En los dos meses y medio de mi actuación el objetivo marcado consistió en mostrar que no todos éramos milis, hacernos con el máximo de gente de ETA VI y potenciar el Frente Nacional Vasco (…). En cuanto al patético «apenas una docena» siento que el profesor Garmendia ni siquiera conceda

> que fuésemos doce como los apóstoles. ¿Por qué no lo dejamos en cuarenta como los ladrones de Alí Baba? (…). Cruzo la frontera en dos ocasiones (…). La primera vez lo hago en compañía de Txikia, Azkoiti, Jokin Etxabe y algún otro. Comemos en Oiartzun. Instantánea, reunidos: Jokin nervioso monta y desmonta una metralleta. Llega el coche que estoy esperando (…). Estuve en la zona de San Sebastian unos quince días en enero [1971] y una semana en el segundo viaje en febrero. Txaflis me llevaba en coche a las diferentes citas, por lo general en Guipúzcoa, salvo dos desplazamientos a Bilbao y Miravalles. Casi todas las noches me retiraba a Hernani (…). La reunión-tipo consistía en responder a las preguntas de tres o cuatro militantes, explicar que no éramos monolíticos y que juzgábamos prematuro eso del partido-vanguardia del pueblo trabajador vasco. Uno de mis contactos fue el cantante Imanol Larzabal, abierto y, en apariencia, sensible a nuestros argumentos. Le invitamos a asistir como observador a las conversaciones del Frente Nacional y se vino a San Juan de Luz. Poco después, Imanol se establecería en París y cultivaba la amistad de Paco Ibañez; como casi todos nosotros, cambiaría (…). Aunque participé dos veces en estas reuniones frentistas pensando que se reforzaría la unidad de las organizaciones vascas, la impresión que muy pronto prevaleció fue la de su inutilidad. Impracticables, a causa del bizantinismo de los Mikel Isasi y demás prohombres del PNV. De Iñaki Múgica Arregi, Ezkerra, guardo una excelente impresión. Preparado y simpático, nada tenía que ver con los doctores Tenebro que tanto pululaban entonces (…). Al cabo de dos meses Txikia y otros daban muestras de impaciencia. Ezkerra, al corriente de todo: «¿Hasta cuándo vais a seguir así?». Los partidarios de la acción se decantaron por los milis. El periodo de explicación había concluido. Etxabe me propuso ir de liberado a Navarra, misión en la que no me veía. En marzo se produjo la caída en Vizcaya de militantes de ETA VI. De vuelta a Issy para arreglar unos papeles decidí apartarme. Escribí una carta a Ondarru. Lo dejaba. Punto final a la aventura (Peciña, 2004).

Gorago laburbildu dugun manifestuak ondo jasotzen du Lopez Adanen eta haren gogaideen pentsamoldea, baina ez zen berehala zabaldu, handik urtebete ingurura baizik. Zergatik? Burgosko prozesua dago tartean, hango presoek ETA V. edo VI.era joko zuten.

7. Burgosko prozesua eta auziperatuen gutuna

Burgosko prozesua etorri zen ETA erakundea zatitua zegoenean. Epaiketa abenduaren 3an hasi zen, eta egun horretan greba orokorra egin zen Gipuzkoan, eta beste herrialdeetan ere. Abenduaren 4an, Espainiako gobernuak salbuespen-egoera ezarri zuen Gipuzkoan. Abenduaren 8an Eibarren egin zen greba orokorraren baitan, kaleko jantzitako polizia batek Roberto Perez gaztea hil zuen. Epaiketak 7 egun erreskan iraun zuen, eta akusatuen lekukotzak kutsu politiko eta sinboliko handikoak izan ziren. Handik aurrera, manifestazioak, grebak, itxialdiak, manifestuak, sabotaje-ekintzak eta era guztietako protesta-ekintzak gertatu ziren Euskal Herrian. Espainiako Estatuan eta Europan ere bai. Erregimenak Madrilen manifestaziora deitu zuen, eta ehun bat mila lagunek Franco!, Franco!, oihukatu zuten.

ETA V.ekoek *satorrak* bidali zituzten Burgosera presoak askatzeko ihesa antolatzera. Eta Beihl kontsul alemana bahitu zuten, eta abenduaren 25ean, askatu. Jakina denez, lehenbizi, heriotza-zigorrak berretsi zituen epaimahaiak, eta 30ean, Francok zigorrak kommutatu zituen. Eta ETAko preso horiek gutun bat argitaratu zuten, epaiaren zain zeudela idatzia; hots, balio sinboliko handikoa. Noren alde egiten zuten: V.ekoen ala VI.ekoen alde?

Argi eta garbi ETA VI.ekoen alde, eta bereziki manifestuaren bost sinatzaileen aurka. Hona sarrera:

> Sin salirnos de los cauces organizativos normales de crítica y autocrítica —que, por simples razones de militancia y disciplina en ningún caso deben ser abandonados, y menos aún si hacerlo implica lanzar al pueblo proclamas y manifiestos que expresen la opinión de capillitas o grupos reducidos— queremos haceros llegar nuestra posición, clara y terminante, ante la postura adoptada por los cinco firmantes del «Manifiesto» de agosto de 1970, justamente expulsados de ETA, y ante la maniobra que la derecha vasca ha desarrollado en torno de ellos y de su grupo. Estas cinco personas (Edur Arregi, J.J. Etxabe, Federico Krutwig, Emilio López y Julen Madariaga) afirman, con evidente cinismo, que son ellos quienes asumen la representatividad de ETA, apoyándose para ello en su elección como miembros del Biltzar Ttipia en la segunda parte de la Vª Asamblea. Razones obvias de clandestinidad no nos permiten decir todo lo que quisiéramos sobre esta pretendida representatividad. Sin embargo, nos vemos obligados —siempre limitadamente— a tratar aquí el desarrollo de la dirección nacional de ETA a partir de la Vª Asamblea, a fin de fijar con claridad que tal representatividad sólo existe en sus palabras y en sus deseos[20].

20. «Carta al C.C. de ETA» in *Documentos Y*, v. 10, 1971, Lur, Donostia, 1979-1981.

Hamalau orrialderen ondotik, honela amaitu zuten testua:

> Queda pues, bien clara, con todo esto, nuestra posición ante la maniobra desarrollada por los cinco traidores justamente expulsados de ETA. Creemos que no se les debe dar cuartel y os pedimos que dediquéis todas las energías que podáis para combatir su traición, para desenmascararles ante el pueblo y, sobre todo, ante la clase obrera, y para destruirles políticamente. Que no haya cuartel para con ellos. Si quieren hacer política de derecha, que la hagan. Pero que no la hagan utilizando las siglas de ETA y todo lo que, con tanto esfuerzo, hemos conseguido que éstas signifiquen; que no lo hagan atribuyéndose toda la representatividad de las fuerzas políticas de izquierda vascas, ellos que ni de izquierda ni de proletario tienen nada. Combatidles con todas vuestras fuerzas y seguid, al mismo tiempo, adelante tanto con nuestra evolución para convertirnos en Partido de los Trabajadores Vascos, cosa que estamos seguros se hará realidad bien pronto, como con el esfuerzo para institucionalizar un Frente Nacional de Liberación Vasco, instrumento indispensable para realizar la Revolución Popular de Euskadi. Adelante con ello. Triunfaremos. ¡GORA EUSKADI ASKATUTA! ¡IRAULTZA EDO HIL![21].

Hogei euskal presoren sinadura eta lekua eta data: Burgosen, 1971ko urtarrilaren 1ean.

Traidore kalifikatiboa alde batera utziz gero, Euskal Langileen Alderdia eta Euskal Askapenerako Fronte Nazionala egituratzeko asmoa irakurrita, Lopez Adan eta *Gatazka* taldeari irakurritakoak datozkigu gogora. Alde ideologikoak?, tirabira pertsonalak?

Lopez Adanek gutun hori aztertzen hasita, hiru puntu nabarmentzen ditu: akusazio pertsonal gogorrak, kritikarako informazio orientatua, eta proposamenak. Akusazioei zegokienez:

> Iraultzaile profesionalen erresuman sortu zen mentalitateak markatuak ziren eta ondoko arerioak gogor astintzea gauza beharrezko eta normala zela iruditzen zitzaien. Ez ziren purga eta kontu-garbiketen beldur. Horretan ez ziren gugandik oso urrun, denok elikatuta bait ginen giro berean. Bestalde, bizia arrisku handian emana eta mundu osoaren aitzinean gaitzeko jestuen protagonista izanik, mugen kontzientzia puntu bateraino galdua zutela pentsa zitekeen, laino batetan bezalako egoera, gero haiek beraiek (batzuek, bederen) beren memorietan aipatu dutena. Gu, bost izenpetzaileok, orbanik gabeko iraultzaile modelikoak ez ginen, ez, baina erasoen bortitzak harritu gintuen (Lopez Adan, 2014a: 43).

Kritikarako informazio orientatuaz den bezainbatean, egindako huts bat aitortzen zuen:

> Bazen gero Etxaberen Kemen famatua, eta argi zen berarena zela, nahikoa nortasuna bazeukan ateraldi horien asmatzeko: baina publikoki ez genion kritikatu eta huts bat izan zen. Horrek ez zuen ikuspegi berdintasunik ekartzen eta kritikaren falta ulertu behar zen gure hiru tendentzien arteko indar metatze nahasiaren barneko jokoan. Baina

21. *Ibidem.*

> VI.eko Zuzendaritzak interesa zuen kritikaren falta ikuspegien berdintasunarekin identifikatzeko.

Eta autokritika horren ondotik, kritika orientatu edo manipulatuaren adibide esanguratsu bat aipatzen zuen:

> Guk esana: «Oraingo aukera argia da: Euskadi, ala Espainia eta Frantzia». 1970eko Agirian horrela formulatu zen; testu osoa irakurria, bistan da borroka-esparru estrategikoari doakiola aukera: guk Euskadin zentratzea aukeratzen genuen, likidazionistek (eta EAJk) Estatu espainolean borrokatzea hobesten zutelarik. Etsaia (Espainia) «kapitalisten zerbitzuko den Estatua» dela ondo zehazten da; berriz, haren kontra dena «Euskadiko Herri Langilea da (edozein izanik bere jatorria)».
>
> Kritikatzen dena: «Arazoa, beraz, ez da «euskaldunak espainol eta frantsesen aurka» (Manifestukoek dioten bezala)». Herria herriaren kontra, beraz, eta hortik sumindura eta kritikoen oihu sentitua: «Gure borroka estatu espainiarraren aurkakoa da eta ez herri baten aurkakoa!». Baina ez zen guk esana, haiek nola ikusten gaituzten baino (*Ibid.:* 44).

1971n, J.J. Etxabe baztertu zuten —handik aurrera *Txikia* izango da militarren buru; adierazgarria da erabaki hori militarrek eurek hartu zutela inongo Biltzar Ttipi edo zuzendaritzatik igaro gabe—, eta *Burgosko Gutun*aren zati politiko osoa argitaratu zuten, kritika pertsonalak kenduta, eta hau esanda:

> Burgosko presoen Gutuna irakurri dutenak berehala ohartu dira: Burgoskoek jarrera marxista-leninista dutela, bai, baina ABERTZALEA. Hau da: zehazki aipatzen dituzte Euskal Estatu Independente bat, Euskadiko euskalduntasuna, eta euskal burgesia barnean ukanen duen Frente Nazionala. Beraz, Bosgarren Biltzar Nagusiaren lerroari darraie, felipeak kanporatuta onartu zen lerroari (…). (Bai, badakigu Burgoskoak VI.aren alde ezarri zirela); halere haien Gutuna argitaratzen dugu orain gure babes pean [V.aren babesean alegia], eta bi arrazoiengatik. Lehena, kondenatuek 1967ko Biltzar Ttipi zaharraren «eskuineko likidazionismoa» kritikatu zutenean, oso informazio faltsu eta orientatuak zituztelako. Bigarrena, hauxe garbi esateko: legezkotasunaren bila beren estrategiaren kontra ziren printzipio estrategikoen Gutuna argitaratzerakoan, ETA-VI.ekoek moral-gabetasun politikoaren adibide itsusiena eman dutela (Itzulia) *(Id.)*.

Testu horretan garbi agertzen da Burgosko prozesuko presoak bereganatu nahi zituztela, ika-mika egon zela izen handiko preso mediatiko horiek berenganatzeko. Ildo horretan, aditzera ematen du Lopez Adanek *Burgosko Gutuna* onartzea, eta ETA V.aren babesean agertzea, jestu politiko axola handikoa izan zela.

8. ETA V.aren VI. Biltzarrerantz: ETA bakarrerantz

Espainiako trantsizioarekiko ikuspegi kritikoa agertu zuen J. Vidal Beneytok aipatu zuen *El País* egunkariak eginiko elkarrizketa batean, 1971n, AEBetako Nixon presidenteak CIAko zuzendariorde Vernon Walters igorri zuela Madrilera, besteak beste, Francorekin, L. Carrero Blancorekin eta Díez Alegria jeneralarekin elkarrizketatzera, haiekin batera trantsizioa diseinatu eta babestera —Joan Carlos Borboikoa eta Suarez figura garrantzizkoak baina ez erabakigarriak—, betiere haiek iparramerikarren baseak eta interes geopolitikoak babesten jarraitzearen truke.

Bada, urte giltzarri horretatik aurrera, 1970ean hainbat zatitan banatua zen ETA —V.a/VI.a, Zelula Gorriak, Branka, Gatazka…— ETA bakarrean biltzeko prozesua abiatu zen; eta 1973ko abenduan Carrero Blanco erail zuten, horregatik eragotzi gabe CIAren eta Francoren artean diseinatutako trantsizioa burutan ateratzea, baina dudarik gabe ETAren atentatu garrantzitsuena, eta euskal ez ezik espainiar herritar askoren artean oniritzi gehien jasotako ekintza bururatuz.

1971ko martxoan, ETA VI.eko buruetako batzuk erori ziren, eta irailean jada *Zutik* 53.ean adierazi zuten haustura bat gertatu zela ETAren historian, ideologia nazionalistarekiko haustura, eta praktika politikoan ideologia horrek sortzen zituen azalpenen amaiera.

Garai inguru horretan egotzi zuten Eustakio Mendizabal *Txikia*k eta Txomin Iturbek-eta J.J. Etxabe, lehen esan dugun bezala, beraien erabaki soilez, eta azpiegitura eta bereziki mugalarien lana berriztatzearekin batera, ekintza militarrekin berriz hasteko erabakia hartu zuten: frankista ezagunen eta salatarien aurkako ekintzak.

Lopez Adanek eta *Gatazka* taldeak bigarren eta azken ale bat atera zuten 1971ko amaieran. Bertan erantzuna ematen zitzaien ETA VI.ekoek eta Zelula Gorriek eginiko kritikei:

> Zergatik ETAren barneko aharretan jarri gara Bosgarrenekoen ondoan? Bada, ez «nazionalismo burgesarekiko» sinpatiaz edo saldukeriaz, baizik eta:
>
> - Zegoen likidazionismo espainolistari aurre egiteko.
> - Eta zapalkuntza nazionalari irtenbide komunista emateko, baina argi eta garbi independentziaren aldekoen bidetik. Behar bada gure tesiak ez dira zuzenak, baina kritikatzekotan diren bezala kritikatu behar dira, ez eta haiek aldatu eta faltsutuz gero iraindu. Hori ez da komunisten lana (Itzulia) (*Ibid.:* 50).

Beste gertakari bat nabarmendu beharrekoa J-P. Sartrek emandako sostenguarena da. Halimi abokatuak *Le Procés de Burgos* argitaratu zuen maiatzean, eta J-P. Sartrek hitzaurrea egin zion. Txillardegik euskaratu zuen hitzaurre hori eta Erakundeak *Zutik* 61ean argitaratu zuen. Editoreak liburuaren aurkezpenean hau adierazi zuen, besteak beste: «*Liburu hau, Jean-Paul Sartreren hitzaurreaz hornitua, ezinbesteko tresna da minoritate etnikoek beren «unibertsaltasun berezia» atxikitzeko daramaten borroka konprenitzeko*».

Balio unibertsala aitortzen zion, beraz, euskaldunen borrokari. Txillardegik hitz hauekin goraipatu zuen J-P. Sartreren jarrera:

> Burgosko epaiketa hasterakoan ETAren Bulego Politikoa, sozial-inperialisten eskuetan baitzegoen. Abertzaletasuna, euskara, «superatuta» zeuden…Gauzak horrela, benetako bonba bat bota zuen 1971ko haseran Sartrek (…). Bapatean, eta sozial-inperialismo españolista euskal ezker abertzaleaz betirako nagusiturik agertzen bide zitzaigunean, ikuspegi ezkertiar eta abertzalearen alde egin zuen postura ausarki filosofo famatuak. Kolonialismo eta inperialismo mota guztien kontrako bere borroka nekagaitzean bere gailurrean zegoenean, eta gure arteko «felipe», «progre» eta «ezkerkoi» guztiak zapuztuz, borrokaren izari nazionala azpimarratu zuen parisetarrak. Bai Enbata-k Iparraldean, bai ETAko Zutik-ek Hegoaldean (isilpean, esan beharrik ez), argitara eman zuten izkribu historikoa. Eta Hitzaurrea-k sekulako oihartzuna eta ondorioak izan zituen kanpo aldean; baita «barruan» ere, nahiz askoz polikiago. Oso ahulduta zegoen ezker abertzaleak, zinez esan dezakegu hau, arnasa hartu zuen Sartreri esker. Eta garai hits hura bertatik eta ezinean pasa genuen abertzaleok, ez dugu laguntza hori inoiz ahaztu eta ez ahaztuko. Noiz Euskal Herriko kaleren bat bederen Sartreri eskainiko? (Alvarez Enparantza, 1994: 283-284).

J-P. Sartrek euskaldunen borroka iraultzaileari zilegitasun unibertsala eman izana laudatu arren, Lopez Adanek eta gogaideek «etxean ibiltzeko kritikak» egin zituzten. Bi akats nagusi egin zituen zahartua eta eri zegoen Sartrek, lehena, Hego Euskal Herrian ziren emigranteak eta Aljeriako kolonoak alderatzea, eta, biga, estatu espainiarrak zergen bidez Euskadi ustiatzen zuela idaztea, horrela kolonialismoaren oinarri ekonomikoak ezarriz:

> Ez zen hori kolonialismoaz genuen ideia. Guretzat, garbia zen zergen eta inbertsioen argudio erabilpena ikuspegi nazionalista huts hutsa zela. Oligarkiak gain-balioak ateratzen zizkion emigrazioari eta ez soilik lan-indarraren esplotazioaz; garapen ezberdinak ere ematen zizkion mozkinak, esan nahi baita Espainia pobrean elikatu eta koskortu gazteak Euskadin lan egitera etortzen zirenean, lan-indar emaile eginak heltzen zirela, produktiboak ez zireneko gastu guztiak oinarrizko komunitatean egin eta gero. Ez genuen guk kritika hori asmatu, gauza ezagun eta arrunta baitzen barne kolonialismoaz okupatzen ziren ikerle eta militanteen artean.
>
> Fite konturatu ginen Sartrek erabili analisi ekonomikoak Branka aldizkaritik atera ziratekeela (Lopez Adan, 2014a: 49).

ETAren historiari errepaso labur-azkar eta selektibo bat ematen ari garen honetan, bereziki Lopez Adanen lana eta ikuspegiak besteenekin batean kokatuz, *Zutik* 63.ean egiten ziren hainbat baieztapen garratzak gertatu zitzaizkion. 1970eko *Bosten Agiria*ren sinatzaileak erakundetik merezimenduz egotziak bezala agertzen ziren delako zenbaki horretan: barrabaskeria burges, arrazista eta abstraktuak esateagatik, arrazoiz eta bidez egotziak bezala. Nola interpretatu hori?

> Behar bada sobera kilika ginen, baina batzuei inpresio txarra egin zigun paragrafo iraingarrien argitaratzeak. Finean, abisu baten itxura bazuen, eta hemen datoz kezkatzeko funtsezko arrazoiak: milien taldeak gaztigatzen zigun «politiko» edo «intelektual» desberdinak bazituela eskupean, gure beharrik ez zuela eta, behar bada, denen hazkura teorikoei ez ziela sobera garrantzirik ematen. Erakundearen indarra eta sinesgarritasuna areagotzea zitzaien helburu nagusia, eta lan teorikoen lekua horren mendekoa zen (*Ibid.:* 54).

Une hartan militarrek, zinezko Exekutibo gisa, EGI-Batasunarekin negoziatzen ziharduten bi erakundeek bat egiteko, J.J. Etxabe egoztean bezala, beste inorekin kontatu gabe. 1972ko Aberri Eguna kari, EGIko bostehun bat militante eta hamaika liberatu Erakundean sartu ziren:

> Haien artean gero zerbait izanen ziren batzuk: Ezkerra, Iharra, Generala, Gernika… Entzun genuenez, ekarri zuten indarraren ondorioz berehala hupatuak izan ziren Exekutiboraino baina, lasai, ETA bera izan zen elkartze prozesuaren zuzendari nagusia. Argalaren gaitasuna, nonbait, frogatzen hasia zen. Alta Ezkerra ere nortasun handiko pertsonaia zen, inongo Biltzar Nagusiak inor hautatu gabe eta printzipio estrategikoak eta politikoak finkatu gaberik zirenean… *(Id.).*

Langileen alderdiaren zaleak ziren Lopez Adan bezalakoentzat bat-egite hori kezkagarria izan zen. EGIren ideologia ezagutzen zuten, eta haientzat, behar zen bidetik ez zetorren. Bat-egitea baino lehen idatzi ideologiko bat argitaratu zuten, eta bertan sozialismoari buruz zioten ez zutela taldetxo nagusi batena nahi, eta utopistena ere ez. *Gatazka* taldekoek honela interpretatu zuten:

> Taldetxo nagusia, alderdi marxista-leninisten modeloa zen, Txillardegiren bidetik kritikatua; eta «utopistena» sozialismo libertarioa, Krutwigen eraginez eta gure eboluzio propioaz Gatazkan gorpuzten ari zena. Interpretazioak interpretazio, klaseko sozialismo borrokalari guztiari kontra egiteko definizioa iruditu zitzaigun, Brankaren «sozialismo humanistaren» segidan zetorrelarik *(Id.).*

Lopez Adanek eta gatazkakideek kontraesan nabaria ikusi zuten *Zutik* 63an; batetik, erakundeak marxismo-leninismoa onartu zuela aditzera ematen zuen, baina praktikan EGIrekin bat egiteko sozialismo nahasi bat baino ez zuen aintzat hartzen. Nabarmen agertzen zen militante militar askorentzat sozialismoaren gorabeherak nahiko kontingenteak zirela eta axola handiena zuena erakundea bera indartzea zela, abertzaletasun erradikal baten baitan eta borroka armatua ardatz gisa harturik: «*Nahikoa egitasmo zabala zen, guretzat eskasa eta etorriko ziren zatiketen iturburua*» (*Ibid.:* 55).

1972ko urrian, Lopez Adanek «koadroen» biltzar batean parte hartu zuen —ETAren ikerleek ETA V.aren VI. Biltzarra prestatzeko aitzin-batzartzat jo dute— eta bera han izan zen Belgikako *Gatazka* taldearen ordezkari. Lopez Adanentzat berarentzat koadroen batzar hori bere zabaltasunagatik eta aniztasunagatik —Komite Exekutiboko lau kideak ez ziren izan— VI. Biltzarraren lehen partetzat jo zitekeen. Ordurako legitimitate historikoari dagokionez, V.ak irabazia zion partida VI.ari, eta *Txikia*ren (eta *Ezkerra*) zuzendaritzapean egitura militarra egonkortua zen.

Arazo anitz bazela dio Lopez Adanek. Bata, Fronteen arteko orekaren arazoa. Militante batzuek Langile Frontea indartu nahi zuten eta ahaleginak egiten zituzten jendea biltzeko eta prestatzeko. Hiru erreferente aipatzen ditu: Debako *Jenerala* EGItik zetorrena; Karmelo bizkaitarra, eta *Ixila* gipuzkoarra, langileen lerroetatik. Beren inguruan bildu zituzten ikasleak eta irakasleak ere (*Pertur*, Txema…); *Argala*rekin ere harreman estua zuten. Fronteen arteko banalerroak hari meheak ziren, eta erraza zen batean eta bestean zeudenak topatzea: Erakundearen «Koordinadora» zeritzan egituran Langile Fronteak leku axolazkoa zuen: «*Baina Koordinadora horren gainetik zegoen Frente Militarra, bere autonomia osoarekin eta armen eta finantzen jabea*» (*Ibid.:* 58).

Fronte Militarraren barnean bi gune bereizten ari omen ziren: *Ezkerra*ren ingurukoa bata, erakunde politiko-militar ondo egituratu eta batua sortzearen alde, eta bestea, berriz, Txomin eta *Argala*ren inguruan, fronte militarraren autonomia gidatzailea mantentzearen alde.

Besteak beste, tentsio horiek nabarmendu omen ziren:

> Horrela, Biltzarrean Argalaren lagunen aurka bota ziren «autoritarismo-leninismoa» aipatzen zituzten kritikak, eta dagoeneko joera libertarioa geneukan tendentziakoei kritika horiek erraztu ziguten Exekutibo estuaren ordez Zuzendaritza zabalago eta errepresentatiboago bat onarraraztea. Gisa guztiz, ez ditut Biltzarraren aktak atxiki eta ideia aski lanbrotsua badut. Milien arteko tendentzia batek erabili gintuela pentsatzen dut. Bigarren partean [historiara ETA bakarraren VI. Biltzarraren lehen parte gisa igaro denaz ari da, 1973ko abuztuan, Hazparnen egin zenaz], Frente Militarraren eta Frente Langilearen arteko tirabirak ziren gai nagusien artean (…) Frente Langilearen eskakizunak, batez ere atentatuen erritmoa apaltzea aktibitate publikoetan indar gehiago emateko, edo ekintzak burutu aitzin lekuan lekuko erantzuleen jakin gainean ematea, ez ziren kontutan hartu. Txominen tendentziaren ordezkari politiko eta intelektualek eraman zuten Biltzarra eta denetan ezetz eman zieten Frente Langilearen ordezkariei (…). Biltzar Ttipia eta Exekutiboa gelditu ziren militarren eskuetan eta barne kooptazioaz berrituko zirela garbia zen. Aliantzen alorrean lehentasuna eman zitzaion abertzaleen artekoei eta Erakunde osoko zentralismo demokratikoa onartu zen. Honek eman zion bukaera Biltzarraren lehen partean onartu genuen eta 1973ko urtarrileko Hautsi aldizkarian agertu zen joera bati: egiturak zentzu deszentralizatu batean aldatzeko mugimenduari. Oro har, ETA, bat eta bakarra, eta bere buruaz aski kontent (*Ibid.:* 59).

Zer zioten, bada, 1972ko aitzin-batzar hartan onartu eta *Hautsi* aldizkarian argitaratu, eta handik hilabete batzuetara hautsi zenekoan?:

> *Joan den udako kanpainak eta bere ondoren etorri den errepresioak pentsaerazi egin digute (...). Azterketa honen ondorio, E.T.A.-k, etapa berri bati ekiten dio. Etapa berri honen ezaugarririk berezienak hauek dira: organizazionearen deszentralizatzea, klandestinitatea ta lanerako kapabletasuna elkarrekin eramaten saiatuaz; baseari indar gehiago ematea (beti zokoratua izan bait da); erabakiak hartzearen arintzea (gure martxa bizkortzeko nahi ta nahiezkoa); organo burokratikoak ahalik eta gehien gutitzea... Erran dugun guzi honek zera adierazten du: Euskadiko langileria ta herriaren serbitzuan ezartzeko asmo garbia*[22].

Kutsu libertarioko erabaki horiek bizitza laburra izan zuten oso. 1973ko *Hautsi* aldizkari horretan bertan *Gatazka* taldekoek borroka armatuari buruz zuten iritzia plazaratu zuten. Jatorrizkoa gaztelaniaz idatzi eta argitaratu zelarik, handik aldatuko ditugu azpimarragarrien iruditzen zaizkigun paragrafoak:

> Lo que distingue a ETA de las otras organizaciones que luchan en Euskadi, es su práctica real de la lucha armada: es más, en las diversas crisis internas que nuestro movimiento ha sufrido, ha sido siempre el grupo que ha continuado la práctica de esta lucha armada el que ha dado continuidad histórica a ETA y a su significación popular (…) Históricamente ETA inició las acciones armadas como una reacción doble: tanto contra el inmovilismo y el pacifismo colaboracionista del PNV, como contra la realidad evidente de la presencia armada del aparato franquista de ocupación (…). A partir de la V Asamblea, ETA se propuso convertirse en una organización al servicio de la clase trabajadora y de la revolución socialista: la ruptura con los orígenes pequeño burgueses se consuma ahí (…). Hemos de partir del supuesto de que la burguesía monopolista no abandonará su poder y sus privilegios sin lucha; y, de hecho, gasta sumas fabulosas en el mantenimiento de unidades militares represivas altamente eficaces y especializadas (…). Los grupos políticos de oposición que niegan la oportunidad o la necesidad de recurrir a la violencia revolucionaria niegan así la posibilidad de hacer la revolución; incapaces de confiar en la capacidad del pueblo para vencer a los oligarcas, o temerosos tal vez de esta capacidad, sólo confían en componendas políticas que les permitan participar en el festín de esos poderosos (…). Más refinados son los que afirman que están dispuestos a recurrir a la violencia «sólo como último recurso», y parecen no darse cuenta de que YA HOY estamos obligados a recurrir a esa violencia (…). Nosotros creemos que sólo se puede hacer la revolución socialista si el pueblo en armas es capaz de derrotar e inutilizar al aparato militar represivo. Puede ser que para ello lleguemos a necesitar un ejército popular. Como en Euskadi existe un problema nacional específico, nosotros lucharemos en ese caso por la constitución de una Armada Revolucionaria Vasca. El pueblo en armas será la forma más aguda y más eficaz de la lucha revolucionaria, uniendo a la lucha por el socialismo con la lucha por la independencia nacional (*Ibid.:* 241-242).

Iraultza sozial eta nazionalerako aukerak ez dira inoiz eta inon ugariak izan, eta iraultzaileak ere gurean beste tokietan bezala bakanak; 1973an, *Zutik* eta *Hautsi* aldizkariak gisa horretako planteamenduz josita daude. Batzuk zehatzagoak

22. *Hautsi*, 1973, 2. aleko editoriala.

dira; gerrilla-gerrari buruz zehaztasun gehiago ematen dute. Gaurtik ikusita oso utopikoa dirudi, baina 1977ra arte bazen esperantza —politiko-militarrek dudarik gabe; militarrek, aldiz, badirudi ezetz—: herria armaturik Euskal Herrian iraultza komunista abertzalea egiteko.

1973ko VI. Biltzarraren ondotik erakundeak atera zuen idatzia atsegin izan zuen Lopez Adanek. Hona paragrafo adierazgarri batzuk:

> Nuestro objetivo fundamental es la creación de un Estado Socialista Vasco dirigido por la clase trabajadora de Euskadi como instrumento para alcanzar una sociedad vasca sin clases, una Euskadi auténticamente comunista; como instrumento —en suma— para nuestra total e íntegra liberación como trabajadores vascos.
>
> En el plano social, nuestra lucha liberadora se desarrolla y viene enmarcada desde una perspectiva revolucionaria de clase, desde la perspectiva más consciente y auténticamente revolucionaria: la comunista.
>
> En el plano nacional, luchamos por la liberación de Euskadi desde una perspectiva independentista; lo que ciertamente nos distingue de muchas otras organizaciones socialistas. Pero el abanico de corrientes pro-independentista en nuestro país es amplio, abarcando a diferentes clases. Lo que es determinante, lo que da impronta reaccionaria o revolucionaria a tal reivindicación, es su contenido, lo que en realidad ha condicionado a unos y otros para posicionarse en tal sentido (…).
>
> La solución al problema nacional vasco exige la resolución a la opresión cultural, es decir, a la cuestión de la lengua y del conjunto de la cultura del Pueblo Vasco. Partamos del principio que tal problema exige, desde un punto de vista revolucionario, la consecución de la igualdad real entre todas las lenguas y culturas, o, dicho en otros términos, la desaparición de la menor desigualdad o discriminación entre ellas. Nosotros mantenemos que entonces la paridad lingüística sólo será viable y real mediante la euskerización de nuestro país, es decir, mediante la transmisión de la lengua nacional vasca al conjunto de la población de Euskadi. Esta será la única situación de bilingüismo auténticamente revolucionaria (…).
>
> Por ello, el Pueblo Vasco del Norte ha comprendido que no tiene sino una alternativa de liberación y realización: éstas serán posibles únicamente en el marco de un Estado Socialista Vasco que englobe a Euskadi Norte y Sur en un aparato político único; todas sus esperanzas de desarrollo social y nacional están centradas pues en el empuje que les ofrecería el impulso y la potencia de Euskadi Sur (…).
>
> El Estado Socialista Vasco —por fin— no tendrá una existencia perpetua: lo necesitamos únicamente mientras estemos empeñados en la resolución de nuestro problema nacional y en la reconstrucción económica y social de Euskadi Norte. Una vez cumplidas estas tareas, la existencia de un Estado autónomo para el Pueblo Vasco habrá dejado de tener sentido. A consecuencia de ello, en tal momento nuestro deber internacionalista será unirnos en pie de igualdad con todos los pueblos y proletarios del mundo —comenzando por los más próximos— para proseguir la edificación de la sociedad mundial sin clases (*Ibid.:* 248-251).

Bilakaera ideologikoa urrunera heldua, ideiak landuak, errealitate aldagaitza oztopo, nahiz 1973an errealitate politikoak aldagarria zirudien, iraulgarria.

Lopez Adani laket izan zitzaion idatzi hori, baina susmagarria ere bai. Izan zitekeen *Pertur* zenak idatzia; baina, hark edo honek idatzi, ikuspegi militarra zutenek zer kasu egiten zieten intelektualei, lan teorikoen egileei:

> Bagenekien mili gehienek konfiantza ideologikoa egiten zigutela zentzu zehatz batean: ez genuela deus eginen oinarri abertzaleen aurkakoa. Baina, edo argitaratzen zenaz ez zuten ardura edo, beharbada, zeramaten bizi arriskutsu eta gogo biltzailean sartuta, ez zuten lan teorikoen irakurtzeko beta handirik. Soineko aldagarri bat bezala erabiltzen zituzten lan teorikoak: ekintzen gorputz trinkoa beztitzeko hitz lagunak. Ez inor engainatzeko, ez. Denok jarrera abertzale eta iraultzaile berdinen barnean ginen, baina ekintzak gauza garrantzitsuena zirela uste osoarekin ibiltzen ziren (…). Ikusmolde samin horiek ez ziren baitezpada zuzenak. Militante lagun anitzek, lan politiko edo intelektualari garrantzi handia ematen ziotenek, ez zituzten partekatzen. Gero, bakoitzak bere historia pertsonala bazuen, eta horrek ere baldintzatzen gintuen. Pertur (…) Frente Langileari hurbil zitekeen, baina Biltzarraren garaian militar batzuekin batera ibiltzeari eman zion lehentasuna, edo behintzat horrela iruditu zitzaidan: hipotesi hartan, dokumentu komunistaren argitaratzeak ez zuen ETA komunista bilakatu zela erran nahi, baizik eta Ezkerraren taldeak ongi etorria egiten ziola.
>
> Belgikako lagunen artean arazoak aipatzen ziren; batzuek jarraitu ziren bide komunista abertzaletik Frente Langileari lotuak eta beste batzuek Exekutibo militarra hobetsi zuten, hori eraginkorrena zela pentsaturik (*Ibid.:* 60).

Lopez Adan Belgikako lagunetarik bat zen, eta bi jarrera horietatik lehenbizikoa zutenekin egiten zuen bat, hots, bide komunista abertzalearekin bat zeudenekin. Bide batez, ematen digun informazio ñabartua nabarmentzekoa da —bera non zegoen adierazita, batekoak eta bestekoak zertan ziren adieraztea—, jazoerak hobeki aditzen laguntzen digunez gero.

Handik laster utziko zuen erakundea, hartarako inori gutunik bidali gabe.

9. Erakundetik kanpo, LAIA eta Komando Autonomoetatik hurbil

Carrero Blancoren hilketa urrats handia izan zen borroka armatuan; ETAri ospea eta legitimitate handia eman zion. Burgosko prozesuan elkartasun handia lortu zen, eta 1974ko urte-hasieran ETA frankismoaren aurkako borroka ausartaren ikur nagusi bihurtu zen Euskal Herrian ez ezik Espainian ere, eta ETAk adierazi zuelarik Carreroren hilketa espainiar guztien askatasunerako ere bazela, azkartu zuen sentimendu hori.

Horrekin batean, Lopez Adanek aipatzen du ETAk lehenbiziko aldiz borroka armatuari balio estrategikoa ezarri ziola, ordura arte ez bezala:

> Miliek, batez ere, gaitasuna zuen aparatu bat sortu zuten, baina hasieran ez zen aukera estrategiko definiturik. Carreroren ekintzan, berriz, aipatu zen oso lotura zuzen eta esplizitua frankismoaren agoniarekin: tendentzia desberdinak (atzerakoia: Falangea; demokrazia teknokratiko posible baten aldekoa: Opus) ikusten ziren, eta ekintza armatuak etorkizun politikoa alde batera edo bestera makurtzeko gaitasuna izan zezakeela aurreikusten zen. Aldakuntza hurbil eta gauzagarri horiei lotua, borroka armatuaren ekintza taktikoak estrategia batean sartzen ahal ziren: iraultza egiteko bazen, norekin eta nola definitu beharko zen; negoziatzekotan, zeri mugatu negoziaketa eta zertarako. Proposamen berriak ontzeko alorrean sartu zen Erakundea (…) Euskal Herrian, garaipen handi bat bezala sentitu zen. Eñaut Etxamendiren kanta, Yup-lala, festa guztien momentu hobenetarikoa zen (*Ibid.:* 63).

Hori irakurrita, KAS koordinakundearen gutxieneko programa etorri zait gogora; beharbada aurrekari gisara har daitezke Carreroren erailketa eta ekintza hark izandako arrakasta.

Baina ETAko Langile Frontean denak ez ziren alegera; VI. Biltzarrarekin ez ziren batere kontent gelditu. Ikusten zuten errepresioa areagotuko zela, eta beren lanaren jarraipenerako oztopo handia izango zela: Erakundeak talde militar soilaren itxura eta egitura hartuak zituen, haien ustez, eta haustura heltzear. 1974an, azterlan saminak egin zituzten.

ETAren historia kritikoa zeritzan txostenak bi aro bereizi beharra aipatzen zuen: ETAren 1970eko VI. Batzarra baino lehen, eta haren ondotik. Aurreko aroan ez bezala, azken lau urteetan etena gertatu zen, eta heroismo indibiduala zen nagusi erakundean, eta Euskadiko langileen mugimendu abertzalean hark ez zuen eraginik, edo hura zeharkakoa baino ez zen:

> C´est pourquoi cette étude distingue clairement deux époques: avant et aprés la VI Assemblée de 1970. Jusqu´à cette époque-là, le développement d´ETA et de la conscience révolutionnaire ouvrière au sein du nationalisme basque suivent un même chemin, étroitement unis. Depuis la scission, dans E.T.A-V c´est une ligne marquée par l´héroïsme individuel qui prédomine, et qui n´exerce qu´une influence indirecte ou nulle dans le développement du mouvement patriote et ouvrier d´Euskadi (*Ibid.:* 259).

Idatzi horrek arazoa klase-interesen arabera aztertzen zuen, eta azpimarratzen zuen burgesia ttipiaren eragina zela ETAn nagusi.

LAIAk 1975ean atera zuen *Sugarra* agerkariaren lehen alean, gorago aipaturiko idatzian labur adieraziak zeudenak hedatu zituen:

> VIgarren Biltzarrez ondorengo zatibiketaz gero, ETAko jende abertzalea, nahiz eta ideologia ezberdinekoa izan, berriro organizatzen saiatzen da militar taldetxoaren inguruan. Aitor genezake elkartzen gintuena etzela ideologia-pentsakera batu bat, ETA-VIaren haize «espainolisten» aurkako kemen baten beharra baizik.(…) Onhartzen dira, bai, esnobismoz edo prejudizioz, halako printzipio haik: «ETA, langileriaren zerbitzurako», «giza klaseak oro ezabatu»…eta abar, baina horrelako onhartze batek etzuen sekulan inolako salto kualitatiborik suposatzen Erakundearen politikaren aldabidean (…). Borroka harmatuak eta jendetza (masa) borrokak elkarturik joan behar dute benetako politika iraultzaile bat egin nahi bada, eta orain, euskal jendetza horrela batu behar da abertzale politika bat egin nahi bada (…) ETAk bere aktibismoa «justifikatzeko», ekintza harmatua herriaren gaurko adierazgarri nagusia dela eta herriak jasaniko zanpaketari erantzun egokiena dela esaten du, baina hori jendetza egoeraren ikuskizun subjektiboegi eta faltsu bat edukitzea da (…). ETA militarraren aurka bagaude, ez da borroka harmatua arbuiatzen dugulako. Erreformista burgesak bakarrik ausartzen baitira honen beharra ukatzera. Gure ustez, garbiki mugarritu behar da abangoardiaren gaurko eginkizuna jendetza borrokaren indar bultzalari bat bezala (…). Izen desberdin bat hartzea erabaki badugu, mota hontako jokaeraren aldekoak eta kontrakoak ondo aztertu eta hausnartu ondoren egin dugu. Hauk ditugu, gehien batetan hontara behartu gaituzten arrazoiak:
>
> a) ETAko siglak ekintza harmatu (aktibismo militarista) bati sakonki lotuak daudelako. Horrelako izen batekin jarraituz gero, borroka militar harmatu bati lotuak geldituko ginatekeen, behar bada bien artean lehiaketan sarturik, eta berriz ere lehengo akats berberetan eroriko.
>
> b) bestalde, badira zenbait organizazio izen beraz zertzen direnak. ETA izenarekin jarraituz gero, ez genuen orain arteko nahaspila haundiagotu besterik egingo.
>
> d) azkenik, ez dugulako uste iraultza izen honek edo organizazio hark egingo duenik, bere langile taldeak (klaseak) zuzenduko duen Herri osoak baizik (*Ibid.:* 263-269).

Lopez Adan ildo horretako jendearekin joan zen. Garai hartan ez zuen konpromiso organikorik erakundearekin, eta ez zuen batere arazorik izan sartu zen bezala ateratzeko. Eta ez du hala egin izanaren damurik. ETAk ere ez zuen sobera gaizki hartu Lopez Adanen erakundetik ateratzea, Lopez Adanen beraren esanetan:

> Erakundetik joan nintzen ni jende horiekin, eta beti pentsatu dut konpainia onean egin nuela. Militante zaildu eta trebatuak Karmelo edo Generala bezala, Gatazka inguruko lagun zahar batzuk (ez denak), langile batzordeetan zebiltzan militante ezagun nahikotxoa, bereziki Gipuzkoan, bai eta oso intelektual argiak, dozena-erdi aktibista armatuak eta gazte batzuek, gero Euskadin loratuko zen langileen mugimendu autonomoarekin oso modu naturalez bat egingo zutenak. Bat aipatzeko, langile gazte bat, duela gutxi utzi gaituen Azpeitiko Bernardo Aizpitarte, Kabra, pentsaera eta ekintza erradikalen etengabeko eredua[23]. ETAk, beraz, barne diziplina kontutan minduta izan bazen ere, ez zuen sobera gaizki hartu zatiketa. Erakundearen buruzagiak ere gogoeta teoriko eta estrategikoetan ari ziren eta heldutasun nahikoa bazeukaten LAIAren joateak ukitzen zuen arazoari irtenbide bat eman beharko zitzaiola ulertzeko (*Ibid.:* 70).

Iker Casanovak ere heltzen dio Langile Frontea ETAtik aldendu eta beste erakunde bat sortzeko gaiari, baina beste modu batera, noski:

> Desde principios de 1974 la dirección había asumido que la hipótesis de la ruptura con el Frente Obrero era la más probable. Para adelantarse a ese escenario y con el fin de plantear su propia respuesta al problema organizativo, había puesto en marcha un nuevo sistema de funcionamiento en varias zonas, que se llamaron «zonas pilotu» por lo experimental de esta apuesta. El nuevo modelo agrupaba el trabajo político y el militar de cada zona bajo la dirección de un responsable único aunque ambas tareas debían ejercerse a través de estructuturas estancas unas de otras (…). Los miembros del FO habían detectado estos movimientos y concretamente el trabajo de otros responsables de la dirección para crear unas células obreras al margen del FO. Éste fue el detonante para decidir su salida de ETA. El III Biltzar Ttipia fue el escenario en el que el Frente Obrero manifestó su intención de abandonar la organización al considerar imposible realizar su trabajo dentro de la misma. En todo caso la ruptura se vio envuelta en acusaciones recíprocas que muchas veces estaban basadas más en la desconfianza y en el alejamiento que supone la clandestinidad, que en hechos reales. Por eso los miembros del FO que abandonaron la organización fueron formalmente expulsados.
>
> La mayoría del FO, casi todo el aparato en Gipuzkoa y una parte en Bizkaia, abandonó la organización para crear una nueva estructura, el partido LAIA (…). Un bloque mayoritario del FO de Bizkaia continuaría funcionando de forma autónoma (…). Aun así, esta escisión no revestirá el grado de confrontación de anteriores rupturas, como las de 1966 y 1970. En primer lugar, porque los escindidos no sólo no reclamarán la sigla de ETA, sino que tratarán de tomar distancia de la misma debido a que la atracción represiva de ese nombre es una de las principales razones para su salida de la organización. En segundo lugar, también a diferencia de esas dos grandes escisiones señaladas, en estos momentos no se trata de impugnar la legitimidad teórica de unir abertzalismo con socialismo, ya que se considera que tal posibilidad ha quedado realmente demostrada y es además el camino adecuado (Casanova, 2007: 157-158).

23. Haren memoria ahanzturaren putzuan gal ez dadin liburu xumea eskaini dio berriki Joxin Iturriotzek, begiramen eta miresmenez idatzia. Ikus: Iturriotz, 2012.

Gorago jaso ditugu alde egin zutenek adierazitako arrazoiak, eta egindako azterketak, xehetasun zehatzetan sartu gabe. Iker Casanovarena ere bai; eta, halaber, Lopez Adanena.

Franco hil eta berehala, 1976ko urte-hasieran itzuli zen Bruselatik Angelura. Europar Batasuneko hiriburu politiko-administratiboan emandako azken urtea, *Nacionalismo vasco y clases sociales* idazten eman zuen, eta Angelun bururatu zuen.

Anartean, ETA bitan zatitu zen, politiko-militar eta militarren artean, eta 1975eko abuztuan KAS osatu zen, Koordinadora Abertzale Sozialista. Hiru erakundek osatu zuten: ETA politiko-militarrak, LAIAk eta EASek. ETA militarrak sostengatzen zuen, eta halaber, LABek eta LAKek —Langile Abertzale Komunistak—. Franco hiltzear zen, eta hura zendutakoan gertatuko zen krisi politikoari erantzuteko egituratu zen.

Lopez Adanek, KASen barruan, LAIAren alternatibaz ematen dizkigu hainbat argitasun, bere lagunen joera zelako hain zuzen; eta, horren ondotik, ETA militarraren ikuspegia ere biltzen digu: ezberdina!:

> «Gure ustez, KASek hein desberdinak izan behar ditu. Bai koordinadora nazionala, bai eta probintzietan, eskualdeetan, herrietan eta auzoetan indar desderdinak biltzeko; bai eta ere mugimendu asanbleario bat bezala, herrietan, lantegietan, ahal den jende zabalena biltzeko. Ezker Abertzalearen edukia oso zabala da, jende asko biltzen du inongo alderditan egon gaberik, ezagutza edo ideologia faltaz. Baina jende horrek oso eginkizun handia izanen du datorren borroka garaian. Alderdiek dinamizatu behar dituzte masak, ez ordezkatu: KASen puntuekin ados izanen direnak bildu beharko dira eta asanbladei azken hitza eman, utzi gaberik batzorde gestoreen eskuetan» (…) ETA militarrak ez zituen jarreren arteko mugak berdin ikusten. Haren ustez, «Hasieratik bi ikuspegi nabarmendu ziren. Bat demokratiko-burges erradikala, EHASek eta Erakunde politiko-militarrak (LABen laguntzaz) defendatzen zutena eta bestea, herrikoi tankerakoa, LAIAk eta LAKen parte batek defendatzen zutena. Gure ustez, biak ziren Euskal Herriaren bi sektore jakinen borroka gogoaren adierazgarri eta biak bultzatzea erabaki genuen» (1976ko *Zutik* 67) (Lopez Adan, 2014a: 79-80).

Transizioari begira LAIAk *Sugarra 2* atera zuen. Espainiako Estatuko bilakaera Portugalekoarekin erkatzen zuen, eta ondorio gisa bi atera zituen; bata, oligarkiak berak antolatuko zuen demokrazian, herri-oldea kontrolatzeko, hark ezinbestekoa izango zuela alderdi eta sindikatu erreformisten laguntza:

> 1) Herritarren artean ezagutuak eta jarraile asko sortzeko gai liratekeen eta ospe handiko ordezkariz antolaturiko alderdi burgesen berreratzea (…).
>
> 2) Herri oldeen (masen) prestatze sikologiko sakon bat liberalkeriaren (liberalizazioaren) jokua jarrai eragiteko, baina ordenuz eta burgesgoaren zuzendaritza eta agintearen pean. Horretarako nagusikeria (diktadura) (eskubiko nahiz ezkerreko izan), komunismoa eta «terrorismoa» deituaren aurka behar diren sasi-egia guziak erabiliz azpijanean, eta ordenua eta batasun barreneko «erregionalismoa» abertzaletasunaren «sendagarri» bezala agertuz.

> 3) Herri oldeen kontrola edo atxikitzea, ordenuzko ezkertiar alderdien bidez lortua. Horien laguntzaz bakarrik gai izanen dira jende multzo hedatu batzu bereganatzeko, inork gainartzerik gerta ez dadin.
>
> Gogoeta horietan EAJren eginkizunaz baieztapen argi bat badator: EAJ eta euskal burgesia ez zirela gehiago masen ondoan oligarkiaren aurka, baizik eta oligarkiarekin erreforma burgesa anti-iraultzailearen partaideak. Egoera arrunt aldatzen ari zen, eta dagoeneko Frente Nazionalaren inguruko ikusmolde estrategikoa ez zen aipatzen ezkerreko abertzaleen aukera estrategikoetan (*Ibid.:* 86-87).

Bigarren ondorioak, berriz, antolaketa zuen ardatz, eta iduri du Gasteizen, 1976ko martxoaren 3an, poliziak basaki —hildakoak eraginez— zigortuko zuen egituraketa zuela eredu inspiratzaile:

> Langile klasearen batasuna eta herrikoi klaseen batasuna premiazkoak izanez gero, alderdi, politiko erakunde, eta masa erakundeen borrokarako koordinazioa (sortzeko) erabateko beharra bai dago. Bainan hau bakarrik ez da aski. Euskadiko langiledi (proletariatu) osoaren eta herrikoi klaseen gaurko borroka-estrukturen batasuna eta biharko boterearen estrukturen batasuna eraikitzen hasi behar dugu. Gaur diren politiko eta masa erakundeak ez dira aproposenak, helburu hori lor dezagun. Fabrika, lantegi, hauzo, herri bakoitzetik hasirik, baseak demokratikoki aukeratutako errepresentanteak izanaz, erakundeak sortzen eta hazitzen saiatu behar dugu. Organo hauk Euskadi guztira zabaltzen eta elkar-koordinatzen diren heinean, gero eta egiteko inportanteagoa izango bai dute borroketan. Fabriketako, herrietako, hauzoetako batzordeak, problemen eta borroken bilakaeraren kontextoan, bultzatzea oso beharrezkoa iduritzen zaigu. Askotan eta problema edo une berezietan garrantziaz jokatu dute basearen errepresentatiboak diren komiteak (grebako komiteak, adibidez). Holako komiteak iraunkorrak izan beharko dira, eta baseak beti, errepresentanteak aldatzeko eskubide eta posibilitatea izango bai du. Hau da, masek borroka erakunde eta boterezko estrukturak zabal eta batuak antola ditzaten bide bakarra eta egiazkoa *(Id.)*.

Horra bi ondorio horietan jada azalduak, batetik, arrakasta izango zuen frankismoaren erreforma, frankismoaren sostengu izaniko batzuek oposizioan ibilitako batzuekin batera gidatua, eta, bestetik, erreforma haren aurka antolatu nahi zen behetik hasitako egitura, frankismoarekiko haustura lortu nahian; laster behera etorria botere faktikoen, alderdietako buruen eta geroxeago sindikatuen laguntzaz.

10. Trantsizioa. KAS. LAIAren zatiketa

Hainbeste itxarondako unea heldu zen halakoren batean: diktadorea ohean hil zen, eta handik urte batzuetara hainbeste laudatu den zorioneko trantsizioa ekarri zuten, diktaduratik demokraziara. Askorentzat trantsizio eredugarria. Baina hala izan al zen?

Pare bat espainiar intelektualek trantsizioaz egindako irakurketa kritikoa ekarriko dugu hona labur-zurrean. Ez bata eta ez bestea ez dira muturreko ezkerreko alderdiren bateko buruzagi izan. Lehenbizi, Gonzalo Puente Ojearena, besteak beste, 1985etik 1987ra Espainiako enbaxadorea izandakoa Vatikanoan. Nola kalifikatu Espainiako trantsizio politikoaren prozesua?:

> El proceso de la transición política podría calificarse como una frustración de lo posible. En lugar de iniciarse la renovación de las clases políticas directoras —que implicaba la sustitución de quienes habían encarnado el régimen de la dictadura—, asistimos desde entonces a la fusión de los nuevos dirigentes democráticos con los dirigentes del franquismo, predominando, en esa fusión, la mentalidad, los intereses y las personas del viejo régimen (Puente, 1995: 348).

Espainian, bere historian zehar izan diren bi errepubliken hasieran —1873 eta 1931— behin-behineko Gobernuak osatu ziren, eta haiek Gorte Eratzaileetara deitu zuten; lehenbizikoan, ez zen errepublikar konstituziorik idatzi ahal izan, matxinada karlistak, konspirazio militarrak, eta indar monarkiko eta eliztarrek akuilatutako errepublikanoen batasun-ezak huts eragin zuelako, baina, 1931n, lortu zen. Bi errepublika horiek «*quisieron fundarse en* la legitimidad de un proceso constituyente *iniciado con una consulta basada en el sufragio universal ejercido* sin restricciones *de las libertades de expresión, asociación, y propaganda en condiciones de igualdad*» *(Id.)*.

Baina 1976-1978an ez, eta 2014an ere ez, non Francok izendaturiko Juan Carlosen lekukoa beraren seme Felipek hartu duen, prozedura bertsuaren bidez, hots, botere faktikoen arteko tratuaren bidez, botere horietan sarturik Espainiako bi alderdi nagusien buruak:

> Ningún tratadista serio discute el hecho de que en 1976-1978 no existió proceso constituyente democrático. Un proceso de esta naturaleza exige la formación de un Gobierno provisional «a quien se le encomienda la ardua misión de organizar la transición pacífica del régimen anterior al nuevo», como apuntan Ferrando y Lucas

> Verdú. A esta primera condición se suman otras dos: la elección de unas Cortes Constituyentes por sufragio universal encargadas de redactar la Constitución (…); finalmente, que las elecciones se realicen en un régimen de libertades públicas sin restricciones antidemocráticas, con plenas garantías de libre asociación política, de discusión pública de modelos o programas y con igual acceso a los medios de comunicación escrita, radiofónica y televisiva de propiedad estatal u oficial, sin privilegios o ventajas para nadie. La elaboración de 1978 no respetó ninguno de estos requisitos indispensables. (…) Se trató de pactos cocinados al margen de la opinión pública, que no sólo no condujeron a ruptura alguna, sino que aseguraron la continuidad de instituciones sin legitimidad democrática derivadas del golpe militar del 18 de julio de 1936 y la subsiguiente guerra civil (*Ibid.:* 349).

Horretarako oso garrantzizkoa izan zen memoria galtzeko prozesuari ekitea, ez ahanzturari, baizik eta gauza zehatzago eta borondatezkoago bati: memoriarik gabeko bihurtzeko gaitasunari:

> «…Franco ha muerto. ¡Viva el Rey!». Morán debió añadir, ya de entrada, que ese proceso fue inspirado por los políticos contra la legítima esperanza de una opinión pública impaciente por suprimir el régimen vigente. Sus propios líderes políticos acabaron traicionándola, con un PSOE manipulador y traicionado, a su vez, por su Secretario General. ¿Cómo puede hablarse honestamente de consenso como principio legitimador de la mayor trampa de la historia moderna de España, urdida por un exiguo número de dirigentes que habían asimilado lo peor de la oligarquización de los Partidos?… La clase política franquista había encontrado inmejorables interlocutores (*Ibid.:* 350-351).

Puente Ojea diplomazialari ohiaren kritika bikainaren aipuak aldatzen amaitzeko, irakur dezagun zer dioen egungo Espainiako konstituzioaren zazpi aita goretsiei buruz:

> La Ponencia Constitucional designada el 1 de agosto de 1977 por la Comisión Constitucional sacada de la manga por el gobierno Suárez, a la sombra del poder regio, llegaba cuando prácticamente la capitulación injustificable de las izquierdas había quedado consumada y era ya irreversible. Esta Ponencia estaba integrada por los siguientes representantes del país (¿de cúal?): dos franquistas y católicos a machamartillo (Gabriel Cisneros, ex Jefe Nacional del SEU, mensajero y redactor de los discursos de Arias, y Manuel Fraga Iribarne, el ministro de Franco que, entre otras muchas cosas, pilotó los apoteósicos Veinticinco Años de Paz); tres monárquicos, de los cuales dos al menos estaban estrechamente vinculados a la Iglesia (Miguel Herrero y Gregorio Peces-Barba), y un catalanista católico conservador (Miguel Roca); y de los dos restantes (José Pedro Pérez Llorca y Jordi Solé Tura), el primero era un tránsfuga procedente del radicalismo antifranquista del FLP en sus años estudiantiles, y cuya mentalidad liberal-conservadora y su enorme ambición política lo hacían disponible para los compromisos y concesiones que se le pidieran en aquel momento. Solé Tura era la voz de sus amos, los líderes del PSUC y el PCE, plegados al famoso «consenso» (…) Apenas necesita comentario lo que cabía esperar de estos celebrados padres de la Constitución, abrumadoramente exponentes de las fuerzas políticas consagradas

> a la continuidad de los poderes fácticos —capitalistas, eclesiásticos y militares— y de sus clientelas y valedores políticos. Naturalmente, sabían muy bien cómo elaborar un texto constitucional de anatomía democrática, pero de fisiología eminentemente conservadora en los límites obligados de un cambio político de tercio (*Ibid.*: 351-352).

Igaro gaitezen orain José Vidal-Beneytoren trantsizioaren kritikara. Soziologiako katedraduna Madrileko Unibertsitate Complutensean, eta *El País* egunkariaren bazkide fundatzaile eta kolaboratzailea. *Memoria democrática* deritzan liburuaren sarreran, liburuaren xedea zein den hitz hauekin adierazi zuen:

> Contribuir a la clarificación de una problemática, tan corrompida y maltratada, como la de la Memoria Democrática, cuyo último avatar está siendo el disolverse en la autoproclamada neutralidad de la memoria histórica —en la que todos somos por definición iguales— y en confiar su destino a los historiadores, a los que les pide que la salven de la amnesia de la que con su aval la han hecho objeto los políticos posfranquistas. De ambos bandos. Frente a esta neutralidad de la memoria histórica, que lo único que postula es que se de a todos los que intervinieron en el mismo periodo igual tratamiento rememorativo, la memoria democrática se centra en la anamnesis de la lucha por las libertades bajo el franquismo, en el relato de las acciones en que consistió y en la presentación de los actores que las protagonizaron (Vidal-Beneyto, 2007: 10-11).

Puente Ojeak bezala «ahanztura programatuari» egin nahi izan dio aurka anamnesiaren bidez, hots, frankismoaren erregimenaren pean askatasunen aldeko borrokari buruzko memoria berreskuratzeari ekinez; izan ere, zinezko iraganaren ordez bestelako iragan bat ipini nahi izan baita:

> Lo que se ha pretendido no ha sido sólo ni principalmente negar el pasado real, el de la lucha antifranquista como antecedente necesario de la democracia, sino poner en su lugar otro pasado, el de la autotransformación de la dictadura en una democracia de partidos, el de la metamorfosis del Movimiento Nacional en Monarquía parlamentaria. Lo que requería disponer de un quicio, unánimamente aceptado, en el que poder engoznar la operación, a la par que se ocultaban los hechos y se cancelaban los datos que pudieran deslegitimarla. Y esa fue la función que cumplió Juan Carlos Borbón.
>
> La negación de la movilización popular, el escamoteamiento de las acciones de base, en particular de las Mesas y de las Juntas Democráticas a partir de 1972, el silencio sobre la represión que no cesó durante toda la llamada Transición, eran interferencias que había que ignorar porque enturbiaban la nitidez de un proceso ejemplar. Ejemplaridad que, si existió, no fue en su decurso a la democracia, sino en la definitiva legitimación democrática de la sociedad franquista, que logró consagrar el modelo que estoy llamando de transición circular *(Id.)*.

Eta, lan horretan, paradoxikoki, ez ziren gehien nabarmendu frankismoaren oinordekoak, baizik eta oinordekotza horren aurka borrokatu zirenak:

> Porque obsesionados por su cooptación por parte de los poderes sociales, los antifranquistas disminuyeron su perfil antagónico y se apuntaron, con entusiasmo, a la reconciliación renunciando a su condición diferencial de demócratas históricos. Renuncia que les llevó a limpiar sus CVs de toda huella susceptible de recordar su alistamiento pasado, por lo que contrariamente a lo que sucede con los ciudadanos de Francia, Italia, Alemania cuyos currículos los encabeza siempre su lucha contra la dominación totalitaria, por modesta que haya sido, en nuestro país la resistencia/oposición a la dictadura se silencia y se oculta, y es casi imposible encontrar un currículum que no se pliegue a esa consigna de olvido practicada (*Ibid.:* 11-12).

Boterera heltzearren ahanztura programatu hartan gogotik esku hartu zuten oposizioko agintariei esker, besteak beste, jeneral frankista bat bera ere ez zen auziperatu, torturatzailerik ere ez, ez eta gobernu frankistetan esku hartutako goi-agintaririk ere: amnistia, ahanztura eta iraganaren bertsio iruzurrezkoa nagusitzeko ahalegina gailendu ziren. Hausturarik gabeko trantsizio zirkular hartan, Mugimendu Nazionala Monarkia parlamentario bilakatu zenekoan, protagonista nagusia Juan Carlos Borboikoa izan zen; baina, Felipe Gonzalez eta lagunek, eta Santiago Carrillo eta lagunek, asko lagundu zuten.

Demokratek espero zuten hausturaren ordez, zehazki, hauxe gertatu zen:

> Para algunos de nosotros ruptura era también, y, tal vez, sobre todo, la ocasión de actualizar, ensanchar y revitalizar la frágil y disfuncional democracia de los partidos, fletando nuevos modos que dieran cabida y voz política a los colectivos sociales (…). Era la ocasión de construir con una sociedad movilizada una democracia ciudadana.
>
> Pero la creación de la Plataforma de Convergencia supuso el fin de la ruptura. De la ruptura, simple y clara, de las Juntas, se pasó a la ruptura pactada de Carrillo, de esta a la reforma pactada de Felipe Gónzalez y finalmente a la autoreforma de Adolfo Suárez. Los democráta-cristianos y el PSOE exigieron y el PCE aceptó que, para cualquier movilización popular hiciera falta la unanimidad de todos los componentes de la Platajunta.
>
> Se dejó así la calle en manos del Gobierno, lo que equivalía a dejar inermes a las fuerzas democráticas, a despojarlas de toda capacidad negociadora. Por eso los herederos del franquismo pudieron imponer su negociación y la Transición se pactó en sus propios términos y desde su propio campo (…). El travestimiento fue tan perfecto que los democrátas españoles están pagando el retiro de los policías que los torturaron y se aprestan a pagárselo a los ministros de Franco por el hecho de haberlo sido. Coherentes con ello, esos mismos ministros, convirtiendo en aval irrecusable las sentencias de muerte que algunos firmaron, recaban para sí la función de antecedente necesario, de auténticos precursores de la democracia. Asesinato de la memoria, impune como todos los crímenes franquistas, imposible sin la complicidad de quienes, desde la oposición o el poder, han perpetuado sus prácticas y sus privilegios (*Ibid.:* 162).

Oposizioak emandako sostenguaz gainera, AEBetako gobernuak paper garrantzizkoa jokatu zuen, eta Europako bi alderdi nagusietako —bereziki kontserbadore frantsesak eta sozialdemokrata alemanak— buruek ere bai: kontserbadore eta

sozialdemokratek. Interesgarriak dira oso Mendebaldeko nazioarteak trantsizio zirkularrean izandako esku-hartzeaz Vidal-Beneytok egiten dituen baieztapenak eta ematen dituen argitasunak:

> En los años 50 y 60, las necesidades de la estrategia exterior de los Estados Unidos empujan a su establishment politológico a distinguir entre totalitarismos intrínsecamente perversos —los de la izquierda— y evolucionables —los de la derecha— y para ello se lanza una nueva categoría política: los regímenes autoritarios. Se trata, esencialmente, de establecer una discriminación ideológica entre unos y otros, que permita recuperar al franquismo y al salazarismo, así como a las dictaduras militares latinoamericanas y del sudeste asiático, regímenes que se quiere alistar en el mundo occidental, al mismo tiempo que se condena, sin apelación posible, a los hostiles e irredimibles autocratismos comunistas que hay que combatir hasta su extinción (…). Con todo, el aspecto más decisivo, casi totalmente ocultado hasta ahora, es el rol de la intervención exterior en el cambio político español. De modo muy especial el papel de los Estados Unidos y de las Internacionales democráticas en la muerte política de D. Juan de Borbón y en la consagración de su hijo como eje de la Transición democrática (…). En cuanto a los Estados Unidos, después de haber incorporado, en 1953, la España franquista al bando occidental, se establecieron contactos permanentes entre los servicios de inteligencia de ambos países que, como señala Joan Garcés, se intensificaron a partir de 1970 a causa de la precaria salud del dictador. Personaje capital en esos contactos fue Vernon Walters, agente fundamental de la CIA en esta operación, quien en marzo de 1971 transmitió a Franco la felicitación de Nixon por la designación de Juan Carlos como su sucesor y le instó a acelerar su instalación como Jefe de Estado. Por lo que toca a los europeos, puedo aportar mi testimonio como coordinador de la Delegación Exterior de las Juntas Democráticas, de que a partir de 1975 la presión en el mismo sentido fue casi unánime. Recuerdo en particular el insistente mensaje de Poniatowski, ministro francés del interior en aquellos años, que velaba por nuestra seguridad a la vez que vigilaba nuestra actividades, quien haciéndose eco de su presidente Giscard, nos decía siempre: olvídense de D. Juan y acepten a Juan Carlos (*Ibid.:* 156-159).

Ezaguna da, bestalde, PSOEk Alemaniako SPD alderdiaren aldetik izan zuen era guztietako laguntza eta eragina ere. Sostengu horretan figura gailenak, besteak beste, Willy Brandt eta Dieter Koniecki izan ziren, alderdiko burua, eta Alemaniako Errepublika Federaleko enbaxadorea Madrilen, hurrenez hurren, eta Ebert Fundazioa.

Horretaraz gero, hautua ez zen monarkia edo errepublika, baizik eta D. Juan edo haren seme Juan Carlosen monarkia, estatubatuar, frantses eta aleman agintarietakoak bidelagun zirela. Erregimen frankistarekiko hausturarik ez —behin-behineko gobernua, gorte eratzaileak, boto unibertsalezko hautapena, eskubide demokratiko guztiak eta alderdien programa guztiak defendatzeko aukera berdinak—, baizik eta erreforma, edo trantsizio zirkularra, lehengo agintariak atxikirik eta gauetik goizera demokrata bilakaturik, haien mentalitatea eta portaerak nagusi zirela, behiala oposizioan egonak agintarien lerrora iragaitea, azken horiek sutsuenak agertu zirela erreformaren operazio horretan; eta frankismoaren bidegabekeria alimalekoak, erantzule jakinak zituztenak ahaztea, hilketak, torturak, 1977ko amnistia-legea lagun.

Lopez Adanek, 1992an, *Uztaro*n argitaraturiko artikulu batean, hots, bestelako egoera historikoan —perestroikaren eta SESB desegitearen ondotik— gauza bertsuak aipatzen zituen, baina, hain justu, ezker abertzaleak 1974-1978 urteetan finkaturiko eredua ahitua zela aditzera emateko:

> Modelo gisa aurkezten diren trantsizioaldiak paktatuak dira: hain zuzen Espainia eta Uruguay izaten dira beti hitzetik hortzera aipatuak. Alta, trantsizio horietan, lehen urratsak aski antidemokratikoak izan dira, parteen arteko itunen funtsa, hain zuzen, herriari inposatuko zaizkion eztabaidaezinezko baldintzak definitzea izan bait zen. Eta itun fundatzaile horiek ikusita, hiru atal berezi herriaren asmotik kanpo ematen dutela esan daiteke:
>
> Diktaduran habe eta parte ziren militarren inpunitatea eta, askotan, leku berezia ordena konstituzional berrian.
>
> Paktu sozial bat, Estatu, patronal eta sindikatuen artean, propietate eta merkatu-erregelak antzinetik ongi finkatuak uzteko. Espainiako kasuan, eta ez da bakarra, kapitalismoaren onartze eta errebindikazio komunisten ixiltzea izan da itunaren edukina.
>
> Paktu Konstituzionala, alderdien arteko joku politikoan ikuezinak izanen diren oinarriak finkatzeko. Sistema honen bidez, adibidez, Espainia monarkia gisa eratu zen.
>
> Aitzin hautsi-mautsi horiek direla eta, demokrazia errepresentatiboari eta hauteskundeen sistemari egindako kritika guztiak bere indarrean agertzen zaizkigu: azken finean, gero egin diren bozketek eta erreferendumek lehenik egosia zena onetsi zuten, besterik gabe (Lopez Adan, 1992c: 137).

Gatozen berriro 1976ra, eta ezkerreko independentista iraultzaileen bilakaera jarraitzera. 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen, polizia espainiarrak bost langile erail zituen: Pedro María Martinez Ocio, Francisco Aznar Clemente, Romualdo Barroso Chaparro, José Castillo eta Bienvenido Perea. Oraindik zigorrik gabe darrai.

Horren aurretik borrokan, lanuzteetan ari ziren fabriketako langile-batzordeen koordinakunde bat osatua zen, behetik gora antolatuak ziren langileak. Artean ez zen sindikatu eta alderdi legezkorik Espainian, eta langileak fabrikako batzarren bitartez antolatu ziren, elkarturik irabaz zezaketelako kontzientzia hartu, eta kontrabotere bat sortu zuten. Batzar haien ildo beretik, 1976ko udazkenean, ehun eta berrogeita hamar bat enpresatako langile ordezkariek koordinakunde bat antolatu zuten Bizkaian, hots, langile-batzarretan oin harturik. Bide hori jotzen zuten egokiena Lopez Adanek eta LAIAkoek-eta, langile klaseak gidaturiko iraultza sozial eta askapen nazionalerako.

1976ko abuztuaren 18an, KAS alternatiba plazaratu zen. ETA politiko-militarrak, EHASek eta LAIAk agiri bat sinatu zuten, helburu estrategikoak eta taktikoak zehazturik. Estrategikoetan ados ziren guztiak: euskal estatu independentea, bateratua, sozialista eta euskalduna. Baina taktikoetan, LAIAk ez zuen burgesiak onar zezakeen programarik onartu nahi. ETA militarrak bere egin zituen zazpi eskakizun taktikoak hauek ziren: 1. Askatasun demokratikoak. 2. Amnistia orokorra. 3. Estatuko

polizia-indar zapaltzaileak eta auzitegi bereziak deuseztatzea, eta herriaren aurka lan kriminaletan nabarmendutakoak epaitzea; 4. Langile eta klase herrikoien bizimodu eta lan-baldintzak hobetzeko neurriak hartzea. 5. Euskadiren subiranotasun nazionala onartzea, hots, autodeterminazio-eskubidea, estatu propioa eratzeko aukera barne. 6. Hego Euskadirako autonomia zabala eratzea: behin-behineko gobernua, lau probintziak elkarturik, elebiduna, Ipar Euskadirekin lotura bereziak, eta bertako eta etorkinen integrazioa bermatuz: herritar guztiek, jatorria zeinahi dutela, eskubide berberak. 7. Hego Euskadiko behin-behineko gobernua, gobernu zentralarekin harremanetan, puntu horiek onartuz gero, Espainiako Konstituzioa onartzeko prest.

LAIAren barnean iritziak berezi zebiltzan. Batzuen ustez, sozialismoa gauzatzeko baldintza objektiboak baziren, baina subjektiboak ez. Jendea motibatzeko, kontzientziatzeko ezker iraultzaile osoarekin eta bereziki ezker abertzalearekin bat egiteko alternatiba bat behar zen, puntu komun gutxieneko batzuk, eta KAS alternatiba horixe zen; beraz, onargarria zen. Hori zen LAIA-BAIkoen iritzi nagusia, eta LAIA-EZkoena, aldiz, beste hau: iraultza sozialista egiteko badira baldintza objektiboak eta subjektiboak. Herria biltzen da batzarrek osaturiko ehun zabal batean, eta horixe da masa-borroken leku nagusia. Ez zaio erregimenari irtenbiderik eskaini behar, taktikoa izanagatik, eta bai herriari sistema osoa iraultzeko alternatiba. KASen programa burgesiak onar dezake, eta iraultza soziala ezinezko bihurtu. Boterea desegiteko, epe laburrean, gaitasuna duen alternatiba ez da alderdi batzuen batasuna, baizik eta Langileen Batzorde Nazionala.

Garai hartan Euskal Herrian zenbat lanuzte, manifestazio eta borroka egin zen ezagutu dugunok, ulertzen ditugu planteamendu horiek, ez baikinen horietatik urrun ibili. Bizi ez dituztenek? Gaur eguneko gazteek sumatu ere ez; inoiz entzun ere ez hain segur!

LAIA-BAIk 1980ko krisira arte KASen jarraitu zuen; eta LAIA-EZ laster LAIAK (LAIA komunista) bilakatu zen, eta hango militante batzuek, beste jatorri bateko militanteekin batean, autonomiaren mugimendu zabalean, eta Komando Autonomo Antikapitalisten sorreran esku hartu zuten.

Zatiketa gertatzean, Lopez Adan LAIA-EZkoekin joan zen. Berak honela azaldu du berriki erabaki hori:

> Egoera nahasia zen eta bi oinarri geneukan alde batera edo bestera jotzeko.
>
> Ideologia aldetik, anitz libertarioak ginen, dudarik gabe. Nik ez nuen inoiz marxismoa utzi eta errealitatea ikertzeko ematen dituen klabeak baliatzen entseatu naiz. Baina autoritarismoa hastio genuen eta jende xehe edo zanpatuen auto-organizazioa hobesten: beraz, leninismoaren aurka ginen.
>
> Bestalde, estrategiaren egingarritasuna oso garrantzitsua zen eta gure kinka hartan dena ez zen pentsaeraren «garbitasuna». Aieruak egin behar ziren ere: langileen mugimendu autonomoa erpinean zen bai, baina laster, goiti jarraituko ala beheiti joanen? Jende

> langilea bero zebilen, baina zenbat ziren irauteko gai? Orduan isilik zirenak eta demokrazia «normal» batetan sistemarekin ados izanen zirenek, ez al zuten horiek «gehiengo isil» famatua osatuko, demokraziarekin ageriko zena eta iraultzaren ametsa lurperatuko zuena? (Lopez Adan, 2014a: 100).

1977an, elkarrizketa luze samar bat eskaini zion *Punto y hora* aldizkariak. Pare bat alderditatik behintzat badu interesa elkarrizketa horrek; bat, 1977ko ekainean Espainian egindako bozak zirela eta, agertu zituen iritziak jasotzeko; eta, biga, bereziki, beste hainbat gairi buruz agertu zituen aburuengatik. Ez zegoen jada alderdi jakin baten mendekotasunari estekatua, eta nabari da iritzien freskotasunean.

Hauteskundeei buruz:

> Hay un problema general de lo que significa cualquier elección. Las elecciones en la democracia burguesa significan una delegación del poder a un señor que durante un largo período de tiempo va a regentar un aparato económico productivo que tiene muy poco que ver con lo que se vota en las elecciones porque viene ya dado —es el sistema capitalista—, y lo va a regentar sin tener que dar continuamente una explicación a la gente que lo ha votado (…). Las elecciones así entendidas son una alienación de la democracia. Tú puedes elegir a una persona para que te represente siendo una persona que tú conoces, que es responsable ante el grupo que lo ha delegado, que puede ser inmediatamente revocable, que informa de asuntos de arriba hasta abajo y sobre todo que cuando va a dialogar con otros representantes va a representar lo que de ese asunto concreto le ha dicho la asamblea o el grupo. Una asamblea obrera de este tipo es un ejemplo de democracia, con elección también.
>
> En segundo lugar hay que considerar qué es lo que significan las elecciones concretas en el estado español. Lo que se está pretendiendo es dar al poder de los monopolios y a la oligarquía una cara nueva adecuada a las circunstancias (…). Las elecciones están además preparadas de la manera más sinvergüenza posible. Con una ley electoral que privilegia al centro derecha con todas las de la ley; que excluye de la participación a los partidos revolucionarios y que obliga a los partidos reformistas a hacer un montón de concesiones, como ejemplo, las del PC son altamente interesantes. En estas condiciones presentarse no es solamente una especie de error teórico global de dar legitimidad a las elecciones, sino que es dar legitimidad a un sistema que de por sí ya está podrido (A. H., 1977: 2).

Beste hau egin behar zen:

> Si nuestros fines son la revolución social, la independencia o el derecho de autodeterminación, tenemos que crear unos organismos adecuados a esos fines. En Euskadi ya están esos organismos: las asambleas de fábrica, los comités, las organizaciones de unidad de asambleas y comités, los comités de barrios, los grupos culturales que están funcionando de manera autónoma. Son realidades que están planteando la democracia desde la base y una transformación de las realidades cotidianas en función de concepciones de la vida que son revolucionarias *(Id.)*.

Gorago aipatu dut iritzi freskoak ageri dituela elkarrizketa horretan. Zertaz ari naiz hori baieztatzean? Diktadura faxistatik komunismorako faseei buruz, honela zioen:

> Para mucha gente, del fascismo a la democracia se da un paso progresivo, de la democracia al socialismo autoritario se da otro paso y el último será del socialismo autoritario hasta el comunismo. Sin embargo, este esquema es probablemente falso. La verdadera contradicción radica entre sistema capitalista y revolución comunista, entendida como abolición de la propiedad privada, abolición del poder político y del Estado, y creación de una sociedad de apoyo mutuo entre productores que entienden lo que están haciendo. Esta contradicción está en función del desarrollo de las fuerzas productivas (…) de otra parte depende de la propia conciencia de la gente. La gente tiene hoy conciencia de que su vida cotidiana está sometida a una serie de presiones intolerables y que la única respuesta a los impulsos de la libertad anímica, de libertad sexual, de libertad en el trabajo y en el juego, es una sociedad antiautoritaria y comunista (*Ibid.:* 7-8).

Berarentzat independentziak ez zuen esan nahi —eta egun ere ez— Euskal Estatu bat sortzea, baizik eta populu askeen federazioaren barruan, europar federazioaren baitan, eta zehatzago, Europaren hego-mendebalean, Euskal Herriak ekoizpen-, kultura- eta bizitza-esparru autonomo bat izatea.

Euskarari buruz, oharpen hauek egiten zituen:

> La gente tiene cada vez más tendencia a decir, ya está bien de delegar en otro que viva mi vida. Mi vida la vivo yo y la vivo yo ejerciendo mi libertad plena a todo nivel. Esto exige una capacidad más desarrollada, ética y solidaria. Ya que para ser verdaderamente libre se necesita vivir en estrecha colaboración con los demás y sin pisar a nadie.
>
> En Euskadi, por lo tanto, si se quiere una sociedad independentista donde el euskara sea la lengua dominante de una cultura viva, existe la obligación (personal, ética…) no sólo de aprender euskara, sino de usarlo. Y esto no es para criticar a Punto y Hora *(Id.).*

Eta eremu ez euskaldunetan? Nafarroako Erriberan eta gisako eremuetan:

> Lo que habría que hacer en el Sur es crear una sociedad bilingüe en la cual la gente hablara castellano como lengua cultural y aprendiera euskara a través de la enseñanza, de tal manera que en un período de generaciones, si esta gente escoge el euskera, bienvenido sea y yo muy contento… (…). La euskerización es sin embargo completamente obligada donde hay una imposición reciente del castellano que ha liquidado o al sustrato o a la cultura euskaldun. Es completamente obligada (*Ibid.:* 9-10).

Unibertsitateari buruz:

> Habría que hacer una universidad tal que ponga a los trabajadores manuales en contacto con lo que hoy llamamos intelectuales, que participara en una serie de actividades culturales y productivas aboliendo en esta universidad la diferencia entre el trabajo manual y el intelectual. Nadie tiene que creer que porque se haga una universidad en

> euskara ya necesariamente va a ser liberadora. Se pueden perfectamente hacer cosas reaccionarias y opresivas en euskera (*Ibid.:* 11).

Etorkinen integrazioari buruz:

> En las zonas menos concienciadas y de mayor emigración, hay hoy un problema gravísimo. En Vitoria, por ejemplo, hablo porque soy de allí, dentro del proletariado, se puede decir que casi una mitad es de emigración reciente, lo cual es mucho. Va a haber un grave peligro de polarización social e incluso de ulsterización de Euskadi en relación con esto (…). Una cuestión fundamental es que no se puede pretender la inserción de los emigrantes en el País a través de ningún sistema opresivo. Si ha entrado el proyecto común autonómico o independentista en ellos, ha sido porque era liberador globalmente para la sociedad en la que vivían. Ningún revolucionario vasco puede dar el visto bueno a ningún sistema que privilegie a los vascos de origen. Si se va a dar una integración, va a ser por la lucha contra el sistema opresivo o contra su delegado local, que va a ser el nacionalismo burgués (…). La razón fundamental en la infraestructura social para los vascos militantes por la revolución, va a ser que verdaderamente se está creando un sistema económico vasco-periferia unitario, donde va a haber montones de relaciones económicas y combativas entre los trabajadores de Euskadi Sur. Pero esta razón fundamental no podría existir si no hubiera habido una comunidad cultural, que no es una identidad con respecto al euskaldunismo guipuzcoano, sino un respeto a los matices dentro del grupo humano vasco. Esta identidad cultural existe, tiene una importancia sentimental y vivencial enorme, y hace de esa unidad proletaria dentro de un sistema económico, obligada, que se puede llamar unidad de origen etnico, una unidad incrementada por el sentimiento nacional (…). Pero, sobre todo, no se puede pretender una unificación del vasquismo con un único molde, el que sea. Hay voces diferentes y características diferentes: razón de más para preferir una independencia confederal a un estado unitario (*Ibid.*: 11, 12).

Iritzi guztiak hein handiagoan edo txikiagoan historikoak dira, eta 1977tik hona gauzak aldatu direnez, iragarpen horietako batzuk ez dira gauzatu —esaterako, Euskadiren ulsterizazioa, bi gizarte bereizi sortzeko zentzuan; nahiz eta aldi batean —90eko hamarkadan batez ere—, sufrimenduaren sozializazioarekin tentsio handi bat sortu zen jendartean; beste batzuk oso utopikoak begitantzen dira: buru-lana eta esku-lana uztartzea unibertsitatean—, baina ziur nago berritasuna zekartela, freskotasuna.

11. Eztabaida berriak. Mugimendu sozialak. Espainiako Konstituzioa onartzeko erreferenduma. Borroka armatua

Garai hartan ekologia politikoak axola handia hartu zuen analisi intelektualetan. Eta horrek balio izan zuen klasiko marxisten (sobietarrak gehienbat) erreferentzia murritzetik zabaltzeko beste ikuspegi batzuetara:

> Beste klasikoak baziren, Kropotkin, Thoreau, Élisée Reclus, bai eta garaiko autoreak ere, Günther Anders, Hannah Arendt, André Gorz, Murray Bookchin, askatasunaren aldeko borrokarekin naturan integratzen den jende espezie osoaren lekua eta erantzukizuna lotzeko. Egunerokotasuna eta botereen aurkako borroka elkartzeko, mugimendu sozialetan parte hartzea eta demokrazia bere zentzu zabalagoan sakontzea ziren helburuak.
>
> «Ekologia politikoa» terminoa 1972koa da. Iparraldera hedatu zen elkarte eta aldizkari bereziei lotua (Les Amis de la Terre eta La Gueule Ouverte, besteak beste), eta Hegoaldean aitzindari garrantzitsu bat izan zen Mario Gabiria. 1978an argitaratu zuen *Navarra, abundancia* liburua, non biharko jendarte ekologikoa antzinako gestio komunitarioarekin lotzeko ideia aipatua baitzen (Lopez Adan, 2014a: 125).

Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak Leioan egin ziren, 1977ko abenduaren 8tik 11ra. 1976ko urrian izan zen hamasei emakumeren aurkako auzia; horietako hamalauk Basaurin abortuak egiten zituen emakume baten laguntza izana zuten. Auziperatzeek errepresioaren aurkako mugimendu zabala sortu zuten, eta su horretan gauzatu ziren Hegoaldeko feminismoaren lehen urrats jendaurrekoak. Baionan, 1978ko martxoan, egin zen lehenbizikoz Emazteen Eguna. Polo Beyrisen atelierrak eta eztabaidak antolatu ziren kontrazepzioaz, lanaz, politikaz, sexualitateaz, bortxaketaz.

Autonomoek, komunista libertarioek, Azpeitiko *Gerraundi* baserrian «komuna» bat sortu zuten:

> Eta komuna honetan bizi zirenek denek kaxa komun bat zutenez, lan egiten zutenek beren sosak kaxa horretara botatzen zizkinaten eta lan egiten ez zutenek diru beharra izanez gero, kaxa horretatik hartzen zutela dirua, han orduan nahiko esperientzia ona izan zela eta era berean gogorra herriko jendeak ulertzen zuelako denak batera bizitze hori kontzeptu despektiboenean. Eta gure artean ere kontradikzio batzuk apurtzeko balio izan zuela ezin ukatu (Bernardo Aizpitarteren testigantza) (*Ibid.:* 124).

Mugimendu antinuklearra eta Lemoiz, eta borroka armatua ere ezagunak dira, ez gara hemen luzatuko.

Espainiako Konstituzioaren erreferendumera etorrita:

> Lekukoek esaten zutenez (bi fidagarri bederen ezagutzen genituen garai haietan, Pako Letamendia eta Jordi Solé Tura), Espainiako naziotasuna hunkitzen zuten gaietan militarrek eman zituzten beren baldintzak. Diotenez, 2. artikulua erredaktatzeko Moncloako Gobernu Presidentziak igorri zuen hunki-ezinezko testua eta Nafarroaren egoera berria, 1979ko Foru-Hobekuntza eta guzti, Amadeo Marcok eta Martin Villak konpondu zuten elkarrekin, edozein batzorde parlamentario edo foralaren gainetik.
>
> Konstituzio horri buruz, nahikoa iritzi gogorrak banatu genituen ezker abertzaleko tendentzia desberdinek: funtsean, kapitalismoaren bermea eta autonomismo merkearen inposatzea zela, iraultza eta independentziaren bideak mozteko. Hori gabe ere, nabaria zen «batasun nazionalaren» aferan eskuina eta militar frankistak elkarrekin ibili zirela «separatismoari» muga garbi eta gaindiezinak ipintzeko (*Ibid.:* 135).

PSOEren eta PCEren oniritzi guztizkoarekin erantsiko nuke.

1978ko udan eta udazkenean militarrak, politiko-militarrak eta komando autonomoak gogor aritu ziren polizia nazional, guardia zibil eta salatarien aurka —IK iparretarrak ahantzi gabe Iparraldean, nahiz beste hein batean—. Urriaren 28an manifestaziorako deia egin zuen EAJk: «*Gure eskubideen defentsak bide baketsu eta demokratikoak bakarrik erabiltzeko borondateak, garai historiko honetan, terrorismoari ezetz argi eta kolektiboa ematea eskatzen du*» (*Ibid.:* 139). Dei horri baiezkoa eman zioten PSOE, ORT, PTE, PCE-EPK, CCOO eta UGTk. AP mutu eta partaideek ez zioten lekurik eman UCDri, errepresio basatiarekin egoera gaiztotzen zuelako. EIA, EMK, eta ESEIk deia kritikatu zuten, eta oportunismo politikoarekin lotu zuten. Lopez Adani EAJren jarrera-aldaketa hori axola handikoa iruditu zitzaion eta horretaz bi artikulu argitaratu zituen: bat, *Argia* aldizkarian, eta, bestea, *Egin* egunkarian.

1978ko abenduaren 12an Konstituzioa bozkatu zen. ETAk eta bere inguru hurbilak ezetza eskatu zuen. EAJk abstentziora jo zuen. Eta Lopez Adanek ere bai, ezkerreko libertario abertzaleekin batean, honako arrazoi hauetan oinarriturik:

> Gure borroken historiari leialak izan gaitezen eta Konstituzioaren esanahia ulerturik, ezetza eman behar zaiola argi argia zaigu. Batzuek erreferendumean parte hartzea eta «ez» bozkatzea proposatu digute; beste batzu zalantzan daude. Bainan abstentzioa dateke ihardunbide egokiena. Zinez ukatu egin behar duguna ez da soilki Konstituzioaren testua, baizik eta Konstituzio hori onhartzeko eta egiteko dagoen sistema eta ihardunbide osoa. Ukatzen eta zapaltzen gaituen sisteman ez dugula parterik nahi, ongi erakutsi behar dugu, etsaien muturren aurrean, munduaren aurpegian eta —batez ere— gure baitan. Haiek asmatu duten prozesu honetan, beren demokraziaren aldeko aurrerabide honetan, beraiek har dezatela parte! (Argian, «Ezetza emateko, abstentzioa») (*Ibid.:* 143).

II. Iraultzaren eta bortxaren arteko harremana

1. Iraultzaren eta bortxaren arteko harremana

Atal honetan, Lopez Adanek ETAren ekintzen alderdi etiko-moralaz ematen dituen iritziei erreparatuko diegu.

Zerk bultzatu du euskal jendea etakide izatera, batez ere iragan mendeko 60-70eko urteetan? Galdera horri erantzutera jarrita, Lopez Adanek kontzientzia etiko eta morala azpimarratu ditu (Lopez Adan, 1996c: 212). Iragan mendeko 90eko hamarkadan idatzitakoa da baieztapen hori, nahiz 90eko etakideari ez baina 60-70eko urteetako ETAri dagokion, eta merezi du nabarmentzea noiz egina den baieztapena, ideiek eta konbentzimenduek sorrera eta garapena izaten baitute, ingurune sozialak baldintzatua.

Ordurako PP eta PSOE-PSE eta EAJko iritzi-emaile eta inguruko eta alderdikide nabarmen eta askotariko solaskideek etakideen moralik eza salatzen zuten milaka aldiz milaka modutara, eta bere ibilbide guztiari zegokiolarik gainera, batere ñabardurarik egin gabe, eta azken urteotan, Iñigo Urkullu EAEko lehendakariari berari entzun diogu esaten diktadura-garaian ere ETAk ez zuela izateko arrazoirik, hark kalte egin diola Euskadiri frankismo-garaian lehen urratsak egin zituenetik beretik hasita.

Iragan mendeko 90eko hamarkadan ondutako *Terrorismoa eta biolentzia iraultzailea* liburuxkan argi azaldu zuen Lopez Adanek, berak ez zuela bat egiten hedabide gehienetan terrorismoaz ematen zen definizioarekin:

> Haien arabera, terrorismoa da estatu demokratikoen aurkako bortizkeria. Sinplekeria honetan oinarritzen dira tratadista anitz eta joko semantikoak egiten dituzte: Estatuaren biolentziari deitzen diote legearen indarra edo legearen bortxa, eta demokraziaren legeak hausten dituenari biolentzia edo bortizkeria. Bistan dena, ikuspegi hau finkatzen da demokrazia burgesaren onarmenean eta ez da iraultzaileena. Ikusmolde hori aplikatu zaio trantsiziotik atera Estatu espainolari. 1980etik aurrera, ETAren biolentzia kontsideratzeko moduak uzkaildu dira (Lopez Adan, 1998c).

Lopez Adanentzat hasierako militanteek —bera tartean— erantzukizun pertsonalari leku garrantzizkoa eman zioten, eta ekintza politikoa eginbehar etikoaren ondorio gisa ulertu zuten. Zapalkuntzaren aurka altxatzea nahitaezko konpromisoa zitzaien. 1967tik 1968ra ibili zen, Araban izan ezik, gainerako euskal lurraldeetan, Hegoan nahiz Iparrean, proselitismo-lanean, jada Komite Exekutibo Taktikoko kide zela. Bilboko Santutxun, eta Ezkerraldean, Sestaon, ezagututako militanteez honela dio bere memoria politikoetan:

> Ezkerralde langile trinkoaren erdian, Biltzar Nagusiaren puntuak esplikatu [ETAren V. biltzarraz ari da], arazo nazional eta sozialen bateratasuna, klase analisia, borroka armatua… Doktrina eta estrategia horietan sinestuta ginen, bai. Militante oso onak baziren, denok herri-gogoaren lekuko. Askatasuna nahi zuten, eta prest ziren borroka armatua onesten zuen Erakundean sartzeko. Armen erabilpenak ez zien arazo moralik sortzen, zapalkuntzaren aurkako biolentzia berez zihoalako (Lopez Adan, 2014a: 16-17).

Horixe bera esana du Michel Wieviorka frantses soziologoak *Sociétés et terrorisme* liburuan, 1968tik 1975era arteko ETAz ari dela:

> El recurso a la violencia no es aquí únicamente instrumental, sino que es también, en ese momento, profundamente moral y meditado. De ello nos dan testimonio directo algunos actores que participaron en la decisión de matar a Manzanas: la toma de decisión fue precedida por un debate cuyos términos fueron éticos, se maduró largamente y en forma alguna es indicativa de la entrada en un proceso criminal de más envergadura. Apareció una violencia controlada y limitada, simbólica más que guerrera, y suficientemente selectiva como para que se excluya aquí la posibilidad de hablar de lógica de acción terrorista (…). Hasta 1975, ETA supo calibrar y controlar sus actos y, a pesar de varios «errores» o dificultades [Madrilgo Rolando kafetegikoa aipatzen du espresuki], adecuarlos a sus orientaciones o a su preocupación por expresar significados de las que era depositaria. ETA aparece como una fuerza no solamente militar, social y nacional, sino también moral. Es legítima toda vez que está profundamente vinculada a sentimientos populares que se ven reflejados en ella (Wieviorka, Martínez eta Onaindía, 1991: 247, 248, 260).

Handik aurrera murgiltzen da erakundea, Wieviorkarentzat, inbertsio-prozesuak izateko zorian etengabe, non ekintza eta beraren zentzua bereizten diren, indarkeriaren engranajeak bere barne-logika ezartzeko mehatxua dagien bitartean.

Wieviorka liburua idazten ari zen 1988. urtearen hasieran, bazuen esperantza Espainiako gobernuarekin izandako negoziazio baten ondotik ETAren jarduera armatua amaitzeko:

> Posiblemente incluso ETA, en el momento en que se escribe nuestra obra (principios de 1988), se encuentre en un proceso de negociación con el gobierno español, que podría llevar a una tregua provisional (ya anunciada), más tarde ilimitada, y finalmente al cese de la lucha armada. Lo cual resume la cuestión principal de nuestra investigación, toda vez que ETA parece a la vez alejada de una pura lógica de acción terrorista, capaz de autocontrolarse, susceptible de buscar el final de la lucha armada, al mismo tiempo que desencadena, en ciertas ocasiones, una violencia ciega, verdaderamente terrorista (*Ibid.*: 279).

Wieviorkak baino lehen, Robert P. Clark estatubatuarrak pare bat liburu plazaratu zituen, bata 1978an, eta bestea 1982an, ETAz. Vietnamen, Estatu Batuetako armadarekin denboraldi bat egin zuen 60ko hamarkadan, eta han sortu zitzaion armada askoz indartsuagoen aurka borrokatzen ziren matxinatuen alderako interesa.

Bingen Amezaga euskal erbesteratuaren alabarekin ezkondu zen. 1973an, gurean izan zen, besteak beste, bertatik ezagutu nahirik ETAren fenomenoa. Iruditzen zitzaion estatubatuarrek ez zekitela benetan zer gertatzen zen Euskal Herrian, eta kontatzeko konpromisoa hartu zuen.

Bigarren liburuaren sarreran, euskaldunen autodeterminazioaren alde agertzen du bere burua, eta ETAren 60ko eta 70eko hamarkadetako borrokari buruz dio justifikatua zegoela Francoren erregimenaren izaera zapaltzailea ezaguturik; 1982an, aldiz, gauzak ez zeuden hain garbi, anbiguagoak ziren:

> I believe that Basques (and all residents of the Basque provinces) should have the right to determine for themselves the form of gobernment under which they want to live, and that since this is one of mankind´s most precious rights it is one that certainly may be defended with force if need be. I therefore have no doubt that ETA´s resort to violence in the 1960s and 1970s was justified, given the suppressive nature of the Franco regime.
>
> The central normative question, however, is wheter or not the change in regime after Franco´s death was sufficient to erode the moral justification for ETA´s use of violence. Did the Spanish government change sufficiently after 1975 to make ETA an inappropriate tool for securing and defending Basque rights? As the readers of The Basques know, I originally answered that question in the affirmative, and I argued in that book that by 1978 ETA had outlived its historical usefulness. I am now not so sure about that (Clark, 1984: XV).

Nolanahi ere, idazlan hori egiteko erabaki zuen etakideak ez hartzea lunatiko edo kriminal izugarritzat, baizik eta liburuaren irakurleengandik oso ezberdinak ez ziren gizon gazte batzuk gisa, jazarpen gogorrei aurre egin beharra izaki, arrisku eta indarkeria-giroan bizi beharrean gertatu zirenak.

1968tik 1980ra —liburuak urte-tarte hori du aztergaitzat— ETAk, Clarken arabera, ez du bortxa bereizkuntzagabea, ustekabekoa erabili, baizik eta biktimen balio sinbolikoa ondo pisaturik jardun da, eta neurriak hartu ditu parean suertatuak edo borrokalari ez zirenak ez kaltetzeko, nahiz eta hutsegite tragiko zoritxarrekoak ere egin dituen:

> I am convinced that in ETA´s attacks we see not random, senseless killing and wounding but rather acts chosen with great attention to their possible impact on the political environment (…). Despite a fairly small number of unfortunate and tragic mistakes, there is considerable evidence that ETA plans its attacks with care to make them as much as possible symbolic and communicative and to minimize harm to bystanders and other noncombatants (*Ibid.*: 123).

2. ETAren hasierako urteak

Gauza berririk ez dugu esango, baina hasierako etakideen gogo-aldartea hein batean gure baitaratzeko bidaiatxo bat egin beharrean gara atzera gure historia hurbilean: frankismoak borondate irmoa zuen Espainiaren batasun santua bermatzeko, batasun zentralista gotor intolerantea eta errepresiboa.

Lubakietan eta herri eta hiri-aldirietako bide-ertzetan —Hego Euskal Herrian sei milatik gora— odola erraz eta gupidagabeki isuri ondoan gerra zibila irabazi zutenek tresna errepresibo oparoak zituzten beren esku, eta harrokeria errepresiboa luzez atxiki zuten oposizio-zantzu oro itotzeko; inongo lege-babesik ez zen adierazpen-askatasunerako eta erregimenaren gehiegikeriak salatzeko.

Euskal Herrian gai guztiak erdaraz soilik ematen ziren eta heziketa nazional frankista ikastea derrigorrezkoa zen. Euskarak mespretxu soziokultural latza pairatzen zuen. 1941etik 1969ra 400.000 etorkin inguru heldu ziren Espainiatik Hego Euskal Herrira. Emigrazioak erdaldunen presentzia masiboa ekarri zuen. Administrazioa bere maila guztietan, irakaskuntza bere maila guztietan, eta lantegietako barne-araudiak erdaldunak ziren. Hortaz, etorkinen lehen ideia zen Espainiako beste leku batera etorriak zirela, besterik gabe.

«Ez da gehiegikeria esatea gerra ondoko denboretan euskal naziotasuna galtzeko arriskua zinezkoa izan zela» (Lopez Adan, 1996c: 204).

Gorago aipatu dugun kontzientzia etiko eta moral horren oinarrian jatorri askotako urak biltzen ziren; bat, Euskal Herriari buruzko kontzientzia agonikoa zen, besteak beste, Salbatore Mitxelenak bertsoz adierazia:

> Igesi/zenbat gauz eder doazi,/Ezaren/illobi beltzera zuzen,/egundo/geiago ez biurtzeko,/ sekula/il bear ez lutekela…(…) Adio/ Euskalerriak dario,/ Zugana/ luzatuz bere yorana./ Bai, arren,/ utzi Adio esaten./ Adio!/ Adio bai sekulako! (Mitxelena, 1977: 278-279) eta halaber hitz-lauz, era gogorragoan, altxamendurako deituz bezala: Euskalduna gaur bakezale demokratiko beratza bada, «gexamexa ori ezpaitugu gerezkoa, kanpotarrek beren onerako itsatsia baizik» (…) Euskal Miñak samiña aña sumiña bear du, bada, bai jaunak bai, sumiña, sakerra, erasogillea, gallena, ez indutarrena [Gandhiri erreferentzia], baizik kantauriarra (Mitxelena, 1977: 413 eta ond.).

Lopez Adan baino bizpahiru urte zaharrago zen Eustakio Mendizabal *Txikia* etakide famatu eta askok miretsiak —1954tik 1967ra Lazkaoko beneditarren komentuan, 1971tik aurrera ETAren adar militarreko buruetakoa, Algortan 1973an

polizia espainolek zauritua eta errematatua—, «Esazu itz erdi!» izenburuko poema honetan:

Zer duzu nai, Aberri!
atxillotuen Erri!
Zer duzu
deiaren-deiez
neri
deika negarrez!?
Zergatik gau ta egun
zaude zu begi illun,
nere
aldamenean
beti
negar batean!?(…)

Itz erdi bat esan ba,
eta or nauzu Ama,
seme
zintzoenak dun
txera
ta maitetasun
beroena baño askoz
anaitasun areagoz,
zure
mende-joputza
lotzen
duan estuntza
apurtzeko, zaiñetan
nik irakiten detan
euskal
odol-gorria
(erri-
zaleen azia!)
noiz-nai ixurtzeko prest.

Ezer gutxi dezaket…
Bañan…
gazte naiz, eta
(…)
Esazuba itz erdi,
ta or nauzu Euzkadi! [24]

24. Ikus esteka honetan: <http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=best02>.

Poema bat da, une jakin batean ondua. Poema guztiak aztertu behar dira hori bere lekuan paratzeko. Baina horri bakarrik begira jarrita, begirunez esanda, ematen du harako «Aitaren nahia egin bedi» tradizional hartatik, besteak beste, Orixek hainbestetan adierazia, *Euskaldunak* poeman esaterako, Ama Aberriaren alde bizia emateko prest egotera igaro zela —guardia zibilek duten goiburua ekartzen du gogora: dena aberriagatik—, ama aberriak bizi duela sentitzen den drama lazgarrian, aktore tragikoa izateko prestasun osoa, hautu gogorrenak egiteko gertu. Lopez Adanen arabera, luze iraun du barne-jarrera horrek ETAn.

Halaber, gogora ekartzen du Lopez Adanek delako konpromisorako etika hori antikonformismoarekin lotu beharra zegoela. 60ko hamarkadan garapen ekonomikoa tarteko, jendea dirua egiten ari zen, batzuek beste batzuek baino gehiago noski, baina 40ko hamarkadako estutasunetik urrun; eta, frankismoak politika eta euskararen aldeko kultura bideak gogor estutu arren, aisiarako —futbola eta pilota izarrak— eta kontsumismorako ateak zabal irekitzen zituen. Aberria hiltzen ari zela, erosotasun pertsonalari men egitea gogor arbuiatzen zuten lehen etakideek; hori berori dago esaten hautu gogorrenak egitea ez zela ezinbestekoa, errazagoa zela erregimenak lau haizetara hedatzen zuen *25 urteko bakea*-ren ildoan, norbera berera biltzea, dirua egitera eta eroso bizitzera, eta bizia galtzeko arrisku handia zekarren borrokan ez engaiatzea.

E. Cassirer filosofo aleman juduarentzat, aldeak alde, Hitler izan zen *Txikia*rentzat Franco izan zena —judua zelako Alemaniatik Ingalaterrara eta gero Suediara ihes egin zuen Hitler botereaz jabetzean, eta 1941ean Estatu Batuetara—. *Estatuaren mitoa* deritzan liburuan dio Kanten ildoan, askatasun etikoa ez dela egitate bat, baizik eta postulatu bat; ez da dohain bat giza naturak berea duena, da langintza bat, eta izan daitekeen langintzarik astunena; exijentzia bat da, inperatibo etikoa. Askatasuna ez da gizakiaren herentzia natural bat; izateko sortu beharra daukagu. Gizakiak soilik bere instintu naturalei jarraituko balie, ez litzateke lehiatuko askatasuna lortzen, mendekotasuna aukeratuko luke, samurrago baita besteren mendean izatea norberak bere kabuz pentsatzea, juzgatzea eta erabakitzea baino. Horregatik askatasuna, bizitza indibidualean bezala politikoan gehiago hartzen da zamatzat pribilegiotzat baino. Orduan sortzen dira estatu totalitarioa eta mito politikoak (Cassirer, 2013: 340-341). Eta horiek ez bakarrik Hitlerren edo Francorena bezalako diktaduretan, orain bereziki garai horretaz ari bagara ere.

Berriro Lopez Adanek ezarritako lerrora itzulita, ideologia bat behar zen, barneko dei horren, hots, kontzientziaren askatasunean engaiatzeko hartutako erabaki horren eta historiaren zentzuaren argitzaile. Hasieran, konpromisoa hartzeko beharrizana eta ausardia lotu ziren kristautasunaren ideia militante eta aurrerakoiekin. Goiztiarrak izan ziren heroien erreferentziak ere: Che Guevara bezalakoak iraunkorrak.

Besteak beste, Eustakio Mendizabal *Txikia*-rentzat zen erreferentzia Che Guevara, eta Eustakio Mendizabal bera, berriz, Piarres Larzabal bezalako apaiz

engaiatu aurrerakoientzat; polizia espainolak Algortan erre matatu zuenean, mintzaldi sakona egin zuen haren alde, Zokoan emandako mezan. Espainian askatasun zibil eta politikorik ez zela eta Frantzian gehixeago baina han ere Eustakio Mendizabal auzitegietan gaizki erabili zutela salatu ondoan, errepikatzen zuen behin eta berriro «Ez da bakerik askatasunik gabe. Ez da bakerik zuzentasunik, ez eta EGIArik gabe», eta, Espainiako gobernuak eta haren morroi askotarikoek, mediatikoek barne, ez askatasunik ez zuzentasunik eta ez egiarik hedatzen zuten:

> Eustakio dela eta, hameka ostiko eman diozkate egiari, mugaz bertzaldeko berriketariek: «Terrorista bat zela», «mandil bat», «gizon hiltzale bat», «diru gose bat», «barnez galdu bat» eta holako goxokeriak dituzte atera gure Eustakioz. Nik ongi ezagutu dut Eustakio eta hartaz diotena da, zela bihotz oneko gizon bat, osoki bertzeentzat bizi zena… Bihotz onekoa ba. Zonbat ez zituen maite bere etxekoak, haurrak, jende apalak! (…). Eustakiok ez zuen gizon bortitz-harroen itxurarik ere. Bazakien, bere bertze lagun batzuek dakiten bezala, espainol polizak agintza zuela bera ikus ordu, han berean garbitzeko (…). Jakinik ere bera hilen zutela, berak ez zuen nehor hil nahi… Polizia ondotik tiroka zuelarik, berak airearat husten zuen bere pixtola. Hain zen denekilakoa, handinahikeriarik gabea, bere egitekoari zintzoki eta osoki emana, nun hainitz adixkide baitzituen eta heien artean apez zonbait ere. Nola beraz, dautazue galdeginen, laitake, zanpalari bilakatzea holako gizon bat? Badakigu denek, gure kristau-erakaspenak debekatzen dauzkula zanpaketa jokoak. Bainan orroit gaiten ez dela gauza bera edonor zanpatzea eta zanpatzaleari oldartzea (…). Espainiako gobernua baita «dena ni, eta ni bakarrik», harekin duzun aukera bakarra da: apal burua edo utz kargua! Bertze askoren ondotik, Eustakiok garbiki ikusi zuen beharko zuela uko egin bere sailari edo hartan gogortu…Uko egitea ez ote zen saldukeria! Orduan hartu zuen erabakia bere hartan gogortzeko. Horra nolaz eta zer gatik, gizon goxo, maitagarri horrek armatu zituen bere beso eta gogonahiak, zapaldua dagon bere populua zerbitzatzeko. Horren kondenatzea litake, beren Aberria askatzeko, lehen eta gaur, oldartu eta oldartzen diren guzien kondenatzea. Holakoa zen Eustakio eta holakoa agertuko da gure Euskal Kondairan. Eta ez dute orroitzapen hori zikinduko bere gurutzearen bidean eta gorputz inguruan, beraren belzten ari izan diren mingaina okaztagarriek (Larzabal, 1999: 46-48).

Mintzaldi hori askori helarazi zien Larzabalek, eta goresmen ugarirekin batean, protesta eta mehatxuak ere jaso zituen. Azkenaldian entzun ditugunen arabera, jelkideengandik barne, burua makurtu behar zuen eta uko egin bere sailari; Francoren aurka altxatzea ere ez zen zilegi.

Bestalde, deigarria egiten da: nahiago zuen berak bizia galdu inori kendu baino; Jesukristoren jarrera gehiago diktaduraren aurkako gudari batena baino. Gehienak ez ziren horrelakoak izango, baina zergatik ez dugu sinetsi behar izan bazirela.

Larzabalengandik Mario Onaindiarengana etorriz, bere memorietan Txikia hil zutela jakitean, haren autoimmolazioa goresten du, Larzabalen ildo bertsuan:

> Txikia había seguido participando en casi todas las actividades del interior [Iparraldean bizi arren], sin duda porque compartía los principios de algunos de la época anterior que considerábamos que la autoinmolación aunque fuera en grado de posibilidad era

> lo único que podía justificar el uso de la violencia, sobre todo ante los compañeros a los que se les ordenaba realizar las actividades más arriesgadas (Onaindia, 2001: 548).

Lopez Adanek ikuspegi pragmatikotik, *Txikia*ren segurtasun antolatzaile dohainak nabarmendu ditu:

> Txikiaren heriotza oso sentitua izan zen. Nortasun azkar eta eragilez jantziko buruzagi jaio horrek egitura klandestino militar iraunkor bat eraiki eta finkatu zuen. Hark sortu zituen milien gaitasuna bermatu zuten egin-molde bereziak, besteak beste sare eta babes-leku segur eta konpartimentatuak, hemendik hara taldean ibiltzeko manerak eta infiltrazioak ekiditeko militante berrien onartzeko iragazki sistema estua (Lopez Adan, 2014a: 57).

Jose Ramon Goikoetxea *Ardotxi*-k hainbat informazio eman digu Eustakio Mendizabali buruz:

> Eustakiori, baserrian jaioa izaki, eta Lazkaoko komentuan irakurritako liburuak bitarteko, garo-usaineko zertzelada bukolikoak nabarmentzen zitzaizkion aldian behin Euskal Herria ahotan hartzen zuenean. Garai hartan, ordea, sustrai sozio-ekonomiko eta politiko sakonekiko aldaketa kulturala ari zen gertatzen, eta Arestiren Harri eta Herri, Txillardegiren Huntaz eta Hartaz eta antzeko liburuak hasi ziren kaleratzen. Uhin berri horrek eragin nabarmena izan zuen Eustakiorengan, hiri-ikuspegiak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen bere pentsamoldean. Gizon idealista zen, eta borondate osoa jartzen zuen beti Euskal Herria askatzeko ideiaren aldeko borrokan (Goikoetxea, 2006: 195).

60ko hamarkadako giroa gainetik eta hein batean berreraiki nahian gabiltzan honetan, kapitulu honen buruan azpimarratu dugu Lopez Adanek 90eko hamarkadan idatzi zuela ETAren hasiera gehien markatzen duena kontzientzia etiko eta morala dela.

Bada, Nemesio Etxanizek hamarkada horretan bertan idatzi zituen gutun batzuk eskuratu nizkion Joxe Azurmendiri, *Txikia* baino bi urte zaharrago, eta *Txikia* beneditarren komentuan bezala Arantzazuko frantziskotarretan ikasia —orain hainbeste aipatzen den *errelatoa* delako horretan sartu beharrekoak dira testu hauek nire iritzian; ordurako hasita baitzeuden batzuk gure historia euskaraz idazten, intelektual librearen ikuspegi zintzoz, eta ez unean uneko interes politikoen arabera—. Horietako batean, Andima Ibinagabeitiari zuzendurik, honela zioen N. Etxanizek, 1961ean:

> Gure artean, gañera, egundoko integrismo-pixua degu: lengoan, Zipitria andereño erremin ori, ao bete ortzekin gelditu zitzaidan, Patxi gorra beste mundura bialtzeko kezkarik ez nukela izango esan niolako. Ezin zitekela ori egin; etzala zillegi. Esan niona: zillegi ezezik, barkamen osoa irabazteko lana zitekeala. Erria zapaltzen eta ainbeste urtetan, guzien eskubideak jaten bizi dana, ezin garbitu, alajaña! Orrelako burukerak galtzen eztiran bitartean, eztegu ezer aundirik egiterik. Euskaldunok, bide bat besterik eztegu: israeldarrak artu zutena: izkuntza piztu ta indartu, ta izkilluak zorroztu. Ori egiten ez duan erriari, eztio iñork begiratzen, ez demokratak eta ez Elizak.

> Gaizkillerik aundienak, berriz, aurrera irtetzen ba-da, naikoa begiramen iristen du bai demokraten aldetik, eta bai Elizaren aldetik. Gizon aunditzat saldu oi izan dizkiguten Carlomagno ta aren kidekoak, zer ziran, lapur eta gaizkille aundi batzuek baizik? Beren gurasoengandik jaso zituzten lurrez etziran asetzen eta inguruko kristau-erregei lapurtzen zizkieten beren lurrak. Ala ere, aginpidea iristen zuteneko, beti inguratzen zituzten beren gaizkigiñak bedeinkatuko zizkien nai aña obispo. Zoritxarrez, ori da edestia, ta horrela jokatu izan dute gure gañetikoak…Gure arteko prudenteak, ostera, azkenik ez dute (Azurmendi, 1998: 80).

Nemesio Etxaniz bezalako apaiz batengandik etorrita, harrigarria egiten den ikuspegi hori bere garaiko kultur testuinguruan kokatzeko, eta gidari Camus hartuta —Emilio Lopez Adanek 1980an hartu zuen erreferentzia gisa Camus, aurrerago adieraziko dugun bezala—, Azurmendik ohartarazten zuen bi mundu-gerren artean eta bigarrenaren ondotik artean (faxismoa, Erresistentzia; kolonietako matxinadak gero: Indiaren etsenplua —Ghandi—, Aljeria, Vietnam, Cuba) indargintzaren arazoa egunerokoa zela, filosofian bezala (Sartre, Maritain) literaturan (Brechten teatroan bertan): gerra zuzena, erresistentziarako eskubidea, iraultza sozialaren bidezkotasuna, etab.

Eztabaida horretarako testuak ziren: Sartreren hainbat idazki militante, Simone de Beauvoiren *Pour une morale de l´ambigüité*, 1947, Merleau-Pontyren bilakaera *Humanisme et terreur*-etik (1947) *Les aventures de la dialectique*-ra (1955), eta beste hainbeste. Eta horietan oso garbi geratzen zen giza existentzia betiereko drama bat dela kontzientziarentzat; batzuen alde egin behar bada, beste batzuen aurka egin beharra dago. Eta bortizkeriaren etikaren arazo lazgarriena da ea iraultzaren izenean errugabeen heriotza justifika litekeen; ea iraultzaren izenean edozein pertsonaren heriotza onar al dezakegun? S. de Beauvoirek erabaki zuen Sartrek eta Camusek bezala, borrokaren ongiaren eta gaizkiaren irizpide bakarra, bere ordainekin, askatasuna dela: gizakiak gizakia menperatzeko borroka oro da gaitzestekoa, baina askatasun-borroka oro da gizatasunaren eginbeharra. Ez norberaren askatasunarena, baizik eta ororena; munduko zapaldu guztien borroka gure/nire askatasun-borroka bezala sentitzea. Camus, ozta-ozta, indargintza ontzat duenean ere, indarkeria «iraultzailearen» aurka azaldu da beti, eta «askatzailearen» alde bakarrik. Indarkeriaren legitimazio etsi bat, batere triunfalismorik gabe.

Eta gogoeta historiko horren ondotik eta horretan oinarriturik, honako baieztapena egiten zuen Azurmendik:

> Euskal Herrian bortxa legitimo bat jada egon badago, errealitate bat da, eta, hasteko, eztabaida ez da historian biolentzia legitimorik egon al daitekeen edo ez, baizik, beti dagoen biolentzia hori, noiz jo daitekeen bidezkotzat eta noiz ez; h.d., biolentziaren etikaren eztabaida hau guztia, Frantzian ez bezala, Euskal Herrian bortxa faxista garailearen aurrez-aurre, eta haren bedeinkazio katoliko eta demokratikoaren, hots, Francoren de fakto «bortxa legitimo» —Elizarentzat nahiz mendebaleko demokrazientzat— eguneroko errealitate gordinari buruz buru, eta errealitate haren aurka, behar izan dela —eskeptikoki— meditatu (*Ibid.*: 52-53).

Txillardegik, hark ere 90eko hamarkadan, 1957-58 urteetan *Ekin*-ekoen artean borroka moldeei buruz egon ziren eztabaida gogorren berri eman zigun. Sortzaileetako batzuk katoliko gogorrak izanik, oso uzkur eta herabe agertzen ziren bortxa politikoaren erabileraz. Garbi zeukaten benetako aldaketak eragiteko, legetasunetik at jokatu behar zela. Legetasunetik landa jarrita, bi bide ikusten zituzten: Ghandiren borroka bortxagabea, batetik; edo, bortxazko borroka, bestetik. Urte oso batez, gutxienez, zenbait taldetan eztabaidatu zen puntu larri hori. Bortxarik gabeko borrokaren aldekoek Ghandi aipatzen zuten, baina aitortzen zuten ezberdintasun nabarmen bat: Francoren erregimena eta britaniar sistema biga zirela. Orduan, gehien-gehienak, pixkanaka, borroka gogorraren alde lerratu ziren. Kondairaren ikasketak hartara bideratzen zituen: Israel, Tunisia bera… eta zer esanik ez Irlanda, Polonia, etab. (Alvarez Enparantza, 1994: 195-196).

Lopez Adanek denboran pixka bat atzerago kokatzen ditu eztabaida horiek, 1961ean. Baina axola duena ez da urte batzuk lehenago urte batzuk beranduago, edo Txillardegiren lekukotasuna Lopez Adanena baino baliozkoagoa, historiarekin leialagoa den, baizik eta eztabaida horren nolakotasuna:

> 1961ean borroka molde pazifista eta ghandianoen etsamina egin zuten, bai eta baztertu ere. Barne polemika honetan dagoeneko ageri zen ETAn aski iraunkorra izanen den dialektika berezia. Esan nahi baita borroka armatuaren bidea errealismoarengatik hautatu bazuten ere, denbora berean dimentsio existentziala eman ziotela. Analisi estrategiko elaboratuen ondorioz erabaki zuten diktadura ohiltzeko eta menperakuntza nazionala altxatzeko etsaia bortxaz garaitu behar zela, beste biderik ez zela (Lopez Adan, 1996c: 216)[25].

25. Aipu horretan delako «dimentsio existentziala» horrek zer esanahi zehatz zuen Lopez Adani berari galdetuta, hona erantzuna: «*1961ko ETAn, nire ustez, intelektual nagusia Txillardegi izan zen, eta garai haietan existentzialista zen. Existentzialista guztiek dinamika eta konflikto sozialen kontzientzia bazuten, baina konkretuan bizi zen indibiduoari lekua eman nahi zioten, esan nahi baita klasen dinamikaz edo ekonomiaren aldakuntzaz edo boterea irabazteko estrategiaz pentsatu nahi bazuten, ez ziotela indibiduoaren existentziari (eta angustiari) lekurik kendu nahi. Sartrek marxismoa eta existentzialismoa elkar laguntzaile bezala, osakin bezala, ikusten zituen. Beste existentzialista batzuek (Merleau-Ponty, adibidez), ez ziren hain baikorrak. Txillardegi gehiago zen M.P.rekin Sartrekin baino, nire ustez.*

Hots: borroka armatua hautatu zen diktaduraren aurka eta errebolta antikolonialisten garaian Euzkadiko independentzia lortzeko bide hoberena izango zelakoan, baina bai eta ere jende euskaldunari BERE DUINTASUNA ITZULTZEKO modu bezala, edo, nahi bada, kontzientzia nazionala zuen edozein euskaldunari bere existentziaren baldintza konkretuetan zentzua zuen praktika batean sartzeko parada emateko.

Hori da, orain ematen dizudan erantzun lasterrenean behintzat, paragrafoan idatziak esan nahi zuena.

Gero, eta hain segur konturatu zara, ideia sortzaileei garrantzia handia ematen diet, eta gure Euskal Herrian hurbiletik ezagutu ditudanei gehiago (Krutwig eta Txillardegi, adibidez). Hain segur, ETAn ibili ziren gehienei Txillardegik zituen hestutasun eta arazo filosofikoak arrotzak izan zitzaizkien, eta ETAren eboluzioa onartu zuten arrazoi politiko-estrategiko-nazionalistengatik, hainbeste "pentsatu" gabe. Baina borroka orokorra eta norberaren duintasuna lotzeko tendentziak segitu zuen: begiratu gero F. Fanonen lekua, haren liburuen itzulpenak, edota gebarismo indibidualaren eragina… Jarraipena izan bazuen, hain zuzen, aukeretan bazuen presentzia (sub-liminala?)» (2014-03-12).

Kontzientzia etiko-moralarekin batean, haren inguruan behinik-behin bada beste puntu bat axola handikoa. Nondik zetozen militanteak?, eta haien prestakuntza nolakoa zen? Egia ote ETAren jazartze historikoaren oinarrian errebolta primarioa, hausnarketa gutxi eginikoa eta erremediorik gabekoa egon zela? Inola ere ez, Lopez Adanen iritzian. 1970 arte ETAk berak maiz goretsi zuen intelektual hiritarren rola (Krutwig, Txillardegi, J. Madariaga, Benito del Valle…); lehen etakideek garrantzia ematen zioten hausnarketa kritiko sakonari, eta ez da egia baserri mitologiari edo marxismo txarto ulertuari zor zaiola ETAren sorrera: militantzia politikoan sartu zirenek bazituzten bitartekoak, herrietako elkarte erlijioso-kulturaletan eta.

3. ETAren bilakaera

Lehen partean adierazi bezala, Lopez Adan erabat engaiatu ETAn bosgarren biltzarrean egin zen, haren bigarren zatitik aurrera.

Auschwitz-Hiroshima —Auschwitzekin baino ez gutxiago Hiroshima eta Nagasakiko izugarrikeriekin; are Vietnamekin ere— eta disuasio nuklearraren politika bikoitz-zitalarekin bizi guztia obsesionaturik bizi izan zen Günther Andersek zioen bezala, politika, estrategia eta morala elkarri eskua emanda ibiltzen dira, nahasirik, eta ETAren borroka armatuan ere, Francoren garaiko politikaren ezintasunetik sortutako borroka armatuan ere, moraltasun bakarra eraginkortasuna bilakatzen al zen? Adibide banaka batzuk ematen dizkigu Lopez Adanek jarrera etikoa bazegoela adierazten dutenak, eta besterakoak ere bai. Horrekin batean, jakina, indar armatu espainolen jokaera batere ez etikoaren berri ere bai. Puntu honetan, bereziki, Franco hil arteko gertakari jakin banaka batzuetara mugatuko gara.

1968ko apirilaren 28an, *El Correo* egunkariak Eibarren zuen lokalean lehergailu bat jarri zuen ETAk. Lehergailuaren jartzailea ohartu zen garbitzailea, emakumea, atzera berriz barrura sartu zela; etakide gizonezkoa sartu zen arrapaladan, detonatzailea askatu zuen eta bera zauritua gertatu zen, baita atxilotua ere. Nahiago izan zuen atxilotzeko eta poliziak torturatzeko arriskua hartu, errugabe bati kaltea eragin baino[26].

1968ko ekainaren 7an, Tolosan, bide-kontrol batean, guardia zibilek Txabi Etxebarrieta geratu zuten. Hura ohartu zenean guardia zibilak susmo txarrean zirela paperen egiazkotasunari buruz, Pardines guardia hil eta ihesi joan zen. Etxe batean gorde zen, baina inor ez konprometitzearren, kalera atera zen. Kalean ugari ziren guardiek atxilotu zuten, eta bertan fusilatu zuten pareta baten kontra. Bana! Nork jokatu zuen moralkiago?

Oro har, Euskal Herrian Etxebarrietaren jokabidea ontzat hartu zen: gudari batena. Guardia zibilena, aldiz, lotsagarria, txakur amorratuek egindako krimen legaltzat. Etxebarrietaren aldeko mezatara, poliziak oztopatzen zituen elizkizunetara jendea oldeka joan zen, eta Bilboko San Anton zubiaren inguruan, besteak beste, borrokaldi latzak gertatu ziren.

26. Jose Maria Garmendiak antzera kontatzen du, baina bati egotzi barik komandoari egotziz ekintza morala: «…el comando que había colocado la bomba se quedó mirando en un bar y vio que se encendían de repente las luces de la oficina. Era la mujer de la limpieza. Subieron corriendo a desactivar el explosivo, pero le estalló a uno en la mano, quedando herido de gravedad. Insólito, vistas las cosas desde hoy» (Garmendia, 2006: 142).

Erakundeak berehala erabaki zuen fusilamenduari erantzun proportzionatua eman behar zitzaiola. Komunikatu bat atera zuen guardia zibilen familiakoei abisua emanez ezen hobe zutela kuarteletik alde egin, eta hobeto oraindik fardelak egin eta Euskaditik alde egiten bazuten, bestela hiltzera kondenatuak zeudela eta. Baina mehatxu hori ez zuen gauzatu «errugabeen heriotza ez zen batere barnatua militanteen kontzientzietan»[27]: Melitón Manzanas komisarioa hiltzea erabaki zuten.

Oso ezaguna zen; gerra ondoko errepresio politikoan engaiatua, torturatzaile gisa identifikatua eta kalean harrokeria zeriola ibili ohi zena. Atentatu horixe izan omen zen ETAk hozki erabaki zuen lehen hilketa. Bi arrazoirengatik: mendeku gisa, ez bakarrik Txabirenagatik, baizik eta torturaren biktima izandako guztiengatik; eta, etsaia ezin garaitua ez zela erakusteko, polizia gailen bat kolpatuz. Gobernuak salbuespen-egoera dekretatu zuen, kalea okupatu, 300 pertsona atxilotu lau egunetan…(60ko hamarkadan sei salbuespen-egoera dekretatu zituen Espainiako gobernuak).

1968tik 1973ra jauzi eginik, urte horretan egin baitzuen V. Biltzarretik zetorren ETAren adarrak VI. Biltzarra, honela kontatzen digu Lopez Adanek borroka armatuan terrorismoan ez jausteko izan zen eztabaidaren berri —gorago adierazi bezala bera ez zen izan biltzar horretan, hori prestatzeko 1972ko urrian egin zenean bai—:

> Hortik aparte, erabaki interesgarriak hartu ziren ekintza armatuari buruz, batzuk terrorismoan ez erortzeko kezkaren inguruan: biktima inozenterik ez zela egin behar eta atentatuen helburuak hautatzeko etsaien erantzukizuna izanen zela irizpide nagusia. Bestalde eta Txikiaren heriotza zela, militanteen hilketei erantzuna emateko ekintzak beharrezkoak eta zuzenak zirela azpimarratu zen (Lopez Adan, 2014a: 59).

1974ra etorrita, irailaren 13an lehergailu indartsu bat zartatu zen Madrilen, DGS Polizia Egoitza Nagusiaren aurreko Rolando kafetegian: hamahiru hildako eta berrogeita hamar zauritu. Hildakoen artean polizia bakarra, eta poliziaren egoitza nagusiko administrari bat; beste guztiak inongo inplikaziorik gabeak polizian edo ekintza errepresiboetan, hots, osoki errugabeak. Terrorismoaren gainean mintzatu ziren Hendaian Lopez Adan —jada erakundetik aterea eta LAIAra iragana—, eta lehentxeago arte erakundearen lerro berekoak zirenak eta erakundean jarraitzen zutenak. Erakundeak emana zuen terrorismoaren definizioa: gatazka politiko batean, garaile gertatzeko aukerak emendatzeko xedez jende errugabea hil edo mehatxatzea. Lopez Adanentzat errazagoa zen esatea erakundeak autokritika egin behar zuela, bere gain hartu eta autokritika egin erakundetik kanpo zegoenez.

Ekintzaren helburua Puerta del Sol-eko Polizia Egoitza Nagusia zen, hala iradoki bide zuten erakundearekin kolaboratzen zuten Madrileko ezkertiarrek. Orduan, euskal militante gehienak Euskadiko polizia-etxeetan atxilotzen eta torturatzen zituzten. Estatu osoan, berriz, Madrileko DGS famatua gurean Intxaurrondoko guardia zibilen kuartela bezalakoa zen, ilea lazteko lekua, errepresio bortitz, basati eta deliberatuaren egoitza; han jotzea, Estatu errepresiboaren bihotzean jotzea zen, mili-

27. Lopez Adanen *Biolentzia politikoaren memoriak 1967-1978* liburuan (2014a) oinarritzen naiz.

tante torturatuen mendekua ere, eta helburua euskal militanteei ez ezik antifrankista guztiei ere eskainia zen. Aurreraxeago Carrero almirantearen hilketa ongi aterea gertatua zen. Baina DGSko egoitza oso ongi babestua izaki helburu zailegia zenez, haren pareko kafetegia hautatu zuten, ustez hura polizien biltoki nagusia zelakoan.

Kontua da hamahiru hildako eta berrogeita hamar zauritu errugabeko eragin zituztela. Bere gain hartu? Autokritika egin?

VI. Biltzar Nagusiko bigarren zatia antolatzeko deitu zen Biltzar Ttipian bi joera azaldu bide ziren: batetik, atentatua eta hutsegitearen ondorio politikoak beren gain hartzearen aldekoak; eta, bestetik, ukatzearen aldekoak, sobera larria zela eta. Bigarrenek irabazi zuten, eta komunikatuan eskuin muturrari leporatu zitzaion errua, gezurra sakatuz.

Pare bat hutsegitetan gertaturikoan oinarriturik —Monasterio taxilariaren hilketa (1969an gertatua: zauriturik guardia zibilengandik ihesi zihoan etakide batek eraila, taxia ez uzteagatik edo etakideak esandako lekura eraman nahi ez izateagatik); eta, Rolando kafetegikoa—, *miliek* (ETA-m) fama hartu omen zuten egia esatearen eta hutsak aitortzearen aldekoak izatearena, eta *poli-miliek*, berriz, alderantziz[28].

Honekin ez dugu iradoki nahi Lopez Adan erakundean egon zen bitartean, moralki jokatu zuela ETAk eta hark erakundea uztean beheraka joan zela erakundearen moraltasuna, eta gutxiago horregatik kanporatu zuela bere burua erakundetik; errepasotxo bat ematen baino ez gara ari erakundeak burutu zenbait ekintzaren moraltasun iraultzailearen baiari edo ezari buruz[29].

28. Iker Casanovak honela kontatzen du: «*El IV Biltzar Ttipia había sido convocado al objeto de preparar el terreno para la celebración de la segunda parte de la VI Asamblea, que debía realizarse en Agosto de 1975. Sin embargo, la reunión se abre con una fuerte polémica por el atentado de la cafetería Rolando. El sector de los milis exige que se haga una reivindicación pública de la acción, asumiendo los costes políticos del error. El sector político-militar pretenderá que la organización eluda su responsabilidad para evitar el desprestigio subsiguiente. La mayoría se posiciona en esta segunda línea. Pero serán las cuestiones de fondo las que provocarán la ruptura*» Aip. lib. 162. or.

29. Testu laburra luzeran baina mamitsua edukian idatzi zuen Lopez Adanek 90eko hamarkadan horretaz:

«Historian gaindi, boterearen eta errebeldiaren arteko oposizioa molde bertsuez errepikatu da. Boteretsuek beti bereganatu nahi izan dute bortxa monopolizatzeko zilegitasun osoa; jainkoa, herria, nazioa, historia, zilegitasun horren oinarria desberdina izan da momentu historikoen arabera, baina ber funtzioak bete ditu: boterean direnei armak eman, eta besteei kendu.(...) Demokrazia errepresentatiboa eta sistema parlamentarioa ere izan daitezke arbuiagai eta haien aurkako jazarpenak zilegi.(...) Demokrazia burgesaren erresumetan, estatua eta gobernanteen zilegitasuna borondate publikoaren adierazpenean datza, hau da, hauteskunde eta bozketetan. Alta, ikuspegi kritiko iraultzaileek, tai gabe, ukatu diote sistema honi apologistek ematen dioten legitimitate atsolutoa.(...) Gaurregunean, duela ehun urte bezala, zinezko botereguneak ez dira hauteskundeen kontrol eta manuen pean; botere ekonomiko, sozial eta militar gehienen existentzia eta eragina ez dira hauteskundeetan finkatzen, baizik eta jabego pribatuan eta kasta sozialen erreprodukzioan. Irrigarria da bozkatzeko berdintasunari lehentasuna ematea eta populuaren gehiengoari ez eskaini inongo posibilitate kolektiborik desberdintasun ekonomikoak eta sozialak ezabatzeko. Desberdintasun horiek, hain zuzen, egunean egunean gehiengoaren menperakuntza eta ustiaketa finkatzen dituzte.

Hasieran, hilketen hasieran ETAk kontu gehiago hartzen zuela, ia segur hala da, eta bereziki Franco hil eta Espainiako Estatuan aldaketa politikoak gertatzean, lehenago abertzaleen eta antifrankisten artean zegoen batasuna haustean, gizartearen zati baten oniritzia ETAk galtzean eta negoziazio bidez KASen puntuak lortzearren borroka armatua areagotzean, eskrupulu moraletan behera egitea ere bai —militarismoa, garrantzizkoena historian irabaztea da, eta horrek gauza zikinak egin beharra ere justifika dezake—.

Terrorismoari dagokionez, Robert P. Clark-ek bere lehen liburuan honela zioen:

> In their choice of targets, ETA also appears to have tried to avoid causing the mass casualties associated with indiscriminate terrorism. (…) If there was terrorism in the Basque country during the 1960s and early 1970s, it was practiced by the Spanish state (Clark, 1979: 168-169).

Beste lekukotasun bat: Fernando Reinares errioxarrarena. Bere lekukotasunak izan dezake balio gehigarri bat ideologikoki konstituzionalismo espainoletik, «patriotismo cívico» espainoletik datorrelako. *Patriotas de la muerte* liburuko —Taurus, Madril, 2001— «Odio total, odio total» izeneko atalean, aditzera ematen du ezen sistema politiko baten aurka armen bidez errebelatzeko joera nabarmen areagotzen bide dela, baldin eta boterea darabiltenek gehiegizko hertsatze fisikora jotzen badute, gobernatuen obedientzia inposatzeko. Ildo horretatik, etakide izandako 47 elkarrizketaturiko baten lekukotasuna biltzen du. Hona hitzez hitz:

> A mí me detuvieron en casa, en la cama. Me llevaron al monte. Estuve toda la noche colgado hasta el día siguiente. Colgado con una capucha. En una viga. Y estuve allí toda la noche, pues como un saco de boxeo, recibiendo puñetazos y demás. Te ahogabas. Luego pues fuimos a la comisaría. Recibimos de todo. Yo estuve meando sangre bastante tiempo después de entrar en prisión. Estuve seis meses con un collarín de acero en la espalda. Porque con una funda de volante, a mí y a un compañero nos ataron a un árbol, ya desnudos, completamente arrodillados. Y con un bate de béisbol nos batearon la espalda. Electrodos, bañeras… Nos llegaron a meter a unos del comando en las casetas de perros de la Guardia Civil, que tenían unas casetas de perros que se llamaban, en el cuartel, Txiki y Otaegi. Las mujeres de los guardias civiles nos pegaron

---

Demokrazian, nagusiek basakeria erabili dute usu.

Boteretsuen praktika historikoak baieztatu ditu kritika horien ondorio latzenak. Kasta ahaltsuek ederki frogatu digute zein erraz erabiltzen duten biolentzia gordinena: kolpe militarrez, diktadurez, populazioaren aurkako desmasiaz, estatuaren terrorismoaz, milizia pribatuen krimenaz, betea dago historia. Boteretsuek sistema parlamentarioari dioten atxikimendua arrunt alderdikoia eta behin-behinekoa da; estatuak monopolizatzen duen bortxa ez da herriaren zerbitzuko, baizik eta boteretsuen interesak defenditzeko, eta jende horiek beti prest ditugu demokrazia bortxaz hausteko (...). Idazki eta esperientzia klasikoetan oso iraunkorrak dira erregela nagusi batzuek: indar harremanen arabera haztatu biolentziaren erabiltzea egoki den ala ez, baita zein biolentzia mota aukeratzeko; klase nagusien esplotazio moduak eta biolentziaren praktikak nola diren kontutan hartu, iraultzaileen erantzuna proportzioan egin dadin; zapalduen kontzientzia maila non den jakin, militanteen praktikak izan daitezen herriaren egoerari lotuak, eta ez talde isolatu baten nahikunde subjektiboen ondorio komunikagaitzak» (Lopez Adan, 1998c: 7-9 eta 15).

> pero buenas palizas. A mí me ha pegado bofetadas hasta un niño de doce, trece años, no tendría más. Nos hacían cantar el Cara al Sol (…). Estuvimos nosotros detenidos dieciséis días, con la ley antiterrorista aplicada, porque el décimo día salió el tema de la goma dos y nos ampliaron. Pues los dieciséis días así (Reinares, 2001:140).

Basakeria guztizkoa: zinez, gorroto erabatekoa! Guardia zibilen eta haien aldeko komunitatekoen ikuspuntutik, onenean, justifikatuko da esanez garai hartan kuarteletan bizitzea ezin bizitze bat zela; behintzat ez zituztela hil, berak hiltzen zituzten bezala; eta haien aurka ibilitakoen komunitatetik, horrelako ankerkeria lazgarriak egiten zituztenei dominak, gainsoldatak eta heroi-tratamendua eman zitzaizkiela, zigorgabetasun osoan; eta hori baino gehiago: torturatze-lantegi higuingarri-lazgarri hori goikoek sustatua eta ongi saritua zela. Eta nork uka estatu-terrorismo hori!

Estatuaren bortxak, estatu-erakundeen indarkeriak ETAren fenomenoan jokatu duen papera askok nabarmendu dute; horietako bat P. Ibarra izan da. Nolatan erabaki zuten hainbeste euskaldunek ETAn sartzea: hain bizitza gogor, zail eta salbuespenezkoari baiezkoa ematea? P. Ibarrak honela dio:

> Aportaré un elemento, que aunque de antemano reconozco no es el único, da alguna luz al problema y sobre todo avanza el análisis de uno de los elementos clave de la estrategia de ETA: la represión, la violencia física institucional. Evidentemente, en el militante de ETA existe una conciencia de opresión nacional y el consiguiente deseo de construir una Euskadi libre y socialista. Creo, sin embargo, que hace falta algo más, algo que transforme convicción y anhelo en práctica armada. Este algo suele ser, no siempre, pero sí muchas veces, la experiencia represiva. Directa o indirecta. La primera no ofrece excesiva complejidad en su explicación. La represión puede producir inhibición, retraimiento, pero también produce, en bastantes ocasiones, respuesta, enfrentamiento con el represor y precisamente con sus mismas armas; la violencia (Ibarra, 1989: 16-17)[30].

Francoren erregimen pean, indarkeria instituzionala noraino heldu zen jabetzeko Ander Gurrutxaga irakurri beharreko autorea da. Frankismo osoan indarkeria gizarte errealitatean presente dagoela baieztatzen du erabat:

> Si en un primer momento se manifiesta en la escisión sociedad oficial/sociedad del silencio, con el transcurso de los años y con la explosión política de los años sesenta la violencia se transforma en lenguaje de oposición a la estructura política dominante. Las acciones armadas de ETA manifiestan la precariedad de la situación social, mantenida hasta entonces más por medios represivos que por una profunda convicción social de los dominados (Gurruchaga, 1985: 287).

30. Askoz lehenago, orduan ETAko militantea zen J.L. Zalbidek adierazi zuen euskal intelektualei egindako gutunean: «*En efecto, el que recibe la represión puede reaccionar, y la experiencia nos lo demuestra, con más rebeldía que pánico; así tenemos que la constante represión policíaca y judicial está sirviendo a nuestra Organización para superarse constantemente. Así podemos afirmar que la dictadura del General Franco está siendo para nuestro pueblo infinitamente más positiva que una República democrático-burguesa, que hubiera ahogado nuestras aspiraciones sin crear unas tensiones como los que ahora disponemos para lanzar al pueblo a la lucha*» ZUTIK 30, gutunaren 2. edizioa in *Documentos Y,* III. tomoa, Lur, Donostia, 1979-1981, 3. or.

Zaila dela dio errepresioak Euskal Herrian izan duen garrantzi soziala balioestea, zaila den bezala atxilotu eta kondenatuen estatistika fidagarria eskuratzea, baina garbi dago belaunaldiak markatu dituela. Zailago oraindik zigor horiek guztiek emozionalki zer eragin duten jende askorengan. Zenbatetsi daitekeenera mugaturik, 1956tik 1975era Espainian dekretatu diren hamaika salbuespen-egoeretatik hamarrek zuzenean eragin dute Bizkaian eta Gipuzkoan:

> La declaración de estado de excepción significa la creación de una situación de violencia indiscriminada sobre un territorio (…) los estados de excepción reproducen simbólicamente el acto funcional del nuevo Estado franquista, porque implican que abiertamente la violencia se transforma en el principio fundador del orden franquista. La consecuencia de esta situación se interpreta como la reproducción del «código de guerra» que dio origen al surgimiento del régimen franquista, es decir, su deslegitimación como sistema social capaz de crear un espacio público donde la convivencia sea evidente (…). Estas medidas excepcionales cobran especial relevancia en los últimos ocho años (1967-75). Durante veintitrés meses se suceden las medidas excepcionales, siendo los años 1968 y 1970 los más notables (…). El último estado de excepción del régimen franquista es el más radicalizado. La represión alcanza a la sociedad civil de forma indiscriminada, sin respetar las jerarquías espaciales ni la división social del territorio. Parece más bien el último acto de una dinámica irracional que ha confundido al enemigo con la propia sociedad civil (*Ibid.*: 296-305).

1975eko salbuespen-egoeran, 4.265 atxilotu, kartzelaratuak 632 eta iheslariak 518. 1959tik Franco hil arte, 15.000 lagun izan omen ziren atxilotuak, datuak dauden 7 urteetarako 10.147 lagun ateratzen omen dira kontuak eginda. Zenbatek jasan ote zituen torturak? Gehientsuenek.

Baina estatu-indarkeria hori ez zen Franco hiltzean eten, 1975etik 1980ra artean, «identifikatu gabeko» poliziek edo ultra eskuindarrek 500 bat ekintza bortitz burutu zituzten Euskal Herrian eta 40 bat pertsona hil. Alianza Apostólica Anticomunista (AAA edo «Triple A»), Antiterrorismo ETA (ATE), Grupos Armados Españoles (GAE), Guerrilleros de Cristo Rey, Batallón Vasco Español (BVE)… Estatuaren inplikazioa nabarmena zen, eta horren erakusgarri ekintza bortitz horiek zigorgabetasun osoan bururatzen zirela:

> Horrek eramaten gaitu nazioarteko ikerle askok azpimarratu duten fenomeno baten aipatzera: urte haietako Euskal Herrian, autoritateen lana ez zen bere populazio nazionala terrorismoaren aurka babestea; alderantziz, autoritateen ekintzak gehiago ziren populazio errebelde eta arrotz baten aurka egiten diren modukoak, eta indar errepresiboen gehiegikeriak sistematikoki gerizatzen zituzten, non ez zituzten manatzen. Ikerle horien ustez, eta hain segur arrazoi osoa dute, ETAren borroka armatuaren zentzua eta garrantzia ez dira ulertzen ahal Estatu agintarien jarrerei ere so egin gabe (Lopez Adan, 2014a: 77).

Eta ETA militarrak, poli-miliek eta komando autonomoek zenbat hutsegite egin zituzten?, borrokarekin zerikusirik ez zuten zenbat herritar hil zituzten? Lopez Adanek buruhauste franko ibili du kontaketa hori egiteko orduan, nahiz oso garbi

izan herritarrak izutzeko egindako ekintzak, eta nahi gabe egindakoak ere terrorismoa direla pentsamendu iraultzaile nagusiaren ildoan.

ETAren estrategia armatuaren historia liburuan, 300 biktima baino gehiago izan zirela aipatu zuen (Lopez Adan, 2012a: 400); erakunde armatuen euren iturrien arabera, hiru taldeek, historia guztian, ez bakarrik 1975-80an, 30 bat pertsona erail dituzte hutsen ondorioz; haietarik erdia baino gutxiago aitortu dituzte peto gisa. Inplikazioaren arabera sailkatuak, bederatzi talde ezberdin egin zituen: inplikatuak zentzu hertsian: poliziak, salatari ezagunak…; Dudazko salatariak eta ustezko droga-saltzaileak; «traidoreak»; arerio demokratikoak (hautetsiak, kazetariak…); inplikazio zuzenik gabeko poliziak/militarrak; zerga iraultzailearen biktimak; inplikatu zuzenen aurkako «albo-kaltetuak»; hutsegiteak; helburu zibil hutsak (Hipercor, aireportu, hondartza…). Lopez Adanek aintzakotzat duen Sabino Ormazabalek honela zioen gai horretaz:

> ETAk barkamena eskatu beharko luke egindako min guztiarengatik: hildakoak, zaurituak, estortsioa, 1.500 umezurtz, betirako ezintasunez geratutako pertsonak… Nire kalkuluen arabera, ETAko adarrek, Iraultzak eta Komando Autonomoek eragindako 343 biktima zibiletatik, 151 hildako «kolateralak» ez ziren zuzenean atentatuen helburu izan. Hildako emakume horietatik hiru haurdun zeuden, eta 16 oso gazteak ziren (15 urtetik beherakoak)… IRAk, adibidez, 2002ko uztailaren 16an barkamena eskatu zuen berak egindako atentatuetako biktimengatik. Halaber, estatu terrorismoari buruz: «Estatu espainiarrak, bestetik, giza eskubideen urraketa ugariren erantzukizuna hartu beharko luke bere gain. Iturri batzuen arabera 6.000 eta beste batzuen arabera 9.500 pertsonak salatu dituzte torturak. Estatuak berak eragindako kaltearen dimentsio soziala onartu beharko luke, bai zuzenean eragindakoa (motibazio politikoa duten biktimak, inpunitatea, ez ikertzea, kondekorazioak…), baita zeharkakoak ere (talde parapolizialak, emandako estaldura…)» (Ormazabal, 2011).

Luis de la Calle eta Ignacio Sánchez-Cuencak «La selección de víctimas en ETA» artikuluan, ETAren biktimen sailkapena egin ondotik, honela diote:

> ¿Hasta qué punto es ETA selectiva en sus atentados? Para poder responder a esta pregunta, es necesario analizar la variable de circunstancias de la muerte. Un simple vistazo a los marginales de fila del cuadro 3 revela que el índice de selectividad es bastante elevado: el 78 por 100 de los atentados corresponde a muertes pretendidas o, en la terminología de ETA, muertes de «objetivos legítimos» para la organización. Los errores, ya los reconozca ETA o no, representan un poco menos del 2 por 100 de los casos. El 5 por 100 corresponde a enfrentamientos entre policía y etarras o a policías que mueren al intentar desactivar una bomba. Finalmente, el 15 por 100 (126 personas) son civiles que mueren sin que ETA tenga un pretexto para ello (…). Hay que notar que la mitad (64 de 126) de los civiles clasificados como muertes colaterales, accidentales o indiscriminadas se explica por el uso de los coche-bomba a partir de 1985 (…). Aunque con menor capacidad mortífera, menos selectivo resulta aún el paquete-bomba: ni una sola de las 12 muertes por paquete-bomba era pretendida (de la Calle eta Sánchez-Cuenca, 2004: 65-66)[31].

31. Artikulu horrek badu bibliografia aski zabala, eta hortik Lopez Adanek honako hauek baliatu ditu: Ibarra, 1987; Letamendía, 1994b; Reinares, 2001.

Datu horiek kontuan eta Irlandan edo Palestinan egindakoekin alderatuz, honako ondorio honetara heldu da Lopez Adan:

> Euskal taldeen ekintzak konparatzen badira Irlandan edo Palestinan egindakoekin, inplikatu gabeko biktimen portzentajea (hutsak barne) askoz apalagoa da euskaldunen kasuan. Horrek bi arrazoi baditu: lehena, hemen ez dela komunitateen arteko gerlarik izan; bigarrena, hutsak gertatu izan diren bakoitzean, ondoko edo bertako lagunen kritikak ez direlako falta izan. Euskal borroka armatuan, eduki etikoari buruzko eztabaida oso presente egon da[32].

Etakideen artean, gorago aipatu dugu, *miliek* egia esatearen aldeko ziren fama hartu zutela, eta *polimiliek* ez. Horien artean baziren komando bereziak, 1976tik aurrera *polimilien* zuzendaritzarekin talka egiten zutenak. 1977an bereizi ziren ETA politiko-militarretik, eta gehienek urte hartan bertan egin zuten bat ETA militarrarekin: mordoxka bide ziren, hirurogeita bost bat ekintzaile zaildu.

Azterketa sakonik egin ez bada ere, Lopez Adanen iritzian[33], direlako *berezi* horiek azkarrak ziren buruz, eta konfiantza handia zuten marxismoaren interpretazio honetan: historiaren norabidean dabilen talde gidariak, ondo antolatzen bada, irabazteko gaitasuna badu. Bazuten historia egiten ari ziren kontzientzia eta bizitza propioa arriskuan jartzen zuen militanteak besteren bizitzagatik ez zuen zertan kontu edo eskrupulu handirik izan:

> Borroka armatu iraultzailearen historian, ez dira bere moduzko etika horren erabiltzaile bakarrak izan; bada iraultzaile zenbaiten arteko moral berezi bat, Victor Sergek horrela aurkezten zuena: «Helburua eta ondorio taktikoak iraultzaren garaipenaren alde baldin badira, ekintza morala da». Sergek kritikatzen zuen ideia hori, eta Trotskiren ikusmoldeen aurka idatzi zuen; erran nahi baita iraultzaile handi askok onartu zituztela gisa horretako pentsaerak. Moral hori, «historia egiten ari gara» ahalmen sentimenduarekin loturik, jarrera beldurgarria da. Helburu apalagoak eta arazo moral handiagoak zituzten miliekin konparaturik, ezberdinak ziratekeen poli-mili bereziak. Eta askoren ustez, Bereziek aldatu zuten ETAren mentalitatea (Lopez Adan, 2014a: 116).

*Berezi*en bizkar egotzi izan diren bi kasu nabarmen, Berazadiren hilketa eta Perturren desagerketa izan dira, biak 1976an gertatuak. Lehenbizikoari buruz, garbi dago ETAren zuzendaritzak, bozketa eginik, hiru aldeko boto —komando berezietakoak— eta bi aurkako —bat Pertur!— eta abstentzio batekin, hiltzea erabaki zuela, eta hala agertu zela; Perturren desagerpenaz, aldiz, berriki beste

32. Horren erakusgarrietako bat Julen Madariagaren bilakaera da. 1964an, *La insurrección de Euskadi* testu giltzarriaren egile; 1967an egindako V. Biltzarrean buruzagi; Aljerian eta Kuban egona, besteak beste; esan liteke borroka armatuaren fundatzaile nagusietarik edo nagusia izan zela; Yoyesen hilketatik aurrera, erakundearen barnean hasi zen desadostasunak eta kritikak agertzen, eta 90eko hamarkadatik aurrera jada publikoki. Irakur Antoni Batista katalanaren *Madarriaga. De las armas a la palabra* (Batista, 2007), bereziki «Primeras discrepancias» kapitulutik aurrera, 147. or.

33. *Biolentzia politikoaren memoriak* liburua, izenburuak dioen bezala, memoria-liburua da, eta horregatik, bibliografiaz eta aipuez arindua.

hipotesi bat plazaratu du Angel Amigok: 1978an, bereziek hil zuten hipotesiaren alde egin bazuen, 2006an, espainiar polizien aginduetara italiar neofaxistek hil zuten hipotesia plazaratu du[34]. *Argia*-ko elkarrizketan dioenez, 1978an liburua idaztean, etakideen barneko inguruari begira jarrita idatzi zuen idatzi zuena —bera ere polimili zen orduan—, eta ikuspegia barnera mugaturik, ezagutzen zuen giza ingurunera, hala zirudien; izan ere, Pertur ageri zen borroka armatua bertan behera utzi nahi zuen lider moduan, eta komando berezietako kideak, aldiz, borroka armatua atxikitzearen aldeko; eta, Pertur desagertu zenean, Iparraldean bizi ziren hainbat «berezi» poztu egin omen ziren, eta garbi agertu bide zuten beren poztasuna; gainera, orduko ETA militarreko agintariek ere susmo bera adierazi omen zuten.

Eta, datu objektibo bat ere bazegoen susmo arrazoizkoak sortzeko: aste batzuk lehenago bi egunen buruan bahitua izan zutela Pertur komando berezietako hiru etakidek: bahitua, Berazadiren bahiketa hilketan amai ez zedin Burgosen preso zeuden agintariengana jo bide zuelako hark, *berezi*en iritzian, denen segurtasuna arriskuan jarriz, eta justu bahitzaile haiek berak izan ziren azken aldiz bizirik ikusi zutenak, eta, ziotenez, Behobiako mugatik hurbil utzi zutenak. Bahitzeko gauza izan baziren…

Perturrek berak, desagertu baino lehentxeago, bere iritzia eman zuen Berazadiren hilketaz. Testu horrek merezi du arretaz irakurtzea, oso ongi jasotzen baitu garai hartako etakideen ikusmoldea, etakideei zuzendutako kontu-emate idatzian.

Perturrek ez zuen inongo zalantzarik bahitzeko hautatu zuten pertsonaren egokitasunaz: Berazadi ez zen abertzalea, baizik eta euskal oligarka bat espainiar oligarkekin bat eginda zegoena, eta EAJri dirua ematen ziona hark babes zezan:

> Sin embargo, y como sucedió en el caso Arrasate, la derecha vasca puso de nuevo de manifiesto su desvinculación real con las aspiraciones y los problemas del pueblo trabajador vasco defendiendo la persona de Berazadi y presentando nuestra acción como un atentado contra un «abertzale». ¡Curioso «patriota» quien ni siquiera se preocupa de transmitir el euskera a sus hijos! ¡Curioso «patriota» quien apoya la construcción de la ikastola de Zarauz (financiada por el propio pueblo) con la impresionante cantidad de 5.000 ptas.! ¡Curioso «patriota» quien denuncia a la Policía a otros abertzales! No, Berazadi no era patriota. Todo su «abertzalismo» se reducía a financiar a un partido —de todos conocido— pensando que éste le salvaría el pellejo en el futuro y contrarrestaría la creciente (y para él peligrosa) influencia de los revolucionarios en el seno del pueblo trabajador vasco (Amigo, 1978: 250).

Beraz, helburua ongi hautatua. Baina atxiloaldiari amaiera okerra eman zioten: «*El desenlace que hemos dado al arresto de Berazadi no ha sido correcto, no ha contribuido en nada —todo lo contrario— a reforzar los lazos que ligan a ETA con el pueblo, a popularizar nuestra lucha armada y nuestras posiciones políticas*». Zergatik?:

34. Ikus Mikel Asurmendik (Asurmendi, 2007) ARGIAn egin zion elkarrizketa esteka honetan: <http://www.argia.com/argia-astekaria/2102/dokumentalak-ez-du-inoren-irudia-garbituko>.

> En vez de adoptar una postura de flexibilidad que hubiera sido lo correcto teniendo en cuenta el momento político y la situación de las masas, apostamos por iniciar una escalada de rigidez y firmeza, donde lo que se trataba era demostrar quién era el más fuerte: si el Gobierno y la oligarquía, o nosotros; así es cómo perdimos visión de conjunto. Y aquí está el tercer error: el anteponer, a la hora de la decisión final, la necesidad de demostrar que ETA no vacila a lo que aconsejaba el momento político (*Ibid.*: 252).

M. Wieviorka frantses soziologoak inbertsioa esaten dio horri, helburu politikoak bigarren mailan utzirik borroka armatuak berak planteatzen dituen eskakizunei lehentasuna ematea. Bahiketa egin zen dirua lortzeko, eta bigun jokatuz gero, ez zuten euskal industriagizon dirudunengandik dirurik lortuko: gogor jokatu eta haiek izuturik bai, bestela ez; helburu politikoak eta herri gehienaren oniritziak ez zuen horrenbesteko garrantzirik. Besteak beste, Yoyes hiltzea erabaki zutenek ere jokabide bera erakutsi zuten: ETAn kargu garrantzizkoak izan zituztenek ezin zuten hola eta hola erakundea utzi; amaieraraino jarraitu behar zuten, harik eta irabazi edo preso erori edo hil arte.

Irailean egin zuen ETA pm-k VII. batzarra. Han garbi ikusi zen Otsagabia taldearen —Pertur ideologo nagusi!— eta Berezien taldearen artean leize ideologikoa zegoela. Bereziek besteei leporatzen zieten ETA suntsitu nahi izatea beren «interes partikularrengatik». Han sortu ziren tentsioengatik egin zuten Perturren ahaide batzuek urte eta erdi geroago, 1978ko urtarrilaren 20an, «berezi»-en aurkako salaketa. Ahaide horiek espresuki adierazi zuten ETA militarrekoak izan zirela Pertur bahitu eta hil zutenak «bereziak» izan ziren susmoa aditzera eman zietenak. Eta hipotesi horren oinarritzat Perturrek hamabi egun lehenago idatzitako gutunean egindako salaketa hauek:

> Estos bestias han creado un clima tal en la organización, que han transformado ETA en Euskadi norte no en un colectivo de revolucionarios, sino en un estado policial donde cada uno sospecha del vecino y éste del otro. No logro zafarme de esta dinámica infernal de las conspiraciones, del infundio, de la mentira, etc., de esa dinámica que tiende a eliminar a rivales políticos no por medio del debate político, sino a través de sucias maniobras en nombre de la «disciplina», de la «seguridad».

4. 1978ko urriaren 28ko manifestazioa

Oroit beste behin ere Günther Andersen ikuspegia: politikak eta estrategiak morala baldintzatzen eta nahasten dute. Esan beharrik ez dago Franco hiltzean eta trantsizio politikoa abiatzean gauzak aldatu zirela pixkanaka, erregimenak emanda baino gehiago hari kenduta; baina ez inola ere, erregimen frankista eraberritu ez, baizik harekin hautsi nahi zutenak kontentatzeko adina.

Hauteskundeak egin ziren 1977ko ekainean. Urte hartako urrian amnistia orokorra onartu zen Espainiako kongresuan, bai erresistentzian ibili zirenentzat, eta halaber, edota, lehenbizi, hobeto esanda, ordurarte frankismo-garaian eta Franco hil ondoko urteetan ekintza legal-kriminal eta ilegalak egindako erregimenaren aldeko guztientzat: barkamen-legea erregimenarentzat —berrogei urteko diktadura kriminalari barkamena eta ahanztura—, eta erresistentziarentzat.

Alabaina, 1978ko udan borroka armatu gogorrari ekin zioten hiru talde armatuek: mili, poli-mili eta autonomoek. Eta urriaren 28an, hausturaren ez baizik erreformaren alde ziren talde politiko guztiek: EAJrekin batean —bera deitzaile—, PSOE, ORT, PTE, PCE-EPK, CCOO eta UGTk manifestaziorako deia egin zuten. EIA, EMK eta ESEIk deia kritikatu zuten, eta oportunistatzat jo. Herri Batasunak eta Amnistiaren aldeko Gestorek kontra-manifestaziora deitu zuten.

EAJk esan zuen amnistia emanda harritzekoa zela borroka armatuarekin jarraitzea. 1976an, adierazia zuen bizikidetzarako oinarriak finkatzeko indarkeria instituzionala ezabatu behar zela, eta askatasunak eta haien bermeak berpiztu. Bizikidetzarako oinarriak finkatu ahala, euskal populuak berak kenduko zion sostengua ETAri, erakundeak armarik utzi nahi ez izatera. Hortaz, bi urteko tarte horretan biraketa emana zuen.

Batez ere egungo talaiatik begiraturik, hainbatentzat, ordura arte erresistentzia armatuak bere arrazionalitatea izan bazuen, handik aurrera ez.

Zein arrazoi eman zituzten hausturazaleek, hala ez juzgatzeko? Bata zen amnistia emana ez baizik erauzia izan zela. Epeka eman zen: 1975eko azaroan, 1976ko uztailean, 1977ko martxoan, eta, azkenean, 1977ko urrian. Azken urte horretara mugaturik, martxoaren eta urriaren artean Maiatzeko Amnistiaren aldeko Astea eta uztail-abuztuko Askatasunaren martxa gertatu ziren, non 350.000 jende inguruk parte hartu zuen. Hausturazaleen iritzia zen amnistia ez zela gobernu

demokratiko batek, berez, bere borondate zintzoz emandako eta gibelasmorik gabeko neurri askatzailea —bereziki frankismoan egindako barrabaskeriak zigorgabe uzteko jukutria—, baizik eta diktaduraren kudeatzaile edo zaindariek, herriak beharturik, eman behar izan zuten gogoz kontrako neurri xuhurra[35].

Amnistiaren eskakizuna ez zen bakarra. Gobernuak polimiliei eskaini zien «irtenbide teknikoa», hots, armak uztearen truke presoak askatzea, ez zen nahikoa KASen eskakizun zehatz eta arrazoizkoak betetzeko. Demokraziak onar zitzakeen autodeterminazioa eta lurraldetasuna, bai eta alderdi politiko guztien legeztatzea, eta horiek gerorako utziak ziren, Madrilen zer erabakiko. Eta amnistia Espainiako gobernuak nahi baino zabalagoa izan bazen, uler zitekeen borrokari esker izan zela. Horiek horrela, ez da harritzekoa batzuek erabakitzea bide beretik ibilita —borroka armatua eta masa-borroka, gehi, beharbada, borroka instituzionalak ere lagundurik—, KASen beste eskakizunak lortzea bazegoela.

Lopez Adani, egoera politikoa kontuan, eta gorago labur eman ditugun arrazoietan oinarriturik, ez zitzaion burugabea iruditu ETAren une hartako erabakia: «*ETAk horrela egin zuen. Borroka armatuarekin jarraitzeko bi oinarriak betetzen zirela pentsatzen ahal zuen: herriak lagunduriko zilegitasun morala, eta garaipena epe laburrean erdiesteko gaitasun teknikoa*».

Tradizio teoriko iraultzailean, non bera kokatzen den, badira borroka armatua abiatzeko eta atxikitzeko aztertu behar diren kontuak, baldintza etiko eta estrategikoak, maiz elkarri lotuak. Jakinda haien inguruan badirela praktika eta interpretazio ezberdinak, honela zerrendatzen ditu:

> Sistemak ez du biderik ematen eskakizun sozialak eta politikoak askatzeko. Herriak borroka armatuaren beharra ulertzen eta sostengatzen du, gradu ezberdinetan bada ere. Herriak talde armatua bere barneko taldetzat kontsideratzen du. Indar harremanak direla eta, epe ertain edo labur batez borroka armatuaren xedeak lor daitezkeela arrazionalki pentsatzen ahal da. Borroka armatua zapalduen etikak markatu mugen barnean gauzatzen da, errugabeen eta inplikatu gabeen errespetuz. Borrokak ez du zanpatzaile bilakatuko den militarismo autoritarioa antolatu behar (2014a: 146).

Une hartan, amnistia-legea eman ondotik, egoera politikoaren balioespen orokorra hura izanik ere, Lopez Adan dikotomia honen aurka zegoen: euren bizia arriskuan jartzen duten iraultzaileei buruz, apologia ala traizioa, beste aukerarik ez da[36].

35. Francisco Letamendia *Ortzi*-k honela agertu zuen Amnistia Legeari buruzko interpretazioa: «*Así pues, la Ley de Amnistía no se presenta como la Ley de la Reconciliación de Euskadi, sino como la de la victoria de las fuerzas institucionales sobre el núcleo radical que había articulado la lucha anti-represiva vasca*» (Letamendia,1994a, 65).

36. «Zuzendaritza klandestinoaren jarrerak kritikatzea, ETAren inguruan dagoen unibertso osoari uko egitea kontsideratu da. Saldukeria eta laidotzat jo diren kritikei, arneguz eta irainaz erantzun zaie. Gure lagun batek behin esan zigunez, ETAz mintzatzeko bi jarrera posible bakarrik onartzen dizute ENAMen: apologia ala traizioa. Berriz, estrategiaz, hala nola taktikaz eta bereziki ekintza bortitzen maneraz, desakordio handiak izan ditzakegu eta kritika zorrotzak egin daitezke» (Lopez Adan, 2012a: 94).

1977ko azaroaren 26an, Joaquín Imaz Iruñeko Polizia Armatuaren komandantea hil zuen ETAk. Komandanteak errepresioan izandako erantzukizun pertsonalean finkatu zuen ekintzaren zuzentasuna. ETAren arabera, hura hil zuten indar errepresiboen buru nagusia izan zelako eta langileen eta euskal mugimendu herrikoiaren aurkako ekintzetan protagonismo nabaria izan zuelako. Halaber, Jurramendiko gertakarietan nahasi zelako eta Aberri Eguna edo Askatasunaren Martxa eragozteko guztiz inplikatu zelako.

Hilabete inguru zen amnistia-legea onartu zela Espainiako kongresuan. Ezker abertzalean denak bat zetozen estatuaren zikoizkeriaz, baina denek ez zuten partekatzen hura gainditzeko modurik hoberena borroka armatua zenik. *Punto y hora*-k eta bereziki *Egin*-ek kritikatu zuten Imazen aurkako ekintza.

Asmo zabal bat gauzatzeko sortu zen *Egin*, eta babestu zutenak ere askotarikoak ziren, eta lehen zuzendaria, independente bat: Mariano Ferrer. Hark editorialean aditzera eman zuen aukera bat egin beharrean zirela, eta politikan aritzeko irekitzen ziren aukerek borroka armatuari uztea eskatzen zutela; eta, aldi berean, Espainiako gobernuak ezagutu eta errespetatu beharko zituzkeela Euskadiren eskubideak. Euskal Herrian bakean bizizeko bi jokabide horiek zirela beharrezkoak.

ETAk ez zuen kritika onartu, eta ezker abertzaleko korronteen artean liskarrak sortu ziren:

> Dirurik ez zela eta, krisi gogor batek kolpatu zuen erredakzioa eta kapital zabalkunde bat egin zen. EIA eta HASI, biak hasi ziren dirua biltzen; ETAren aldeko independenteak izan ziren bizienak eta, prozesu aski luze baten ondoan, Administrazio Kontseilu fidel batek hartu zuen botere osoa. Hamahiru bat kazetari kanporatuak izan ziren, kontseilari batzuek dimisioa eman, eta Egin KAS erakundearen bozgorailua bilakatu zen (*Ibid.:* 121).

Gertaera horren balioespenera etorrita, Lopez Adanentzat estrategia autoritario baten ildoan, indarrak metatzeko urratsa izan zen, eta, zenbaitentzat, autoritarismo horretaz mesfidatzeko beste arrazoi bat. LAIA BAIk adierazi zuen mingots, Italian eta Mussoliniren garaietan disidentziarako tolerantzia gehiago bazela. Lopez Adan bezalakoentzat, beste argudio bat ETAren borroka armatutik aldenduta, autoritarismoaren aurka, autonomiaren alde lerratzeko, edo planteamendu marxista-leninistetatik marxismo libertariora jotzeko bultzada.

Hori hausturazale batzuei zegokienez, baina, bestalde, erreforma politikoa onarturik 1978ko urriaren 28an ETAren aurkako manifestazioa antolatu zutenek —EAJ barne—, arrangura latza sortu zioten, susmo beltza: «faxismo demokratikoaren» eta tortura zuriaren etorrerarena. EAJren biraketari zegokionez:

> Bai. Lehen, lehen, jeltzaleek «ulertzen» zuten, nahiz eta bat ez etorri; gero, gero eta gutxiago ulertzen ari ziren, bainan behintzat iraultzaileen biolentziaren iturburua sistemaren bortxakeria instituzionalean zetzala bazekiten, beno, orain gutxi dela arte bazekiten. Orain, sistema hori, Espainiakoa, demokrazia bat bihurtzen ari delarik,

> demokraziaren etsaiak bilakatu diren «terroristen» aurka daude. Laster, «terrorista» horien garbitzeko behar diren neurri poliziako gogorrenak eskatuko dituzte, ozen eta nonahi. Eta bihar, hemengo botere autonomiko bat agertzekotan, bere poliziak hartuko du terrorismoaren desustraitzeko erantzukizuna. Bilakabidea oso argia da: azalezko «ulertzetik» torturaraino badoa, edo, hobeki esanda, torturaraino eramanen gaitu. Zeren eta haiek defendatzen duten demokrazia, Mendebal Europan ezagutzen dugun bezalakoxea izango baita, eta hemen, Europa inperialista eta zapaltzaile honetan, bada iraultzaileen eta zokoratuen aurkako faxismoa, bere lege bereziez eta guzti, eta torturak egune[ro]koak ditugu. Hemen, denok baliatzen ari gara Hirugarren Munduaren gainean egiten den esplotazioa; hemen, diktadurek erosten dituzten harmen industriak biziarazten gaitu; hemen, telebistak, eskolak eta publizitateak sortzen dituzte jende alienatuak, gauzak erostea biziaren duintasuna eta zoriona dela sinesten dutenak; eta duen bortxakeriaz «ahaztu» egiten dira: haientzat bada demokrazia. Bortxakeriak eta sistemaren desohoreak sistemaren odola ibilarazten dute (*Ibid.:* 347, 36. eranskina).

1978ko urte hartan Espainiako kongresuak «lege antiterrorista» esan zitzaiona onartu zuen. Solé Barberák PCtik eta Peces Barbak PSOEtik azaldu zuten (1970eko Burgosko epaiketa famatuan, euskal herritarrak ez ziren abokatu bakarrak hain zuzen) delako lege antiterrorista horren xedea zela honako bereizketa hau egitea: «*obedece a la voluntad de la izquierda parlamentaria española de diferenciar la violencia subversiva vasca actual, que sería terrorista, de la violencia antigua, legítima por anti-franquista*» (Letamendia, 1994a: 180).

Lege hura, Barne Ministroak adierazi bezala, Europako beste estatu batzuen legedian inspiratzen zen, eta haiek imitatuko zituen:

> En efecto, desde principios de los años 70, la difícil unificación económica y política de los Estados de Europa occidental está siendo suplida por otro proyecto más viable, el de la formación de una Europa unificada judicial y policialmente; es el terrorismo revolucionario, en su doble aspecto de problema interno a cada Estado y de riesgo internacional, el que para todos los Estados está sirviendo para conciliar intereses contrapuestos (*Id.*).

Aitzindari Erresuma Batua izan zen 1971n, IRAri aurre egiteko. 1975ean, Italiak jarraitu zion «Reale» legearekin, «ordena publikoa begiratzeko», eta, Alemania 1976an batu zitzaien, eta 1977an Wiesbadenen munduko datu-banku handiena garatzen hasi zen:

> Esta colaboración policial adquiere carácter oficial desde 1977, cuando el Consejo de Europa pone en pie el grupo de Trevi, organización con sede en Roma compuesta por altos funcionarios de los Ministerios del Interior de los Estados del Mercado Común. En el seno del grupo Trevi se procede al intercambio de técnicas de lucha antiterrorista y de funcionarios de Policía, así como de información sobre organizaciones armadas (*Ibid.*: 181).

Espainia europartzen ari zen lege antiterrorista horrekin, Europako demokrazia burgesekin parekatzen, antiterrorismoaren borrokan.

Lopez Adan jakinean zen, eta zortzi urtez Bruselan bizi izanik Europaz desliluratua zen —1968-1976; berak dioen bezala, *belgikano* nazionalitatea du, ez frantses eta ez espainiar; 1976tik Angelun—, baina batez ere Europako ildo politiko nagusiei eta erresistentzia-taldeei —armatuak barne— eta herritar arrunten jokabideari begia eta adimena jartzeak ematen zion behatokitik egindako iragarpenak, besteak beste, *Euskadi 1984* idatzian luzazkiago garatuak, oso bestelako ikuspegia ematen zion, hegoaldekoontzat harrigarri eta durduzagarri gertatzen zena orduan, 1978an, artean Europak giza eskubideen abaro izatearen fama baitzuen, Espainiako erregimenak ez bezala.

Bizkitartean, ETA militarrera polimilien Bereziak biltzean, izenlagunak baztertu eta ETA bilakatu zen. Haren estrategia masa-borroka eta borroka armatua erakunde independenteetatik garatzea, baina alor politikoan koordinatuak eta lotuak, hots, borrokaren ikuspegi politiko-militarrak zuzenduta. Egituretan bi adarretako buruzagiak nahastu omen ziren zuzendaritzan, eta zuzendari-taldea aski egonkorra izan omen zen 1977tik 1992ra arte, atxiloketak gorabehera, gertatzen ziren hutsuneak ondoko ekintzaile eskarmentudunek betetzen zituztela.

Komando ilegal iraunkor gehienak Berezi horien ondoan finkatu ziren, Argala komandoa salbu. Militante, epaile eta poliziaren datuak elkartu eta kalkulua eginik: ETAk 80 bat komando legal eratu bide zituen, ekintzen bi herenak egin zituztenak; beste ekintzak, eliteko komando ilegalek burutu bide zituzten. Ekintzaile horien inguruan, bazen laguntzaile talde zabala, logistika eta babes-etxeak-eta segurtatzeko, mila bat lagunez osatua (*Ibid.:* 116-117).

5. Sartre Camus-en aurka, edo Iraultza eta Errebolta

Lehenago adierazi dugu, bidenabar, A. Camusek eta bereziki J-P. Sartrek izan zuten polemika 1950 urte inguruan, Joxe Azurmendi aipatzean. 1980an, euskal abertzale iraultzaileen matxinada armatuak goia jo zuzenean —ia ehun hildako urte hartan: lautik hiru ETA militarrak; hamar Komando Autonomoek, eta polimiliek bost—, gai horri heldu zion Lopez Adanek.

Zergatik? Hogei urte ziren A. Camus hil zela, eta horren karietara Frantzian bereziki, artikuluak argitaratuko ziren hain segur; dena den, *Jakin* aldizkariak ez zion monografikorik eskaini, bertsolaritzari eskainitako alean argitaratu zen gagozkion artikulua «hainbat aburu»-ren atalean. Zergatik idatzi ote zuen?

Hasteko, Camusek *L´Homme révolté* argitaratu zuenean eraikitako polemikan, F. Jeansonek eta gero J-P. Sartrek berak emandako erantzunak (Lopez Adan, 1980e: 190-195) hartzen ditu abiapuntutzat Lopez Adanek Euskal Herriko bortxaz hausnartzeko. Batzuentzat, gurean, historiatik kanpo egongo litzatekeen etika baten babesean edo, iraultzaileen bortxa beti gaizki egon da, frankismoan ere; beste batzuentzat, bizia arriskuan jartzen duen iraultzaileak ez du kritikarik merezi, zernahi egiten duela.

Zer zioen Camusek labur-zurrean? Garaile ateratzen den matxinada, Errusian bezala, menperatzaile bihurtzen dela, endekatze totalitarioan jausten dela, eta iraultza «garbiaren» posibilitateaz pesimista zen.

Aljeriako gerlan FLNkoei laguntzeagatik Frantziatik ihes egin behar izan zuen F. Jeansonek erantzun zion, Lopez Adanen itzulpenean: «*Camus-en erreboltak estatiko izan nahi ba du, Camus-i dagokio soilki. Munduaren bilakaera aldarazi nahi ba du, berriz, jokoan sartu egin behar du, ingurune historikoan txertatu, bere xedeak hautatu eta etsaiak ezagutu…*» (*Ibid.*: 191).

Eta, J-P. Sartrek, A. Camusi egurra gogotik emanez, bigarren mailako erreferentziak erabili zituela, marxismoa ez zuela ulertu eta klase-borroka ahaztu zuela egotzirik, moral hutsaz dena epaitzean: «*lehenik zure morala moralismo bihurtu da, gaurregun literatura hutsa da, eta bihar, menturaz, inmoralismoa*».

Bigarren Mundu Gerra ondoko polemika hartatik, 1980ko Euskal Herriko egoerara etorririk, Lopez Adanen artikulua ñabartua da, eta aukera ematen du hainbat irakurketa eta interpretazio egiteko. Irakurketa albait egokiena egiten entseatzeko

Lopez Adanen bortxari buruzko hausnarketa ageri duten beste testu batzuekin erkatuko dut.

Hasteko, gatozen artikuluan dauden ideia garrantzitsu batzuetara:

> Duda gaberik, pertsonari bere duintasuna ematen dion sendimendua erreboltarena da: edozein injustiziaren aurkako higuina, sistema menperatzailea hausteko nahikaria, hona hemen errebolta honen osagaiak. Baina sendimendu honek ezin ihardun dezake soilki baloreen mundu abstraktuan: historiko bihurtu behar du, egikorra izan dadin. Ingurune historikoa ulertuz konpreni daiteke nondik jo behar duen gure haserreak mundua aldatzeko; eta gaurregun klase borroka eta Estatuaren eginkizuna kontutan hartu gaberik ez dago ulerkera onik.
>
> Halere, ezagutza ideologia bihur daiteke. Ideologiak, noski, prozesu historikoaren ikuspegi orokorra ematen du, baina ideologia sortu duen taldearen ikusmoldea ematen du eta azken funtsean talde honen egoera eta pribilegio estatikoak defendatzen ditu. Eta iraultza proletarioan ideologiak ez dira faltatzen: burokratena, iraultzaile profesionalena dugu bat (…).
>
> Baina hau ez da arazo bakarra. Camus-ek beste galdera lazgarri bat egiten digu: iraultzaren izenean errugabeen heriotza justifika al daiteke? Haren izenean edozein pertsonaren heriotza onar al dezakegu? Ez al da portaera hau zuzengabekoa? Ez al dugu, hiltzerakoan, injustizia sartzen erreboltan, eta horrela ez al gara iraultzaren etika askatzailea bera ukatzen ari? Menturaz, heriotza justifikatzeko erabiltzen den dotrinak, gaiztoak eta zintzoak, edota bilakabide historikoaren lagunak eta horrentzat oztopo direnak berezten ditu, eta ideologia hutsa besterik ez da.
>
> Biolentziaren arazoa, gordin gordina; biolentzia iraultzailea deritzo, eta izena duenak badu izana… gurean, bederen, ukaezinezko izana. Haren efikaziaren arazoa ez dugu ikutuko; haren etikarena, berriz, bai (…).
>
> Zapaltzaileen sistema hausteko eraginkortasuna eta erreboltaren etika uztartzerik balego, hori bitartegabeko biolentziaren kasuan izango litzateke posible.
>
> Erantzunik baldin bada, bitartegabeko biolentzian datza; menperakuntzaren errespontsable zuzen eta nabariek ez dute gupidarik espero behar, beren boterea deuseztatu arte bederen. Biziarekiko begiruneak ezin geldiarazi gaitzake, zeren eta historiaren kanpoko etika soil batek menperatzaileen bizitza errespeta dezagula agintzen badigu, inmobilismoan eror bait gintezke, eta horrela menperatuek pairatzen duten etengabeko hilketa, amaigabeko sarraskia, iraunaraziko bait genuke. Tragedia, benetan, zorigaitz latza zaigu hautu gogorren behar hau, baina bazterrezinezko aukera: gehiengoaren libertatea lortzeko menperatzaileen suntsitzera garamatzan biolentzia onartu egin behar dugu. Eta gupidagabeko mundu honetan ez da aukera goxorik (*Ibid.*: 194).

Beraz, borroka armatua ezin da beti baztertu —gogora, gurean, bortxa gorienean zela ari zela hausnartzen—; batzuetan, zapalkuntza zuzenaren aurkako autodefentsa moduan, zilegi da, eta hauturik justuena da gainera. Baina aurki edo alde zail horrek —neke da gure gisako jendarteetan zapalkuntza zuzen hori noiz dagoen, eta bizia

merezi ez duen etsaia zein den zuzen erabakitzea!— badu hainbat ifrentzu edo aurpegi edo alderdi. Jarrai dezagun arrazoibidea?:

> Baina interpretazio ideologikoen bidez «etsai objetiboak» izendatu, edo hobengabekoen heriotza onartu, eta menperatzaile zuzenak ez diren pertsonak biktimak bezala hautatu, hau ezin dugu onartu. Iraultzarako estrategia eta ideologia batekin identifikatzeak menperatzaile antzu bihur gaitzake, eta zoritxarren etorkizuna beste zoritxar bat izan daiteke. Azken finean, etikarik gabe ez dugu askatasunik izango (*Id.*).

Paragrafo hori baino lehenago beste hau dago:

> Baina beste biolentzia bat dago: hozki erabakitzen dena, estrategia baten barnean sartzen dena, alegia; etsaiak nortzu diren erabaki eta gero, ingurune historikoaren baldintzak eta barne indarrak arakatu eta gero, egiten dena. Batzuek, sistemaren morroinak banan banan garbitzea erabaki dezakete, sistema hori, agian, ahultzeko; besteek, berriz, iraultzaren etsai objetiboak beren partiduaren estrategiaren aurka daudenak direla lasaiki erabakitzen dute, eta salaketak, gezurrak edo erdiegiak erabiltzen dituzte, sistemak berak, edo uste publikoak, edo inkontrolatuek, «etsai objetivo» horiek zigor eta deusezta ditzaten (*Id.*).

Azken lerro horiek, nik uste, zuzen irakurtzeko, ETAren eta Komando Autonomoen artean izandako konponezinetara jo behar dela batez ere, eta bereziki, aldi batean ETAren eta haren ingurunearen aldetik autonomoekiko egon zen herra eta jokabide gaiztoa salatu nahiak argitzen ditu. Azkena argitaratu duen liburuan, honela dio:

> Geroago etorri zen 1980ean Joxe Migel Etxeberria Naparraren desagertzea. Familiak beti pentsatu du zerbitzu sekretuek bahitu zutela. Haren lagun autonomoek, berriz, ETAk zuela desagertzearen erantzukizuna esan zuten.
>
> 1984an Komando Autonomoek hil zuten Enrike Casas senatari sozialista, Euskadiko Seguritate Batzordearen burua. Haien ustez, Batzorde horrek koordinatzen zituen polizien ekintzak eta gerla zikina, eta egun batzuk lehenago ETAko bi militante, Peru eta Stein, Hendaian izan ziren GALek tirokatuak eta hilak. Hauteskunde denbora zen, Herri Batasuna aurkezten zen, eta Ezker Abertzaleak esan zuen Casasen aurkako atentatua HBren zikintzeko eta bere posibilitate elektoralak apaltzeko egina izan zela, hots, Espainiako zerbitzu sekretuek manatua edo manipulatua. Handik gutxira, guardia zibilak apailatu segida batean, Pasaian, Casas hil omen zuen komandoko partaide gehienak hil zituen. Beti Ezker Abertzaleko iturrien arabera, poliziak komandoa hil zuen infiltrazioaren frogak suntsitzek (Lopez Adan, 2014a: 143).

Batez ere, idatzi dugu, beste kasu batzuk ere suma daitezkeelako lerro horien atzealdean estalirik, esaterako, Jose Maria Portell kazetariaren hilketa. Honela dio Lopez Adanek:

> Hain zuzen, uda hartako atentatuen artean Jose María Portell kazetaria hil zuena izan zen harrigarriena. ETAk burutu zuen Portugaleten ekainaren 28an, eta oso azalpen luzea eman ere (…). Ekintzak komunikabideen eta kritiken aurkako airea zuen ere. Portell,

> Cambio 16, Diario 16, Gaceta del Norte, Pensamiento Navarro, denak komunikatuan aipatzen ziren, kazetariak edo hedabideak. ETA era «arbitrario eta ganoragabeaz» tratatzen zutela leporatzen zien Erakundeak.
>
> Asko ados ginatekeen baieztapen horrekin. Baina, noraino zen zilegi iritzi eta kritiken frentean armak eta hilketak erabiltzea? Batzuek Portellenean ikusi zuten «iritzi gaiztoen» aurkako frente berri bat eta oso itxura txarra hartu zioten. Politiko-militarrek oso gogor kondenatu zuten (*Ibid.*: 134).

Azkenik, Lemoizko zentral nuklearrean lanean ari ziren bi behargin: Andrés Guerra Pereda eta Alberto Negro Viguera, ETAk erail zituenean, Lopez Adanek, lehenik, honela zioen:

> Borroka armatuaren oso arazo latza dira saihets-ondorioak, hau da, helburu militar baten aurka jo eta errugabeko biktimak egitea. Rolando kafetegikoaren ondoan, ETA kontu handiaz ibilia zen luzez, baina Lemoizko zentralaren aurkako borrokan eraikuntza bera zen lehen mailako helburu estrategikoa: eta zentralean lanean ari ziren beharginak (…).

Eta, jarraian, bat zetorren une hartan ETAren buruzagitzako kide omen zen batek *Zutabe* agerkarian adierazitako kritikekin:

> Zer gerta zitekeen indar errepresiboen partaideen familiarrak edo haientzat lan egiten duten pertsonal zibileko batzuk hilak izan baziren? Jende askok dudak baditu ETAk eta KASek defendatzen dituzten eskakizun politikoei buruz, eta biktima horiek nahasmendua areagotzeko baizik ez ziren izango. Borroka armatu iraultzailean etsaiek erabiltzen ahal dituzten ondorioak ekidin behar dira, batez ere gurekin eta egiazko demokrazia aurreratua lortzeko ibili behar diren talde herrikoiak gugandik berezitzeko balio badute. Jakin nahi nuke nola onar daitekeen zibilen heriotza ekar dezakeen horrelako ekintza bat (Laburtua, itzulia) (*Ibid.*: 129).

Laburbildurik, Camus-Sartre polemikan, Camusen alde gehiago egiten zuen, eta Sartre jipoitzen zuen, hein batean, arrazoi eta argudio horiekin guztiekin.

Artikuluaren amaierari, baina, etsipena zerion:

> Halere, non dago bi biolentzien artego muga? Biolentziaren eginkizun historikoan sinesten dutenak, beren bizitza propioaren sakrifizioaz indarturik daudenak, onar al dezakete ideologiaren jopu eta jostailu itsu izan litezkeela? Ez, ez dute zalantza onartuko: eta horrela iraultzaren historiak bere barne tragediaren historia lazgarria izaten jarraituko du (Lopez Adan, 1980e: 195).

6. Dany Cohn-Bendit

Pariseko 1968ko Maiatzean liderretako bat izan zen Dany Cohn-Bendit; lehenik, hark hamabost urteren buruan izandako bilakaera deskribatzen du, eta ondotik balioespen hau egiten:

> Eta guhaur, gero, nolabait durduzatuta eta gustu mingotsaz gelditzen gara. Eman dezagun baietz, demokrazia dela sistema hoberena baketsuki libertate guneak zabaldu nahi dutenentzat estatuaren kontra borrokatu gaberik … Baina haizu al da norberaren garapenari balio orokorrik ematea? Esan nahi baita, sistemaren kontradikzioak berdeek [Berdeen aleman mugimenduarekin ibili zen 70eko hamarkadaren azkenetatik] bezala erabiltzeko gai direnentzat, hori dela sistema hoberena; baina, guztiz marginatuak direnentzako, zer? Eta horiek ez dira gutxi, bai demokraziaren barnetan, bai eta ere demokraziek esplotatzen eta ustiatzen duten Hirugarren Munduan. Nolabait, jarrera hau konformista eta egoista bihurtzen da, estu-estua halaber borroka iraultzaileei eduki unibertsala eman nahi bazaie. (Liburuan bertan, Ipar Euskadin bizi den Jean-Pierre Duteuil egindako entrebista oso freskagarri gertatzen da, anarkista honek demokrazia burgesari egiten dizkion kritikak, lehen, orain eta bihar egiak direlako …).
>
> Onar diezazkiogun Danyri bi gauza: lehena, hemeretzigarren mendeko balore eta estrategiak zaharkituak gelditu zaizkigula; bigarrena, demokraziak dituen balio humanistak positiboak direla, eta uzten dizkigun libertate guneak imaginazioz eta efikaziaz baliatu behar ditugula. Baina, estatuaren aurkako jazartzea ezin bazter daiteke, eta menperatuen batasunean indartuko den iraultza … goiz ala berandu hara heldu beharko da, zerbait izan dezagun (Lopez Adan, 1986b).

Hemendik aurrerakoan, aldiz, garbi ikusten da Euskal Herriko borroka armatuaren arazoa nola ikusten zuen 80ko hamarkadan, justu ezkerraren gainbeheraz eta bilakaeraz azterketan eta hausnarketan ari zela:

> Hortaz aparte, borroka armatuaren problema ere ez da bere osotasunean aurkeztua. Egiten duen diagnostiko gogorra, egiatia baina partziala da. Gurean ere izan da aski istilu eta bortizkeria, batez ere gerrillak inozenteak edo etsai guztiz subjektiboak sakrifikatu dituenean, horretaz arta handiaz pentsatzeko. Baina, ene iduriko, gerrilla baten efikazia eta justifikazio historikoa neurtzen duen parametro nagusia, herri zanpatuarekin duen loturaren sakontasuna da (…).
>
> Horregatik, nekez aplika dakizkioke Cohn-Benditen konklusioak Euskadiko borroka armatuari. Hemen, herriarekin borroka honek dituen loturek beste eragin bat, beste sakontasun bat dute, Europako beste estatuetan ez bezala. Baina erokeria ere litzateke

> Mendebaldeko beste estatuetan gertatu denarekin gureak zer ikusirik ez duela pentsatzea.
>
> Atal honen laburtzeko, bi gauza azpimarratuko nituzke. Lehena, negatiboa. Esan nahi baita, borroka armatuak ekar ditzakeen ondorio etikoak (hala nola, deshumanizazioa) eta politikoak (herriaren sentsibilitatetik aparte ihardutea, sostengua galduz eta etsaigoa ekarriz) gurean ere gerta daitezkeela eta gertatzen ari direla —Yoyesen heriotza justifikaezina dut buruan, hain zuzen—.
>
> Bigarrena, positiboa. Hau da, borroka armatuak Hego Euskadin duen herri lotura eta esanahi historikoarengatik, problema ez dela amnistia, barkamena edo birtxertatzea, baizik eta negoziazioa, borrokatzeko gai eta asko irauteko gauza den mugimendu indartsu batekin. Zer lor daitekeen negoziaketa hauetan, zer mugimenduak egin, ongi neurtu eta haztatu behar dira; baina nehork ez pentsa errendizio soilaren eguna heldua dela (*Ibid.*).

Hor, artean, bazen esperantza ETAren bortxa herriak onar zezakeenera mugatzeko, eta iraultzaren bidean urratsak egiteko; azken aldikoa, nik uste.

7. Terrorismoa eta biolentzia iraultzailea

Lehenago idatzi zuen, 1996ko udaberriko data du; 1998an, Likiniano elkarteak argitaratu zion; euskarazko edizioa agortu zen eta gaztelaniazkoa prestatu zuen. *Maiatz* aldizkariak gonbidatuta, mintzaldi baten bitartez liburuaren laburpena egin zuen.

Laburpen hori iruzkintzen hasi aurretik, merezi du kontuan hartzea zein garaitan idatzi zuen: espainiar eta euskal hedabide askotan sekulako hitz-bonbardaketa zegoenean, bi ideia hauen inguruan: bat, bizitza-eskubidea guztien gainetik dago, hots, balio absolutua da; bi, argi eta garbi kondenatuko duzu ETAren terrorismoa, bestela terroristen konplize izango zara!

Ez zen giro, eta bonbardaketa erretorikoa toki orotatik zetorren. Espainiarrengana jo gabe euskaldunengana etorriz, esaterako, Kepa Aulestia EEko buruzagi ohiak *Argia*-n, Joxe Azurmendiren *Demokratak eta biolentoak* liburua aitzakia hartuta, izenburu bereko artikulu labur bat argitaratu zuen (Aulestia, 1998). Funtsean adierazten zuen biolentoek utzi egin behar ziotela hiltzeari, beren baitara begiratu behar zutela, bakoitzak bere buruaren borondatearen jabe egin behar zuela, eta jarrera helduago batera iritsi behar zutela hiltzeari uzteko. Irtenbidea ez zen politikoa, hortaz, indibiduala eta pertsonala baizik: biolento bakoitzaren kontzientzia indibiduala lantzean, garatzean eta heltzean edo zegoen, inon egotekotan. Ez zuen elkarrizketaren beharrik aipatzen, ez zuen biolentoen eskakizunen inguruko eztabaida politiko arrazionalik proposatzen, baizik eta haiek indarkeria uztea, eta ez arrazoi moralengatik bakarrik, praktikoengatik ere bai, biolentziak ez omen duelako ezer onik ekartzen, eta ez delako askatzailea. Hona artikuluko hitzak:

> Azurmendik galdera hau egiten digu: «Noiz bai eta noiz ez da gaiztoa biolentzia?». Urteak pasa ahala gaiztoa beti dela ohartzera iritsi naiz. Eta hau ez da kontsiderazio morala soilik. Kontsiderazio moral horretara iritsi banaiz aldez aurretik beste zerbaitetaz ohartu nintzelako izan da: indarkeriak ezer onik ez dakarrenaren ziurtasunarena hain zuzen. Ez da sekula askatzailea izan, ez garailearentzat, ezta galtzailearentzat ere (Azurmendi, 1999: 29, 17. oin-oharra).

Artikulua bururatzean etsipena agertzen zuen, tamalez, biolentoentzat egoerarik erosoena demokraten eta biolentoen arteko etenak jarraitzea izan zitekeelako, eta demokrata gehienentzat ere, ez zitekeelako eramangaitza hala jarraitzea.

J. Azurmendik artikulu luze batekin erantzun zien Kepa Aulestia eta bere gisa pentsatzen zutenei, politikari eta kazetarien artean-eta, ez baitziren gutxi halaxe mintzo zirenak eta idazten zihardutenak hedabideetan. Ezin dugu hemen artikulu guztia laburtu, baina mamiaren erakusgarri batzuk eman bai. Bortxaren ustezko gaiztotasunaz eta/edo balio ezaz honela zioen:

> Hainbat jendek erabiltzen du gaur arrazoi hori, baina inork ez digu esaten, nola iritsi den hori jakitera. Indarkeria beti gaiztoa dela, berriro, edo konbentzimendu baten izenean, edo ondorioen izenean, arrazoi daiteke. Ondorioen izenean tesi hori zinez arrazoitu, oso zaila da egitea, a priori inposiblea ez esateko —horregatik, ondorioetatik arrazoitzen denean, beti kategoriko baietsi egiten da, frogatzen deus ahalegindu gabe: historia gabe utziko baikintuzke horren frogak!— (…). Bakarrik, indarkeria beti gaiztoa dela biribilki baiesteko ausardia sozial erraza publikoan erakusten duenak, aukera du ausardia intelektual zailagoa ere publikoan egiaz erakusteko, Euskal Herria baino lehen beste erreferentzia batzuetan proba eginez esate baterako: har bitza Espainia, Frantzia, Ingalaterrako histori testuak eskuan, eta esplika beza nola han positiboki azaldurik aurkituko dituen biolentzia loriatsu guztiek, ondorio gaiztoak bakarrik ekarri dituzten Espainia, Frantzia, Ingalaterrarentzat. Ezaba bitza orri «gaizto» denak, ea zer geratzen zaion. Arrisku handia du, historia unibertsal guztian orri asko gabe geratzeko (*Ibid.*: 29-30).

Azurmendik, Lopez Adanek ez bezala, beti aitortu izan du bera ez dela gauza bortxa noiz eta zein esparrutan izan litekeen onargarri erabakitzeko, baina, arrazoiketaren bidez ondorio honetara heltzen zen:

> Konklusioa: aurreko urteotako errealitateari begiratuz, ohargarria baino gehiagoa da, bortxaren arazoak, eztabaidarentzat planteamendu politiko-moral serio bat ez duela hainbeste urtean aurkitu. Beharbada gaur gehiago esateko tenorea da. Eztabaida hori, ez bakarrik egon ez dago: gutxienez egungo baldintza kultural eta legaletan, ezin da egon. Ezintasun praktiko honengatik ihes egiten da beti printzipalismora (printzipio absolutuetara). Printzipalismoa bera ezintasun berri bat bilakatzen da gero. Baina, esan bezala, zaila da mendebalean indarkeria oro har printzipioekin garaitzea. Zaila, ETAren indargintza konkretua ere printzipio absolutuekin garaitu nahi izatea, Estatua kuestiona ezin litekeen zerbait sakratu bezala suposatzen ez bada behintzat («printzipioz» zaila dirudielako, esate baterako, Euskadiren askatasunaren alde armak bidegabekoak izatea, askatasun haren aurka bidezkoak badira, Konstituzioko 8. artikuluaren arabera diren legez) (*Ibid.*: 93).

Ezintasun horren aurrean, ez zuen bertan behera uzten hausnarketa Azurmendik. Hiru eginbide nahitaezko ikusten zituen egoera jasangaitza konponbidean ezartzen joateko: «*Neure informazio eskasetik, iruditzen zait, soluzioa nahi bada, alde batetik, a) elkarrizketa, b) erakundeen berrantolaketa edo erreforma politikoak, behar ditugula; bestetik, c) kultura berri bat —edo gure kulturan elementu berriak— landu*» (*Ibid.*: 95).

a) eta b) puntuak, oro har, beste azalpenik gabe ere ulertzen dira edo suposa litezke, baina c) abstraktuagoari buruz, zer ulertu? Hona Azurmendik ematen zituen argibide batzuk kultura berriaren nondik norakoez:

> Agindu eta debeku moralen, politika ororen, zientziaren beraren euskarri bakarra giza kontzientzia dela, sostengu makalegia iruditzen zaigu hain ardurazko gauzentzat mundu honetan. Gure mentalitate milurtez katolikoak horientzat leku seguruago bat behar izaten dizu. Oinarri sendoagoaz nahi ditugu gure erreibindikazio politikoak (…). Eta gure imajinazioan beharbada gizateria anonimo baten kontzientzia etereo isurkorra baino sendoagoa, Moisesen harrizko taula bat da. Gure eskubide historikoak, ezin izan daitezke gure «iritzi» hutsak: Gernikako Juntetxean edo, armairu zaharren batean daude seguruenik (…). Gauza objektiboak eta seguruak dira derrigor…Objektibo eta seguruak bai, baina kontzientziaren emaitza objektibo eta seguruak hain zuzen. Ez daukate beste etorkirik ez egonlekurik gure kontzientzia hauskor, erlatibo hauxe baino. Aski dute, ordea, hor tinko egotea, aski tinkoak izateko eta beren razionalitatea aski objektiboki garatzeko. Nolabait gure esku dago, beraz, balioen mundua; guk munduan hartzen dugun jarreratik dago menpe, gure hautapenetik, gure gogotik edo kontzientziatik (…).
>
> Moral bat egoteko, gizarte bat egon behar du. Gizarte bat egin behar dugu: gizartea eginez egiten baita morala. Fronteen artean elkarrizketa behar dugu. Gizarte bizitza baketsua ahalduko duen instituzioen eta lurraldearen berrantolaketa behar dugu (Gizarte Itun basikoa). Kultura edo jarrera berri bat, munduaren, historiaren, herrikideen aurrean bizitzeko; eta geure buruaren aurrean. Diferentziarekin bizitzen ikasteko. Erlatibismoarekin ere (intelektualki eta moralki) seguru sentitzeko, ikaratu gabe. Are, ederra sentitzeko diferentzia, guztiaren erlatibismoa, askatasun ororen espazioa (*Ibid.*: 111-114).

Azurmendiren ideia eta ikuspuntuetatik Lopez Adanen ideia eta ikuspuntu ezberdinetara etorriz, hark aurretik gai horretaz han-hemenka adieraziak zituenak sistematizatu egin zituen liburuan. Eta, hasteko, gorago aipatu dugun hitz-bonbardaketa erretorikoaren giro bortitzaren eraginez, hain segur, bereizketa honekin hasten da testua:

> Lan horren gai nagusia terrorismoa izan da eta haren esanahia biolentzia iraultzailearen ikuspuntutik ikertu dut. Noski, komunikabide gehienek ematen duten definizioarekin ez naiz ados. Haien arabera, terrorismoa da estatu demokratikoen aurkako bortizkeria. Sinplekeria bat da definizio hori, eta joko semantiko orientatuen iturburua: horrela, estatuaren biolentziari deitzen diote «legearen indarra», eta demokraziaren legeak hausten dituenari «bortizkeria». Bistan dena, ikuspegi hori finkatzen da demokrazia burgesaren onarpen soil eta akritikoan (Lopez Adan, 2012a: 247).

Gehiago zehaztuz, honela planteatzen zuen hedabideen jokabidea:

> Eskuarki, oraingo hedabideek biolentzia arbuiatzen dute moralaren izenean, boteretsuen eta zanpatuen arteko harreman konfliktiboak hobeki ezkutatzeko. Jendeen heriotza dakarrelako, biolentzia politikoa kondenatzen dute; moralak, omen, jende bizitzaren errespetu absolutua duke balore nagusia, eta moral hori bakarra omen da. Inongo ideologiak, inongo egin-behar politikok ez omen du zuritzen pertsona baten erailtzea (…).

> Aise ikusten denaz, moral unibertsal horren inperatiboak eta sistema politikoaren joko-araudiak estuki lotzen dituzte (…). Manu moral eta politiko horiek interesatuak, partzialak eta, azken finean, zanpatzaileen interesen araberakoak direla aspalditik errana dute iraultzaileek, eta bere pentsalariek eduki morala eman zioten kritika horri, beldurrik gabe etikaz mintzatzeko. Pentsalari iraultzaile klasikoen ikusmoldeak berraipatzea beharrezkoa iruditu zitzaidan, saltzen daukuten pentsamendu bakarrari aurre egiteko, bai eta gazteengan sobera ahantziak diren baloreak gogoratzeko (*Ibid.*: 249-250).

Zertarako da Estatua pentsalari iraultzaile klasikoen arabera?, eta zer-nolako bortxa onartzen du?:

> Estatua, beraz, ez da pobre eta ahulak gerizatzeko tresna, baizik eta boteretsuen zerbitzurako eta, gainera, nazionalismo erasogarrien tresna. Bortxaren jabea da eta bortizkeria erabiltzen du hein eta gradu desberdinetan. Diktadurek modu odoltsuena osatzen dute. Demokrazia parlamentarioetan, askatasun sozial eta politikoak begiratuak dira, baina, historian gaindi, boteretsuek biolentzia eta demokrazia erabiltzen dituzte, batera edo bat bestearen ordez, nola gerta, baina biak beren zinezko egoera nagusia iraunarazteko. Horregatik, menderakuntza deuseztatzeko eta askatasuna sortzeko, klasiko iraultzaileek biolentziari ematen diote eginkizun nabaria eta saihestezina: armatuak eta armak erabiltzeko prest diren nagusien aurka, zanpatuen biolentzia eginkizun eraikigarri eta beharrezkoa da, eta moralki guztiz justifikatzen dena. Tradizio iraultzaileak onartzen du boteretsuen aurka erreboltatzea eta borrokan irabazteko armen erabiltzea beharrezkoa denean; ezin, beraz, onar dezake jendeen bizitza errespetatzea oroz gaineko balorea denik (*Ibid.*: 251).

Beharbada, gai honetan barrena abiaturik, galdera giltzarria eta erantzuteko gaitzena honako hauxe da: noiz da beharrezkoa bortxa?

> Iraultzak berak gogoeta estrategiko eta morala suposatzen du: bitartekaritza intelektual eta politiko askoren bitartez ontzen da iraultza, egitekotan. Bere helburua da zapaltzaileen boterea suntsitzea; bere bideak egokiak izan behar dira, indar harremanen araberakoak; egokiak ere erantzun iraultzailearen proportzioa atxikitzeko eta herriaren onarpena erdiesteko. Biolentzia erabil daiteke presentzia gisa, mehatxu gisa, fronte nagusi bezala edo masen mobilizazio politikoaren okasionezko laguntzaile bezala. Nahi bezala, baina ez nolanahika: tradizio iraultzaileak onartzen du biolentzia, baina arrunkerietan hondatu gabe, aberats eta eredugarria (*Ibid.*: 254).

Adierazi dugu haste-hastetik hedabideek zabaltzen duten terrorismoaren ideia manipulatua ohi dela. Zer da, bada, terrorismoa tradizio iraultzailearen ikuspuntutik?

> Terrorismoa, terrorea eta izuarekin lotuz, bi praktika politiko edo sozialei dagokie: estatuak bere etsaiak kikiltzeko erabiltzen duen lege demokratikoetatik aparteko errepresioa; eta indibiduo isolatuek edo talde armatu ezkutu edo klandestinoek klase sozial konkretu bat edo populu osoa beldurtzeko erabiltzen duten bortizkeria, bereziki bahiketa eta atentatuen bidez egiten denean.

> Estatu eta taldeen terrorismoan, pertsonen eskubide minimoak ez dira errespetatzen eta izua sortzea da bietan helburua. Azken xedea dute etsaia beldurrez kikildu eta perlesiatu, amore eman dezan.
>
> Definizio horiek berdin aplika dakizkieke ezker edo eskuineko terrorismoari eta, zabalkundez, jarduera mafiosoei. Helburuak, noski, ez dira berdinak (…). Bada diferentzia, bistan dena: oro har, eskuineko terroristak boteretsuen defentsarako ari dira, eta ezkerrekoek askatasunaren jendarte berria sortu nahi dute. Helburuak desberdinak izanik eta metodoak antzekoak, iraultzaile nagusien artean batzuek ondoriotu dute irizpide moralak ez dagozkiela egitateei, baizik eta helburuei soilki. Labur esana: iraultzarako ona, morala; iraultzarako txarra, inmorala. Trotsky dugu hortaz ezagunena (…). Tradizio zabalenak ez du Trotsky-ren ikuspegi erraza onartzen; balore moralak neurtzeko irizpide bakarra efikazia baldin bada, irizpide moral guziak errekapetik botatzen dira. Gehienek ezin izan dute horrelakorik onar (…). Moral aldetik, kritika iraultzaileak ezin baditu interpretazio funtzional eta alderdikoiak irentsi, interpretazio geldiak eta erreakzionarioak ere ezin onar ditzake (…). Tradizio iraultzaileak, oro har, egoera gogorren aurrean gertatu da eta erantzun egokiak emateko ahaleginak egin ditu. Eskuarki onartu du etsai argi eta bortitzen hiltzea, biolentzia aplikatzen bada irabazteko estrategia baten barnean. Tradizio honetatik atera nahi gabe estatu terrorismoaren alde direnek, ekilibrioak egin behar dituzte etsai suposatu eta baketsuen gaineko terrorismoa onartzeko. Libertarioek ez dute zalantzarik ukan sozialismo errealaren historia arakatzerakoan, eta estatu terrorismo guztia errefusatu behar dela esan dute, berdin arerio gorrien aurkakoa ere (*Ibid.*: 254-255).

Orokorretik Euskal Herriko egoera konkretura etorriz, ETAren bortxaz zer balioespen egiten zuen Lizarra-Garaziko akordioa sinatu, eta ETAk su-etena eman baino lehen?

> Egia erran, estatu iraultzailearen terrorismoak ez du zerikusi handirik gure egoerarekin. Francisco Letamendiak askotan errepikatu du 1982tik ETA estatu bat bezala funtzionatzen ari dela. Ikusmolde hau matizatzeko da, baina ETAk 1984tik bereganatu dituen ekintza batzuetan susma daiteke boterean den talde autoritarioaren logika estalinista. Mikel Solaun 1984an hil zuten; Yoyes Gonzalez Katarainen kasua 1986an gertatu zen. Bietan, balbe zigorra aplikatu zitzaien, lehenari traizioaz eta bigarrenari desertzioarengatik, kasua sekretu pean eta inongo defentsarik gabe etsaminatuz geroz eta heriotza krudelkeria osoaz exekutatuz haur txikien aurrean (…). zeren eta Ezker Abertzalean agertu diren ohitura batzuek parekatu baitaitezke estatu terrorismoarekin. Adibide bat, traidoreak izendatzeko eta arbuiatzeko dagoen erraztasuna. Azken urteotan baretu dira salaketa horiek eta giroa hobekitu da, agian luzaz.
>
> Berriz, ETAk edo bere lagunek egiten duten edozein bortizkeria testuinguruaz zuritzeko tirria indartu da, testuinguru sozial eta politikoaren existentziak berak beste erantzukizun edo azalpen moral guztiak alferrak egingo balitu bezala (…).
>
> Hau esan eta, egia egia: gurean gehien sendi dugun estatu terrorismoa ez da ETArena, ez da iraultzailea aparentziarik ere, baizik eta Espainiako gobernuena, zuzenki edo tolerantziaz. Batallón Vasco-Español, ATE, GAL…Estatuak sortu ditu eta Iparraldean bereziki pairatu ditugu; gainera, indar errepresiboek tortura eta exekuzio zuzenen kate

> luzea daramate, kasik zigorrik gabe; auzitegi berezien existentzia gauza legala da, eta, denbora berean, preso politikoei ematen zaien tratamendua da desberdin, bortitz eta ilegala. Demokrazia batetan hain lotsagabekeria nabariak ikustea izugarria da. Azken finean, ez zen Errusiaraino joan behar desmasiak aurkitzeko (*Ibid.*: 258-259).

Liburua bururatua zuenean, lagun bati aipatu zion beldur zela gaurkotasunik ez ote zuen liburuak jorratzen zuen gaiak, eta delako lagun horrek erantzun bide zion anakronismoa ez, baizik eta nostalgia zela: «*Bai, behar bada, errebolta, oldarra, morala, eta den dena lotzeko kontsentsu sozialaren denboren nostalgia*» (*Ibid.*: 259).

8. Bizitza ez da oroz gain dagoen balioa

Atal luze samar hau bururatzeko, eta laburpen gisa, hona Amets Arzallusek egindako elkarrizketa interesgarrian, borroka iraultzailearen moralarekin zerikusia duten galderen eta erantzunen laburpen bat. Iruzkinik gabe agertzen ditut, berak mintzo baitira aski klarki:

ETAren sorrera hurbiletik bizi izan zenuen. Zer suposatu zuen ETA bezalako talde batek frankismo gorri hartan?

Euskal Herriko historian urrats guztiz erabakigarria, alderdi nazionalistaren estrategiak gerra eta gero porrot egin zuela garbi baitzegoen, egoera hits batean bizi ginen, oso esperantza gutxirekin eta ETA erresistentzia berriaren jaiotza izan zen. Hori ETAri zor zaio. Trantsizio denboran ere, trantsizio nolabait demokratiko burgesean, erresistentziaren erreferente nagusi bat izan da ETA. Baina poliki-poliki hori galdu egin da, eta ETA marjinatu egin da, bere burua marjinatu du (…).

Zergatik diozu ETAk bere burua marjinatu duela?

ETAren bidean haustura garrantzitsu bat izan da. Une jakin batean etsaiaren kontrako bortizkeria zuzenaren ordez herriaren gaineko presioa hautatzen da, eta horri deitzen zaio hain zuzen ere terrorismoa, estatuak amore eman dezan herria presionatzea. Haustura horren justifikatzeko bazen behar bada behar tekniko edo militar bat, ikusirik ezin zela gehiago borroka zuzenaren bidez ezer lortu, baina nik galdetzen dut, iraun behar zuen talde militarrak, ezin bazuen iraun borroka garbi batean etsaiaren kontra? (…).

Gaur egun, estatuek eta beren zerbitzu sekretuek erabil dezaketen kontrolerako teknologiarekin, mugikor, satelite, eta gure irudimenak atzeman ez dezakeen guzia… Posible da min ematen dien borroka armatu bat praktikatzea?

Bai, bistan dena, hor daukazu Al Qaedak egiten duena (…). Beste arazo bat da hori bere gain hartzen ahal ote duen borroka armatuak…

Etika aldetik diozu…

Bai, ea hori bat datorren eduki iraultzailearekin. Alegia, hori guztia egin beharko litzateke herriaren zerbitzutan, herriaren kontzientzia hobetzeko, eta azkenean herria izan dadin borroka armatuaren protagonista. Ekintza horiek lotzen ahal dira horrekin? Bistan da ezetz (…).

Non dago iraultzaren muga etikoa?

Engelsek definitu zuen hori aspaldian: «Jauregiei sua eta txabolei bakea». Nik uste hori baino garbiago ezin daitekeela utzi. Nire irudiko hor bada marra gorri bat, eta jende askok garbi esan izan duen bezala, herriaren kontrako atentatuak ez dira inoiz onargarriak etika iraultzaile baten barnean. Gainera populazioa hartzen baduzu, edo bahitzen, mehatxuaren bidez, azkenean ekintzaren posibilitatea etsaiaren eskuetan uzten ari zara. Etsaiak abisatu egin behar du, lekuak hustu behar ditu, eta normala ote da pentsatzea gure erantzukizuna etsaiaren eskuetan utzi daitekeela? Niretzat ez. Guk kontrolatu behar ditugu gure ekintzak hasieratik bururaino.

Hori da Hipercorren pasa zena…

Bai. Nik ez dut ezkutatzen hor abisu bat izan zela, baina problema da estatuari komeni bazaio momentu batean horrelako leherketa bat klandestinoak izorratzeko, edo estatuaren barne istiluetan joera bati indarra emateko, bada egingo duela. Ez dute hor problema handirik.

Horiek problema etiko gutxi daukate.

Bai. Eta horregatik diot iraultzaileak ezin ditzakeela ondorioak horrelako jendearen eskuetan utzi, eta gero eskuak garbitu.

Hiltzea noiz izan daiteke zilegi?

Niretzat jendearen bizitza, edo bizitzaren errespetua, ez da oroz gainetik dagoen balorea. Nik uste hiltzea, eta zure burua hiltzeko arriskuan jartzea zilegi dela askatasunaren alde, hori garbi, eta hori da historiak erakutsi diguna hasi Espartakotik eta azkeneko Josu Jon Imazen adierazpenetaraino. Pentsa zer esan zuen Josu Jonek: «Gure gudariak prest ziren beren buruaren sakrifizioa egiteko, baina ez hiltzeko». Tontotzat hartzen gaitu ala? (…).

Zer jarri behar da oroz gainetik?

Askatasuna eta duintasuna.

Euskal Herriaren alde bizitza eman duenarekiko sinpatia beti izango duzu?

Historian zehar horrelako ideiak askotan entzun dira, «ni herriaren alde, aberriaren alde bizitza emateko prest nago, eta nire lagunekin, nirekin horretan ibiltzen direnekin haurridetasun handienean bizitzeko…». Kasu, ideia hori oso erraz aurkitzen da faxismoan. Horrelako kantak dira guk eskolan ikasitakoak, «nik banuen kamarada bat», horiek nazien kantak dira, eta eduki faxista dute. Zorionez ez da halako edukirik izan abertzaleen artean, eta nik, gaur egunean, Euskal Herriaren alde bizitza emateko prest dagoenari errespetu handia diot. Gainera, oro har, ETAren historiarekin zerikusia dugun denek, ez badugu guztiz hautsi gure baloreekin, badugu erantzukizun historiko bat horretan sartua denari irtenbide duina emateko (…).

Egin daiteke galdera filosofikoak pausatu, errealitate hitsetik alde egin eta ideien munduan arnas hartzeko: noiz bukatuko da borroka?

Nik uste borroka betiko daukagula. Historian gaindi inon ez bada lortu jendarte benetan zuzena eraikitzea, horrek esan nahi du oso arazo sakonak badirela, eta ez marxismo ahul batek esaten duen bezala dena egitura sozialaren ondorio, nik uste pertsonen baitan badela zerbait ez doana (Arzallus, 2006).

III. Iraultza sozialerako ideiak eta erreferenteak

1. Demokrazia autoritario erreformista sendotzen, estrategia berrien premia

Euskadi 1984 liburuan ikusten da jada fedea galtzen hasia zela, Europan gertatzen ari zena ikusita, eta 1981ean, Tejerok estatu-kolpea eman, eta aurkako erantzun gehiago egon ez zenean, sentipen mingotsa izan zuen Lopez Adanek: iraultzarako esperantza urruntzen ari da, eta egoera berrira egokitu beharra dago, jakina, sistema onartu eta bertan integratu gabe. Ildo horretatik lehen artikulua *Indolencia* aldizkarian argitara eman zuen, eta geroxeago *Argia* aldizkarian ildo beretik. Eta 1984an, *Argia* aldizkariak elkarrizketatu zuen: xedea zen 1978-1979an egindako iragarpenetan zertan asmatu zuen eta zertan egin zuen huts aztertzea, eta aurrera begira zer panorama politiko zekusan azaltzea.

Aipatu dugun lehen artikulura etorrita —*Indolencia* aldizkarikoa—, kazetariaren galderei erantzunez zioen:

> En la última época de la agonía del franquismo y en la primera etapa de la actual democracia vigilada, hubo en Euskadi una radicalización de la lucha de masas, tanto en su extensión como en sus objetivos. Refiriéndonos a los aspectos que yo conozco mejor, los de la izquierda abertzale, sí que hubo una esperanza cierta de que se iba a poder movilizar a la mayoría del pueblo alrededor de dos objetivos: independencia nacional y revolución social (Lopez Adan, 1981c).

Baina hori urtzen, lurruntzen zihoan; izan ere, Espainiako Estatua:

> Está llevando un proceso de concesión de libertades en determinados campos y a determinados sectores, con un fin innegable (al menos en parte): cortar la hierba bajo los pies a otras formas de organización más revolucionarias y a otras reivindicaciones más peligrosas. Dentro de este contexto, la legalización de los partidos políticos, centrales sindicales, etc., es una primera fase. La segunda fase es la «puesta al paso» de esas mismas organizaciones, que han ido aceptando la intangibilidad del sistema capitalista, la intangibilidad del sistema de delegación de poder, y, en fin, la prepotencia del ejército. En una tercera fase…

Prozesu hori krisi ekonomiko betean ari zen egiten, eta krisi ekonomikoaren aurka ez zegoen langile-klaseen indar-posizio bat, egun ere ez dagoen bezala:

> En consecuencia, no es de extrañar que las esperanzas de réplica, de revolución social, de rápida independencia…y de rápida liberación personal en muchos aspectos que,

> más o menos formulados, existían en la época anterior al avance reformista y al avance represivo sobre los que no aceptan la reforma, se han ido reduciendo en cuanto al número de quienes creen en ellas. Al mismo tiempo, estos sectores más reducidos se encuentran con una enemiga tremenda por parte de los partidos reformistas y por parte del estado.

Bilakaera zein izan zitekeen? Estatuak fisikoki suntsi zitzakeen iraultzaren gertagarritasunean sinesten jarraitzen zuten sektoreak, edota hainbat sektorek onar zezaketen ez zeukatela zer eginik, eta pasotismo politiko-sozialean jaus zitezkeen. Agian irtenbidea beste honetan egon zitekeen: «*En una adecuación del espíritu revolucionario, pasando de unas esperanzas de revolución triunfante a una decisión de revuelta permanente capaz de resistencia para largo tiempo*».

Baina zer jende gera zitekeen matxinada iraunkorrerako gertu? Eredu autonomoari jarraitzen ziotenak ez, hau da, enpresetako batzordeen koordinazioan, hots, langile-klasearen autoantolamenduan oinarrituriko erresistentzia moduaz aritutakoak ez: bereziki, sindikatuek lekua kendu zietelako, eta, beharbada:

> Y —sin caer en el esquema leninista de partido— esa autocrítica constataría, tal vez, que la creencia en el espontaneismo de la clase obrera y la falta de un modelo adecuado de organización para combatir en las épocas de reflujo, han causado que la autonomía no haya podido mantener la importancia social que tenía en Euskadi hace ya algunos años.

Matxinada iraunkorreko dinamikan iraun zezaketenak HB inguruko jendea ziren:

> Este modelo se basa en la movilización popular alrededor de consignas fundamentalmente independentistas, de revolución abertzale, con amplio contenido populista de apoyo a las reivindicaciones de todas las clases marginadas y oprimidas, en cuanto esas reivindicaciones se expresan en conflicto abierto con el estado.

HBren ereduari bi akats nagusi antzematen zizkion: klase-planteamenduen anbiguotasuna, eta bereziki iraultza egiteko eredu hierarkikoa. Hona beraren hitzak:

> Sí, queda ampliamente demostrado por las relaciones de HB con el movimiento autónomo y demostrado también por la actitud de HB respecto a las elecciones; es un modelo que se basa fundamentalmente en la afirmación de que realmente hay salvadores, que son de por sí dirigentes para el pueblo vasco en época revolucionaria. Dirigentes a los que se mitifica, otorgándoles una calidad de jefes indiscutibles, cosa que entra en contradicción abierta no sólo con la posibilidad de una revolución liberadora, sino también con la posibilidad de expresión de las mismas masas, de los mismos grupos sociales, cuyas reivindicaciones populistas se apoyan. Esos problemas, tarde o temprano, van a llevar a un agotamiento del modelo.

Kazetariak galdetuta mugimendu autonomoarentzat zein ziren ekintzarako esparruak, hona hemen erantzuna:

> Yo lo plantearía así: no hay duda que HB ha conjuntado a su alrededor amplias masas de gente que está en contra del sistema existente. Tampoco hay duda que, al mismo tiempo, por sus ambigüedades, por su mala definición del carácter de clase de la revolución y por la actuación de sus jerarquías internas, HB no puede ser el único foco de atención de la autonomía. Todavía quedan las fábricas y los barrios, muchas formas de lucha que siguen teniendo la importancia social que tuvieron en los años 70 y que son todavía un punto de encuentro de aquellos que se sienten insatisfechos por la delegación de poder a partidos y sindicatos. La presencia en estos frentes es una necesidad ineludible. Hoy, en Euskadi, también hay combates muy precisos, como el combate antinuclear, muy de actualidad y en el que hay de todo, pero en el que hay también sectores que ven en la lucha antinuclear una lucha global contra las formas de producción, de consumo, de jerarquía y de control social.

Argia aldizkarian, Kike delako batek indio apatxeen defentsan egindako artikuluak bide emanda argitaratu zuen artikulura etorrita, HBren baitan eta haren inguruan zentratzen zen, eta barneko autokritika egiteko premia eta estrategia birbideratu beharra defendatzen zituen. Arrazoiak hauexek ziren:

> Frankismoaren azken urteetako garaian asmatutako ideologiak eta estrategiak zaharkitzen ari zaizkigu, KAS eta HBk defendatutako hausturarako estrategiek porrot egin dutenetik. Gobernuak ez du ETArekin negoziatu nahi, eta Estatuan eta Mendebalean diren indar harremanak ikusirik, ez du inoiz (epe laburrean behintzat) hausturako programarik onartuko. Eta militarren hiltzeak berak ez du amore ematera behartuko (…).
>
> Armen borrokak etsaia hauspez eta belauniko ezar dezan, gizarte mailan eta internazional mailan den indar erlazioa aldatu beharko da. Orain ofentsiba iraultzaileen garaia bururatu da, gibeleratzeko inguru historiko batean sartzen ari gara, erresistentzian, eta gure borroka nagusia indar erlazioen kanbiamendua lortzean datza (Lopez Adan, 1982b; edo 2012a: 35).

Borroka armatuak munta bazuela zioen, baina ez modu honetan: «*Dena erakartzen duen eta epe laburrerako konpromezu gogorrak eskatzen dituen borroka armatua kaltegarri gerta dakiguke, gaur borroka* ***baten*** *(eta ez borroka osoaren) jarraipena segurtatzen duen bitartean, biharko kristoren hutsegitea ekar lezakeelako*».

Eztabaidatu behar zena ez zen borrokalariek zituzten arrazoien funtsa edo zapalkuntzaren errealitatea edota erreformisten eta kolaboratzaileen saldukeria, zeren: «*Arrazoia dugu borrokatzeko, zuzen dira gogaituak eta gogorrak… Baina gal genezake, eta luzaroko*».

Ikertu behar zirenak arazo hauek ziren:

> -Bai ala ez bermatu da Espainian eta bere jabego-azpikoetan kutsu autoritario handia duen burges demokrazia? Zer ondorioak?
>
> -Bai ala ez porrot egiten ari dira Mendebaleko Europan talde klandestino bati dagozkion borroka armatuaren moldeak?

-Posible al da herri mugimenduak berpiztea? Non eta nola borrokatzen da gaur egun auzoetan, lantegietan…?

-Zein ondorioak ekarri dizkio ETA eta HBren salbatzaileen estrategiak herri borrokari?

Kontua ez zen, beraz, ezker abertzalea «kanpotik» kondenatzea, baizik eta «barnetik» (barne hori HB baino askoz zabalagoa zela kontuan izanda) eztabaidatzea nola iraun, nola bizi, eta nola irabazi asmatzea, zeren indio apatxeek galdu egin zuten, eta borroka irabazteko egin behar zen: «*Gaurko estrategiak zaharkituak direla pentsatzen dugunok, ongi dakigu dagoena kritikatuta soilik lor litekeela berriaren sortzea*».

Hori 1982an. Kazetariak *Euskadi 1984* liburuak adierazten zuen urtea heldutakoan egin zion elkarrizketan adierazi zuen asmatu zuela Espainiako Estatuan demokrazia burgesa finkatuko zelako ustean, demokrazia burges autoritarioa, borroka armatua egiten jarraitzen zuen herri baten errepresioarekin guztiz bateragarria: «*Estatu Espainoleko egiazko izaera Mendebal Europako demokrazia autoritario bat da nire iritziz, funtsean beste estatuenak bezala, eta hala jarraituko du* » (Lopez Adan, 2012a: 45); eta, era berean, huts egin zuela beste honetan:

> Baina iraultzaileen joeraren aurrean, batzuk dudarik gabe oportunistak dira, beste batzuek ihes egin dute, baina nik nahi nuen beste batzuek bide berri bat asmatzea, egunerokotasunari eta autonomiari lehentasuna ematen dien bide iraultzaile berri bat… hor huts egin dut. Euskal Herrian iraultzaileen artean garrantziarik haundiena dutenak Herri Batasunakoak dira, eta horiek ez doaz bide horretatik.

Liburuan errepresioan kolaboratuz ageri dira jelkideak; kazetariak esaten zion ez zirela horrenbesteraino heldu. Lopez Adanek erantzunean argitzen zuen ez zuela aurreikusi espainolen nazionalismoa, eta hori berpizten PSOE ari zela:

> Beno, hor hipotesi bat banuen, alegia PNVk aurkituko zuela burgesia espainolarekin konponbide egonkor bat, eta etorkizunerako helduko dela uste dut dena dela, gauzak sobera mintzen ez badira. Baina gauza bat ez nuen aski kontutan hartu: espainolen nazionalismoa. Argi da. Gure garaian Espainia nazio bat zen baina ez zen kontzientzia indartsu bat zuen nazio bat, eta Euskal Herrira zetozen etorkinak ere extremeño edo andaluz ziren, kontzientzia erregionalagoa zen. Oposizioaren eskema ere ez zen argia: orain federala, orain erregionalista… Orain PSOE ari da burgesiak egin behar zuen transformaketa egiten, eta espainol kontzientzia zabaltze lana beren gain hartu dute.

PSOEk nazionalismo espainola sustatuko zuela aurreikusi ez bazuen ere, jelkideen bilakaerari zihoakionez, igarle ona gertatu zen:

> Liburuan EAJ Euskal Gobernu Autonomoan nagusi ageri da eta baita errepresioarekin kolaboratzen ere, nahiz eta hitz ederrez jantzirik. Nire ustez hori da gaur egun egiten duena: prest dago errepresioarekin kolaboratzeko eta egiten ez badu indar faltaz da. Baina EAJk nahi duena zera da, Estatuko sisteman ondo integratuko den ordenako nazionalismo bat. Honek goiz ala berandu erreprimitu egin beharko du nazionalismo

> iraultzailea, eta egiten ez badu Madrilek konpetentzia hori uzten ez diolako da. EAJren arazoa zera da, Espainiako estatuaren erasoen aurka jarrera erradikal bat hartzeko guztiz behartua egon behar duela. 1936an bezala: [h]asteko, «koño, guk ez dakigu zer egin…», fazistak etorri eta nazionalistak fusilatu, eta fusilatzeak hasten direnean joaten da EAJ trintxeretara. Espainiako sistemak uzten badizkio bere gobernutxo, parlamentutxo, presupostutxo eta beste holako «txo» batzuk, polizia batekin gainera iraultzaileak zapaltzeko, lan hori egingo luke pozik.

Kazetaria ez zen kontent gelditu erantzunarekin, eta honela planteatu zion galdera: «*Baina gauza bat da hautatu den sistema estatutarioak dituen zenbait baldintza, goxoak ez izan arren, betetzea eta beste bat ezberdina ezker abertzalearen errepresioan sartzea. Eskuak lotuta dauzka hor EAJk*…».

Lopez Adanen ihardespenak ez zuen ezer galtzekorik:

> Baina ez arrazoi ideologikoengatik, tribu arrazoiengatik baino. ANVko bati ETAko bat sala dezala eskatzen badiozu, iloba edo semea sala dezan eskatzea da. Baina ondo ikusi behar dugu beste hau ere: EAJko buruek hautsi egin nahi dute nazionalismo klasikoaren gizarte oinarriarekin, eta beste maioria berri bat aurkitu, ahal badute. Nazionalismo «irrazionalarekin» hautsi eta ordenako maioria berri bat eraiki, iraultzaren aurka diren jende konformistengan. Baina ez da horren erraza.
>
> Holako puntura iritsi banaiz, neurri haundi batean nazionalismoaren buruzagiak zein diren ikusiz izan da, antzineko abertzale sentimental eta ezagunak alde batera baztertuak izan direlako Deustutik ateratako teknokrata berrien faborez. Ez dizute esango kargu horietan daudela espainolak ez direlako eta independentzia lortzeko, baizik eta Elkarte Autonomikoaren gestioa eramateko daudela (*Ibid.*: 46-47).

Ez zen ausartzen 1984rako egin bezala, 1994rako iragarpenak egiten; bi kezka zituela aditzera ematen zuen: bata, euskal abertzale iraultzaile eta espainiar iraultzaileen artean zubiak hautsi izana; eta, bestea, iraultzaileak bakarturik egotea euskal jendartean; horregatik, urte latzak iragartzen zituen —profezia, hortaz—, eta, hor ezin esan asmatu ez zuenik:

> Batetik abertzaleen isolamendua. Espainiako herriarekin gertatzen ari zaiguna, garai batean «los vascos qué majos» eta orain «los vascos qué cabrones». Nahi duzunagatik, baina gure eta espainolen arteko komunikazioa eten egin da. Oso grabea da hori, lehen gure iraultza Espainiako iraultzaileekin elkartasunean emango zela uste baikenuen, ez baikenuen inondik ere pentsatzen Espainiako herri osoa aurka dugula (…).
>
> Eta bigarrenik, iraultzaileen isolamendua euskal gizartean. Korrekzio faktoreak badira, tribuaren zentzua nagusiki. PNV botatzen duten eta euskaraz mintzo diren edo euskal kontzientzia duten jendeek beti izanen dute gure aldeko zerbait. Baina euskal nazio kontzientziarik ez dutenen artean, euskal hiztunaz ez direnetan batez ere, isolamendu hori oso posible ikusten dut: espainol kontzientziak gero eta gehiago eragingo die, espainol huts izate aldera. Eta gero «ordenako jendearen» erreflexua. Krisi garaian, jende hori politika zapaltzaileen aldera makurtzen da (…).

> Horren aurrean gure erresistentziak ahalmena izango duen itxaropena dut. Baina ondorengo urteak oso latzak datozkigu. Haiek gu erabat zapaltzeko ez dira gai izango, baina ez gu ere haiek urratzeko. Borroka urte latzak ikusten ditut.

Iraultza egiteko alderdi eta doktrinetan konfiantza galdua zuelarik, aberastasun handiena harremanetan ezarria zuen, konbentzituen arteko harremanak sustatzean:

> Gaur egun arazo osoaren azalpena edo, norbait konbentzitzekoa, ez diot inori sakatzen gehiago. Bakarrik konbentzituekin hitz egiten dut. Orain, gure artean nola bizi Euskal Herriarekin lotzen gaituzten zera horiek, aipatutako gimnastika hori, gimnastika iraultzailea. Egunerokotasuna jende askorentzat, garai batean behintzat, zen kaleetako animazioa eta zentro kulturalak edo komuna sexualak sortu, horrelako gauzak. Holako gauzen egitea inportantea da, oso. Baina gero eta garrantzizkoago ikusten dut «rolloan» dabilen jendearekin, euskaldunekin, gero eta komunikazio zabalago bat lortzea. Komunikazio horrek ematen digu jarraitzeko gogoa eta indarra. Militantzian ere, jendearen problemak, nola bizi zapalkuntza, nola bizi tortura, nola bizi barne kontraesanak, gure arteko kontraesanak. Liburuan bezala, sentimenduei oso lotuak (*Ibid.*: 48-49).

2. Nazioa eta estatua. Nazionalismoa eta humanismo unibertsala. Demokrazia eta naziotasuna

Lopez Adanek idatzia du euskal abertzaletasuna familian eta gizarte hurbilean edoski zuela; eta marxismoa, aldiz, aurkitu beharra izan zuela. Asko idatzi du nazionalismoaz eta abertzaletasunaz; herri edo nazio zapalduen askatasunaren aldeko beti, eta noski, Euskal Herri askearen alde, baina aldi berean kontuz ibili beharra ohartaraziz: konbentziturik ezen herri zapalduen abertzaletasunean ere maiz badirela jarrera ez-humanistak eta ez-internazionalistak, eta bai egoistak eta xenofoboak ere; inoiz berdindu eta sail berean sartu gabe, haatik, Mendebaleko estatu demokratiko kapitalisten nazionalismoa, eta haien mendeko nazioena.

Asko samar eta zehatz idatzi du gai horietaz, eta asko begiratu du munduan zehar, bereziki Europa mendebalera, eta Espainia eta Frantziara, gure humanismoaren eta elkartasun internazionalistaren lehen probalekua estatu horietako langileriaren aldera erakusten duguna dela baieztatuz. Hausnarketa eta arrazoiketa ez teoriko-akademiko formal hutsa, baizik eta unean uneko egoeran txertatua, eta orientabide praktikoei begira egina.

1994an, nazionalismoari buruzko artikulu luze eta mamitsuenean, klarki agertu zuen ez-nazionalista eta demokrata omen direnek mozorropean dituzten nazionalismoaren ezaugarri nabarmenak. Gurean diren komunitate ezberdinak integratzeko agertu diren diskurtsoak aztertu zituen, eta analisiaren ondotik, nazionalismo espainolaren eta euskaldunaren arteko gatazkari irtenbidea aurkitzeko nondik nora jo behar den zirriborratu zuen, erabat harturik, eta zenbait zehaztasunetara jota ere.

2.1. BORROKA ABERTZALEA EDOZEIN ESTATUREN AURKA ETA IRAULTZA KOMUNISTA EKOLOGIKOAREN ALDE

Nazioaz eta estatuaz 1980an argitaratu zuen artikulua egun *Lapiko kritikoa* deritzan webgunean dago, eztabaidarako baliagarri izaten jarraitzen duen seinale.

Testuinguru politikoari doakionez, 1980an, ia ehun hildako eragin zituzten ETA militarrak, Komando Autonomo Antikapitalistek eta ETA politiko-militarrak; lautik hiru baino gehiago ETA militarrak eta haien bultzada nagusia euskal independentismoa. Espainian diktaduratik demokrazia autoritarioranzko trantsizioa

aurrera zihoan, zailtasunekin —Tejeroren estatu-kolpe saiakera 1981ean—, eta artean AEB eta SESBen arteko gerra hotzak indar betean zirauen.

Bada, artikuluaren edukia laburbildurik, borroka abertzaleak edozein estaturen aurkakoa izan behar zuen, baita euskal estatuaren aurka ere, estatua beti gutxiengo batek gehiengoaren gain egiten duen kontrola delako, eta gure eremu politiko kapitalista globalizatuan, burgesia multinazionalaren mesedetan. Estatuaren aurka, eta iraultza komunista ekologikoaren alde.

Hasteko, kultura kosmopolita idatzia alde batera, zer da herri baten kultura?: «*Naturarekiko harreman produktibo eta ideologikoaz, gizarte barne araudiaz, erligioaz edo mitologiaz, hizkuntzaz ere osatzen da herri bakoitza berezitzen duen kultura hori*» (Lopez Adan, 1980d). Jakina, gizarte industrial eta kosmopolitatik landa diren edo ziren herrietan askoz nabarmenagoa da ezberdintasun kulturala, globalizazioak nonahi inposatzen dituenez ekoizpen molde estereotipatuak eta haiekin bat sasi-kultura, denentzat berdintsua.

Lopez Adanek dioen bezala, XIX. mendetik aurrera, nonahi eta gurean ere oso onartuak diren ideologietan nazio bakoitzak bere estatua egiteko duen isuria eta eskubidea nazioaren teoriaren oinarri politikotzat jotzen dira. Eta nazio kontzientzia duen herriaren bilakabidearen gailurra nazio-estatua eratzea. Horrek gero aurpegi ezberdinak har ditzake estatu handi-nazioaniztunen ideologia izan, ala herri zapalduetako ideologia nazionalista izan, baina, diosku:

> Zapaltzaileen nazionalismoa eta menperatuen nazionalismoa ez dira berdinak, bainan biek onhartzen dute aipatu punduaren zuzentasuna: alegia, estatu propioaren egitea dela bilakabide nazionalaren pundu gailena. Eta hemen datza, nire iduriko, nazionalismo guztien potentzial zanpakor eta suntsikorra.

Zer da estatua Lopez Adanentzat?:

> …ez da soilik gizartearen kudeatzeko molde bat, baizik eta herriaren gehiengoaren gainean indar errepresiboa mantentzeko egitura egokiena; horregatik, estatuaren beharkizuna defendatzen dutenak herriaren gaineko kontrola ukan behar dutela sinesten dutenak izaten dira, eta, haien izenekin aipatzeko, izena dute burgesia Mendebalean eta alderdi bakarreko burokrazia Ekialdean.

Euskal estatu bat ere bai, hortaz, estatu burgesa izango litzateke, herria bere mendean izango lukeena:

> Estatuaren jite zapalkorra ez dagokio soilki kontrol sozial eta produktiboari: nazioaren oinharri kulturala den herri bizitza ere aldarazten du. Historiak eta gaurko egoerak erakasten digutenez, nazio-estatu bat existitzen denean, nazionalismoak bi plegu hartzen ditu: a) Barnean, mugen barnean dagoen gizartean, bereizgarri nazionalen ideologia bat agertzen da, partzial eta batukorra. Hau da, boterean dagoen taldeari interesatzen zaizkion kultura edo historia nazionalaren punduak ageriko direla kultura eta historia osoa bailira, talde horren interesen aurka edo at geratzen diren beste

> berezitasun guztiak ahaztuak edo menperatuak izango direlarik (…) b) Kanporantz, estatu-nazioa erasokor eta inperialista izaten ohi da. Estatuaren eginkizuna estatu bera kontrolatzen duen taldearen boterea azkartzea izaten baita, hauzoen kaltetan egiten da usu.

Nazionalismo burges eta nazionalismo sozialisten artean ezberdintasunik bai?

> Gaur Mendebaldeko ekonomian multinazionalen kontrola hautsiezina da, eta inongo burgesia nazional berriak ez du beste estatu berri klasiko bat sortzeko posibilitaterik. Kapitalaren mundializazioa dela eta, estatuak duen eginkizun berria ez da burgesia nazionalaren tresna izatea, baizik eta multinazionalek behar dituzten azpiegitura eta errepresioa sostengatzeko tresna egokia izatea. Noski, oraindik dirau burgesia nazionalaren eta multinazionalen arteko kontradikzioak, bainan ez dirudi multinazionalek galduko dutela. Gurean nabari nabaria da euskal burgesiak ezin dezakeela (eta ez duela nahi) estatu propiorik sortu, eta aski argia da eskualdeen autonomia dela multinazionalek hobesten duten Espainia berriko egitura aproposena.

Aitzitik, lerrokatu gabe edo Sobiet Batasunaren babesean borrokatzen ziren nazio-askapanerako mugimenduek estatu berri aski independenteak sortu zituzten, esaterako, Mozanbike edo Ginea Bissau, baina esperientzia horiek Europara ezin aldatuak iruditzen zitzaizkion, eta susmo egiten zuen ez ote zuten talde armatuek sortutako estatu berriek burokraziaren diktadurara zeraman bidea hartuko: «*Gizarte kontrol osoa eskuratzen duten minoria iraultzaileek ez dute beren antzeko taldeek jasandako endekatzea pairatuko?*».

Euskal Herrira etorrita, euskal estatu burges bat guztiz ezinezko jotzen zuen, euskal burgesia nazionala guztiz ezindua ikusten zuen horretarako; hark Gernikako Estatutuarekin aski zuen; galdera zen, eta izaten jarraitzen du berrogei urtera:

> Posible al da nazionalismo proletario bat, beste modu batez esana, langileen nazionalismoa edo nazionalismo herrikoia? (…). Nik ez dut estatu proletarioa posiblea denik uste. Edozein estatu zapaltzaile gertatzen da, herriaren aurkako tresna, minoriaren morroi. Estatuak ezin ditzake ez produkzio harreman hierarkikoak hautsi, ez eta produkzioaren zentralizaketa gainditu. Harreman hierarkikoek jarraituko duteno, minoria batek inposatuko du nazioaren iduri alienatzaile eta zapaltzailea eta herri kultura endekatuko da. Produkzioaren zentralizapenak jarraituko deno, batez ere gure garai honetan, herri ttipiei dagozkien produkzio-molde berezituak gero eta zokoratuago gertatuko dira, eta nazioarteko lanaren banaketa gaur bezala jarraitzekotan herri ttipientzat ez da munduan lekurik izango.
>
> Desarrollismoari eta burokraziari loturik dagoen edozein estatu, kaltegarri izango zaio herri kulturari, herri askatasunari, nahiz eta baliagarri izan minoriak inposatu nahi duen nazio motz eta faltsuari.

Hizkuntzari dagokiola ez zen baikorrago:

> gure kulturaren ardatza izan diren biziera eta produkzio molde gehienak galduko dira, eta monopolioen erresuman emango diguten eginkizuna erdi euskaraz erdi

> erdaraz kudeatuko dugula, hizkuntza ere ersatz[37] bat izango delarik. (Gauza bera gerta dakiguke batasun ekonomiko sozialista baten barnean, gaur aski berdinak gertatzen dira bi sistemak, baina ez du ematen Ekialdera pasatzeko parada handia dugunik).

Artikuluaren amaieran, iraultza komunista ekologikoa, elikadura-burujabetza egungo terminologian proposatzen du, abertzaleen borroka herrikoia izateko eta gure kultura eguneroko kultura :

> Talde dominanteen kontrolpean gertatuko den edozein gizarte egitura herri kulturaren kaltetan erabilia izango da: eta estatua da, egitura horien artean, kaltegarriena eta zanpatzailearena. Estatuak ez du nazioaren funtsean den herri kultura aberastuko, endekatuko baino.
>
> Horregatik, herriari bere duintasuna eta bere kultura propioaren jabetza emango dizkion egitura posible bakarra komunismoa da. Bainan komunismora heltzeko ezin daiteke estatua erabili: estatuak beti komunismoaren aurka joko du, inoiz ez alde. Abertzaleen borroka, herrikoia izatekotan, estatuaren aurka izan behar da, edozein estaturen aurka (…).
>
> Iraultza komunistaren gaurkotasuna onhartzerakoan, ekologiak hartu lekua ezin dezakegu ahantzi. Produkzio-molde kosmopolitek herri kulturen desagerpena dakarkigute; produkzio-molde berriak, lekukoak, gaurkotuak, ekologikoak behar ditugu gure kultura eguneroko kultura izan dadin.
>
> Herri bezala libre izateko, euskaldun bezala gu izateko, helburu hauetara daraman bidea asmatu egin behar dugu: inongo liburu sakratuan ez dugu erantzunik aurkituko.

2.2. EUSKADI DESEGITURATUA EGITURATU, ETA SOR DEZAGUN DENENTZAKO DEMOKRAZIA

1994an, bestelako egoera politiko internazionalean: Berlingo harresia eraitsia, Gerra Hotza zeritzana amaitua, Europaren Ekialdean estatu berriak sortuak, eta Jugoslavia ohia gerran, nazionalismoa tarteko, nazionalismoa boladan zegoela baieztaturik abiatzen zuen artikulu luze bat nazionalismoaren eduki etikoaz aritzeko, eta izenburuan jarri dugun bezala, gure komunitatea egituratzeko eta guztientzako demokrazia bermatzeko proposamenak egiten zituen.

Europan nagusi den pentsamolde liberala harriturik zekusan Europaren Ekialdean eta Jugoslavian ageri zen nazionalismo etnikoen berpizkundeagatik, baina oroitarazten zien Europako Mendebalean, nazionalismoaren protagonistak estatu demokratikoak direla:

> Nazionalismo hau ez da Ekialdekoa bezalakoa, aitortua ez delako, baina bestearekin parekatu daiteke. Krisi ekonomikoak gogor astintzen dituen gure erresumetan, Europako batasun «teknokratikoaren» aurka nazionalismoa aldarrikatzen dute kolore askotako politikariek. Larriago dena, xenofobia eta arrazismoa hedatzen ari dira sozietateetan.

37. «Suzedaneo» frantsesez, hots, hizkuntza nahasi txar bat: euskañol hegokoari legokiokeenez, euskal-frantses gaiztoa, iparrekoari legokiokeenez.

> Eta estatuak, nazionalismoa esplizituki aipatu gabe, herritarren xenofobia eta klase politikoaren nazionalismo basatia onartzen ditu: kanpotik heldu nahi diren etorkinen aurka hesiak altxatzen dituzte, eta barneko atzerritarrak kolektibo sospetxoso bilakatu dira (Lopez Adan, 1994d: 106).

Horrekin batean, bat egiten zuen liberalek Europaren Ekialdeko nazionalismoari egiten zizkioten kritikekin: haiek azaltzen zutenean nazionalismoak pentsakera aldebakarreko eta estua dakarrela berekin, eta militarrek zuzentzen duten borroka ia berez antidemokratikoa izan ohi dela, eta hitz batez, osagai guztiak biltzen direla totalitarismoa sortzeko, baina aholku bat ematen zien: «*Arrazoia ematen diegu, baita beren gizarteei begiratzeko aholkua ere: seguraski ez dira aski konturatzen xenofobia eta atzerritarren marginatzea onartzen dituzten estatuek diktaduraren ohantzea antolatzen ari direla*» (*Id.*).

Eta euskal abertzale ezkertiarrei begira?:

> Euskal Herrian eta ezkerran gabiltzanok beren aberria askatzeko ari direnen emaitzak positibotzat jotzen ditugu: gure tradizio militantearen arabera, aberri zanpatua askatzeko borrokak justuak eta beharrezkoak dira. Erasotuak diren nazionalitateekin identifikatzen gara, eta Ekialdean prozedura demokratikoen bidez independentzia egonkorra lortu dutenak ere badirela ondo dakigu. Gure belaunaldiko jendea, independentzia eta iraultza elkarrekin ikusteko gogoak markatu gintuen, eta herri menperatuen nazionalismoari erraz aurkitzen dizkiogu alderdi positiboak (*Id.*).

Halere, ez zetorren bat euskal nazionalismoa desbideratze totalitarioen aurka ondo txertatua egonik eduki faxista ezin har zezakeela zioen lagunarekin; izan ere, beraren ustez, *«bi nazionalimo-motek, zanpatzaileenak eta zanpatuenak, karakteristika anitz partekatzen dute: ez dira bi errealitate desberdin eta irreduktibleak, baizik eta fenomeno beraren bi aurpegi kontrajarriak, bien artean mila lotura eta zubi dutenak*» (*Ibid.*: 107). Eta hain zuzen artikuluaren xedeetako bat horixe zuen: nazionalismoen ezaugarriak aztertzea, horren ondotik gure komunitate ezberdinen egoeraren analisi zehatza egiteko, eta gatazka konponbidean jartzeko egoki iritzitako proposamenak eskaintzeko.

Zer da nazionalismoa: naturala ala kulturala? Kulturala, noski!:

> era batez edo bestez, kultura bati lotzen zaio nazioa, kultura berezi bati. Pierre Vilarek dioenez, nazio-arazoa ikertzen saiatu diren guziek kultura aurkitu dute edozein identitate nazionalen oinarrietan. Berdin erlijioak edo geografiak kultura bereko komunitatea nazio desberdinetan banatzen dutenean: bakoitzak kultura hori oinarri nazional gisa errebindikatzen du, eta nortasun nazionala ezin liteke sustrai kultural horren gabeziaz uler. Baina kulturak natural dirudi eta, finean, historiaren ondorioa da: antzinako bibentzien selekzioa, era integratu batez gainera, etengabeki egiten eta aldatzen ari da. Paisajea, gastronomia, mintzaira, bai eta erreferentzia literario edo politikoak, historiaren ekoizpenak dira. Naturak emandako lurraldea itxuraz aldatzen da; denboraren urratsek markatzen gaituzte; eta oraingo egoera sozialak klase eta taldeen interes partikularrak kontrajartzen ditu (*Ibid.*: 108).

Kultura horrek jatorrizkoa dirudi baina nahaste eta mestizaje ugariren emaitza da; halere, iraupenaren kontzientzia duen komunitatea originala da beti, nahiz eta originaltasun horretan besteekin partekatzen diren osagai anitz izan.

Eta kultura hori guztiz gizatiarra da, naturatik urruntzen gaitu, eta jendetasuna humanista da. Denentzat jende-eskubide berdinak galdatzen dituen humanismo horixe da nazionalismo humanista zabala nazionalismo estu-egoistatik bereizten duena, eta horrekin batean nazionalismoaren ukazioa salatzen zuen, zeren maiz nazionalismo zapaltzailearen aitzakia zinikoa izan ohi da:

> HUMANISMOA, hain zuzen, jo daiteke jendetasunaren gailurra. Animalien lurraldetasunetik urrun, eta familia klanikoaren zentzu estutik haraindian, humanismoak jende GUZIENTZAKO errespeto bera galdatzen du, jende-eskubideak denentzat berdinak, nahiz eta familia, odola edo jatorrizko lurraldea beste bat izan.
>
> Horretan datza nazionalismo estua eta humanismo zabalaren arteko kontraesana, baina honek ez du esan nahi abertzalea ezin daitekeela humanista izan, ez eta humanismoa ulertzeko modu kosmopolitarik ez dagoela.
>
> Hain zuzen, edukin natural estua eta edukin humanista zabalaren arteko kontraesana agertzea fenomeno nazionalaren barnean ikertu behar dugu. Beraz, ez ditut aurrez aurre ezartzen nazionalismoa eta nazionalismorik eza, baina naziotasuna ulertzeko bi modu desberdinak. Gero ikusiko dugunez, nazionalismoaren ukatze soila errealitatetik kanpo gelditzen da, non ez den nazionalismo zapaltzailearen estakuru zinikoa (*Ibid.*: 108-109).

Unibertsaletik partikularrera etorriz, hots, Euskal Herrian diren komunitate desberdinetara eta horien arteko jarreren analisira, eta batez ere komunitate ezberdinak integratzeko agertu diren diskurtsoetara:

> Euskal nazionalisten aldetik: Gaur egun inor gutxik aipatuko du OINARRI ARRAZIAL soila euskal nazioarentzat: alta, nahikoa da politikari nazionalista ezagun batek Rh-a aipa dezan (arreta handirik gabe, egia esan) maioritate espainolaren bozeramaile anitzek arrazismoaren mamua berpitz dezaten. Hemen, marka arraziala besteek leporatzen digute, eta honek argi agertarazten du noraino gatazkaren sustraiak irrazionalak eta «naturalak» diren.
>
> OINARRI ETNIKOA ez da oso modan gure hizkuntza politikoan, nahiz eta kulturazko euskaltzaleen artikuluetan irakurtzen den. Egia esan, arraza eta etniaren arteko desberdintasuna nabaria da espezialisten lanetan, baina ez batere hizkuntza arruntean: arrazarekin lotzen da, eta arrazismoak daraman kargak baztertu du etnia terminoa hizkuntza politikotik.
>
> OINARRI LINGUISTIKOAK, berriz, gero eta leku gehiago hartzen du euskaldunengan, eta gatazkagai nagusi bilakatzen ari da. Hain zuzen, bere ebidentziaz eta bere hargaitasunaz bilakatu da borroka-eremu. Gero itzuliko gara alde hauetara.
>
> Euskal nazionalistak ez direnen aldetik: Oinarri etnikoaren etsaien artean, inor gutxik aipatuko du ESPAINOLTASUNAREN NAGUSITZA ABSOLUTUA, oraindik

> kontserbatzen diren euskaldunen jatorrizko ezaugarriak ukatzera eramaten duena; nazionalismo espainol basa sobera lotua egon da frankismoarekin eta zilegitasun politiko gutxi dauka. «Inperioaren baloreen nagusitza…» beste garaietako hizkuntza antidilubianoa da. FRANTZIAN, berriz, ez da batere harrigarria MESPRETXUZ BETERIKO JARRERAK aurkitzea; euskalduntasuna ezkutatzen, baztertzen eta mespretxatzen da, baina frantses txobinismoa etorri handiko ideal errepublikarren janzkeraz mozorrotzen da.
>
> Hegoaldean, euskalduntasuna oinarri etniko eta ama-hizkuntzaren haraindian ezartzeko, herritasuna ZIUDADANIA SOILAK ematen duela behin eta berriz errepikatuko da (*Ibid.*: 118-119).

Zenbat aldiz eta zenbat modutara entzun dugun hori Patxi Lopez eta alderdikideen aldetik. Bada, diskurtso horren sehaska Lopez Adanentzat Jose Ramon Recalderengan dago:

> Teorian, José Ramón Recalde gogoratu behar dugu: euskal nazionalismo «esentzialista»ren aurka eraikuntza nazional demokratiko-herrikoia aurkezten zuen zegoeneko 1982an; etorkizunari begira pentsatua zen, zioenez, proiektu amankomun demokratiko gisa non eskubide kulturalak eskubide indibidual gisa gelditzen diren. Gainera dezadan Recaldek ez zuela bere pentsakera ezkutatzen: bere modeloak «era harmoniko batez konpondu nahi zuen euskal nazioaren eraikuntza komunitate nazional espainolaren barnean» (…) noraino mota honetako proiektuek, eskubide kulturalak indibiduotasunaren alorrera mugatuz, ez duten ukatzen minoriaren ezagutza osoa eta, beraz, ez duten errazten liseritze kulturala. Politikan, sozialistak eta bereziki Euskadiko Ezkerra ohia ibili dira alde hauetatik.

Bide horretan sozialistak bilintzi-balantza eta Euskadiko Ezkerrakoak koherenteago:

> Sozialisten bilakabidea kontradikzioz beteta da: berdin egin dira espainoltasunaren defendatzaile sutsuenak Garcia Danborenearen denboretan edo euskalduntasun demokratiko-integratzailearen poetak 1993an, herritar guztiak bi hizkuntzetan berdin trebe izanen diren etorkizunaz amesteko adina. Hasiera-hasieratik PSOE ibili da bi poloen artean, eta frankismoaren aitzineko historiak erakusten digu nola betidanik nabigatu duen espainolismo eta autonomismoaren artean. Proiektu integratzaile bat eta bakarra defenditzeko, koherentzia gehiago izan du Euskadiko Ezkerrak. Gisa guziz, beren azken Aberri Egunaren gaia nabaria da: «basko guztien eguna da, eta ez soilki nazionalistena». Bistan da EEk apustu historikoa honen gainean bota zuela, esan nahi baita Euskadiko sozietatearen pluralismoa bere baitaratu zuela, aniztasun hori bere identitatezeinu bilakatzeko…. Basko-ak, beraz, Euskadin bizi garen guztiok gara, eta, ondorioz, euskaldunen (euskara dugunen) egoera minoria linguistikoarena bilakatzen da, jatorrizko ezaugarria (euskara) inori eta inon inposatu ezin dakiokeela. Hau, minoria-egoera, ez da beraiek ateratzen duten ondorioa, baina bai praktikan gertatzen ari dena.

Bi jarrera nagusi horiek —egoki, nire iritzirako— horrela zehazturik, erdibideko planteamenduak aztertzera igarotzen zen, zubi-lanak ikertzera, horrelakorik ere egon baita gure historia hurbilean:

> Nazionalismoaren memoria historikoaren aldetik, ETArena da esanguratsuena. ETAk, garai batez, erreflexio teoriko garrantzitsuak errun zituen. Labur dezadan lan honetan ukitzen dugun puntuari dagokion ETAren ikuspegia: Euskalduntasunak badauka oinarri etnikoa, historian era aldakorrez gihartua. Euskaldunen askatasuna iraultza sozialistak ekarriko du: praktika iraultzaileak Euskadin bizi diren zapaldu (=langile…) guztien askatasuna ekarriko du. Beraz, borrokaren naturak IREKITZEN ETA HEDATZEN ditu jatorri etnikoaren mugak. Iraultzak garai dezan interesaturik, praktikak integratuko ditu etorkinak: euskararen ikastea eta erabiltzea izango da integrazioaren marka, iragana eta etorkizuna lotuko dituen zirkulu perfektua.
>
> Ez da horrela gertatu. Abertzaletasun integratzailearen proiektuak ez ditu herritar guziak bildu. Hasteko, jende anitzek ez du euskara ikasi, ez ikasiko, eta ikasteko borondaterik ere ez dauka. Horien artean bi multzo bereizi behar ditugu: Euskadin bizi den jende-multzo zabal batek baskotzat hartzen du bere burua eta ez du euskararen «inposaketa» onartzen; minoria bat, berriz, (zabaltzen ari dena?) espainol soila sentitzen da: bi kasuak ez dira berdinak. Halere, Euskadiko egoera politikoa eta soziolinguistikoa ikusirik, ez da harritzeko populazioaren parte zabal batek ez badu euskaraz ikasteko beharra ikusi. Momentu bat izan zen, trantsizio-hasieran, non ihardukerak aldekoak ziren: politikan, izate nazional euskalduna denek onartzen zuten, eta jende xeheak hemen euskaraz ikasi beharko zela (nahiaz ala bortxaz) aski bereganatua zeukan. Horretaz baliaturik, hamar urte luze izan du gobernu jeltzaleak administrazioa, bizitza publikoa eta irakaskuntza euskalduntzeko. Ez du egin. Espainoltasuna, espainoltasun politiko, sentimenduzko edo militarra, ez mintzeko beste politika bat aukeratu du, euskara ondare indibidual soilera mugatzen duena. Erantzukizun historikoa harentzat…

Artikulua idatzi zenetik hona, hots, hogeita sei urtera, oso gaurkoak begitantzen zaizkit, hots, baieztapen horiek berretsi egin dira nire iritzirako. Beste honako gogoeta hauek ere bai:

> Komunitate bakar batean integratzeko dei demokratikoa, beraz, euskalduntasun berezituaren ukamen sozial gisa aurkeztu da, soilki onartu digutena euskaldun egoteko gure eskubide indibiduala baita. Inoiz eskubide horiek komunitario bilakatzeko entseguak egiten direnean, besteen askatasun demokratikoen aurka joaten direlako estakuru, antidemokratiko edo antikonstituzional gisa aurkezten dira, integrazioaren kontrakoak hitz batez (…).
>
> Gaur egunean edo epe ertain batean, Hegoaldeko jende guztia komunitate bakar batean trinkotzeko deiak ez du arazoa konponduko, integrazio honek euskal komunitatearen berezitasunen ukamen sozialaren gainean datzalako, printzipio gisa onartzen baitu komunitate erdaldunari inongo inposaketa politiko edo linguistikorik ezin dakiokeela ezar. Euskadiko Ezkerra aipatu dut arestian: hain zuzen, asmatu zuen bidean, aniztasunezko sozietatea trinkotzeko «oztopoa» euskaldunek dugu errepresentatu, gure bizitza propioa mantendu nahi dugun neurrian bederen. Guk erdaldunak konprenitzen ditugu, haiek ez gaituzte ulertzen… Espainolista modernoek nahi duten era tolerante eta modernoaz oztopoa gainditzeko, guk geuk eman beharko genuke amorea; horretarako prest ez garelako, euskaldunen nazionalismo erradikala bilakatu dute «intolerantzia eta erreakzioaren» ardatz… Eta Euskadiko Ezkerraren eginkizun historiko nagusia ez da izan sozietatea trinkotzea, baizik eta nazionalismo euskaldun erradikala borrokatzea…

> Bokazioa, azken finean, Estatua defendatzea izan da, eta ez gizarte zibilaren oreka eta indarra azkartzea. Errealitatea astuna eta gogorra da. Alde bien jarrerak ikusirik, egoera gordina dela begi bistan da… (*Ibid.*: 120-123).

Bigundu garenak gu izan gara, izatekotan, eta bigundu garen heinean.

Bi nazionalismoen arteko talka modu egokian bideratzeko proposamenetara jo aurretik, bi baieztapen egitea ikusten zuen beharrezko: esentzia etniko-arrazazkoek faxismoaren atea zabaltzen dutela; eta, aldi berean, berezitasun etniko-arrazazkoak ukatzeak ere bai:

> Auzi honetan argia izan behar da. Nazionalismoaren existentzia berezitasunaren gainean finkatzen da: berezitasunik gabe ez litzateke nazionalismorik. Beraz ez da harritzeko berezitasun honen existentzia nazionalistek eta anti-nazionalistek edo ez-nazionalistek ere aipatzen badute. Dena da zer edukin ematen zaion berezitasunari, baina berezitasunaren ukatzea nazionalismoaren ukatze bera da, eta hemen ezagutzen dugun praktika historiko-sozialaren ukatzea. Ezin izan daiteke… Nazionalismorik ez dela behar esatea guztiz jarrera hutsala da. Izena alda dakioke fenomenoari, eta hori egin daiteke nazioa kategoria historiko gisa konsideratzen bada; baina nazioaren azpian dagoen berezitasunak historian gaindi dirau, eta nola… Nazionalismoaren alde intsolidarioak eta berekoiak gainditzeko jarrera egoki bakarra da nazionalismoa humanismoarekin lotzeko doan bide posibletik abiatzea, beraz, naziotasuna ukatu gabe, existentzia naturalaren fenomenoak ukaezinak direlako. Uztartzean eta ez ukatzean datza gainditze posible bakarra (…). Halere, berezitasunaren existentziak jatorri eta kontzientzia nazional desberdina dituen jende-multzoak ukitzen ditu. Espainia (edo Frantzia)tik etorri den askok ez du bere burua «integratu» edo «asimilatu» berezia den euskalduntasunean: espainolak, edo Euskadin bizi diren espainolak, edo «vasco y espainol a un tiempo», edo nazionalista ez den vascoa sentitzen dira… Euskadin bertan sortu eta bizi diren jende-multzo batzuek ere kontzientzia nazional espainola daukate: isolatuak, edo ideologikoki berezituak —liberalak, sozialistak— edo geografikoki markatuak —Tafallatik hegoalderako Nafarroa…—.
>
> Euskal identitatea eta euskal nazionalismoa nahasten dira, gauza bera izan gabe, baina oso lotuta. Euskal identitate kulturala eta kontzientzia nazional ez-euskalduna elkarrekin agertzen dira indibiduo eta jende-multzo batzuengan (Iparraldeko laborari eskuindarrak / Nafarroako ipar-ekialdea, Bilboko tradizio hiritar-liberala…/Euzkadiko Ezkerraren inguruko intelektual eta politiko batzuk), baina ematen du difuminatzea eta galtzea dela kontzientzia nazional gabeko euskal identitatearen etorkizuna: hizkuntza ordezkatzearen fenomenoak nabari-nabariak dira eskualde ez-abertzaleetan eta bakanak dira euskal nortasunaren defentsan ibili diren intelektual eta politiko espainolistak.
>
> Beraz, abertzaleek ez dugu eskubiderik euskalduntasuna eta abertzaletasuna gauza bera bezala konsideratzeko: abertzale ez den euskaldun asko dago, abertzale eta euskaldun ez den vasco asko dago, eta abertzaleen artean denak ez gara berdinak. Baina badugu, halere, eskubidea aldarrikatzeko gure berezitasunaren oinarri linguistikoa begiratzeko abertzaleak garela etorkizuna garantiza dezakegun bakarrak. Eta honek ez badigu euskal nortasunaren jabego absolutua ematen, bai digu ematen leku berezi eta nagusia euskal nortasunaren aldeko borrokan.

> Eta gure nazionalismoak, nazionalismoa aitortua izanki, intsolidaritatearen arriskuak bere baitan eramaten baditu, tenorea dugu ikertzeko ea nazionalismo esplizitu edo aitortua ez den demokrazia integratzailearen mezuak ez dituen kimu berak eramaten (…).
>
> Ez naiz ariko espainol edo frantses nazionalismo aitortuari buruz, hauetaz ezer berri ez baitugu demostratzeko. Demokratzia «integratzaileaz» oso argigarriak dira berrikitan argitaratu diren oinarrizko ikerketa batzuk. Hona bat: Reinhart Koselleck –Le futur passé. Contribution à la sémantique des temps historiques. 1990 «Herri, nazio, masa» in Dictionnaire des concepts historiques. 1993). Honela dio: «Mendebaldeko Europako estatuei oso gogor gertatzen zaie minorien eskubide kolektiboak onartzea, estatu hauek eskubide indibidualen ezagutzaren gainean finkatuak direlako. Baina norbanakoaren eskubideak garantizatzea ez da oztopo minoriak zanpatzeko. Irtenbidea, irtenbiderik bada, minorien eskubide kolektiboak onartzea da, baina honek maiorien protestak eragingo ditu, onartze hori pribilegiotzat joko dutelako. Baina, luzera begira, minorien existentziak planteatzen dituen arazoak gozatzeko modu bakarra, minorien ezagutza da».
>
> Eta hemen dator gako oso garrantzitsu bat. Zanpatua edo ahuldua den komunitate bereziak oportunitate bereziak behar ditu irauteko eta, bereziki, indartzeko. Euskaldun komunitatearen egoera argia dugu: errepresio zuzenaren ondorioz eta «lege» soziolinguistikoen indarrez, ezer berezirik egiten ez bada epe aski labur batez desagertuko dela bistan da. Errepresioaren ondorioek legitimatu dute «erreparazio historikoaren» kontzeptua; baina, are gehiago, minoriek bizitzeko behar dituzten neurri berezien beharrak zilegi egiten ditu maioriak ez dituen erraztasun batzuk. Aipa ditzagun: administrazio elebiduna minoriak populazioaren parte txikia ere egiten badu edo haurren kopuru bereziak eskoletan. Gainera ditzagun bake sozialak exijitzen dituen neurriak: lurralde elebidunen haur guziei minoriaren hizkuntza benetan erakastea, bi aldetarako komunikazioa posible egiteko; alor elebakarren errespetatzea eta zabaltzea, hizkuntzak denetarako balioa ukan dezan… (*Ibid.:* 124-126)[38].

Aipu luzeak dira, baina gorago adierazi dudan bezala, gaurkotasun handia dutenak idatzi eta hogeita sei urtera ere, eta gogoan hartuak izan daitezen horrelaxe iruditzen zaizkit eraginkorrenak, bere luze-zabalean.

Xedea dugun Euskal Herri desegituratua egituratzea izanik horretarako denentzako demokrazia sortuaz, hona horretarako proposamenak labur bildurik:

> Esana dut gure komunitate linguistikoaren bizitasun osoa lortzeko «borrokatu» beharko dugula, gure existentzia eboluzioaren lege arrunten aurka igerian ari delako. Kondenaren kontrako estrategian, komunitateak berak bere burua azkartu behar

38. Analisi eta iritzi jakingarri horien sorgunea urte haietan Ipar Euskal Herrian oso aktiboa omen zen «Euskal Herrian Euskaraz» taldean aurkitzen dela jakinarazi dit Lopez Adanek. Talde hartako partaidea zen. Hausnarketa asko egin zuten hizkuntza minorizatuen egoeraz demokrazian, bi ardatzen inguruan: «Euskaldunen artean, euskaraz» eta «Herri zerbitzuko administrazioak, elebidunak»; hots, taldearen barne-konpaktazioa eta gutxiengoen eskubideak errespetatzen eta bideratzen dituen demokrazia. Geroago, ENAMen barnean «Ekin» talde dinamizatzailea agertu zenean eta «batasun nazionala» bermatzeko, Iparraldeko talde hura EHEtik kanpo gertatu omen zen.

> du eta sozietateak eman behar dizkio bizitzeko ahal guztiak. Beraz bi ekinbide, bat barrura begira, bestea komunitate erdaldunekin konpartitzen dugun sistema egokitzeko zuzendua. Barnera, konpaktazioa aipatu dugu, eta honek suposatzen duen espazioaren jabetza (…).
>
> Honek dakarren korolarioa, demokrazia eta berdintasunaren arazoa da. Territorio honetan (niretzat, zazpi probintzia historikoetan) euskaldunek ukan behar ditugu posibilitate osoak baliabide kolektiboak euskaraz erabiltzeko; gure gain direnak, limitaziorik gabe; eta estatu edo erakundeen eskuetan direnak, berdin ere bai! Nahi nuke kolektibitatearen eskuetan baliabide gehienak ukan, eta honek suposatzen du herri kudeantza zuzena dela sozietatea organizatzeko modu onartua; honek behaztopatzen du gure politikariek duten filosofia, non estatuak kudeatzen duena herrikoia eta demokratikoa den, eta estatutik kanpo organizatzen dena zapuzten eta marginatzen duten. Demokraziaren kontzeptua aldatzen ez den bitartean, exijentzia garbia: estatuak eta instituzioek funtzionario euskaldunez eta baliabide euskaradunez hornitu behar dituzte publikoaren zerbitzuan diren alor eta bulego guztiak.
>
> Naziotasun «etnikoa» eta «herritasun demokratikoaren» arteko dialektikaren barnean gaude bekoz beko. Bien arteko oreka aurkitu behar da, maioriari konpreniaraziz minoriak behar dituen neurri bereziak ez direla pribilegioak, baizik eta justiziazko neurriak eta gatazkari irtenbide positiboa emateko bide bakarra. Honetan, batzuen eta besteen lana beharrezkoa da. Baina elementu distortsionatzaileen artean, nazionalismoaren azken helburuak nabariak dira. Espainol eta frantses nazionalismo esplizituaz ez naiz mintzatuko, beren jarrera harro, inperialista eta zinikoak ezagunak direlako. Gure nazionalismoaz, esan dezadan azken helburuak (Euskadi batu eta euskalduna) populazio ez-euskaldunaren integrazioa suposatzen duela… Gaur egun, ongi dakigu helburu hori populazio osoari hedatzeko oztopo handiak kausitzen baditugu, ez dela soilki kanpotik etorritako alienazioak herriari oinarri etniko-nazionala ezkutatzen diolako: ez, oztopoak ez dira koiunturalak, estrukturalak baino, eta gure populazioaren historiaren ondorioaz Euskal Herriko espainolak eta frantsesak, hala nola integratu ez diren etorkinak, gure populazioaren osakin normala dira. Nazionalismoak bere azken helburuak abandonatu behar dituela esan nahi du honek? Ez dut uste. Historiak bueltak ematen ditu, eta proiektu nazional askatzaile eta erakargarri batek beregana litzake biztanle gehienak… ETAk egindako apustuak porrot egin du, baina apustu txarra zenik ez nuke esango. Berriz botako genuke aldakuntza historikoa haren alde balego… Baina, momentuz bederen, arazo nagusia da euskaldunen konpaktazioa eta egiazko demokraziaren arteko dialektika, azken helburu nazionalistak estakuru minoria euskaldunari bere eskubideak ez dakizkion uka (*Ibid.*: 129-131).

Dialektika honetan, zioen, euskaldunak ez garela mesedeak edo pribilegioak eskatzen ari. Euskal Herriko jatorrizko herria garela badakigu, eta ebidentzia hori aski da zilegitasun handia emateko gure borrokari. Euskaradunak gutxiengo linguistikoa eta soziala gara, baina jatorrizkotasun horrek ematen digu beste dimentsio bat, nazionalismoaren hedapenak frogatzen duena: Euskal Herrian euskaldunak eta abertzaleak biltzen dituen multzoa gehiengoa da eta bokazio hegemonikoa dauka. Horregatik, errepikatzen zuen: euskaldunak gutxiengo bat gara, baina ez nolanahikoa…

Baieztapen horrek duen arriskua: txobinismoarena, eta edozein nazionalismo intsolidario eta klaniko bihur daitekeela. Nazionalismo «deribatuaren» aurka jarrera aktiboa gaurdanik behar dugula zioen, eta bereziki gero beharko dugula, gure kolektibitatea inoiz hemengo indartsuena bilakatzen bada —ikusiko ote dugu horrelakorik?—. Humanismo orokorraren beharra daukagu, gehiengo direnen jarreren aurrean garbi agertzeko eta, bereziki, borroka legitimoan ari garela gure baitan sentitzeko.

Zein humanismo unibertsala? Frantziako eta Espainiako estatuek baztertzen dituzten kolektiboekin ibiliz: emigranteak, arrazismoak mespretxatzen dituen «besteak», gure enpresek eta instituzioek zanpatzen dituzten garatugabeko populuak, eta, oro har, mugimendu sozialetan dabiltzan aurrerakoiak oro.

Eta artikulu luzea bezain mamitsua bururatzeko, hona azken ideia gogoangarriak:

> Gatazkak iraunen du. Eta gatazka anomia eta entropiatik ateratzeko hona nire ustez uztartu behar ditugun hiru osakinak: Sustrai etniko-kultural-lurtarrari diogun atxikimendua, gure sentimendu eta praktika askoren sorburua delako, gure belaunaldiko askok inoiz ukatuko ez dugun oinarria… Ikuspegi orokor humanista (iraultzailea?) baten behar absolutua… Eta demokraziaren esparru dudakorrean daramagun eguneroko borroka, praktika liberal-libertarioaz egundanik ondu behar dugun alorra… Gehiegi? (*Ibid.*: 133).

2.3. DEMOKRAZIA ETA NAZIOTASUNA

Esan dugu sarreran eta honen aurreko atalean frogatu ere bai 1994an *Uztaro*n argitaratu zuen artikuluan eman zituela onenak, esanguratsuenak, gure iritzian, gagozkion gaiari buruz. Baina, 1998an, Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatu EAJk eta HBk eta ETAk su-etena eman zuenean, hitzaldi bat egin zuen UEUk Bilbon antolaturiko jardunaldietan, eta hitzaldi horretatik merezi du puntu bakar batzuk jasotzea.

Hasteko esan behar da artikulu hori idaztean honako hau sinesten zuela: «*ETAk esparru demokratikoa onartu du eta bere borroka armatuaren desagerpenak arrunt aldatu du boterearen eta erreboltaren inguruko dialektika*» (Lopez Adan, 2000f: 95).

Hitzaldiaren aurkezpenean, ohar interesgarriak egin zituen; esaterako: gehiengo eta gutxiengoaren arteko dialektika mudatua zen:

> «Biolentoak» gutxiengoa zirenean, gehiengoaren gobernua zen demokrazia, eta kito; orain, alderdi nazionalistak nagusi, ez da demokraziarik non gutxiengoaren nahiak eta presentzia errespetatzen ez diren. Goresmenak demokraziaren legeak ulertu dituztenei, nahiz eta aski berandu eta nahikoa behartuak. Baina berdin joko demokratikoaren barnean, ez dira prest abertzaleen gobernua onartzeko; orain gutxiengo eta gehiengoaren arazotik haratago joan dira, bai eta baieztatu ere, Euskal Herria sozietate anitza izanik, abertzaletasunaren proiektu hegemonikoa inkonpatiblea dela demokraziarekin.

> Euskaldunen abertzaletasuna, diote, nazionalismo zahar eta agresiboen baloreen gainean eraikia dago. Euskaldunentzat nahi du Euskal Herria, eta borondate hegemoniko hori, berez, bazterkeria eta bortizkeriaren iturria da. Gehiago dena, lotsabakoenek etengabe darabilte nazismoaren mamua: edozein nazionalismo, eta euskaldunena bereziki, faszista da naturaz. Haien ustez, nazioari edukin demokratiko eta modernoa eman nahi bazaio, aniztasunaren gainean finkatu beharko da, biztanle guztien eskubideak eta nortasuna errespetatuko dituen aniztasunaren gainean (*Ibid.*: 92).

Azken buruan, polemika zahar eta ezaguna ikusten zuen mami-mamian: frantses jakobinismo errepublikanoarentzat naziotasun-eredu frantsesa, zibikoa, bikaina da, eta germaniarra (etnikoa), guztiz galgarria. Frantziaren lekuan Espainia jarri, eta germaniarren lekuan euskaldunak, eta horra polemikaren mamia laburbildua. Baina jakobinoak ez direnek ongi dakite bereizketa hori guztiz ahula dela:

> Modelo germaniarrean, naziotasunaren oinarriak etno-historikoak badira; Herder-en bidetik definitu bezala, hizkuntza propio duen jende-talde iraunkorren esperientzia historikoen inguruan lotzen dira nazioak. Jakobinoentzat, ikusmolde hori irrazionala da, arrazismo eta agresibitatearen abiapuntua; nazional-sozialismoa dute haren ondorio logikotzat.
>
> Berriz, modelo frantsesa oinarri zibiko-demokratikoetan eta arrazionalitatean finkatzen omen da eta jende eskubideen bermea da. Naziotasuna aukera indibidualen ondorioa da, eta herritar guztiek, edozein izanik ere bere jatorri etniko-linguistikoa, libreki onartzen dute lege eta estatu beraren barnean bizitzea. Frantzia aukeratu zutenek askatasunaren aberria hautatu zuten.
>
> Jakobinoak ez direnek ongi dakite bereizketa hori guztiz ahula dela. Nola ahaztu, adibidez, germaniarren nazionalismo modernoa Napoléon-en aurka agertu zela? Omen, Frantziako iraultzaren balore unibertsalen hedatzeko konkistatu zuten frantsesek Europa, baina lehen nazionalista germaniar horiek jazartu ziren armada atzerritar batek inposatu inperialismo kultural frantsesaren aurka. Beraz, nazionalismo alemaniarrak bazuen hasiera liberal eta progresista … frantsesen inbasio inperialistaren aurka (*Ibid.*: 92-93).

Beste gauza batek ere harritzen zuen:

> Zergatik abertzaleen helburua, hots, independentzia edo burujabetasuna, inkonpatiblea da errespetu horrekin? Finean, haiek eskaintzen digute Espainia multinazional bat, euskaradunen eskubideak errespetatzen dituena; guk nahi duguna, erdaldunen eskubideak errespetatuko dituen Euskadi libre bat, zertan da naturaz desberdin? (*Ibid.*: 92).

Azken hogeita sei urteko esperientziatik juzgatzera jarrita, lerro horietan zalantzazko gauza bakarra da espainiar nazionalistek Espainia nazioaniztuna nahi dutelakoa.

Artikulua bururatzeko, bi nazionalismoen arteko gatazka bideratzeko gogoeta hauek egiten ditu:

> Dudarik gabe, demokrazia da bide zuzenena sozietatea gobernatzeko. Berriz, injustiziaren erresuma garaitzeko, bide instituzional demokratikoak ez dira beti egokienak, eta zapalduek sistema demokratikoetan ere badute jazartzeko eskubidea. Nire ustez, indar harremanak eta mentalitateen bilakaera ikusita, gaurko Euskal Herrian sistema demokratikoa da arazo nazionala bideratzeko modua, batez ere modelo iraultzaileen porrota ikusita. Alta, marko demokratiko hutsa eta marko nazionala ez dira gauza bera. Praktikan, herritartasuna estatu-nazioarekin lotzen da, eta euskal nazionalismo «etniko»-aren ordez ezarri nahi denak oinarri nazional espainolak baditu, nahiz eta (hoberenean eta ez beti) oinarri horiek izan demokratiko, erregionalista eta integratzaileak. Euskal Herrian ez dute denentzat berdin balio eta, bereziki, ez dute abertzaleen nahikundeak asetzeko eta bideratzeko nahikoa eskaintzen (*Ibid.*: 100).

Azken buruan, euskal abertzaleek eta espainol abertzaleek biek dute borondate hegemonikoa, eta borondate hegemonikoak ez daude muturka demokraziarekin, behintzat bide demokratikoak hautatzen badira eta besteak zapaltzeko eta baztertzeko asmorik ez bada:

> Sozietate nahasietan, guztien interesen arabera gobernatu behar duen gehiengoak eta ez soilik irabazleen alde; gutxiengoak bere baitan integratzeko ateak zabalik utzirik eta horretarako bideak eskaintzen baditu, eta integratu nahi ez duten gutxiengoen eskubideak zinez errespetatzeko neurriak hartzen baditu, gehiengoaren hegemonia ez dago demokraziarekin etsaitua. Irlandako adibidea oso interesgarria da.
>
> Konfliktoa nazionala denean (eta horretaz ari gara) hegemoniaren beharra naziotasunaren psikologia kolektiboari dagokio, lurraldetasuna eta kolektibitatea lotzen dituen sinbolika sakonaren bideetatik; demokraziak irtenbidea bilatzeko alor egokiena ematen diola esaten dugunean, ez dugu esan nahi demokraziaren existentziak berak konfliktoa baztertzen, ukatzen edo gainditzen duela. Haren konpontzeko alorra da. Baten batek diolarik euskal abertzaleen borondate hegemonikoa demokraziaren aurka dela eta espainoltasuna, berriz, demokraziaren bermea baizik ez dela, bistan da perspektiba aldatua duela: aberria non kokatzen den, horrek determinatzen du demokrazitasuna! Nazionalismo hutsak hartu du lehentasuna (*Id.*)[39].

Hizkuntzara etorriz, ezin onartuzkoa zeritzon euskara arlo pribatura kondenatzea:

> Nazionalisten berezitasunak, eta bereziki hizkuntza, ezin daitezke pribatuaren esferara igorri. Onartuko bagenu, minoriaren edo ghettoren statusa onetsiko genuke eta ez gara

39. Lerro hauek egun irakurrita, gogora etortzen zaio Lopez Adani 90eko hamarkada gogorra gertatu zitzaiola iraultzaren etorkizunari buruz. «Komunismo erreala» (Sobiet Batasuna, Txina) porrot egina edo endekatua eta alternatiba ezkertiar alternatiboak eta libertarioak katakonbetan, bere buruari galdetzen zion ea egoera ezkorrak iraunen zuen bitartean ez zen beharrezkoa «egiazko demokraziatik» abiatzea, ahal zena lortzeko, batez ere zanpatuei (pobre eta desjabetuei bereziki) berehalako irtenbideak eskaintzeko. Beraren hausnarketa Chavez eta lagunen bidetik baino gehiago John Rawls eta Giorgio Agamben bezalakoen ildotik egina zen, eta oro har, «liberalak» (zentzu politiko eta aurrerakoi propioan, ez batere oraingo neoliberalen bidetik) eta «libertarioak» biltzen ahal ziren lekuetatik. Kinka defentsibo eta «errealista» horretan kokatu behar dira «demokrazia sakontzeko» proposamenak, jakinik demokrazia errepresentatibo zalea ez dela egundo izan.

> horretarako. Ez dago zertan onartzea instituzione eta erakunde kolektiboetan gaztelera dela erreferentzia demokratiko amankomuna eta, berriz, euskararen ezartzea jasan ezinezko inposaketa. Horren dekretatzea oso bide txarra da abertzaleak integratzeko proiektu zibiko amankomunean (*Ibid.*: 100-101).

Arazoak ikusten zituen —igarle ona gertatu da, tamalez— autodeterminazioa eskubide demokratiko gisa onartzeko. Hona Lopez Adanen arrazoiketa:

> Bereizteko eskubidea nazio izateari dagokio, eta nazio izan ala ez izan ez da lege demokratikoetatik sortzen, historiaren emaitza da, demokrazian, diktaduran eta dena delakoan berdin existitzen dena. Demokraziak onartzen badu autodeterminatzeko eskubidea, eta eskubide horien obratzeko moduak zehazten baditu ere, ez du zehazten nori eman behar zaion. Finean, historian borondate garbia erakutsi duen komunitate bati emana izan zaio, eta, beti, zegoen estatu handiaren borondatea gaindituz geroz. Hasiera indar harremanen kontua da; gero, gatazka era baketsu eta demokratikoaz bideratzen bada, hainbat hobeto, baina ez da esana bide hori beti onartzen dela (*Ibid.*: 101).

Parada historiko berezia zekusan abertzaleen nagusitasuna finkatzeko —esan dugu ETAren su-etena behin betikoa izanen zela pentsatu zuela Lizarra-Garaziko hitzarmenaren garaian—, eta estatuak ere hala ikustean, bazterrak nahasten ari zela, eta presio horren ondorioz, zenbait abertzale estatuaren joko maltzurrean jausten ari zirela:

> Abertzale batzuek baztertu nahi dute hegemoniaren nahia. Hots, demokraziaren eta komunitateen arazoak mugatzen dituzte, dagoenaren gobernabilitateari soilik erantzuteko. Ikusmolde horrek ontzat ematen du nazio espainolaren hegemonia, eta hor barnean euskaldunen eskubideak bermatzera lotzen da. Abertzaletasuna, oro har, ez dago horretarako prest. Alderantziz, gure lurretan nagusi izateko amets zaharra hurbilagoa ikusita, hegemoniaren nahia euskal nazionalismoaren identitate-zeinu garrantzitsuena da. Haren galtzea ez da biharko (*Id.*).

Gatazka bideratzeko nazionalismo biek eman behar zuten amore:

> Espainolek onartu behar dute abertzaletasunaren nahikunde hegemonikoa zilegi dela; administrazioa egokitu behar da euskaldunen eskakizunei erantzuteko; bi komunitate linguistikoen arteko komunikazioa errazteko eta integrazioa bideratzeko, herritar guztiei eskaini behar zaie (eskolaren bidez bereziki) kultura euskaldunaren ezagutza aski. Beraz, administrazio elebiduna eta A modeloaren desagertzea eskatzen ari naiz… demokraziaren izenean eta bake zibila erdiesteko: batzuentzat, eskakizun antidemokratikoak dira.
>
> Bada zer egin abertzaletasunaren aldetik ere. Konfliktoari erantzun demokratikoa eman nahi bazaio, autodeterminazioa herritar guztien parte-hartze demokratikoaren bidez obratuko dela argi utzi behar dugu. Hain zuzen, hori da alderdi nazionalistak esaten ari direna, baina lan handia ukanen dugu askoren mesfidantza baretzeko. Politikari espainolisten ganoragabekeriak eta komunikabide askoren nazionalismo itsuak ez digu bidea errazten.

> Besteen atxikimendua lortzeko, proiektu erakargarri eta integratzailea eskaini behar diegu. Nahi dutenentzat integratzaile eta denentzat erakargarri, Euskadi libre batean herritar guztien onura eta eskubideak hobeki garatuko direlako. Atzoko austro-marxismoa, Irlandako adibidea, biharko Europa, eta betiko federalismoa eta autogestioa, oso klabe politak dira, baina horien aipatzeko astirik ez dugu.
>
> Buka dezadan. Demokraziaren zelaian daramagun joko zabalak ez du kentzen erantzun indigenista edo autozentratuaren beharra. Oraindik ez gara zulotik atera, eta Estatu nagusiaren tolerantziaz mesfidatzea zilegi eta beharrezkoa da. Proiektu abertzalearen iraunkortasuna bermatzeko, gure sare sozialen autoeratzea eta indartzea ez zaizkit itsusi. Gaurko haizea demokraziarena da : sakondu dezagun. Negurako erreserben biltzeak ez digu dolurik eginen (*Ibid.*: 101-102).

2.4. ALTERMUNDIALISMOAREN ILDOTIK

XXI. mendean, jada, ETAk berriro bere jardun armatuari ekina zionean, 2003an, Abertzaleen Batasunak gonbidatu zuen Donazaharren egin zuen Udako Unibertsitatean esku hartzera. Abagune hark beste aukera bat eman zion bere pentsamoldea inarrosteko, eta bilakaerari eragiteko. Hona prozesu horren azalpena Lopez Adanen beraren hitzetan:

> Liberalismo ekonomikoaren aldekoek (…), Berlingo harresiaren hondamenen azpian ez soilik komunismo sobietarra, baizik eta komunismo osoa ehortzi nahi izan dute. Haien mezua: askatasunaren amets berdintzaileek diktadura odoltsuenak ekartzen dituztela beti. Liluramenduaren erorketa politikoaren ondoan desilusio morala sakatu dute, zaurian piko, eta ederki apaldu digute burua 1990 eta 2000 artean.
>
> Baina ez betiko, araiz. Horra non gure oraingo garaietan mugimendu berri bat altxatu eta hedatu den, beste mundu posible baten aldekoa, globalizazio liberalaren aurkakoa eta, gehiago dena, Estatu Batuek eta beren lagunek mundu osoari inposatu nahi dioten kontrol militar eta poliziakoari aurre egiten diona. Globalizazioaren aurkako alternatibak badakartza erreferentzia berriak eta, hain zuzen, arrapostu egokia eman nahi die desberdinen arteko elkarkidetza eta errespetuari.
>
> Horretarako…ba, horretarako, sozialismo zientifiko eta autoritarioak utopisten huskeriak bezala kondenatu zituen ikusmoldeak, erran nahi baita erreboltaren eta gupidaren sentimenduak, ikusmolde horiek mundu berriaren aldeko indarrak biltzeko zimendu bilakatu dira. Gainera, ispiluan ispilu, sozialismo autoritarioaren «sasi-zientzia» arbuiatzen da: inork ez dauzka historiaren konprenitzeko eta, bereziki, egiteko giltza egiaztatuak (…). Jendartearen legeak ulertzeko eta historiaren egiteko egia osoa dutela sinesten dutenek aise jotzen dute diktadura eta estatu terrorismoaren alde; Hanna Arendt-ek zioen bezala, fededun horiek beldurgarriak dira. Oraingo altermundialistek, berriz, garbi ukatzen dituzte sineskeria sasizientifiko eta larderiatsu horiek; oinarri berria, hain zuzen, sentimenduak dira, injustiziaren aurkako eta pobreen aldeko sentimenduak (Lopez Adan, 2012a: 297-298).

Altermundialismoak Bakunin berpiztu ote du? Iruzkintzen dihardugun mintzaldi hori libertarioei egindako kritika ere bada:

> Anarkistek, Bakuninen hitzetan, zera nahi dute: «erakundea petik gora egina, taldeak elkarrekin libreki bildurik, eta ez batere goitik beherakoa, larderiaren menpekoa». Eta hori bai biharko jendarterako, bai eta haren ekartzeko erakundeentzat ere. Organizatzea onartzen dute anarkistek, librea, oinarritik sortua, koordinakunde guneekin; langileen sindikatuak eta elkarte iraultzaileak oro beregain dira eta libreki federatzen dira (…). Beraz, beregaintasuna, koordinaketa, elkar-laguntza, desberdintasunen errespetua… Ados. Gure artean ibiltzeko jokamolde baliosa, baina gerla soziala irabazteko berdin balio du? XIX. mendeko bukaeratik, lehengo sindikatuetan gehiena izan zen anarkismoa gutxiengo bat bilakatu zen; gero Ukrainian, Espainian, berdin Italiako lantegi kontseiluetan, zerbat izan zen, baina, oro har, galtzaileen artean gelditu zaigu. Eraginkortasun eskasa lepora dakioke, eta eskas horren ontsa ulertzeko burgesen errepresioa eta estalinisten amorrua aipatu behar badira ere, komeni da barnagora joatea. Badira, hain segur, barne arrazoiak, eta hauxe gailentzen da: etsai trinko eta organizatu baten menderatzeko egitura laxoak ez direla aski efikazak. Anarkistek hastio dute boterea; alta, arerioa ez dugu gaindituko beraiena baino azkarragoko boterea erabili gabe (*Ibid.*: 296).

Hori irakurrita, bistan da, altermundialismoarekin berriz berpiztu den Bakunin egindako galderari erantzuna ezezkoa dela:

> Bada, ez, lagunak, ez. Hutsak saihestea ongi bada, garaipenak erdiestea, hobeki. Itzuli dira bai balore libertarioak, baina eraginkortasunarekin uztartuak. Mugimenduaren bilkura eta izkribuetan, asanbleismo absolutua eta edozein buruzagitzaren ukatzea kritikatzen dira, zeren baldin eta zuzendaritza identifikagarri eta arduradunik ez bada, borrokak atzemangarritasuna galtzen baitu eta garantiarik gabeko erakundeak edozein lehendakaritxoren pean erortzen ahal baitira. Bestalde, bada adostasuna erabaki guneetan sartzeko eta eragiteko, eta egiteko hori ez da ontsa akomeatzen hautetsi eta adituak oro mespretxatzeko jaidurarekin (*Ibid.*: 298).

Mintzaldian altermundialismoaren inguruan adierazitakoak laburbildurik:

> Gauza ezin argiagoa: borroka mota desberdinen elkarkidetza ez da berez doan gauza, ez eta historian aise gauzatu den berezko egia. Guztiz alderantziz, mugimendu iraultzailearen historiak erakusten du nola erdigune autoritarioek jaidura azkarra duten inguruko eta urruneko mugimenduak kontrolatzeko, eta, kasu anitzetan, disidenteak fisiko eta politikoki garbitzeko. Jaidura horiei aurka egiteko, iraultzaren ideia autoritarioetatik ihes egin behar da, eta beren oinarriekin hautsi: jendartearen legeak ulertzeko eta haren aldatzeko gure gaitasunaz, apal ibili; zapaldu eta txiroekin egoteko printzipioari, fidel atxiki, eta printzipio hori edozein ideologiaren gainetik eman; talde desberdinen lanak elkartzeko, ikusmolde eta egituren autonomia onar, diziplina militarraren errazkerietara lerratu gabe.
>
> Oinarri horietan datza printzipio demokratikoei eta sentsibilitate libertarioei lehentasuna ematea.

> Bestalde, autonomiak ez du eraginkortasuna baztertzen, eta gutxi gora-beherako oihu-marraketan erori gabe, helburu errealista eta ulergarriak aitzinatuko ditugu, erakunde eta ordezkari garbi eta ezagunen bidez, behar diren leku guztietan kausitzeko. Lankia irekia da eta beste mundu bat, posible (*Ibid.*: 299).

Gaztetan ETAren baitan pertsonalki hasi zuen iraultza-aroari atzera berriz ekin diola esan liteke altermundialismoarekin bat, 90eko hamarkadako desliluramendu eta beheraldi moral-psikologikoaren ondotik.

3. Iparraldearen azken 150 urteetako historia eta egungo egoera

Honen aurreko atalean ikusi dugu nola Lopez Adan bi estatuen, nola Espainiaren hala Frantziaren, estatu-nazionalismo zapaltzaile mozorrotuak desestaltzen entseatu den, frantses estatuari doakionez berariaz, haren gutxiespena salatzeko euskaldunen alderako. Hemen, bereziki, frantses nazionalismoaren salaketari erreparatuko diogu, beti bezala, labur-zurrean, eta sakontasunetan sartu gabe.

Gure xede honetarako hiru artikulu baditu beregi-beregiak: «Ipar Euskal Herria: 150 urte historiarik gabe»; «Iraultza eta Hexagonoko nazio ukatuak», eta «Esperantza eta arazoak Ipar Euskal Herrian».

Lehenbizi aipatu dugunak, *El Nacionalismo Vasco* eta *Del carlismo al nacionalismo burgués* liburuek Hego Euskal Herriari begira egiten dutena, hots, analisi soziologiko marxista aplikatuz ideologiaren azpian dauden arrazoi ekonomiko-sozialak arakatu eta bistaratu, beste artikulu luze honek Frantziako Iraultza Handiaren ondoko urteak arakatzen ditu Ipar Euskal Herriari beha, ikuspuntu marxista bera erabiliz. Bi liburu haiek iruzkindu ez ditugun bezala, hau ere ez dugu xehetasunez iruzkinduko, baizik eta mugatuko gara azken ondorioa eta nahikundea jasotzera. Hona hemen:

> Antzinako Erregimenetik lur burgesiaren erresuma orokorreraino, 150 urte pasa dira; Hegoaldean gerlak eta jazartzeak izaten ziren bitartean, Iparrean herria ixildurik gertatu zen eta handikien arteko liskarrak nahiko apalak iruditzen zaizkigu. Lur-burgesiak nagusitu du Ipar Euskadi, bainan Antzinako Erregimenetik jaso ditu onuratsuak zitzaizkion jiteak, nahiz herri-lurren ukangoari buruzkoak, nahiz maizterrekiko babesgoaren harremanak. Elizak, euskaldungoa monopolizatuz eta sentimendu erlijiosoak baliatuz, behar zuen zimendu ideologikoa eskaini zion lur burgesiari. Horrela, jendarte erreakzionario eta sasi-orekadun bat bermatu da: burgesia industrialaren aurka eta iraultzaren aurka, euskara eta euskaldungoa bereganatuko zituzten jendarte hontako baliatzaileek.
>
> Noiz arte iraungo du sasi oreka honek? Gaurregunean kolokan ari dela badirudi (edo hori sinistu nahiko genuke): hala biz! (Lopez Adan, 1978d).

3.1. IRAULTZA ETA HEXAGONOKO NAZIO UKATUAK

Gatozen «Iraultza eta Hexagonoko nazio ukatuak» ikusmiratzera. Sarreratik beretik ohartarazten digu idazleak iraultzaren kontraesanez ariko dela:

> Frantziako Iraultza, Iraultza Handia, oraingo nazio-estatuaren hasieran dago; haren ondoan, historiografia progresistak balore-sistema bat eraiki du eta, denbora berean, estatuaren administrazioak, Iraultzak sortutako legitimazioan finkaturik, barne eta kanpoko kolonialismoak justifikatu ditu. Honela, irudi kontradiktorio bat ageri da, libertatearen kultoa eta besteen askatasunen zapalkuntza biltzen dituena, Iraultzaren modeloaren unibertsaltasuna eta frantses txobinismoa uztarturik (Lopez Adan, 1989c: 33).

Historiografia aurrerakoiari helduz, Michelet-en lanen ondotik, Jean Jaurès dator, eta haren ustez, Iraultza Handiak demokrazia eta kapitalismoaren hedapena bideratu du, eta horren bitartez proletarioen etorrera eta sozialismoa bera ere antolatu du:

> Hitz batez, filosofia iraultzaile sozialistak humanitatearen eboluzioa nola pentsatzen duen ikusirik, Iraultza bide honetan zedarri bat da, bueltarik gabeko egitate aurrerakoia eta, gainera, guztiz eredugarria. Frantziako marxismoak bide honetatik joko du, gero eta aurrerago. Albert Mathiez aipatu behar da: lan batean, Errusiako Iraultza eta Frantziakoa parekatzen ditu eta, irabazteko gaitasuna azpimarratzeko, alderdi leninistaren zentralismo demokratikoa eta frantsesen jakobinismoa konparatzen eta laudatzen ditu (*Ibid.*: 34).

Hori esanda, ez ditu Lopez Adanek historiografia marxistaren lorpenak eta irakaspenak alboratu nahi; Georges Lefebvre edo Albert Soboul beharrezko erreferentziak iruditzen zaizkio, baina azpimarratu eta ohartarazi nahi du nola lotzen diren, hertsiki gainera, nazio frantsesaren eraikitzea eta iraultzaren esanahi aurrerakoi unibertsala; nola, azken finean, aurrerakoitasun osoz janzten den eredu zentralista eta, ondorioz, zein erraz identifikatzen diren zentralismoaren aurkako jarrerak eta interes atzerakoi edo kontrairaultzaileak. Eta horrekin batean Iraultza «bloke» bat den ikusmoldea, bere osotasunean onartu beharrekoa; haren atal bat jorratzea Iraultza bera bere osotasunean jorratzea izango balitz bezala:

> Clemenceau-ren hitza asko errepikatu da: «La Révolution est un bloc», esan nahi baita Iraultza osotasun bat dela, osotasun trinkoa, non ezin bait daitekeen atal bat kritikatu esanahi orokorra dudatan jarri gabe…
>
> Jarrera honek ondorio iraunkor eta azkarrak ditu. Frantzian, gaur egun ere, zentralismoa eta frantses hizkuntzaren leku aparta, gauza natural bezala jotzen dira, Iraultzak ekarritako libertatearen parte erauztezinak balira bezala; arabera, progresistak oro onartu behar dituzten baloreak dira, eta lekuan lekuko hizkuntzen eta nortasun politikoen aldeko deiak jarrera paseistak, erreakzionarioak, errepublikaren kontrakoak omen dira.

> Eskema hain sinple hori oso sartua dago herriaren baitan ere eta guztiz nabaria da Estatuaren funtzionario eta zuzendariengan, batez ere politikari eta irakasleen jarreretan. Eskola-liburuen ikerketa batek, adibidez, ederki erakusten ditu mitoaren bizitza eta sarkortasun soziala (*Ibid.*: 35).

Zentralismora etorriz, askok defendatu izan dutenez, Iraultza aldi berean joan da aristokrazia jazartzen eta zentralismoaren bidez demokrazia finkatzen eta nazio frantsesa eraikitzen. Baina interpretazio hori partziala eta interesatua da Lopez Adanentzat:

> Hasiera hasieratik, bestelako ikusmolderik ere egon da Iraultzaz. Ikertuko dugun arazoa hauxe da: Zentralizazioa, iraultzailea ote da? Edo, beste modu batez esanda, zentralismoa Iraultzaren eginkizun originala ote da?
>
> Tocqueville-k zer esan asko sortutako obra bat utzi zuen idatzita. Haren ustez, zentralizazioaren historia askoz zabalagoa da: Kapetarrek hasi zuten, Borbondarrek jarraitu, Iraultzak indartu eta Napoleonek burutu zuten prozesu hori. Nahi bada, Antzinako erregimenaren despotismoa, Iraultzaren olde iraultzailea eta Napoleonen inperio zapaltzailea biltzen dira zentralismoaren obran. Horiek horrela, nekez onar daiteke zentralizazioa berez demokratiko-iraultzailea denik. Zentralismoaren historia, beraz, beste modu batez ikertu behar da; Estatu zentralistak gizarte zibila eta komunitate historiko-kulturalak irentsi egin ditu, bereziki Luis XIV.arengandik Napoleon Bonaparteraino, eta historia hau ez da Iraultzaren historiarekin guztiz identifikatzen; paraleloki irakurri eta aztertu behar da (*Ibid.:* 37).

Horren inguruan ikertu ondoan, ondorio honetara heldu da.

> Zentralismoa, lehenik, Monarkiaren abusuekin identifikatzen zen; gero, demokraziak emandako legitimitate progresistarekin. Horrela, bien zapalkuntza bat bestearen atzean pairatu zuten herrientzat, gauzak okertu ziren: Errepublikaren kontra ekiteko zilegitasuna ez zen gehiago eskubide ezin-utzien ondorioa, Antzinako Erregimenaren abusu eta pribilegioekin jarraitzeko borondate antierrepublikarra baizik (*Ibid.*: 39).

Prozesu horretan nazionalismo frantsesak ere hartu zuen parte:

> Edozein nazio eraikitzeko, etsai atzerritarren mehatxua guztiz beharrezkoa da, atzerritasun horrek, kontrapuntuz, nazionalismoaren afirmazioa ekartzen baitu.
>
> Frantzia ez da arau horietatik kanpo geratzen. Antzinako Erregimena suntsitzen duten bitartean oraingo nazioa eraikitzen dute, eta nazionalismo frantsesak indar handia hartuko du. Nolabait, Iraultza sintesi aparta izan da, ideologia demokratikoa eta pasio nazionalista koktel indartsu eta lehergarri batean biltzen zituena. Horrek eman bide zion duen leku historiko berezia (*Ibid.*: 40).

Labur-labur esanda: herriaren etsaiak atzerritarrak dira, eta, haien kontrako borrokan, abertzalea eta iraultzailea gauza bat eta bera izango dira:

> Gaur egunean ere, gauzak horrela ikusten dira: Errepublikaren etsaiak, berez, komunitate nazionaletik kanpora joaten dira, eta, bere burua defendatzeko, Errepublika legitimaturik dago barne etsaien aurka gerra atzerritarretan erabili ohi diren salbuespenezko legeak erabiltzeko.
>
> Ipar Euskadin Frantziako botereak daraman politika, ikuspegi honen ilustrazio nabaria da. Bertako hizkuntza eta kultura, hala nola erresistente politikoak, frantses izan nahi ez duen multzo baten barnean daude eta, horregatik, traizio erreakzionarioaren esparruan kokatzen dira; haien kontra giza eskubideak ukatzen dituzten prozedurak erabiltzeak ez du inongo frantsesik harritzen (*Ibid.*: 42).

Ideologia nazionalistaren desmitifikazioan aurrera eginez, Altsazian, Korsikan eta Okzitanian prozesua nola joan zen azaldu ondotik, honela dio:

> Hemen argi utzi nahi dena zera da: hiri eta probintzien libertateak ukatzea ez da soilki gerraren ondorioa; Iraultzaren filosofia politikoaren barnean dator, haren parte erauztezina da. 1789an hasirik, eta bereziki 1793an, Frantzia «herritarren nazio» (nation de citoyens) bilakatzen da, eta herritartasuna definitzeko jarrera politikoa da osakin nagusia, ezberdintasun etniko-linguistiko edo historikoak oro ezabatzen dituena.
>
> Pierre Fougeyrollas-ek seinalatzen duen bezala, Iraultzak uzkailtze semantiko bat obratzen du: nazioa, gizarte modernoa eratzeko forma politiko nagusi, bakarra, bilakatzen da; eta, herriak, berriz, antzinako komunitate etnikoak, nazionalitateak ditu izendatzen eta gauza zaharren sotora eramaten ditu, despotismo ohiarekin desager daitezen. Etniatik naziora sortzen duen etena guztiz politikoa da, Iraultzaren obrak eta filosofia politikoak zulatzen dituena. Frantzia, haien ustez, despotismoaren aurkako borrokan hedatu da; Nazio Handiak, libertate modernoen atea ireki dio mundu osoari.
>
> Hexagonoan, beraz, Iraultzak ematen dio abiada lekuan lekuko patriotismo «txikien» kontrako jarrerari. Egia esanik, Iraultzak bere garaian ez zuen indarrik aski obra hori bururaino eramateko: etnia ez-frantsesak desagertzeraino eramaten ari den politikak fruitu nagusiak XIX. eta XX. mendeetan eman ditu. Iraultzak, hala ere, edukin progresista eman zion barne-kolonialismo horri eta erregimen desberdin guztiek erabili dute. Barne-kolonialismoaren historian, 1968aren inguruan bereziki salatua izan denez, bi nazionalismo frantses mota nahasten dira: lehena, Iraultzatik datorren nazio abstraktuarena, libertatearen obra; bestea, lurra bezain apala, frantses nazionalismo konkretua, hizkuntza kontingente batez jantzia. Historiaren kritika honek, lehen aipatu ditugun gauzak azpimarratzen ditu. Nola, hasieran, herria despotismoaren aurka jazartzeko, lekuan lekuko hizkuntzak erabili ziren (testuak hor daude, euskaraz, okzitanieraz, bretoieraz edo alemanez); nola, laster, Iraultzaren izpiritua gihartzeko, frantses hizkuntza, frantses erresuma eta frantses mito nazionalak inposatu ziren; eta nola, ondorioz, patriota («abertzale») iraultzaile izateko frantses hizkuntza bihurtu zen baliozko aukera bakarra (*Ibid.*: 48).

Haatik, Lopez Adanek azpimarratzen du, artikulu hau ez dela Iraultzaren arbuiatze soil bat, xedea besterik dela; funtsean, Iraultzaren kontraesanezko errealitatea azaleratzea:

> Iraultza, zentralismo zapaltzaile baten ohantzea da; denbora berean, libertatearen bila dabilen herri baten epopeia. Bi aldeak elkarrekin ikusi behar dira, eta erakutsi nola, azkenean, Estatuak herria itotzen duen. 1789tik 1793ra herriaren mugimenduek deszentralizazioa, autonomia eta demokrazia zuzena bultzatzen dituzte: asanbladak, hautatze irekiak, bozketa publikoak, horiek ziren joko erregelak. Hitz batez, Estatu eta zentralismoaren kontrako jazartze orokorra da, zentralismoa ere, esan dugunez, monarkiaren obra delako: hain zuzen, hori salatu zuten Kaierrek.
>
> Oldar askatzaile honek herri ekintza originalak eta esanahitsuak bultzatzen ditu: komiteak, miliziak, biltzarrak, elkarteak, festak, okupazio eta suntsitze sinbolikoak, herri-epaiketak… Herriaren soberania aldarrikatzen da, eta, obretan, herri-autonomiarekin uztartzen da. Insurrekzio herrikoi batek hartu zuen Bastila.
>
> Baina, paraleloki, beste prozesu bat gertatzen da. Burgesia organizatzen da; herri-ekintzak bideratzeko eta kontrolatzeko bitartekoak eskuratzen ditu. Parisen legeztatzen denean, goi-mailetan armada eta polizia eratzen direnean, han izango dira haren ordezkariak. Estatuak legitimitate bakarra duelako teoria, Iraultzaren obra da; Estatuaren eragin eta autoritatea hiri, herri eta instituzio guztietan hedatzen da. Poliki-poliki, Estatuaren aparatuak, legitimitate honetaz jantzirik, beste iniziatiba guztiak itotzen ditu (*Ibid.*: 49-50).

Eta azken ondorio gisa: «*Iraultzaren «blokea» zartarazi behar da. Irudia puskaturik, zentralismoa arbuiatu, demokrazia errepresentatiboaren alde tiranikoak argitan jarri, eta herri iraultzailearen olde libertarioa gureganatu*» (*Ibid.*: 51).

Esaldi orokorregi bat zilegi bazait: Espainiako Estatu zentralistak segur aski eredu eta maisu eta ispilu onena Frantzia jakobinoan izan du.

3.2. EGUNGO ESPERANTZAK ETA ARAZOAK IPAR EUSKAL HERRIAN

Iraultzaren kontraesanetatik egungo Ipar Euskal Herrira etorriz, duela hogeitaka urte eta egun ere, aldeak alde, zein ziren esperantzak eta arazoak?

Lehenik, euskarari doakionez, Ipar Euskal Herriko jendartean gertaturiko aldaketa handiaren egiaztapena:

> Azken hogeita bost urteotan gure sozietatearen aldakuntzak oso sakonak izan dira. Diglosiarik ez da haboro; bizi-bizian sartu gara hizkuntz ordezkapenean. Hizkuntzan, kulturan eta ekonomian, hala nola mediazio sozialetan karakteristika berriak ageri dira. Oro har, bertako handikiek manipulatzen zuten sozietate laborari, euskaldun eta fededuna gauza joana da (Lopez Adan, 1994e: 26).

Aipatzen dituen ezaugarri berri horietara etorriz, hizkuntzaren familia-transmisioak huts egin zuela zioen, besteak beste, gurasoen utzikeria osoa lagun:

> Gurasoek ukan dituzte hizkuntza propioari buruzko azpibalorazio eta transmisiorako utzikeria osoa. Eskolak, komunikabideek eta ingurumenak ez dute oztoporik izan azken belaunaldia deseuskalduntzeko. Egoera hau berria da; adin larriko euskaldunek

> trasmisio naturala bizi izan zuten, eta prozedurak iraunen zuelakoan egon dira luzaz; supazter txokoan eta emeki, kanpoan arrabotsik sortu gabe, euskara biziko zela mila aldiz errepikatu izan da. Egun, gazteekin lan egiten duten hezitzaile eta animatzaile gehienek argi-argia dakusate euskararen desagertze arina. Euskaltzaleen artean kontzientzia berri honek ekar dezake euskararen presentzia publikoari buruzko jarrera erasokorrago bat (*Id.*).

Bigarren ezaugarri berri bat, familia politiko nagusiak atzerritar bilakatu izana. Lehen, oro har:

> Paristik bilatzen zuten hemengo handikia. Orain ez: politikari nagusiak Frantziako alderdien jokuen arabera onartzen edo paratxutatzen dira Ipar Euskal Herrira (…). Hemengo sozietatearekin dituzten harremanak azalekoak dira eta ez dituzte, inondik ere, lekuan sortzez eta boterez jauntxo zenak zituen fideltasunaren karga sakonak. Kostaldeko politikari handienak turismo eta espekulazio gorrian sartu dira; beren sustrai ekonomikoak, politikoak bezala, kanpoko haizeen arabera dabiltza. Barnealdean, berriz, Inchausperen inguruko klientelismo tradizionalak iraun egin du: fideltasun politiko-pertsonalean finkatzen diren erdi-mailako hautetsiak ere badira. Baina hemen ere eboluzioa kostaldearen antzekoa izanen dela dirudi: alderdi frantsesek gero eta gehiago laguntzen eta ezartzen dituzte hautetsiak (*Ibid.*: 26-27).

Politikari eta herritarren arteko usadiozko harremanak eteteak bi ondorio ekarri zituen: bata, plangintza politiko eta ekonomiko handiek ez dituztela inoiz kontuan hartu hemengo berezitasunak, eta, bestea, berezitasun ekonomiko eta kulturalez arranguratzen direnak ordezkaritzarik gabe utzi izana. Hutsune hori betetzera zetorren abertzale eta independenteen agerpena.

Aipatzen zuen, halaber, herrian bizi nahi zutenen artean, nazionalismoa sartu dela. Fenomeno aski berria:

> Gaur egun, berriz, abertzaleak talde sozial inportante batzuetan sartuak daude. Barnealdean, laborari eta profesionalen artean bereziki: apostu inportantea, zinez. Garapenaren lege eurokraten aurka ari diren laborari gazteak indar garrantzitsua dira (…). Kostaldean, berriz, industria modernoa sustatu nahi dutenen artean izan lezakete lekua abertzaleek, ikusirik gobernuan turismokraziak leku gutxi uzten diola burgesiaren atal produktiboari (…). Bi gabezia: lehena, langileen artean garatu ezina; bigarrena, nabari-nabaria dena, zentrismo eta eskuinaren gabezia abertzaleen artean (…). Akaso, PNVk Frantziako instituzio eta prefetei dien errespetu handiak blokatzen ditu operazio horiek. Bainan azken hau PNV inarrosteko diot. Soziologikoki, notable zentrista eta eskuindar abertzaleen ez agertzea gauza bitxia iduritzen zait (*Ibid.*: 28).

Aldi berean, euskaldutasunari ez ikusiarena egiten diotenen kopurua emendatzen zekusan: «*Gero eta gehiago dira, batez ere kostaldean eta barnealdeko hiri nagusietan, euskalduntasunaren ondoan hemen bizi direnak, bainan euskaldunen bizimoduaz edo ekimenetaz ezer jakin gabe*» (*Id.*).

Esperantzak aditzera emanez bururatzen zuen artikulua, esanez ezagutza publikoa lortzeko gero eta legitimitate handiagoa zutela euskaldunek. Aldi berean,

euskararen berreskurapenaren garrantzi alimalekoaren aitortza argi eta irmoa:

> Beraz, optimista izateko arrazoiak baditugu. Ezagutza politiko-instituzionala erdiesteko bidea aitzina doa, eta euskaldunek beraiek errekuperatuko balute beren nortasunaren kontzientzia politikoa eta beren hizkuntzaren erabilpen ausarta, gure orga ongi uztartua legoke.
>
> Laburtzeko zera esango nuke:
>
> Heldu gazteen artean nahiko euskaldun badago eta nahiko kontzientziadun egon liteke euskararen iraupena segurtatzeko. Borroka honetan, norberaren konpromezua eta euskaltzale eta abertzaleen errekuperazioko politika boluntarista argia guztiz beharrezkoak dira. Bataila hau galtzekotan, beste gainerakoak hutsaren hurrengoa izanen dira (…). DEIADAR mugimenduak euskaldun guztiei egin dien dei premiatsua, hots, euskara erabili, erabili eta erabili, euskararen presentzia hedatu, hedatu eta hedatu, egungo kinkari dagokio: hil ala biziko egoeran gaude (*Ibid.*: 30).

Hizkuntzaren alorrean, ahul eta boluntarismo gogorraren premian bezala, gainegitura politikoaz zen bezainbatean, ofentsiban bezala zekuskien euskaldunak: «*Elkar-indartze politiko-sozialaren ondorioz, barnealdean abertzaleak izan daitezke gehiengoa, Hego Lapurdiko herri koskorretan talde nagusia eta hiri nagusietan kontuan hartu beharko den presio-taldea*» (*Id.*).

Itxaropenak bai, baina arazoak ahaztu gabe, eta era berean euskaldunen arteko loturaren eta batasunaren premia ezinbestekoa ere ahantzi gabe:

> Halere, jakobinismoak eta goimailako hautetsiek indar handiak dituzte erresistentzia egiteko. Pentsatu daiteke gizarte dual baten sortzera bultzatuko dutela, turismoaren gaineko ekonomian eta klase nagusi frantses eta frantsestuetan finkatua eta populazioaren gehiengo frantsesak legitimatua; euskaldunak minoria gisa eta euskara diglosi egoeran uzteko manera.
>
> Hemengo euskaldun guztientzat, hegoaldekoekin lotura eta batasun premiazkoak izanen dira, elkarrekin bizi eta iraun gaitezen (*Id.*)[40].

Zenbateraino zegoen zuzen eta zenbateraino oker duela hogeita urte, eta zer gisatako profeta gertatu den balioesten ez nekike; baina, nago ikertu nahi lukeenarentzat oinarri gisa ongi aski balio lezakeela.

40. Batasun hori 1968az geroztik aldarrikatu du Lopez Adanek. Ikus 3. atala: Proselitismoa.

4. Marx eta iraultza, Ezkerra Europan

Bi artikulu dira ezkerraren azterketari lotuak, biak iragan mendeko 80ko hamarkadan eginak, 1983an eta 1987an hurrenez hurren; ez dira jakin-min hutsak bultzaturikoak —halakorik egin badaiteke?— baizik eta Euskal Herriko borroka iraultzaileari ekarpen bat egin nahian, kritika eraikitzailearen bidetik. Biak ere ezkerraren norabideaz edo noraezaz tolestuak, krisiaz, bereziki Europan.

Artikulu luzeak dira; bigarrenak berrogei orri ditu, eta hemen ezin ideia guztiak bildu, adierazgarrien jo ditudanetara mugatu behar nahitaez.

Goazen Marxi buruzko artikulura, haren heriotzaren mendeurren kari idatzitakora. *Jakin* aldizkariak gai monografiko gisa hautatu zuen marxismoa delako mendeurren hori probestuz. Lopez Adanen artikulua Joxe Azurmendiren eta Jokin Apalategiren artean dago. Apalategik nazioaren kontzeptua marxismoan aztertzen du —Marxek internazionalismo proletarioaren mendeko erabili zuela baieztatuz, eta Pierre Vilar historialari okzitaniarraren planteamendu berri itxaropentsuarekin amaituz—; eta, Joxe Azurmendik kontatzen du 1965 arte ETAk nola aurkitu zuen marxismoa, eta artikulua bururatzeko dio ezen 1966an, V. Biltzarraren inguruan, beste belaunaldi gazteago batek beste modu batera aurkitu zuela marxismoa, euskal gizartea ere aldatua zegoela, sekularizazioa-eta abiatua. Hor sartzen da Lopez Adan; Marxen kontraesanak eta anbiguotasunak eta balantze orokorra laburbildu aurretik, Marxen eta beraren arteko amodio-gorroto harremanaz dihardu; lehenbizi, amodioa eta lilura eta gero deslilura eta gorroto puntu bat ere:

> Marxismoa, bai, bilakabide baten ondorioz deskubritu genuen, kanpotik etorria izanki [abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna ez bezala, horiek etxean eta lagunartean edoski baitzituen], eta konbertsioa zen harekiko egin genuena (…). Kanpotik (…), baina, halaber, ez oso urrundik. Deskolonizazioaren gorabeherak, nahiz eta gugandik urrunak espazioz, oso hurbilak zitzaizkigun gure praktika explikatzeko eta egokitzeko; eta Hego Euskal Herrian hedatu zen langileria guztiz presente zegoen hirietan eta gizarte-praktiketan. Hots, orain dela hamabost-hogei urteko Euskadin, borroka abertzalea gaurkotu eta gogortu nahi genuenoi, zeharo hurbilak bihurtu zitzaizkigun, gatazka antiinperialistei eta langileriaren munta sozialari loturiko pentsaerak.
>
> Eta marxismoan, gauza asko aurkitu genuen. Gure historia, batzuek ukatua eta besteek mitifikatua, sakonki ezagutzeko bide bat; PNV burgesia nazionalaren interesekin identifikatuz, Partido honen erdibideak eta katramilak ulertzeko giltzarria; askatasun osoa iraultza sozialarekin bat eginez, gure borroka propioa zilegiztatzeko bide zabal

> bat ere bai, munduan zeharko fronte antiinperialistan parte hartzen genuelako eta, bide batez, etorkinen problema lazgarriari irtenbide baiezkorrak ematen ahal genizkiolako (…).
>
> Halere, marxismoa ez zen soilik egoera ikertzeko bide zientifiko bat (…) haren baitan, iraultza egiteko estrategia bilatu eta aurkitu nahi genuen. Gogora dezadan, marxismo-leninismoaren kontzeptu ofizialetan, ezagutza objektiboaren egiazko teoria eta praktika iraultzaile jakintsu propioa dela batean marxismoa (…). Puntu honetara helduta, aitortu beharra dizuet, egoera intelektual eroso eta betekor batetan instalatzera iritsi nintzela orain hamahiru edo hamalau urte. Euskadiren historia eta egoera lerro nagusietan ulertuta (hala uste genuen, bederen), historiaren mugimenduan sartuta, koiunturaltzat jotzen estrategia egokia aplikatzeko oztopoak, gure ahuleziak sortutzat, baina kemenaren kemenaz gaindigarritzat, bata bestearen atzean irabaztekotzat, militantzia emanaren bidez, iraultza bururatu arte (Lopez Adan, 1984c: 27-28).

Nondik hasi zitzaion deslilura nagusitzen? Aitortzen digu ez dela gauza bilakabide osoa ulertzeko. Maoismoaren krisiak, bere luzean, galdera asko sorrarazi zion urteetan:

> Naturari buruzko ekialdeko gizarteen galderak; zapalkuntza, larderia, autoritarismoa eta alderdia zeinen elkarlotuak dauden ikertzea; borroka antiinperialisten ondorioz sortzen ziren estatu berrien barne-politikak; eurokomunismoaren komeriak, ezkertiarren antzutasuna… (*Ibid.*: 29).

1968ko Maiatzaren ildo beretik, Marxen ekarpenak ahaztu gabe, Marx gaztearengan oin harturik, anarkismoak hierarkiaz eta larderiaz egiten duen kritikaz bete nahi zuten esparru iraultzailea —gogora Bruselako *Gatazka* taldea, hasiera batean Krutwig buru zela—, baina horrek ere ez zuen asebetetzen. Aurrerago, berriz, Espainiako sozialistek eta komunistek euskal borrokari buruz zituzten —izaten jarraitzen dute— jarrerek min ematen zioten, ez itxarotekoak ez zirelako, baizik eta internazionalismo proletarioaren ukazio biribilak izan direlako, nazionalismo zapaltzailez beterikoak:

> Marxengandik datozen sozialista eta komunista horiek ederki frogatu digute zer-nolako endekatzea jasan dezakeen marxismoak; eta usteltzeko gaitasun honek pentsarazten dit, berriz ere, ez ote diren marxismoaren baitan egongo ideologia zapaltzaileen hazi eta hedapenak, beren buruak marxistatzat dauzkatenak zapaltzaileen kolaboradore eta kudeatzaile izatera eramaten ahal dituzten jarrerak eta sineskerak. Zeren, egia esanez, Espainiako komunistak eta sozialistak egiten ari direna, imagina al genezake anarkisten partetik? Nekez, niretzat bederen (…) egiaz gauzaturiko praktikek marxismoan, badela zerbait endekagarri pentsatzera naramate; eta zerbait hori, autoritarismoaren kritikaren faltan datzala esango nuke. Diodan, halaber, marxismoaren krisiaren aurrean eszeptizismo eta ezegitearen putzuan ez amiltzeko, beste nonbait aurkitu nahi nukeela borroka iraultzailearen zergatia eta itxaropena. Agian, zapalkuntza onartzen ez duen etikan, eta beren kateak hausteko zapalduek duten edo izan dezaketen kontzientzian, ezar daitezke itxaropen eta azalpen horiek (*Ibid.*: 30).

Marxen eta Lopez Adanen artekoa argitua, goazen Marxen azterketara. Marx asko dago, Marx gaztea, gerokoa, eta horren inguruan polemika; baina alderdi hori baino garrantzizkoagoa Lopez Adanentzat, Marxen kontraesan eta anbiguotasunei erreparatzea.

Marxentzat iraultzaren protagonista proletarioak izango ziren. Ekoizpen-harreman sozialek proletarioak sortuko zituzten, eta proletario horiek egingo zuten iraultza. Baina proletarioen egoera ikerturik, Marxen aurka bi alde nagusi ikusten zituen:

> Marxen arabera, igotzen ari den klaseak boterea hartzen du, botere politikoa denean falta zaion gauza bakarra. Burgesiaren adibidea erabili du askotan: noblezia botere politikoaren jabe zen, baina burgesiak kontrolatzen zituen industrigintza, merkatal mundua eta, neurri batetan bederen, laborarien ekoizpena; nahitaezkoa zen iraultza burgesa. Baina, eta baina handia da hau, nobleziak zuzenki eta esankorki zapaltzen zuen klasea ez zen burgesia, laborariak baino (…) gure gizarte kapitalista argi eta garbi dena zera da: proletalgoa ez dagoela, inondik ere, iraultza burgesa egin zuten burgesen egoeran. Erabaki ekonomikoetan duen munta oso eskasa da, eta ez du kasik existitzen berak kontrolatzen duen industriak. Hemen dialektikak salto ikaragarria egiten du hutsaren gainean; ezdeusetik nagusi izaterako pausoa, edo zein daiteke eman, edo Marxek explizitaturiko arrazoi eta mekanismoetatik aparte egin beharko da (*Ibid.*: 34).

Soldata ona duten batzuk ekoizpen edo gizarte-kontrolaren leku giltzarrietan daudela esan daiteke, baina horiek teknikari hautak dira «koadroak», «jakintsuak» eta horiek:

> Proletalgoaren abangoardia dira, ala kapitalisten morroi hoberenak? Bigarren hipotesi (edo baieztapen) hau egiazkoa baldin bada, gero eta ukatuagoa gertatzen da proletarioek (marxismo ortodoxoari jarraituz) iraultza egiteko duten gaitasuna. Honela, ondorio lazgarri eta interesanteetan sartzen gara. Hau da: teknikaren hedapena eta boterearen zentralizazioa uztarturik ari dira aitzinatzen, ez teknikaren garapenak berez horrela eskatzen duelako, baizik eta zentralizazioa emendatzen eta azkartzen duten teknikaren posibilitateak direlako nahitara onartzen eta aurrera eramaten direnak. Hots, batu egiten dira teknikarien erresuma produkzioan, eta teknikarien eginbidea gizarte-kontrolean: Mendebaldean, 200 edo 600 Multinazionaletako agintarien eta nagusien pean egiten da; Ekialdean, berriz, Alderdiko burokrata eta nagusien pean (*Ibid.*: 35).

Beste ardatz bat Marxen teorian, gainbalioaren teoria da.

Marxek emandakotzat, agortezin eta baliagarritzat jotzen zuen natura, XIX. mendean Europa makinistaren seme-alaba gehientsuenek jotzen zuten bezala:

> Natura, hartaz baliatzeko emana zen ber, «herri primitibo»ak ez ziren «lehen gai»en lurretan bizi ziren basatiak baizik, natura bezain emanak eta baliagarriak zirelarik hauek. Askoren ustez, eta bat nator hauekin, Marxek naturari eta herri primitiboei buruz zuen mespretxua, XIX. mendeko ideologia europarrari dago lotua, eta plusbalioaren teoriarekin uztartzen ahal da (*Ibid.*: 37).

Herri primitibo horien alderako ikuspegia aldatu bada, egun, ez da izan marxismoagatik, ekologiaren doktrinagatik baizik:

> Ongi dakigu natura ez dela ahituezina, oreka hauskorra duela nabari da, eta indar produktiboen garapenak katastrofe kosmikoa ekar dezakeela (eta badakarrela) begibistan dugu! Ekologiaren doktrina, ekologisten borroka (…) marxista industrizale-desarroilisten kontra egin behar da tamalez. Plusbalioaren inguruko liskarrek era berean, ez dute zentzu bera XIX. mendeko suburbio ingelesetan eta egungo gizarte kontsumistan. Langileriaren parte batek ez du, aspaldidanik, bizitzeko eskatzen, baizik ustelkeriak kontsumitzeko, nagusien bizi mailara heltzeko edo hura imitatzeko, publizitateak eta ideologia zapaltzaileak sinestarazten dioten era tristean. Eta metropolietan zer banaturik badago, neurri on batean bederen, Hirugarren munduaren explotaziotik dator; explotazio hau, prezeski, natura eta lehengaien lapurketa eta baliaketa soilean finkatzen da (*Ibid.*: 38).

Kolonizazioari buruz, hots, herri kolonizatuen alderako Marxek zituen kontraesanen muinean hauxe zegoen: «*Marxek, teoria eurozentrista batetan sartuta, "atzeratu"enak edo "basati"enak zirelako zituen mespretxatzen kolonizatuen eskubideak*».

Eta langile-klaseari dagokionez, estatu kapitalistetako langile-alderdi eta sindikatuen jarrera ez-solidarioen adibideak ematen hasita, urrunera jo gabe, Frantziara begira jarririk —ez du esan nahi horretan okerrena Frantzia ageri denik; baina, badu, haatik, esanahi erantsi bat, Frantzia frantziarrentzat askatasunen herri den aldetik Iraultza burgesaz geroztik—:

> Algeriako gerlari buruz, esate baterako, detaileak ukan zituzten komunistek, baina ez ziren gobernuaren kontra jazarri; gaur, armen komertzioari buruz, enpleguaren defentsa dute puntu nagusia (…) hiritar-eskubideak ukatzen zaizkielarik lan egiten duten etorkinei buruz, ez dira arrazismotik urrun ibili azken urteotan. Ez dugu gauza bat ahaztu behar: gizarte kapitalistetan, langileen erakundeek ez dute beti indar iraultzaile gisa funtzionatzen; interes profesionalen defentsa sar daiteke sistemaren kohesioaren barnean, sistemaren izaera zapaltzailea gorabehera, zer banaturik denean (*Ibid.*: 39).

Langile-klasea ez da mitifikatu behar, diosku Lopez Adanek. Tirabirak bazituen horren inguruan, nik neuk, eta hau irakurtzen dutenek izango dituzten bezala:

> Onar daiteke, eta ni hori sinestua nago, langileria beti zapaldua izango dela, eta potentziaz beti iraultzaile dela. Baina langileria eta iraultza besterik gabe identifikatzea ez da zehatza, nire eritziz bederen; Alain Touraine-k dioenez, «langileria ez da Historia gurutzatzen duen Jainko bat, klase herritarren era berezi eta pasakorra baizik; era berean, haren lana eta eginkizuna anizkorrak izan daitezke». Zapalduen interesen aurka ari daiteke langileriaren atal bat, kontextu historiko batetan (*Ibid.*: 39-40).

Laburbiltzera etorriz, Marxen kontraesanetan hari gidari bat bada Lopez Adanentzat, eta hori da hain zuzen haren autoritarismoa: «*Marx autoritarioa zela, eta autoritateari buruz zuen jarrera pertsonalaz kutsatu zuela bere ideologia*» (*Ibid.*: 43).

Langile-mugimenduan Marx bizi zela jazo zen eztabaidarik esanguratsuena Marx eta Bakuninen artekoa da, marxista eta anarkisten artekoa. Hemen ez luzatzearren jasoko ez ditugun arrazoiengatik, Marx eta Bakuninen arteko liskarraldi horretan Bakuninen alde paratzen da:

> Eta Marxi hierarkiaren eta larderiaren kritika zuzena falta zaio, hain zuzen. Bakuninek idatzia ez zuen ulertu, edo ez zuen ulertu nahi izan: «Beharrezkoa da diktadura, Estatu baten aurka beste bat sortzeko egiten diren iraultza politikoetan; ezinezkoa da zapalkuntza guztiak batean suntsitu nahi diren iraultza sozialean» (*Ibid.*: 44).

Bi hitzetan laburtzeko, Iraultzak konnotazio ezberdinak dauzka. Lan-indarraren esplotazioa suntsitzeko marxistak eta anarkistak bat datoz jabetza pribatua ezeztatu behar delakoan, baina ekoizpen-bitartekoen jabetza ezin da ulertu hierarkiarik eta autoritaterik gabe. Burgesiari jabetza kendurik, autoritatearen eta estatuaren arazoak berez konponduko zirela baieztatzean, guztiz ez-zientifiko eta utopiko aritu zen Marx:

> Jabego pribatua abolitzea beharrezkoa da, baina ez da aski; hierarkia guztiak suntsitzea, berriz, beharrezkoa izatez gain, aski dateke. Marxek ez zuen horrelako ahotsik entzun nahi izan; are gehiago, iraina, kalumnia eta ustelkeria erabili zituen ahotsa isil arazteko. Horregatik, eta marxismo autoritarioaren aurrean gogaitua, erantzule daukat Marx ere eta aitortzen dizuet ez zaidala begikoa (*Ibid.*: 45).

Gatozen bigarren artikulura. 1988an, hogei urte betetzen ziren 1968ko Maiatzetik. Horren karietara, Ezkerra Europan nola zen azaldu nahi zuen. Hasteko baieztapen adierazgarri hau: «*Garai hartan, esperantza guztiak zabalik eta zilegi ziren; gaur egun, berriz, berehalako batean irabazi nahi lukeen iraultza kinka larrian dagoela esan daiteke*» (Lopez Adan, 1988b: 7).

Baina begi bat Europara begira jarrita ere, beste begia Euskal Herrira begira egin nahi zuen analisia: «*Gertatua ikertzeak ez digu Euskadiko mugimendu iraultzailea ulertzeko giltza osoa emango, gure egoera aski berezia bait da; baina, kanpotik datozen haize eta uhinak konprenitu gabe, nekez jabe gintezke hemen gerta daitekeenaz*».

Honen aurreko artikuluarekin egin bezala, hemen ere idatzi zenetik hogeitaka urtera, gaurkotasun gehien duten alderdietara mugatu behar gure begirada.

Artean marxismo-leninismoa zutik zen; SESB bezala, eta hark erreferentzia garrantzizkoa izaten jarraitzen zuen, baina Lopez Adanentzat oso garbi zegoen marxismo sobietarrak bideraturiko utopia komunistaren porrota. Munduan komunismoa ez zen nagusi, kapitalismoa baizik. Gorbatxov hasia zen erreformak egiten, eta artean ezin jakin horrek nora eramango zuen:

> Ikertzaile askok galdetzen du ea Gorbachov-en erreformak iraultza mundialaren teoriaren akabera ekarriko duen. Deklaratu duenez (1987), mundua ezin daiteke haboro bi sistemen arteko borroka bezala uler; edota, zurezko mihiaren metahizkuntzaz baliaturik, «koexistentzia bakezkoa klase-borrokaren forma berezia da» (*Ibid.*: 12).

Oro har, Errusia eredugarriaren aldiak berea emana zuela zeritzon, jai zuela alegia, eta haren inguruan ziren mitoak ez ziren gehiago gai hirietako proletarioei amets eragiteko. Goxismoarentzat —ezker iraultzailea, 1968ko Maiatzaren ondotik sortutako *gauche prolétarienne* erakunde maoistatik sorturiko izendapena— garrantzi handikoa izan den iraultza internazionalistaren utopiarentzat kolpe gogorrak izan dira estatu sozialisten arteko gerra nazionalak (Txina, Vietnam, Kanbodia), inguruko estatuen inbasioak (Hungaria, Txekoslobakia, Afganistan…) eta nazio-askapenerako mugimenduen aurkako erasoak (Eritrea): «*Estatuen politika errealistak iraultza mundialaren kontzepzioari lehentasuna kendu diola ematen du*» (*Ibid.*: 16).

Horri islamismoa eta komunitateen arteko bortizkeriak erantsi behar. Islamismoari buruz honela dio:

> Hitz batez, islamismoa ageri da nazionalismo arabiar aurrerakoiak utzitako zuloa betetzen. Islamismoaren helburua, koranaren araberako gizarte garbi-ideala sortzea da; horren egiteko, tirano fedegabeek mantentzen duten injustizia eta errepresioaren sistema («Kahiliya») desegin behar da; bide estrategikoa, gerra sainduarekin dabil («Al Jihâd»). Errebolta hau predikatzeko, Iran dugu nagusi (…) Europako iraultzaileentzat, islamismoak problema latzak aurkezten ditu. Edukin antiinperialista, eta oligarkien kontrako pobreen mugimendua izatea, begi onez ikusten dituzte; erlijiotasun bizi-bizia onartzea kosta egiten zaie, erlijioa «herrien opioa» dela ikasi bait dute. Baina gogorrena transferiezintasuna da. Esan nahi bait da, langileen eta herri zanpatuen borroka batzen zituen marxismo-leninismoan, frente guztietan obratzen ziren ekintzak orokortasun baten barnean ziren ulergarri, eta liberazio osoaren bide bakarrean sartzen ziren. Orain, fede berezia dutenek dute iraultza egiten, eta infidelen kontra borrokatzen; nazio arteko liskarretan, bereziki, horrelako azalpenak ematen direnean (oraingo Tchad eta Libiaren artekoan, adibidez), unibertsala ezin izan daitekeen doktrina batek ezin gainditzuko bestelakotasuna dakarkie gainerakoei. Haustura handia, beraz, lehenagoko utopia mundialistekin (*Ibid.*: 13).

Islamismoaren bilakaeran AEBak eta 2001eko Irailaren 11ko atentatua nabarmendu behar, eta haren ondotik Afganistanen eta Iraken estatubatuarrek egindakoak, eta Al-Kaeda eta Bin Laden, baina, funtsean, munduan iraultza komunista nagusitzeari doakionez, aldaketarik ez.

Komunitateen arteko bortxari doakionez, Libanoko komunitateak, Sri Lankako tamil hinduistak, Indiako Punjab estatuko sikhak; horien kasuan ere transferiezintasuna.

Gorago esan dugu artikulu honen iruzkina egitean, gaurkotasuna galdu ez duten gaiei edukiko diegula begia; ikuspuntu horretatik krisi ekonomikoari buruz dioenari erreparatu behar. «*Europan bertan, krisiak kolpatu du barne-barnean. Honen ondorioz, beharbada, Soviet Batasunaz, Hirugarren Munduaz, Langile-mugimenduaz eta, oro har, Iraultzaren oraingotasunaz, ideiak arrunt aldatu dira, txarrerako aldatu*» (*Ibid.*: 16).

Langileriaren gizarte-egitura aldatzen zekusan, eta harekin batean langileriaren antolaketaren gorputza eta esanahia:

> Oro har, masa trinkoa egiten zuen proletalgoak langile isolatu-sakabanatuei egin die leku; denbora berean, ofentsiboa zen mugimendu batua defentsiba-borroka barreiatuek dute ordezkatu. Industria astun klasikoen krisiak langile-masa nola ahuldu duen esplikatu beharko genuke [oroit, esaterako, Bilboko «Euskaduna»]; honekin batean, teknologia berriek dakartzaten espezializazio-eza eta lanpostuen trukaketa, iraupenik gabekoa.
>
> Langabeziaren hedapenak solidaritateari emandako jipoia, eta enplegua kontserbatzeko joera nagusia, borroken isolamenduarekin doaz (…) borroka oso gogorrak egiten dira norberaren lanpostua mantentzearren, baina ondoan gertatzen denaz futitzen gara gero (…). Baina edukin teoriko-politiko handiena, beharbada, sindikalismoaren krisiak darama. Jarrera iraultzaile klasikoetan, eginkizun politiko oso handia zuten sindikatuek (…). Gaur egun, arrunt aldatzen ari dira gauzak (…). Hots, honi alderdi langile edo langilezale klasikoen egoera gaineratzen badiogu, zerbait argi dela esan dezakegu. Gutxik sinesten duela iraultzarako bidean gaudenik (*Ibid.*: 17).

Ez al du, alde txiki batzuk gorabehera, egungo egoeraren analisia ematen?

Horrekin batean, intelektualen bilakaerari erreparatzen zion:

> Historia hurbilean, iraultzak predikamendu handia izan du multzo honen barnean: garai batean, Errusiarekin bat egitea beharrezkotzat jotzen zuten; duela gutxi, kolonialismoaren eta inperialismoaren aurkako borroketan parte hartzea zen progresismoaren marka. Orain, berriz, salbuespenak salbuespen, gauzak beste modu batez ikusten ditu kolektibo honek. Europa eta Mendebaldeko demokraziak dira, hain zuzen, begiratu behar den libertatearen esparru nagusia; totalitarismoa dugu etsai nagusia, eta, diote, tiraniaren mehatxuak kanpotik datozkigu, batez ere inperialismo sobietarrak eta Hirugarren Munduko mesianismo erlijiosoek bultzaturik. Beraz, Europa eta bere balioen defentsa da jarrera progresista posible bakarra (*Id.*).

Artean baziren jarrera iraultzaileak zituzten intelektualak (Pierre Vidal-Naquet, Félix Guattari, Claude Bourdet…) baina azken hamarkadan bilakaera nabarmena gertatu zen: J-P. Sartreren garaian (sinbolo nagusi gisa erabilirik haren figura) intelektualek bortxa instituzionala gogor salatzen zuten; zanpatuen borroka armatua haren ondorio gisa ikusten zen, eta Hirugarren Munduko nazionalismoek rol askatzaile hirukoitza jokatzen zuten: euren erresumak askatzeko; inperialismoa ahultzeko eta metropolietan ere borroka pizteko, baina, idazten ari zen garaian, 1983an:

> Orain, Mendebaldeko sistema demokratikoa defendatzeko jarrerak hartu du lehentasuna. Borroka armatua totalitarismo itsuek edota kausa partzial fanatikoek pizten dutela pentsatzen da, eta irrazional edo apolitikoak direla azpimarratzen (…) Intelektual razionalaren lana, nolabait, mehatxu ideologiko, erlijioso edo totalitarioen kontrako defentsa justifikatzea da, nahiz eta defentsa honek errepresioa eta armamentismoa ekarri (*Ibid.*: 19).

Intelektualen jarreran beste osagai bat *neoliberalismoa*ren defentsa. Neoliberalismoa letra etzanez idatzi zuen Lopez Adanek 1987an; egun, ez dugu horrela idazten, hain egin da arrunt:

> Teoria honen laburpena eskain dezadan. 1974-75etik aitzina garatu da, eta laster hegemoniko bihurtu. Krisiaren sorburua kapitalari inposatzen zaizkion zedarri zurrunak dira: soldata indexatuak, sobera burokratiko eta garesti den segurantza sozialaren sistema, langileak kanporatzeko oztopo legalak, lanpostuak aldatzeko nahiz lan-iraupena erregulatzeko legeriak. Iraultza teknologikoak eta kapitalaren mundializazioak dakarten bihurgunea ongi hartzeko, oztopo guzti horiek altxatu beharra dago. Neokontserbadurismoak goitik behera uzkailtzen du, ongizateko gizarteetan, langileriaren eta kapitalaren artean lortutako oreka (…). Ondorio politiko ugari dakar ideologia honek. Reagan eta Tatcher ditugu ordezkari publiko handienak, baina ikaslerik anitz dut (*Ibid.*: 19-20).

Neoliberalismoa aurrera indartsu, eta aldi berean marxismoa krisian. Marxismoa krisian ez dagoena interpretatzeko metodo gisa historian, ekonomian, politikan eta soziologian, baina bai marxismoa iraultza egiteko proiektuari lotzen zaionean:

> Sozialismo errealaren kritikak agerian utzi ditu marxismoaren alde autoritario-totalitarioak. Eta baieztapen batzuk kolokan ezarri ditu oraingo egoerak. Proletalgoa, enplegua duenean, Hirugarren Munduaren zanpatzaile eta marjinatuen kontrako errepresioaren eskale agertzen da usu (…) ezkerraren parte handienarentzat, dagoenarekin errealistikoki bizitzea da razionaltasunaren jomuga nagusia: tamalez (*Ibid.*: 21-22).

Sozialistekin hasita, alemanek jada 1959ko azaroan Bad Godesberg-en baztertu zuten marxismoa, utopia iraultzailea. PSOEren bilakaera alde batera, sozialista frantsesen bilakaerara etorriz, Mitterrand presidenteak 110 proposamen egin zituen 1981ean Frantziako baztertu eta matxino guztiak promesa horien inguruan biltzeko nahian:

> Orain, 1988ko hauteskundeetarako PS-k onartutako programa, guztiz soft da, aipatu ditugun zedarri errealisten artean mugatu-mugatua. Merkatu-ekonomia guztiz onartzen du, eta deus ez dutenentzat aloger minimo garantizatu baten sortzea du pundu «sozialista» nagusia (*Ibid.*: 23).

Eta eurokomunistak?

> Eurokomunismoa, sozialismo erreala kritikatuz garatzen da: kritika honek, nere ustez, ezkerrean orain nagusia egiten ari den sentsibilitate etiko-demokratikoari zabaltzen dizkio ateak. Baina sentsibilitate honen ahulezia estrategikoak ere berarekin dakartza (…) libertate «formal»en goraipamena egiten dute. Kontzepzio sobietikoan, egiazko libertateak egunerokotasun ekonomiko-sozialaren esparruan dautza, lana, osasuna, egoitza eta aisia denei segurtatzeko; alderdi politikoak libreki lantzeko libertateak, espresio-libertateak, eta antzekoak oro, egiazko egoera zanpatzailea ezkutatzeko kapitalismoaren iruzurrak dira.

> Eurokomunistek beste ikuspegi bat dute. Europan lortu diren libertate «formal» horiek ez dira batere kapitalismoaren engainuak; alderantziz, tradizio humanista eta askatasunzale baten ondorio joriak dira, eta, usu, odolez eta borrokaz lortuak. Libertate horiek gure ondore askatzailearen parte erauztezina dira eta horiek gabe ez da iraultzarik izanen (*Ibid.*: 24).

Ezker iraultzailea, berriz, Lopez Adanek goxismoa deitzen duena krisian. Sozialdemokrazia eta eurokomunismoarekin labur bezala ezker iraultzailearen krisiarekin luze enplegatu zen. Hemen, labur-labur, laburbiltzera jota; batetik, maoismoaren bilakaera. Munduko iraultza komunistaren erreferentzia izatetik politika nazional hutsa egitera igaro zen; bigarrenik, barneko krisia:

> Egia esan, ezker muturrak badirau; Frantzian troskistak ditugu orain eta beti presente (Alain Krivine eta Arlette Laguiller, beren taldeekin, «Ligue Communiste» eta «Lutte Ouvrière», marjinalak bai, baina nekaezinak); Italian ere mugimendua ez da eten. Baina fenomeno guztiz iragana da 1968ko goxismoak egunerokotasunean, kulturan eta eritzi publikoan izan duen eragina. Ez dira haboro gizarte-alternatiba orokor, egikor, eta berehalako gisa aurkezten ahal (*Ibid.*: 27).

Hori hiru arrazoirengatik jazo zen. Bata, arrazoi psikologikoak. 60ko hamarkadan protagonista izan, eta 80ko hamarkadan antitotalitarismora konbertituak urte haietako militantzia arazo guztiz indibidualekin esplikatzen zuten:

> Lacan eta modako psikologiak aipatuz, ezetz esateko sentimenduan aurkitzen dute portaeraren giltzarria; ondorioz, funtzionatzen zuen guztia gorrotatzen zuten (eskola, enpresa, gizartea), eta kontragizarte alternatiboa sortzeko ahaleginak heldutasun- eta errealismo-falta gisa konprenitzen dituzte gaur egun (*Ibid.*: 28).

Bigarrenik, militantismoaren kritika. Bat, botereak dakarren autoritarismoaren beldurra. Ideologia handien izenean eratzen ziren alderdi edo talde diziplinatuetan oinarrizko militanteei gauza gogorrak eskatzen zitzaizkien. Eta hau gertatzen ari zen goxismoaren ondoan gizarte-mugimenduak eratzen ari zirenean, eta mugimendu horien balioak militarismo-militantismoaren aurkakoak ziren: antiautoritarismo zuzena, burokratismoaren kritika, bizikidetzaren zorionaren bilaketa, pertsonak ideologiaren aldarean sakrifikatzeko ukoa.

Eta hirugarrenik, gizartea eskuinera lerratzen ari zen. Goxistek:

> Gizartearen faxistizazioa gaizki interpretatu zuten. Egia da gobernuek eskuinera jotzen dutela, oinarrizko libertateen ukatzera doazela; poliziaren basakeria instalatzen da, lege bereziak biderkatzen eta egiazko demokraziaren esparrua murrizten. Baina eboluzio hau gehiengo isilaren oneritzi pasiboarekin ari da egiten, eta alderdi errepresentatibo gehienen bedeinkazio aktiboarekin. Kriminalizazioa, hitz batez, militante, marjinatu eta etsaiei dagokie (*Ibid.*: 30).

Borroka armatuari dagokionez, eta nazio zapalduenak alde batera, borroka «sozial» hutsera mugatuz, Alemanian eta inguruetan garatua internazionalista izan da: RAF alemana, goxismo japoniarra, CCC Belgikan eta *Action Directe* Frantzian:

> USA eta Israel-en aurka gogor kolpatu dute, inperialismoa ahuldu nahirik. Nolabait ere, gerra antiinperialistaren barnean sartzen ziren, Hirugarren Munduaren lehentasun iraultzailearen zerbitzuta .(…). Belgikan, Alemanian eta Frantzian oso isolatuak gelditu dira, herriarekin lotu gabe (…). Guztiz bestelakoa da Italiako kasua. Faxismo armatu eta militanteak bizirik dirau Penintsulan, estatuaren aparatuan konplizitate handia izanik. Honek motibatzen zituen militanteak armatzera. Hein batean, faxismoaren eta nazien kontrako erresistentziaren izpirituak eman die jarraipen historikoaren esanahia 1971n hasi ziren Brigatte Rosse-ei (…). Oro har, borroken esparru popularrarekin oso lotua egon da Italiako borroka armatua; momentu bizienetan, 10.000 aktibista ukan duela baieztatzen da. Haien artean, bi lerro nagusi. Batek Brigada Gorriak taldeak hain zuzen, Estatuaren kontrako borroka zuzena azpimarratu zuen, talde hierarkizatu eta guztiz sekretu batek eramana; Aldo Moro garbitzeraino heldu ziren; horien artean Renato Curcio eta Mario Moretti. Bigarren jarrera bat, Autonomia-rena dugu: borroka armatuaren eginkizuna gatazka sozialak erradikaltzea zen, herriaren protagonismoa nolabait indartzeko. Taldeak eta izenak ezagunak dira: Prima Linea, Oreste Scalzone, Franco Piperno, eta boterea kriminalizatu duten intelektualen artean Toni Negri. Esan gabe doa, bi jarrera horien kontrajarrerak Euskadin ETA eta Autonomoen artean izandako eztabaida gogoratzen digula (*Ibid.*: 31).

Zergatik egin du porrot? Gaitzespen etikoagatik, poliziaren errepresio basagatik, eta damutu eta mugimendutik bereizitakoengatik. Mugimendu barneko kritiko hauei buruz, Italiakora mugatuz:

> 1987an, hain zuzen, Curcio eta Moretti-k testu bat argitara dute. Egindakoaz ez dira damutzen, ez dituzte garai bateko ekintzak kondenatzen; baina oraingo Italian borroka armatu iraultzailea aurrera eramateko girorik edo baldintza sozio-politikorik ez dagoela, diote. Estatuari ez diote barkamenik eskatzen, baina odolaren garaia bururatzeko erabaki politiko batek errepresioaren zikloa itxi behar duela azpimarratzen dute.
>
> Denetariko erantzunak jaso ditu jarrera honek. Haiekin «Manifesto» inguruko militante batzuk (hala nola, Rossana ROSANDA), eta ezker muturreko azken intelektualak daude; gartzeletan, irreduktibleek (Prospero Gallinari bezalakoek) traizio berria dute salatzen; politika instituzionalean diharduten gehienek, borroka armatua hasieratik eta betiko ukatu eta kritikatu gabeko errendizioa baizik ez dute nahi.
>
> Gisa guztiz, borroka armatuari barrutik egindako kritikek praktika honen oraingo ahulezia erakusten digute (*Ibid.*: 35).

Arrazoi horiekin batean beste hau aipatzen du:

> Borroka armatuak disidentzia iraultzaile osoari egindako kalteez ari da ikuspegi hau: denen gainera ekarritako errepresioak libertate-esparruak mugatzen ditu, ekintza indiskriminatuek herriaren sinpatia aldentzen dute, eta, militante asko talde armatuaren zerbitzura ezarriz, beste eginkizunak ahultzen dira (…). Kritika honen arabera, talde klandestinoaren estrategiak estatuaren eta beraren arteko indar-erlazioa hartzen du kontutan bereziki; gainerako borroka guztien esanahia estrategia honen argitan ulertzen da, oinarri logistiko gisa edo ekintzen oihartzungileak bailiran. Hasieran, langileriaren edo masen ekintza autonomoak laguntzen saiatu ziren Europako talde armatu gehienak;

> emeki-emeki, gero eta gehiago desaxolatu ziren libertate-guneetan beren ekintzek izandako ondorioez, eta beren indar propioen arabera eta etsai poliziako-estatalaren puntu ahulenak hautatuz segitu zuten borroka osoa. Jarrera honek badu bere logika, taldearen iraupena eta sinesgarritasun militarrari so; baina erakundeak sortu eta hedatu zituen oinarri sozialari dagokionean, isolamendura ziren abiatu (*Ibid.*: 35-36).

Mugimendu sozialak: ekologia politikoa, feminismoa, bakezaletasuna, eta antimilitarismoa, ikasle eta arrazismoaren aurkako mugimenduari errepasoa eman ondotik, honela bururatzen du artikulua:

> Egoera historiko honetan, indibiduoaren errespetua eta libertateen defentsa bereganatzeko gauza izango den etika baten gainean eraikiko ez den jarrera iraultzaileak itxura monstruosoa hartuko luke, efikazia politikotik at eta ezkerrean nagusi diren sentimenduekin lotzeke.
>
> Baina moral dominantearen defentsa soilean ariko dena errepresioaren konplize izango da, eta zapalkuntza mantenduko du. Sistema zanpatzailea legitimatzera daraman kritikari traizio deritza (*Ibid.*: 43).

5. Ezker Abertzalearen estrategiaren analisia, eta negoziazioen nondik norakoena

Jakina da hiru elkarrizketa-prozesu nagusi egon direla ETAren eta Espainiako gobernuaren (eta euskal ordezkari politikoen, edo gabe) artean: 1989an, Aljerrekoa; 1998an Lizarra-Garazikoa, eta 2006an, Loiolako elkarrizketak. Horiek gertatzear edo gertatzen ari zirela, elkarrizketa-hotsak zabalduak zirenean edota elkarrizketetan zihardutela —haiek pribatuak edo publikoak izan— bere analisi eta gogoeten berri emanez joan da Lopez Adan; horietatik adierazgarriena jasotzen eta tolesten saiatuko gara hemen. Ezker abertzalearen estrategiaren analisia, eta negoziazioaren edukiei buruz egindako hausnarketa dugu xede atal honetan.

Larrun aldizkarian 1988an argitaraturiko idatzian, euskal gatazka anomiko gisa kalifikatu zuen. Zergatik zen gatazka anomikoa, jada 1988an, eta ez eraikitzailea? Anomiaz hauxe ulertzen zuen Lopez Adanek: egoera soziopolitiko blokeatua, gatazkak ondorio kaltegarriak ekartzen dituela, hots, norbanakoengan desmoralizazioa, eta gizarte-egituretan desantolamendua. ETAk ezin Estatua garaitu, eta Estatuak ezin ETA garaitu. Ezker Abertzale zabalaren aldetik —bera barne—:

> Gure aldetik, negoziaketaren nahia akiduraren aitormena da, estatua garaitzeko eta herri osoa gureganatzeko dugun ezinaren marka. Beraz, negoziaketak triunfalismoarekin uztartzea analisi ahula edo adar jotzea besterik ez da. Gauza bera gertatzen zaio Estatuari. Euskal errebolta eta haren abangoardia menderatzeko, errepresioa eta autonomia aski ez direla begi bistan gertatu eta gertatzen da. ETA ez da orain errenditzen ari, eta «terrorismoarekin akabatzeko» erabiltzen diren formula poliziako nahiz zibilen ahulezia nabaria da (Lopez Adan, 2012a: 60).

Handik laster *Argia*k egindako elkarrizketan (1989), gehiago zehaztu zituen negoziazioaren alde banatan eseri behar zutenek zituzten usteak eta asmoak, eta horienak ez ezik herri isilarenak. Espainiako gobernuak, hots, sistemak, EAJ barne, zioen, ez zuen negoziatu nahi:

> Espainiako gobernuak, sistemak alegia, euskal nazionalismo erradikala likidatzeko bota duen apustu nagusiak bi parte ditu: bata errepresioa eta, bigarrena, ETA-HB eta ezker iraultzailearen isolamendua. Blokeoa zentzu honetan egin nahi da. Eta aurrera doa: duela urte batzu oraindik, estradizioak eta honelako gauzak ematen zirenean, nazionalista jelkideak horien kontra ateratzen ziren arazoa konpontzeko irtenbide egokiak ez zirela adieraziz. Egun errepresioa goraipatzen dute, eta beraiek Euskal Herrian bertan ETA-Herri Batasuna isolatu nahi dute, hau bistan da udaletan batez

> ere. Beti bezala nahasten dute politikoen eremua herriaren eremuarekin, ez baitute lortu, oraindik, herria ETAren kontra eta sistemaren alde jartzea. Baina leku batzuetan herriaren parte bat mugitu egin dute ETAk egindako inozenteen kontrako hilketetan [1987an, Hipercor, 25 hildako; Zaragozako guardia zibilen kuartela, 11 hildako, bost haur], askotan herriak inozenteekin identifikatzen baitu bere burua eta ETAren kontra badoa. ETAren erru handia dira ekintza horiek, baina ez dute lortu herria indar errepresiboen edo zanpaketaren alde jartzea (*Ibid.*: 81-82).

ETA-HBn negoziatzeko nahia bai bazekusan, baina, zeritzon analisi desegokia zutela oinarrian:

> Beldur naiz analisia desegokia dela: momentu batez pentsatzen zen bazutela legitimitate eta gaitasun politiko nahikoa Herri Batasunaren ideia eta helburuak herri guztiari hedatzeko, eta negoziaketa gauza taktiko probisional bat bezala planteatzen zen azken helburuetara heltzeko. Ez dakit orain ulertuko duten ETA-Herri Batasuna, gauzak aldatzen ez diren bitartean, ez dela gauza herri guztia bereganatzeko eta mugiarazteko azken helburuetaraino. Zentzu honetan, negoziaketa inposatzen da bi arerioen azken helburuak lortzeko ezintasunaren ondorioz (*Ibid.*: 82).

Sozialistak negoziazioaren alde azaltzen ez baziren ere[41], gauzak alda zitezkeela zeritzon, eta negoziatzeko aukera Espainia osoko hauteskundeek eskain zezaketela. Protagonista eta edukiei buruz, honela marrazten zuen gertalekua:

> ETA-HB eta Estatuaren arteko negoziaketa zuzenetan sartu daitezke amnistia, legalizazioa, eta arrasto faxisten suntsitzea. Epea, laburra edo ertaina liteke.
>
> Nafarroaren arazoa bideratzeko, Hego Euskadiko instituzioak eta beste alderdiak beharko dira asoziatu. Epea, berriz, ertaina edo luzea.
>
> Autodeterminatzeko eskubidearen onarpen ofizial edo juridikoak, berriz, Konstituzioaren erreforma eskatzen duelako, Espainia osoari dagokio, eta oso epe luzean ikusi behar (*Ibid.*: 73).

Aferak ezberdindu eta gatazka-gai bakoitzerako epe ezberdinak ezartzean: errealismoz, posibilismoz eta zuhurtziaz ari zen. Garbi adierazten zuen epe luzerako afera zela, eta gauzak okertzen ez baziren, hurrengo hauteskundeen inguruan gauzatzen has zitekeela; eta, okertu oker zitekeela nazionalismo espainol intrantsigenteak ETAren errenditze soila exijitzen jarrai zezakeelako, eta ETAren

41. *Argia*ko elkarrizketan azaltzen zituen xehekiago sozialistek negoziazio politikoari ezezkoa emateko zituzten ikuspegiak: «*Alderdi horrek Estatu espainiarra Europakoak bezain modernoa egin nahi du, eta biolentziaren monopolio legitimoa daukala ez du dudarik (...) duen jarrera europar demokratikoarengatik, duen historiarengatik, bai eta ejertzito espainiarrari eta beste frankistei trantsizioan egin kontzesioengatik lotua delako, ezin du inolaz ere onar indar militarra duen mugimendu batekin berdintasun maila batetan mintzatuko denik. Gehiago dena, nazionalismo espainiarra berpizten ari da eta legitimitatea hartzen du terrorista separatistekin mintzatzen ez delako. Joko errealista da, baina joko horrekin ETA-HB likidatuko dutenik ustea ez da errealista. Euskal abertzale horiek ere badute bere legitimitatea eta bere oinarri sozial eta ideologikoa, Espainia batua eta haren oraingo oinarriak onartzen ez dituztenak*» 83.-84. or.

aldetik, negoziazio errealaren ondorioek helburu ideologiko eta estrategikoak garbiki ukatzen bazituzten.

Negoziazioak arrakasta izanez gero, alde on nabaria ikusten zuen: «*sufritzen dugun bortizkeria mota bat (ekintza armatuei eta beren errepresioari dagokiena) amaitzea*», eta alde txar bat ere bai, gure oraingo talaiatik harrigarria badirudi ere, ezkerreko ikuspegiarekin koherente, bestalde:

> (…) sentsibilitate ezkertiarrentzat oso ezkorra: egokitze demokratikoarekin desakordioan izango den ezker iraultzailearen kritika, ihardukitzea eta, ondorioz, HBren balizko jokaera errepresiboa. Hain zuzen, negoziazioak suposa ditzake erreformaren bururatzea eta HBren jokaera errupturistaren bukaera (epe batez, behintzat) (*Ibid.*: 74).

Elkarrizketa-prozesu hark, denok dakigun bezala, ez zuen arrakastarik izan, eta beste hau gertatu zen, Lopez Adanek berak iragarria zuena:

> Borroka armatuaren jarraitzea, denbora luzez, orain arte pairatu ditugun errepresioa eta isolamendua emendatuta; ez errendituko, ez irabaziko, borroketan jarraituko duen mugimendu herrikoi zabal eta amorratu batek ETAri emango dion sostenguarekin. Eta denbora berean, sufrimenduz ase den askorentzat, desilusio latzena (*Id.*).

1992an, Bidarteko atxiloketak gertatu ziren, Bartzelonako Joko Olinpikoak eta Sevillako Erakusketa igaro ere bai ezer gertatu barik, eta bi hitzetan esanda, 1978an ETAk eta ezker abertzaleak eraturiko estrategia politiko-militarrak onera ez baina txarrera egin zuen. Garai hartan Lopez Adanek argitaratu zituen idatzietatik atal honetan interesatzen zaigunerako adierazgarriena *Resiste*-n —Gasteizko ezker antiautoritarioaren aldizkaria— idatzitakoari irizten diot. Argi eta garbi adierazi zuen ETA protagonista nagusi zuen eredua agortua zegoela, Europako demokraziekin aski parekagarri zen Espainiako sistema demokratiko autoritario kapitalistaren aurkako borrokan, eta, nahitaez, aldaketak egin beharra zegoela. Honela azaltzen zuen ETAren borrokaren pertzepzioaren bilakaera:

> ETA hasta el año 1978 fue un actor importante del movimiento revolucionario en Euskadi, y el protagonista fundamental dentro del nacionalismo vasco. A nivel social en esa época ETA era el punto de referencia para una gran cantidad de gente, era también creadora de pensamiento y referencia global para saber lo que había que hacer incluso en los terrenos más civiles de la cultura o de la enseñanza. Desde 1978 y hasta el año 1987, ya no para el conjunto de la sociedad pero sí dentro de la resistencia, creo que ETA sigue como referente muy principal. Una cosa es ser protagonista en la fase ascendente de la revolución y otra ser la principal referencia dentro de la resistencia en los períodos de reflujo. Me parece bastante claro que, una vez que PNV se convierte en un partido del sistema y visto el carácter que iba tomando la reforma, ETA quedó como el referente principal de la resistencia y no del conjunto de la sociedad.
>
> Pero a partir del año 1987 [inflexio-prozesua, ez data bat; ekintza motari dagokionez, «Hipercor»; eta buruzagitzaren osaerari dagokionez, Txomin Iturberen heriotza, hots, «mili» zaharrak desagertzea, eta «bereziei» leku egitea] y cada día más, ETA se

> ensimisma, se mete dentro de sí, comunica solo con su entorno inmediato y hace cosas que solo comprenden y aceptan sus propios miembros y los que se identifican con ella, que son la gente del ENAM; a los demás nos plantea el problema de la solidaridad con los represaliados, pero cada vez es una solidaridad más difícil porque desde el MVLN se exige que sea una solidaridad ni humanista ni general, sino una solidaridad de aceptación de una determinada disciplina. Es bastante difícil, y ahí esta el ejemplo de Elkarri: cuando deja de ser un movimiento disciplinado dentro del MVLN, se las ve muy mal para que le reconozcan una mínima legitimidad como movimiento autónomo de apoyo a la negociación o incluso de simple solidaridad con los presos. Inteligentes le han sobrado al MVLN pare explicar que Elkarri es el ultimo cartucho del plan ZEN para debilitar a ETA…[42].

Zergatik defendatzen zuen ezker abertzalearen eredua agortua zela? Lehenik, erreferentzia ideologikoak agortu zirelako, bereziki, marxismo-leninismoa:

> a) Primero, por el agotamiento de las referencias ideológicas. Hemos hablado de varias, una es la marxista. El que se haya agotado la atracción del marxismo-leninismo parece clarísimo y es una cosa muy fastidiosa para la actualidad del pensamiento revolucionario, incluso para nosotros, los que no habíamos aceptado el modelo leninista ni el modelo soviético como modelos revolucionarios. Al considerar al socialismo real como un modelo de Estado represivo, su caída nos tenía que haber alegrado, pero como las referencias conceptuales, ideológicas y simbólicas de la gente son lo que son, la crisis del socialismo real se ha convertido en una crisis de la concepción global comunista. Entramos en una época de restauración contra-revolucionaria, y eso nos afecta a todos. Y a ETA en particular también. Y más aún por su carácter leninista.
>
> El marxismo-leninismo se ha ido al carajo y es muy difícil hacer tragar a la gente que el modelo leninista de vanguardia armada es un modelo eternamente válido. No es creíble que la lucha de Euskadi se integra en una revolución social internacionalista, porque simplemente ese movimiento internacional ya no existe (*Ibid.*: 180).

Gogora bitez honen aurreko atalean, «Marx eta iraultza»-n eta bereziki «Ezkerra Europan» artikuluan egindako analisiak. Bigarren argudioa: nazionalismo iraultzailearen krisia:

> El nacionalismo revolucionario, ya lo he dicho, suponía que un modelo leninista y nacionalista era automáticamente progresista. Visto lo que ha dado a nivel de crisis social en los países africanos particularmente, y visto lo que ha dado a nivel de dictadura sangrienta en montones de sitios, es muy difícil decir que esa receta vale. La receta se ha agotado. Queda el problema del nacionalismo puro, que ha estado siempre presente y que seguirá estando presente en ETA. Este nacionalismo sí que va viento en popa; en poco tiempo y en muchos sitios, por razones diferentes y de modos distintos, se han creado muchos estados-naciones nuevos. Además, en nombre del nacionalismo puro se puede hacer alusión a sentimientos que son eternos, como la diferencia entre nosotros y el extranjero, sentimiento primario que vale y ha valido siempre para juntar

42. Artikuluaren izenburua: «La estrategia de la izquierda abertzale», *ETAren estrategia armatuaren historiaz*-en jasoa, 157.-188. or. Aipua 179.-180. or.

> gente y hacer política. Esta claro que este tipo de nacionalismo no puede aceptarse sin crítica desde un punto de vista revolucionario, y es de desear que la larga tradición internacionalista del MVLN le haya vacunado contra una evolución de este tipo (*Ibid.*: 181).

Hirugarrena, berriz, ENAMek Espainiako Estatuan izandako trantsizioaz, oro har, izan duen ideiaren desegokitasuna, Europako politikaren benetako nondik norakoen berri ez izatearen ondorioz:

> La transición se describe, lo hemos dicho, como un cambio de máscaras de los poderes fácticos, todo ello aderezado por la influencia en el estado español del imperialismo yanqui. Ciertamente, el conjunto de los poderes fácticos españoles han sido servidores muy fieles y directos del imperialismo yanqui, pero que eso sirva para hacernos creer que la naturaleza del régimen es la dictadura militar o el fascismo, es muy insuficiente.
>
> Ese análisis hizo pensar y decir a ETA que Europa no aceptaría nunca a España si ésta no se democratizaba de verdad, o sea si no resolvía el contencioso vasco de una manera negociada. El análisis no era correcto. Primero, hay que considerar la cuestión siguiente: la homologación entre el modelo de democracia española y las formas de gestión política en Europa. Ciertamente, el español es un modelo especial, donde los militares tienen un sitio en la Constitución Española que no tienen en otras partes. Pero en el fondo es un modelo más de democracia autoritaria, que es el tipo de modelo que se está imponiendo en toda Europa. El modelo de democracia autoritaria es el de la sociedad dual, tanto a nivel económico-social como político. Para los que aceptan y se reconocen en el modelo democrático hay democracia y a los que no quieren o no pueden integrarse en el sistema se las da palo (…). España no ha tenido ninguna dificultad de fondo para ingresar en la peña (*Ibid.*: 181-182).

Laugarren arrazoia, nazioarte mailan planteaturiko arazoa:

> La penetración de España y su diplomacia en los países europeos y latino-americanos se acompañó de la crisis del trípode de apoyo a la revolución mundial del que ya hemos hablado anteriormente: los regímenes antimperialistas —el socialismo real— y el movimiento obrero organizado en las metrópolis. Si la cosa nos afecta a todos a nivel conceptual y si el asunto debilita la internacionalización de los movimientos sociales, a ETA le afecta muy profundamente en el plano puramente logístico. Había una relación de ayuda mutua entre los servicios secretos del Este, los movimientos de liberación nacional de corte leninista que llegaron al poder en el Tercer Mundo y la gente de ETA: Yemen, Argelia, Nicaragua, Cuba, en condiciones y proporciones que nos son desconocidas pero que podemos presumir reales, fueron escenarios de esos contactos (*Ibid.*: 183).

Eta, azkena, eta nire iritzian larriena, emaitza kaltegarriak baino ez zekartzan etengabeko gerraren, bereizkuntza gabeko ekintzen eta bozetan hautatu politikarien gaineko ekintzen eragina, euskaldun gehinenon pertzepzioan izugarri eraginkorra, eta horrekin batean, estrategia politikoa martirologioarekin nahastea:

> El último problema es el de la guerra prolongada en el País Vasco. Al convertirse, hasta cierto nivel, en terrorismo indiscriminado ha habido un desplazamiento de frentes y ETA se ha enajenado la simpatía activa e incluso pasiva de la mayoría de la población. Ciertamente, se puede tener razón casi contra todos, pero no se puede vencer contra todos (…).
>
> Cuando todo esto hace crisis, hay un elemento que toma o ha tomado la sucesión en las motivaciones de los fieles para seguir siéndolo. Ya no se trata de un convencimiento racional de las posibilidades de victoria, ya no se trata de un convencimiento estratégico. La fidelidad, la entrega, se refugian en el nivel afectivo, tal vez el más profundo e incombustible. Es cierto que hay gente que está en el exilio, que está en la cárcel, que está en clandestinidad. Esa gente merece más que un simple respeto. Pero cuando hay que estar con ellos tan a tope, dándole a la organización clandestina el monopolio de la fidelidad y de la dirección política, la cuestión se convierte en extra-estratégica. Han creado una confusión entre estrategia y martirologio (*Ibid.*: 183-185).

Horien guztien ondorioz, eredu estrategikoaren krisia nabaria zen 1995eko martxoan. Gauzak mugitzen ari ziren, *Oldartzen* txostenaren aldeko batek Lopez Adani esaten zion bezala, baina ez norabide onean:

> No se puede negociar… Esto quiere decir que se mantiene el mismo concepto de negociación que está en la base del primer modelo: la negociación no puede ser más que la primera victoria dentro de los pasos (democracia auténtica y luego estado vasco) de que he hablado antes. Una negociación en la que los poderes fácticos cedan, reconozcan la territorialidad y la soberanía y se la reconozcan precisamente al movimiento armado que es ETA, para que a partir de ahí los demás movimientos políticos y luego más abajo todavía los movimientos cívicos puedan concretar cuales son los pasos formales para poner en practica lo decidido por los poderes reales, fácticos, de un lado y de otro. Esto sí que es volver a empezar (…).
>
> ETA no quiere negociar de una manera realista, es decir admitiendo que hoy en día lo único que puede negociar no es la solución política general sino exclusivamente su propio porvenir: poner en un platillo el fin de la propia lucha armada y en el otro el problema de presos, exilados y de las formas más sangrientas de represión. Como por parte de los dos, ETA y estado, hay un bloqueo, creo que en ETA tienen razón, no pueden negociar… Pero, ojo, negociar se entiende así en un sentido muy estricto, como un paso estratégico para conseguir en Euskadi la victoria, y esto no tiene mucho que ver con la otra negociación la que sí era posible incluso en Argel, la que serviría para poner fin al período sangriento, doloroso y muy duro de la lucha armada de ETA.
>
> El segundo elemento es «incrementar la resistencia», es decir pegar fuerte donde hago más daño para que el enemigo ceda políticamente. La diferencia no es conceptual: hay ya un cambio de objetivos. Ahí esta el atentado a Gregorio Ordoñez, preludio de la adopción de la línea «Oldartzen». Hacer atentados sobre sargentos músicos no sirve para nada. Ahora, parece, van a pegarles a los políticos, una cosa que ETA militar no había hecho nunca, y cuando lo hicieron los Autónomos con Casas o cuando actuaron los polimilis contra UCD, hubo unas fuertes condenas por parte de ETA militar y sus sostenedores. Yo pienso que la idea de que el estado va a ceder con este tipo de acciones

> es tan falsa como la de que los militares iban a ceder cuando se iba a por ello (…).
>
> Luego está el punto de «apoyarse en los movimientos sociales». Parece que estamos en una época de apertura a los movimientos sociales, cosa positiva, pero nos encontramos que no hay ninguna crítica al papel dirigente del movimiento clandestino armado. Y así, la decisión autoritaria de volver a forzar a los movimientos sociales a situarse dentro de la estrategia global del MVLN es algo que nos puede volver a pasar cualquier día.
>
> Por tanto, la solidaridad con los represaliados del MVLN y la presencia unitaria con ellos en los movimientos sociales no pueden dejar de ir acompañados de una desconfianza sobre las sorpresas negativas que el autoritarismo nos puede deparar (*Ibid.*: 186-188).

Aipu luzea, baina nork ez du hor argiro islatua ikusi azken urteotan gertatu dena.

Hiru urte latz igaro ziren, ETAk Alderdi Popularreko Miguel Angel Blanco zinegotziaren bahiketa eta hilketarekin gailurra jorik, eta gutxien espero genuenean, 1998ko irailaren 12an sinatu zen Lizarrako Ituna, eta laster Garazin berretsi; eta, irailaren 16an ETAk su-etena eman zuen. Denok poztu ginen, eta, jakina, Lopez Adan ere bai:

> Vale la pena ver sonreír a la gente, sobre todo a amigos y compañeros. Después de la tregua de ETA y del documento de Lizarra, hay un ambiente eufórico. Aquí y allá te hablan de conversaciones políticas reanudadas en la calle o en el tajo, de reuniones de trabajo hasta ayer imposibles, de la apertura de una época de esperanza. Bonita coyuntura. Prever su duración es más difícil (*Ibid.*: 233).

Berak ez zekien ETAk zer hitz egin zuen jeltzaleekin, eta ez zekien jeltzaleek Madrilgo PPri zer kontatu zioten. Hipotesiak egitera eta balio-judizioak egitera ausartzen zen.

Lehenik, azpimarratzen zuen ETAk ausart jokatu zuela bere buruaren amaierari bidea ireki ziolako, lehenago egin zezakeela baina urrats erabakigarria eman zuela blokeo-egoeratik ateratzeko. Halere, ohartarazten zuen:

> Fijémonos en que no ha propuesto una «solución técnica», o sea, el abandono de la lucha armada a cambio de la amnístia; ETA le ha pasado el testigo a la sociedad civil como medio para conseguir los grandes objetivos de siempre, la autodeterminación y la territorialidad. Así, para ETA no hay ruptura estratégica, hay una adaptación, un paso en una línea de avance continuo que no se ha interrumpido nunca (*Id.*).

Baina hori bere oinarriei begira egindako diskurtsoa iruditzen zitzaion Lopez Adani, jende gehienak, are militante gehienek ere, «irtenbide teknikoa» espero zutelakoan zegoen, hots, borroka armatua betirako uztea, batetik, eta amnistia, bestetik.

Horretan itxaropentsu zegoen: «*La mayoría de Euskadi está por el final negociado de la lucha armada; es muy probable que la correlación de fuerzas obligue al gobierno a aceptar la amnistía*» (*Ibid.*: 234).

Beste puntua, Euskal Herria burujabetza-subjektu bakar gisa onartzea, urrunagokoa iruditzen zitzaion. Hasteko, EAJren laguntzari kontingenteagoa eta zalantzatiagoa zeritzon:

> El objetivo esencial del PNV es conservar el gobierno de la Comunidad Autónoma Vasca; su movimiento actual es una respuesta inteligente y hábil a la ofensiva social y política de las fuerzas españolistas, ofensiva que podría obtener la mayoría en el Parlamento Vasco. El PNV ha reactualizado sus consignas, las ha puesto en común con la izquierda abertzale y, facilitando una salida digna a ETA, ha creado las condiciones para el fin de la lucha armada. Va a recoger frutos electorales porque el deseo de paz es mayoritario y la oferta de paz con dignidad la única posible. ¿Y luego? Luego puede perfectamente volver a una política de colaboración entre poderes conservadores regionales y estatales, cosa que al fin y al cabo ha hecho hasta ayer mismo (*Id.*).

Hala eta guztiz ere, iruditzen zitzaion EAJn eta Lizarrako beste nazionalista batzuengan bermatu beharra zegoela amnistiaren borroka eta bakea duintasunarekin lortzekoa irabazteko. Orain autodeterminazio-eskubidea gauzatzeari zegokionez:

> Hay que apoyarlo en una política integradora basada en la defensa de los intereses de las clases populares. Necesitamos que la mayoría lo haga suyo, que se convenza de que la defensa de la personalidad nacional vasca va ligada a un cambio social progresista y posible. Esta base fundamental y constante no excluirá las alianzas con unos y con otros, y se construirá recentrándose en las luchas sociales. He ahí una lucha a largo plazo y que se puede ganar. Terminada la obsesión militarista, el sitio natural de los militantes de la izquierda abertzale es ese (*Ibid.*: 235).

Gaizki amaitu zen prozesu hura ere. ETAren proposamen politikoa zen: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako euskal herritarrek libre eta demokratikoki hautes-eremu bakarrean legebiltzar konstituziogile subiranoa hautatzea, eta handik konstituzioa sortzean armak alde batera uztea. Proposamen demokratikoa bai, errealista ez politikoki une hartan!: «*Bistan dena, gidoi «demokratiko» bat proposatzea ez da nahikoa besteek bete dezaten lortzeko. Herri abertzalearen aurrean «ondo gelditzeko» estakuru gisa, nahikoa? Behar bada bai, egileen ustez*» (*Ibid.*: 350).

XXI. mendeko lehen urteetan, Loiolako elkarrizketak ezkutuan gertatzen ari zirela, hamaika jende saiatu zen beste bake-prozesu bat abian jartzen: *Su-etenaren aldeko Ekimena taldearentzat* idatzi bat prestatu zuen 2006an.

Gisa denez, aurretik esandako zera asko berresan zuen. Dena den, ohartarazi zuen gatazkaren «irtenbide teknikorako» aukera agortzen ari zela:

> Luzez, ETAren inguruan zera pentsatu da: «negoziazio teknikoa», hau da, armak uztea amnistiaren truke, nahi denean eta nahi den bezala. Alta, hori (amnistia juzgatuak ez direnentzat eta indultu indibidualak besteentzat…) egia bazen Algerreko denborak arte, orain ez da gehiago horrela (…). Zergatik aipatzen dudan fenomeno hori? Bada, negoziatzeko zutik, armatua eta herriak sostengatua egon behar delako. Berriz, lurrean,

> desarmatua eta sostengurik gabe, ez da negoziaketa, errendizioa baino. «Negoziazio teknikoa» ere zail eta ez batere seguru bilakatzen ari da. ETA denbora luzez egon da negoziatzeko baldintzetan. Askoren ustez (gure artean bederen), oraindik horrela badago…Euskal Herriko jendarte zibila eta alderdi politiko abertzale eta progresistak konbentzitzen baditu (*Ibid.*: 372-373).

Hiru ohar hauek egiten zituen gatazka modu egokian bideratzeko:

> Ongi bereiztea ETAren etorkizuna eta Euskal Herrikoarena, ez nahastu bi arazoak. Alorren arteko harremanak badirela jakinda ere, negoziaketarena zentratu garai armatuen denbora bururatzeko borondateaz: duintasunez, baikorki eta era negoziatuaz.
>
> Abertzaleak eta ez-abertzaleak erakartzeko beharra. Finean, borroka armatuaren gainditze arrazionala nahi dutenek aurkitu behar dute alor komuna espainolismo militantearen mutilak isolatzeko eta biktimak izan dituzten alderdikideak baretzeko: alor horren hedadura politikoa estatu osoari dagokio, eta ez soilik komunitate nazionalista euskaldunari.
>
> Hasi-hasieratik, borroka handiagoa presoen eskubideen alde eta lege antiterrorista eta antidemokratikoak suntsitzeko. ETAk eta bere ingurukoek ere behar dute sinetsi bide egokian ari direla. Borroka horrek protagonismo herrikoi eta instituzional berezi, iraunkor eta indartsua behar luke (*Ibid.*: 376).

Azpimarratzen zuen, berriz ere, ETAren biktima zibilen erreparazioaren arazoari heldu beharra zegoela zintzoki, bestela, amnistia oztopatuko zuela.

Labur-zurrean, honela bururatzen zuen bere ekarpena su-etenari: ETAren inguruko modelo estrategikoa ahitua da, Madrileko M-11 bezalako bat jasanezina da, negoziatzeko garaiak bukatzen ari dira, ezker abertzalearen arrazoiak eta helburuak aurrera eramateko Lizarra-Garaziren esperientzia adoregarria da, eta: «*su-etena behar du euskal herriak, su-etena behar du ezker abertzaleak, su-etena behar dute presoek, sasitarrek eta marginatuek ere*» (*Ibid.*: 377).

6. Intelektualaren zeregina

2001ean horretaz artikulua argitaratu zuen *Jakin*-en. Hogeigarren mendean indarrean izandako intelektual-ereduei errepaso bat ematen die, eta *zilegitasunaren gidatzat* intelektual mota hau hartzen du: «*Herri xehearekin konpromisoan finkatu dena, aparatu politikoei buruz askatasuna begiratu duena eta boterearekin ados ez izateko gaitasuna bururaino atxiki duena*» (Lopez Adan, 2001a: 56).

Gauzak sinplifikatuz, J-P. Sartre intelektual unibertsalaren eredu bada, M. Foucault intelektual espezifikoarena izan liteke. Lopez Adanek Foucaulten ereduaren alde egin du artikulu honetan[43]. Hona, gurean, bereziki Gisèle Halimiren *Le procès de Burgos* liburuari hitzaurre famatua egiteagatik[44] maitatua izan den Sartreri buruz zer zioen:

> Marxismoan, ideologiak hartu zuen ezagutza eta etikaren lekua, eta intelektuala ideologo bilakatu zuen. Zorrotz etsaiei buruz eta kamuts alderdiarekin, intelektual organikoa nahastu zen intentzio onez beteriko «bidaia lagunarekin», zeina sobera akritiko bihurtzen denean «zozo erabilgarri» bukatzen baitu. Bere-berea zeukan nortasunarekin, Sartre-k eskaini zigun intelektual nahasi horren iduri luzeena (1940-1980): harentzat, intelektuala sartzen da behar ez diren lekuetan egia eta jarrera dominanteak kontestatzeko, eta hori pertsona eta jendartearen kontzepzio orokor baten izenean; nonbait, zapaltzaileekiko gorrotoak eta kontzepzio orokorraren egiak konpentsatzen dute edozertan nahasteko formakuntzaren eskasia. Sartre bezalako goi mailako intelektualengan jarrera horrek ondorio galgarriak izan ditu, eta desastre hutsa bilakatu da maila arrunteko funtzionario eta ideologoen eskuetan (2001a: 57).

Eta M. Foucaulten gainean, berriz, beste hau:

> Badira, berriz, beste manerak politikan sartzeko, profetismo ideologikotik aparte, eta independentzia eta zuzentasun intelektuala begiratuz. Haien artean bat arras argigarria, «intelektual espezifikoa». Foucault-ek, 1968ko segidan, eman zion gorputz teorikoa.

43. Sartre eta Camus kontrajarri zituen 1980an, eta Camus-en alde egin zuen; hemen, berriz, Foucaulten alde. Ikus 2. partea 5. atala.

44. Hona zati esanguratsuenetako bat: «*Ce que l´E.T.A. nous révéle c´est le besoin qu´ont* tous *les hommes, même centralisateurs, de réaffirmer leurs particularités contre l´universalité abstraite: écouter les voix des Basques, des Bretons, des Occitaniens et lutter à leurs côtés pour qu´ils puissent affirmer leur singularité concrète, c´est, par voie de conséquence directe, nous battre aussi, nous, Français, pour l´indépendance véritable de la France, qui est la première victime de son centralisme. Car il y a un peuple basque et un peuple breton mais le jacobinisme et l´industrialisation ont liquidé notre peuple: il n´y a plus, aujourd´hui, que des masses françaises*» (Halimi, 1971: XXX).

> Giroa alderdien aparatuen aurkakoa zen, eta batzuk ezker muturreko sektarismoan erori baziren ere, beste batzuek egin zuten dogmatismo ideologikoaren kritika intelektual zuzena, eta zientzia eta politikaren arteko harremanak zorrotz ikertu zituzten (*Ibid.*: 58).

Hona hemen M. Foucaultek, elkarrizketa batean, intelektual unibertsal eta espezifikoaren artean egindako bereizkuntza argia:

> Pendant longtemps, l'intellectuel dit «de gauche» a pris la parole et s'est vu reconnaître le droit de parler en tant que maître de vérité et de justice. On l'écoutait, ou il prétendait se faire écouter comme représentant de l'universel. Être intellectuel, c'était être un peu la conscience de tous. Je crois qu'on retrouvait là une idée transposée à partir du marxisme, et d'un marxisme affadi: de même que le prolétariat, par la nécessité de sa position historique, est porteur de l'universel (mais porteur immédiat, non réfléchi, peu conscient de lui-même), l'intellectuel, par son choix moral, théorique et politique, veut être porteur de cette universalité, mais dans sa forme consciente et élaborée. L'intellectuel serait la figure claire et individuelle d'une universalité dont le prolétariat serait la forme sombre et collective.
>
> Il y a bien des années maintenant qu'on ne demande plus à l'intellectuel de jouer ce rôle. Un nouveau mode de «liaison entre la théorie et la pratique» s'est établi. Les intellectuels ont pris l'habitude de travailler non pas dans l'«universel», l'«exemplaire», le «juste-et-le-vrai pour tous», mais dans des secteurs déterminés, en des points précis où les situaient soit leurs conditions professionnelles de travail, soit leurs conditions de vie (le logement, l'hôpital, l'asile, le laboratoire, l'université, les rapports familiaux ou sexuels). Ils y ont gagné à coup sûr une conscience beaucoup plus concrète et immédiate des luttes. Et ils ont rencontré là des problèmes qui étaient spécifiques, «non universels», différents souvent de ceux du prolétariat ou des masses. Et, cependant, ils s'en sont réellement rapprochés, je crois, pour deux raisons : parce qu'il s'agissait de luttes réelles, matérielles, quotidiennes, et parce qu'ils rencontraient souvent, mais dans une autre forme, le même adversaire que le prolétariat, la paysannerie ou les masses : les multinationales, l'appareil judiciaire et policier, la spéculation immobilière, etc. C'est ce que j'appellerais l'intellectuel «spécifique» par opposition à l'intellectuel «universel»[45].

Lopez Adanek Foucaulten ildoan, bi ondorio ateratzen zituen intelektualaren rolari buruz:

> Gure gaiari buruz, bi ondorio: hasteko, edozein adituk jakin beharko luke bere gai espezifikoaren ezagutza izan nahi badu, jendartearen bizitza sozial eta politikoan sartu egin behar duela, jakintzen oinarriak eta mugak ulertzeko; gero, politikan eragina izan nahi badu, aipatuko eta salatuko dituen arazoen ikertzeko bere alor propioan bildu metodologia eta zurruntasuna erabili beharko ditu (2001a: 58).

Urrun gaudela, zioen Lopez Adanek, ideologia batek argiturik edozertaz mintzatzera ausartzen den profetarengandik, eta egiaren exijentziak berak urruntzen

45. Entretien avec Michel Foucault-etik. Hona esteka: <http://1libertaire.free.fr/MFoucault133.htm>.

duela intelektuala boterearen zerbitzutik. Eta horren erakusgarri jartzen zuen Carlo Ginzburg-ek Adriano Sofri-ren kasuaz (*Il Giudice e lo storico,* 1991) egindako ikerketa:

> Justiziaren eta boterearen metodo inkisitorialak salatuz, ondorio politiko orokorrak atera ditu, eta ez dogma batzuen jabe delako, baizik eta bere alorreko metodologia era zuzen eta konprometituaz aplikatu diolako justiziaren funtzionamenduari. Edozeinek badu ere injustizia salatzeko eskubidea, kausa on bati eransten zaizkion arrazoi txarrek ez diote onik egiten, eta intelektualen eginkizuna lotua da exijentzia metodologiko eta logikoen erabiltzearekin (*Id.*).

Intelektualaren figura, baina, gainbeheran zekusan. Zergatik zihoan gainbehera? Bata, irudiaren eta publizitatearen gizartean bizi garelako eta ez liburu eta artikulu idatzien; baina, horretaz gain, hiru arrazoi azpimarratzen zituen: ilusio iraultzaileen porrota, akademizismoaren tentaldia eta kontserbadurismo berria.

Lehenbizikoari dagokionez, gutxi gorabehera Alexandre Soljenitsin-en *Gulag artxipelagoa* gurera heldu zenetik (1974) marxismoak behera egin du. Hogeita hamar urtez, Frantzian depurazioak eskuin muturreko intelektualak erail zituen unetik, ondoko estatuetan marxismoa izan zen intelektual engaiatuen erreferentzia nagusia:

> Metodo zientifiko gisa, etorkizunaren promesa bezala, eta ekialdeko estatuen sostenguarekin eta sostengurako. Bakoitzak marxismoa ulertu zuen bere moduaz, baina gehienek sistema orokor bat bezala; giro horretan hedatu zen Euskal Herriko pentsaera aurrerakoi ezkertiarra. Gure belaunaldiarentzat, Raymond Aron eta beste intelektual eskuindarrak kontraeredu isolatu eta zokoratuak ziren, eta pentsalari iraultzaileei egiten zizkieten kritikak (Aronen beraren L´Opium des intellectuels 1955ekoa da) ez ziren kontuan hartzen (…) bururaino joan nahi zuten intelektual batzuek, independentzia politikoaren zentzua arrunt galdurik eta bide laburretatik justizia lehenbailehen ekartzeko, botere armatuarekin eta diktadurekin egin zuten topo, eta onartu. 1960-70eko urteetan, intelektual anitzek erakutsi zuten botere bokazio oso handia; batzuek diktadura komunista edo antikolonialisten apologia akritikoa egin zuten, komunismo sobietarraren bidaia-lagunen ildotik; beste batzuek borroka armatuan parte hartzea hautatu zuten, usu balore moralen zanpaketa onartuz kausa handiaren zerbitzuko. Modelo horien hutsegite estrategikoak eta hondamendi moralak ekarri zuten krisia, orain arte iraun duena (*Ibid.*: 59-60).

Artikulua idatzi zuen garaira etorriz, hots, XX. mendearen amaierara, estatu komunisten gehiegikeriak ez ziren aurkezten anarkistek salatutako hutsegite antiautoritarioen ondorio gisa, baizik eta utopia askatzaile guztien ondorio nahitaezko diktatorial bezala. Horri erantsi behar zitzaion azken estatu komunistek ekonomia kapitalista onartu dutela eta komunismotik bere horretan atxiki dutena alderdiaren diktadura izan dela, eta horrez gain, mugimendu sozialen ahultasunak ez duela alternatiba iraultzailerik ekarri, eta zirkunstantzia horiek guztiak baturik, «intelektual organikoa» bermalekurik gabe umezurtz gelditu zela.

Akademizismoaren loraldiari doakionez, Estatu Batuetatik dator. Noam Chomsky eta Murray Bookchin, eta oso banaka batzuk kenduta —Bookchin 2006an zendu zen—, gehienek akademizismora jo dute, sistemak berak ere hartaraturik:

> Alternatiba iraultzailearen gabeziaz, intelektual zintzo batek pentsa dezake lekurik ez duela politikan; egia sektorialaren bila ibiltzen ahal da, bere ikerketek jendartearen ulermen kritikoari zerbait ekarriko dioten esperantzarekin (…).
>
> Unibertsitatea masifikatu da, genio ukiezin gutxi bada, eta irakasleak behar dituen fondoak eta foroak botereak kontrolatzen ditu. Oro har eta kasu gehienetan, kanpoko sostengu eta praktika kontestatariorik gabeko funtzionarioa lerratuko da lankideen arteko bizitza akademikora, edozein subertsiotik aparte (*Ibid.*: 61).

Kontserbadurismo berriaz den bezainbatean, zioen, ikuspegi intelektual iraultzaileen krisia estatuaren legitimazioaren eskutik zihoala, eta Mendebaldeko balio demokratikoen eta ekintza humanitarioen defentsarekin bat.

> Aldakuntza sozial eta geopolitikoen ondorioz, 1980tik aurrera intelektuala ez da gehiago estatuaren etsaia. Estatu espainolean, trantsizioak berak erraztu zuen eboluzioa, frankismoaren arerioak demokraziaren sostengu bilakatuz. Baina arazoa orokorra da: nabaria Latinoamerikan (…) duela hogeita hamar urteko iraultzaile sutsu askok parte hartzen du aparatu estatal berrietan. Berdin Mendebaldeko Europa, sozialdemokraziaren arrakasta elektoralaren inguruan (…). Omen, globalizazioaren eta multinazional kapitalisten aurka, estatuak begiratzen ditu nortasun nazionala eta jende xehearen defentsa. Omen, estatua ez da gehiago klase nagusien tresna, askatasunaren bermea baizik. Esperantza iraultzailearen krisiarekin uztartzen bada ere, bilakabide hori intelektualen alde arriskutsuenarekin lotzen da: ministroen kontseilari bilakaturik, boterea gurtzen eta baliatzen dute, errealitatea haren alde mozorrotzeko (*Ibid.*: 62).

Horrela, bi intelektual mota hauek gora eta gora egiten dute: 1. Hedabideek sortutako intelektual mediatikoak «*usu azalezkoak, opinio sortzaileak eta, beraz, lekua dutenak botereen interesen arabera»;* eta 2. Gobernuek eta enpresek onartutako aditu bereziak, botere politikotik hurbilago direnak: «*beren burua definitzeko, beraiek diote ez direla gehiago "intelektual kritikoak", baizik eta "proposamenak ontzeko intelektualak"»*.

Aurreko horietatik bereiz gelditzen dira, berriz, zokoratuak eta mespretxatuak, usu anakroniko eta alfertzat joak: intelektual kritikoak.

Orduraino azaldutakoa laburbildurik zioen ezen ideologia nagusiaren arabera, garaian garaikoa izan nahi duen intelektualak onartu behar duela historia, iraultza eta intelektualak bukatu direla; baina, badirela bestelako ikuspegiak (Derrida, Castoriadis, Baudrillard, Bourdieu), eta haien guztien desberdintasunak gorabehera, denek azpimarratzen dutena dela boterearekiko harreman kritikoa izateak duen garrantzia. Ildo horretatik, hurrengo urteetan planteatuko den galdera hauxe da: «*zer eduki emanen diogu egite kritikoari kapitalismoaren ordezko alternatiba argirik ez dugun bitartean? Horra politikaren zailtasuna eta horra intelektualen*

lana, alternatiba horren bilatzeko erreboltatuen esperientzietan finkatu behar baita etengabe» (*Ibid.*: 66-67).

Galdera horri erantzun nahian, garbi ikusten zuen Lopez Adanek pentsaera iraultzaileak bilatu behar duela sistema kapitalista nola hautsi, nola arrakalatu, eta hor kritika antiautoritarioa egiteaz gain, garrantzi handia eman behar zaiela norbanakoek eta elkarte txikiek egiten dituzten autonomia-saiakerei:

> Hots, politika hurbilaren kudeaketa ekologiko eta demokratikoarekin lotu, globalizazioak sortu gurpil eroari uko egiteko, eta hortik abiaturik: «Ahuleziaren sentimenduak hurbiltzen gaitu Giddens bezalako sozialdemokratengana, John Rawls bezalako liberalengana edo Bobbio bezalako arartekoengana, baina beti posible iruditzen zait Foucault eta Ginzburgen bidetik jarraitzea Gramsci berpiztu eta libertario aurkitzeko esperantzarekin. Zergatik ez?» (*Ibid.*: 67).

7. Literatur erreferentziak eta intelektual hurbilak

Honen aurreko atalean ikusi dugu J.-P. Sartre bainoago M. Foucault hartzen zuela erreferentzia gisa intelektualaren papera zehazteko orduan. Lopez Adanek hanhemenka idazle eta testu anitz hartu du aiputan, goresteko eta gaitzesteko. Atal honetan mugatuko gara beraren prestakuntza intelektualerako axolazkoak izan ziren idazle eta idatzi banaka batzuk aipatzera, eta Txillardegiz eta Mirandez badituenez artikuluak idatziak, haiek ere iruzkinduko ditugu, hartara, erabat harturik, erreferentzia izan dituenen ikuspegi orokor samar bat eman dezagun.

Hasteko, anarkista aintzindarien artean Bakunin[46] eta Kropotkin nabarmendu behar dira; batez ere Kropotkin, eta haren idatzien artean gehien markatu dutenak *The Great French Revolution* eta *Mutual Aid,* eta etikari buruz idatzi zituenak; etikari buruzko liburua idazten ziharduela hil zen.

Frantziako Iraultzari buruzko liburuan garrantzi berezia ematen dio Kropotkinek laborariek eta Parisko hiritarrek izan zituzten ekimenei feudalismoa errotik erauzteko, nahiz eta gero lan hartaz burgesak profitatu. Elkarri emandako laguntzaz ari den liburuan, berriz, Darwinek eta bereziki haren epigono Huxley eta Spencerrek azpimarratzen zuten ezen bizimodua ateratzeko borroka zela nagusi espezien bilakaeran eta hautespen naturalean, eta ez elkarri emandako laguntza; eta

46. Honako liburu hauek: «Archives Bakounine, publié pour l'Internationaal Instituut voor Sociale Geschiedenis d'Amsterdam, par Arthur Lehning, 1961-1981, 7 volumes (le premier en deux tomes), éditions E.J. Brill, Leiden. Réimpression en 8 volumes reliés sous le titre Œuvres complètes aux éditions Champ libre, fonds repris par Ivrea, 1973-1982. Réimpression des volumes II, III, IV et VII aux éditions Tops/Trinquier (2003). Dans la numérotation de l'édition originale : Volume I (1) - Michel Bakounine et l'Italie (1871-1872). La polémique avec Mazzini.; Volume I (2) Michel Bakounine et l'Italie (1871-1872). La Première Internationale en Italie et le conflit avec Marx; Volume II - Les conflits dans l'Internationale (1872); Volume III - Étatisme et anarchie (1873); Volume IV - Relations avec Serge Netchaïev (1870-1872); Volume V - Michel Bakounine et ses relations slaves (1870-1875); Volume VI - La guerre franco-allemande et la révolution sociale en France (1870-1871); Volume VII - L'empire knouto-germanique et la révolution sociale (1870-1871)». Bere prestakuntzan axola izan zuten beste antologia hauek ere erabili zituen: Fédéralisme, socialisme, antithéologisme, L'Âge d'homme, 1971. // La liberté. Choix de textes, J.J. Pauvert, 1969. // Le socialisme libertaire, Denoël, 1973 . Eta biografiak: Henri Arvon, Bakounine. Éditions Seghers, collection Philosophes de tous les temps, 1966. // Fritz Brupbacher, Bakounine ou le Démon de la révolte, Édition du cercle, 1971.

Eta Daniel Guérin: *Pour un marxisme libertaire*, Paris, Laffont, 1969. Liburu honek eragina izan zuen Bruselan erbesteratuak zeudenen artean, marxismoaren hoberena anarkismoaren askatasunzaletasunarekin ezkontzeko, nahiz laster ilusio horiek aienatu.

Kropotkinek, alderantziz: borrokarena ukatu gabe, elkarri laguntzearen garrantzia azpimarratu zuen.

Hona Kropotkini buruz Lopez Adanek adierazitako ideia batzuk:

> Kropotkinen pentsakera originala da. Lehendabizi, oinarri zientifikoa erantsi nahi dio anarkismoari; bigarrenik, garrantzi handia ematen dio elkar-laguntzari; eta hirugarrena, etika eta moralari ematen dien inportantzia nabarmenduko nuke, Estatuaren eta errepresioaren aurka batez ere (…).
>
> Ekintza zuzenen aldekoa zen gaztaroan. Gero, zahartzaroan, hainbeste mendek ezarritako zapalkuntza ezin zela ekintza batzuekin soilki lehertu pentsatzen zuen. Ez zuen, alabaina, Estatuaren kontra borroka armatuaren bidez jotzea kondenatu. Gizateriaren etsai nagusia eta komunismoaren oztopo nagusia Estatua dela uste baitzuen, haren kontrako borrokan aritu zen bizitza osoan (…).
>
> Espero zuen komunismo libertarioari esker ez zela inoiz gehiago gainontzekoei bere borondatea inposatuko zien aginterik, ez eta pertsonen gaineko beste norbaiten gobernurik ere, are gutxiago gobernu iraunkor mugi-ezinezkorik. Etengabeko bilakaera irekian sinesten zuen, naturan bezalakoa, aldian arinagoa, aldian motelagoa (Lopez Adan, 1992d).

Nazio-estatuaren kontzeptuaz beste anarkista baten liburuak, Rudolf Rockerren *Nacionalismo y Cultura* deritzanak, gogobete zuen gehien. Honela dio *Biolentzia politikoaren memoriak* liburuan:

> Bestalde, Belgikan zeuden anarkista nafarrei esker federalismoaren tradizioa hobeki ezagutzeko eta Abad de Santillanek itzuli klasiko handia, Rudolf Rocher-en Nacionalismo y Cultura irakurtzeko parada izan nituen. Oro har, zeruertzeko zabalkunde handia, nazioaz Stalinen kontzeptuen inguruko eztabaida errepikatuetatik ateratzeko behar genuena (Lopez Adan, 2014a: 45).

Memoria-liburu horretan bertan kontatzen du aurreraxeago Belgikako *Gatazka* taldeak izen bereko aldizkariaren bigarren alea atera zuela 1971n. Ale horren amaieran Lopez Adanek idatzitako artikulu bat dator: «¿Acumulación primitiva o Colonización»:

> Gaiak:industriagintza, burgesiako taldeen arteko kontradikzioak, estatu boterean noiz eta zertarako parte hartu zuten euskal oligarkek. Ondorio nagusi bat ateratzen nuen, aldi hartan fermuki: foruen deuseztatu zuen koalizio politikoak ez zuela inongo bokazio nazional euskaldunik. Estatu irabazleak sortu zuen nazioa, espainol hutsa zen. Rocker-en eragina ez zen aipatua, baina bazen: haren ustez, gauza bat dira populuak eta beste bat nazioak; nazio-estatuak, gehienetan, Estatuek sortuak dira kultura nazionalen eta herrikoien mespretxuz (*Ibid.*: 50-51).

Beste literatur erreferentzia garrantzizkoa Victor Serge: Boltxebismoaren degradazioa eta haren gehiegikeriak, errepresioa eta krimenak salatu zituen *Memoires d´un revolutionnaire, 1901-1941* liburuan. Sergek Gulag-a bizi izan zuen, eta azkenean haizatua izan zen bere sorterri Errusiatik.

Beste estatubatuar anarkista erreferente bat Murray Bookchin zen. Bereziki *Toward an ecological society* eta *The politics of social ecology/ Libertarian municipalism*. Ekologia sozialaren aitzindari izateagatik, munizipalismo libertarioaren defendatzaile, eta Amerikako eta Europako anarkismoaren indibidualismoa inork baino zorrotzago kritikatzeagatik da famatua. Aztertu eta zalantzan jarri zituen zibilizazio industriala kritikatzen zuten korronteak: primitibistak, neomistikoak eta indibidualistak (haien figura nagusietakoen aurka eginez: John Zerzan, David Watson edo Hakim Bey); akusatu zituen osagai soziala eta antolakuntzakoa galdu izanaz —eta, hortaz, iraultzaile-izaera ere—, sarri askotan jarrera nihilista postmoderno bilakatzeko edota, okerrenean, aberaskilo exkertiarrentzat soil-soilik kontsumorako gai.

Galdera hauek planteatzen zituen: anarkismoak jarraituko al du jendarte-mugimendu iraultzailea izaten ala modako azpikultura izatera helduko da?, haren helburu nagusiak jarraituko al du izaten jendarte hierarkiko, klasista eta irrazionala erabat eraldatzea eta jendarte komunista libertarioa bilakatzea, ala ongizate pertsonalean, erredentzio espiritualean eta autorrealizazioan zentratuko da dagoen jendartearen baitan?

Beste erreferente bat, beraren utopia definitzeko orduan axola handikoa: Ernst Bloch, eta bereziki hark Thomas Münzer teologo iraultzaileari buruz idatzitako liburua:

> Utopiari eman nahi izan diodan lekua Ernts Bloch-en bidetik doa. Thomas Münzer-i buruz idatzi zuen liburuak sakonki markatu ninduen gaztea nintzelarik. Bloch-en utopiak ez du zentzu esturik —amets bat egin duzu, eta amets hori lortu ezin daitekeen ametsa da—, eta oraingo jendartearen atzean dagoen fruitu posiblea ekartzeko borondatea dakar. Utopiak, dagoena kritikatzeko gaitasuna ematen dizu beste erreferentzia batzuk dituzulako; eta, denbora berean, hara heltzeko bide etiko eta humanistak eskaintzen dizkizu. Esate baterako: «Halako edo bestelako askatasuna nahi dut; eta hori lortzera joko dut, baina hori lortzearren ez dut onartuko zapalkuntza ekartzen duen biderik». Hori da ideia, gutxi gora behera. Beraz, nahikoa utopia zehatz eta apala da. Esan nahi dut, ez dela poetaren utopia absolutua (…). Nirea —onar dezadan— burges ttipiaren edo dendariaren utopia da, urratsak ondo neurtuz egin beharrekoa (Agirre, 2003: 101-102)[47].

Beste erreferentzia garrantzitsuak, batez ere *Terrorismo eta biolentzia iraultzailean* aipatuak: Günther Anders[48], G. Orwell[49], A. Camus[50].

Literatur erreferentzia garrantzizko izan zituenetik, ezagutu eta hein batean maisu, eta neurri batean gogaide eta burkide izan zituenera etorriz, euren arteko alde nabarmenak gorabehera: F. Krutwig, M. Legasse, Likiniano…

47. Zehazki, liburu horren edizio hau irakurri zuen: *Thomas Münzer, teólogo de la revolución*, Madril, Ciencia Nueva, 1968.

48. Ikus 2. partea 3, ETAren bilakaera, eta bigarren partea 4,1978ko urriaren 28ko manifestazioa.

49. Oroit *Euskadi 1984* liburu profetikoa.

50. Ikus 14.4. Sartre Camus-en aurka: Iraultza ala Errebolta.

Ideologikoki urrunxeagotik, baina 60ko hamarkadaz geroztik ikuspegi euskaltzale-abertzaletik aski hurbil Txillardegi.

Eta politikoki antagoniko Mirande.

7.1. F. KRUTWIG

Testu honen lehen partean, Krutwigen aipamenek multzo mardula osatzen dute, ideologiari eta pertsonalismoei lotuak haietatik anitz. Hemen, ostera, puntu batzuk jasoko ditugu, eta zenbait zati errepikatuko ere ezinbestean. Argitara eman duen azken liburuan, *Biolentzia politikoaren memoriak*, haste-hastetik daude Krutwig eta Txillardegiren aipamenak, biak ala biak erreferentzia zituen seinale. Krutwigi doakionez, 1967tik 1973ra bitartean hortxe nonbait, harreman pertsonal aski usua egon zen Lopez Adan eta Krutwigen artean —eta Txillardegirekin ere, aurrerago jasoko dugun gertaerak salatzen duenez—, bereziki Bruselan biak erbesteraturik zeudela, eta ideologikoki eragin zion Lopez Adani beste askori eragin zion bezala, ideia iraultzaileak boladan egon ziren urte giltzarri haietan.

Krutwigen nortasunaren alde bereziak gorabehera, egun ere figura handitzat dauka Lopez Adanek.

Getarian ezagutu zuten elkar ETAren V. Biltzarraren bigarren zatian (1967). Ordurako Krutwigek argitaratuak zituen bi testu garrantzizko: *Vasconia* (1963) eta *La cuestión Vasca* (1965), eta aipatutako V. Biltzarrean aurkeztu ziren bi txostenetatik batean *Informe Verde* izenekoan parte-hartze handia izan zuen. Baina V. Biltzar giltzarri hartan nagusitu zena beste txostena izan zen, Jose Antonio Etxebarrietak, Txabiren anaiak, idatzitako *El Informe Chatarra*. Lopez Adanek gagozkion memoria-liburuan honela dio txosten berdea delakoaz:

> (…) aita eta ponteko anitz bazituen. Belgikan erredaktatu zen; Julen Madariagak bere izena ematen du idazleen buru[51], Krutwigek esan zigun berea zela eta, beti Krutwigen arabera, Eskubik gero manipulatu eta propio bezala aurkeztu zuela. Jatorrian zituen 1966ko udaran Belgikako Piétrain-en bildu ziren herbesteko abertzale marxista-leninistak. Hasteko, formakuntza batendako, Ernest Mandelen eskutik: han ziren Krutwig, Madariaga, Eskubi, Bareño, Txato Agirre, Mikel Azurmendi, Joxe Mari Matxain. Gero, Erakundearen bidea zuzentzeko eta, Txosten Berde hori lan kolektibo bezala agertu zen. Bosgarren Biltzar Nagusiaren bigarren partean onartuko zen ideologia ofizialaren oinarria, bera (2014a: 10).

Krutwigen izaeraz poxi bat esaten du pasadizo horrek. Segur aski txostenaren zatirik handiena berak idatziko zuen, beste guztiak batera baino ohitura gehiago zuelako idazgintzan, baina esan ere egingo zuen berak idatzi zuela, ez zen apaltasunez

51. Antoni Batistak egin zion elkarrizketa jasotzen duen liburuan bai: *Madariaga. De las armas a la palabra*, RBA, Barcelona, 2007, 120 or.; baina Julen Madariagak berak idatzitako liburuan (*Egiari zor*, Erein, 2014, 142 or.) kontatzen du talde-lana izan zela txosten hori, eta *El Informe Verde* izena jarri ziotela paper berdean mekanografiatu zutelako, eskura beste euskarririk ez izaki une hartan.

edo besterik gabe taldea estimu handitan zuelako taldetasunean ezkutatuko edo lausotuko.

ETAn sartuak ziren ezkertiar espainolisten ildoari aurre egiteko (Iturrioz, eta beste dozena bat inguru; V. Biltzarrean kanporatuak) Txillardegik Belgikan *Branka* aldizkaria sortzean, Krutwigen artikulu luze bat agertu zen bertan: «Nacionalismo revolucionario» izenburupean. Artikulu horretatik honako puntu hauek nabarmentzen ditu Lopez Adanek:

> Krutwigek salatzen zituen Alderdi Komunista espainol eta frantsesen «errebisionismoa» eta marxismo sobietar motza, eta asko aipatzen zituen Lenin eta Mao-Tsetung. «Errebisionismo» termino pean 1956tik honaino sobietarren politika osoa arbuiatzen zen, kapitalismoarekin bizikidetza baketsuan eta inperioko iraultzaileen zapalketan finkatua. Bere konklusioetan, Krutwigek erraten zuen estrategia iraultzailea kasu konkretuen arabera aplikatu behar zela eta, gure herria kolonialismo pean izanik, estrategiak bildu behar zituela kontradikzio bizienak, elkarri indar emaileak: euskara, sozialismoa, aurrerakoitasuna, jabego soziala eta euskal kultura, irtenbide original eta orokor baten bila (…). Oro har, abertzaletasunaren eta sozialismoaren arteko harremanetan, ETAn behin eta berriz itzultzen zen oinarrizko tema bat hauxe izan da: ez dela gauza bera zanpatzaileen nazionalismoa eta zanpatuen abertzaletasuna.
>
> «Non lotzen da Nazionalismo Iraultzailea? Euskal Etnian. Zer da Euskal Etnia? Jendeen komunitate bat da, inguruneari erantzun kultural berezi eta espezifikoak sortu dituena. Sistema kultural horren oinarria hizkuntza da, euskara; hizkuntza garrantzi handiko lan azpi-egitura da. Nazioa: Etniaren eduki objektiboak garatzen direnean, nazio bilakatzen da. Zanpatua den etnia batek egoera horren kontzientzia hartzen duenean, zinezko nazio kontzientzia garatzen du.
>
> Herria (populua): Komunitate nazionalaren atal zanpatua da. Orain, Estatu frantses eta espainolen azpian, herria euskal nazio osoa da. Estatu horiek oligarken zerbitzuko dira, eta oligarkia horietan guztiz integratua dago euskal jatorriko oligarkia, objektiboki zanpatzaile eta atzerritarra».
>
> Biltzarreko kontzeptu horietan ere nabaria da Krutwigen eragina. Ez zuen hark asmatu nazioa «kontzientzia politikoa duen talde etniko zabala» dela, baina gure kasuari garbi aplikatu zion teoria, bai *Vasconia* (1962) eta bai *La Cuestión Vasca* (1965) liburuetan (*Ibid.:* 14-15).

Horra, bada, Krutwigen eragin ideologiko ezin ukatuzkoa.

Testu honen lehen partean aditzera eman dugun bezala, Belgikan erbesteraturik zeuden etakideen artean bi buruzagi zeuden Lopez Adanen arabera: Madariaga eta Krutwig.

ETAren barneko militanteen eta Belgikako kanpoko federazioaren artean harremanak zailak izan ziren, ulertzeko aski errazak diren arrazoiengatik. Besteak beste, barnekoentzat, errepresiopean, kanpotik zebiltzanek ezin zuten lerro ideologiko nagusia ezarri, barnekoek izan behar zuten nagusi; Belgikan zebiltzanentzat, aldiz,

irakurtzeko eta elkartzeko aukera gehiago zutenak beraiek ziren, eta zergatik izan behar zuten arrazoi gehiago, hiltzeko, torturatzeko edo kartzelaratzeko aukera gehiago zeukatenek.

Garai hartan preso zegoen —frankismoan kartzelan urte gehien egin zuen etakidea— eta ideologo eta txosten-idazle garrantzizkoa zen Jose Luis Zalbide *Zunbeltz*-ek «Hacia una estrategia revolucionaria vasca» izeneko testua idatzi zuen *Iraultza* 6-an:

> Krutwigek oso iritzi txarra hartu zion puntu estrategikoez, eta niri txokatu zitzaidan euskal burgesiaren formazioaz eta kapitalaren oinarrizko metatzeaz ematen zituen baieztapen historiko eta ekonomikoak (…). Gure argudioak (ere!) oso teorikoak eta nahiko luzeak izan arren, Krutwig eta biok ados ginen abiapuntu batean: Bosgarren Biltzar Nagusian aplikatu analisi marxistarekin hausten ari zela, Frente Nazionalari lotu dinamika osoaren ordez beste zerbait ekartzeko. Iraultzari Kritika bat idatzi genuen, lagunen artean banatu, eta Exekutiboari igorri, bide ofizialetatik. Ez zen ideia ona izan eta laster etorri zitzaigun errefera.
>
> 1969ko otsailean eta Krutwigi isil-gordeka egin zizkioten grabazio nahasien interpretazioaren bidez, konplot bat «deskubritu zen» Belgikan eta Exekutiboari salatu. Akusazio nagusia: komunista txinatarrekin harremanak izan genituela alderdi marxista-leninista berri bat muntatzeko. ETAri konkurrentzia eginen zion alderdia. Akusazio osagarria (hain segur nagusia): ez zela onargarria militanteen artean kritika bat banatzea, Exekutiboaren baimenik gabe (*Ibid.:* 26-27).

Harreman txar horien katean, 1970eko udan egin zen VI. Batzarraren aurka altxatuko ziren *Bosten Agiria* sinatu zutenak. Baina, hori baino lehenago, kontatzen digu Lopez Adanek Krutwig Erromara joan zela 1969an, baina, grafomano handia izanik, jarraitu zuen Belgikako haren ondoko militanteekin gutun-harremanetan.

> Dialektika zer zen esplikatu zigun behin baino gehiagotan. Kontradikzioan garrantzitsuena ez da orain handi baina behera doan terminoa, baina txikia izanik etorkizuneko bidean dena (*Ibid.:* 31).

Garbi ikusten da ideia aldetik ikaragarri oparoa zela Krutwig, hara eta hona jotzeko kupidarik ez zuena ere bai —txinatar enbaxada— eta erreferente bat zela. Baina ez espiritu kritikoa lausotzeraino, eta ez bere atzetik denak herrestan eramateraino, lehen partean jaso dugun bezala:

> Gauza ginen ere gure kasa irakurtzeko, bertako eta emigrazioko iraultzaileekin biltzeko, eta gure artean bakoitzak bere bidea egiten zuen, inongo diziplina ideologikorik gabe. Alderdi marxista-leninistaren formula atxiki genuen, eta egun batez Federikok iraultzaileen elkarte sekretuen bidetik abiatzeko proposatu zigunean, oso gutxik egin zion konpainia. «jakintza baithan» zegoen etorkizuna ez zen gu guztientzat.

ETAren VI. Batzar polemikoa egin eta *Bosten Agiria* sinatu ondotik (Edur Arregi, Juan Jose Etxabe, Federiko Krutwig, Emilio Lopez, Julen Madariaga), *Gatazka* aldizkariaren lehen alea atera zuten. Eta hor Krutwigen eragina ikusten

zen: «*(...) eta ez soilik edukian: hizkuntzan ere bai, nahiz eta talde baten lana izan. Euskaraz zegoen, itzulpenik gabe, eta hori euskarari eman behar zaion leku berezia azpimarratzeko (...). Bukatzeko, "Etnokraziaz" Federiko Krutwigen lan marduka zekarren»* (39).

Honainokoarekin, eta lehen partean azaldutakoarekin, aski Krutwigen eraginaren handiaz jabetzeko.

7.2. M. LEGASSE, F. LIKINIANO (C. HERNAEZ, M. CHIAPUSO)

Hona Mark Legasseri buruzko lehen aipamena gagozkion memoria-liburuan:

> Federiko Krutwigek askotan aipatu zigun Iparraldeko idazle anarkista batek argitaratu zuen Euzkadiko Populazioari Abisua[52] deitu horri bakarra. Hamahirugarren eranskinean ematen da osoa, bere jatorrizko frantsesez. Sentimendu sakonak literatura eder eta arinez adierazteko zuen erraztasunez, Mark Legassek inpresionatu ninduen:«Euskaldunei, eta azken aldikotz, oroitarazten zaie: (…). Euskaldunek ez dutela beren aberri propio izateko eskubiderik, baizik eta hurbilen duten polizitegiko aberria zerbitzatu beharko dutela.
>
> Euskaldunek ez dutela beren ikasketak euskaraz burutzeko eskubiderik, baizik eta bizi diren lekuko polizia eta jujeen hizkuntzaz, atxilotuak direnean edo herio-zigorrerako kondenatuak zigorraren arrazoiak konpreni ditzaten (…). 1972ko urriaren 12an egina. Paco Matavasco gobernadoreak eta Gilles du Flic prefetak sinaturik» (*Ibid.:* 55).

Handik lauzpabost urtera ezagutu zuen aurrez aurre Mark Legasse, eta halaber Felix Likiniano, Casilda Hernaez eta Manolo Chiapuso anarkistak. Honela kontatzen du ezagutze horren berri:

> Euskal nazionalismoaren bide historikoa ulertzeko, herbesteko urteen ikerketan ari nintzen. 1977an agertu nuen El nacionalismo vasco en el exilio (1937-1960) liburua eta haren antolatzeko testigantza bilketan, etorri handiko anarkista euskaldunen ezagutza egin nuen. Mark Legasse lapurtarra eta herbestean ziren giputz mitikoak, Felix Likiniano, Kasilda Hernaez eta Manolo Chiapuso.
>
> Mark Legasse anarkista zen, nagusirik edo jainkorik ez duen askatasun-zalea bezala. Sortzez eta ezkontzaz euskal burgesia abertzale handia oso ondo ezagutzen zuen eta erreboltari jaioa zen; handikiak eta autoritateak hastio zituen eta estatu administrazioa mespretxatzen zuen. Euskaldunak, estaturik gabe eta administrazioen aurka errealitate arruntaren mugan kontrabandoz bizi zen jende libre eta jazartsu bezala ikusten zituen.
>
> Krutwig eta beste militante historikoen laguna izanik, ETAren aktibitateari lotu zen 1971ko errefuxiatuen aldeko gose-grebetan eta, 1974 inguruan, Ziburuko Periko Baitan babesa eman zien miliei eta poli-miliei. Ezkaratzean ziren poli-miliak eta goiko estaian miliek gomendatu idazle «irlandar» bat, hain zuzen Eva Forest Operación Ogro liburuko lanean. Beti izan zuen umore handia eta plazer berezia hartzen zuen diskurtso dominanteen hipokresia desmuntatzeko; biolentzia kontutan euskaldunen borroka

52. Jatorrizkoa: *Avis la population d´Euzkadi (Nord et Sud) 1972*. 232. orrialdean osorik.

armatua sostengatu zuen eta usu alderatu ere Estatuek onartzen eta praktikatzen duten bortizkeriarekin (Lopez Adan, 2000a: 104)[53].

Lasarten, 2003an, omenaldia egin zioten M. Legasse zenari. Kari horretara, artikulua eskaini zion Lopez Adanek.

> Mark, idazle gogoangarria, oso abertzale fin eta kontsekuentea zen, garai ilunetan lekuko eta urrats berrien aitzindari. Omenaldia merezi zuen.
>
> Zeren eta Ipar Euskal Herrian abertzale izatea ez baitzen gauza erraza. Euskalduna bere buruaz lotsatzera eraman dute eta harra fruituan dago: kolonizatuen konplexua dela eta, jazartuen aurkako mihi gaiztoenak, etxekoak. Ezkerrak eta errepublikanoek erakutsi ziguten erregionalismoa eta nazionalismoa (gureak…) erreakzionarioak eta atzerakoiak direla; XIX. mendean euskaldungoaren defentsa hartu zuten jauntxo eta apezek euskalduntasunari lotu zioten euskaldun umil, manaerraz, otzan eta baketsuaren estereotipoa. Eskuinak ere zentralismoaren plegua hartu zuenean, ezkerretik zetorren konplexuarekin lotu zen nagusiari beti obeditzen zuen euskalduna, eta bi aldetik puxatua, bien eragin pean, bere buruaz lotsa, arima ukatu zuen eta haurrei ez zien euskara transmititu. Horrela heldu gara gauden puntura, Ipar Euskal Herriko agoniaraino (Lopez Adan, 2003f).

Beste liburu honetan: *Concerto guerrillero pour un pays qui n´existe pas* liburuaren hitzaurrean, Lopez Adanek M. Legasserekin Irlandara egindako fikziozko bidaia bat itxuratzen du, miresmen eta maitasunez oratua. Honela hasten da:

> «Hona hemen, Mark, Irlanda…», esan nion (…). Markek ez zidan tutik erantzun. Zer zeukakeen buruan? Gose greba, hauzia, poliziak, gibelean zituen utzi; halere, oso hurbilak ziren oraindik. Irlandan errefuxiatuak ziren lagun euskaldunek, Manu Egileor eta Eli Gallastegik bereziki, haren historia irlandesei kontatu omen zieten, eta Trinity College-ko erakasleek gomitatua zetorren Irlandara. Holan, Aberri askatu berriak ohoratu nahi zuen Aberri zahar zapalduaren poeta… (…) eta, orduan, zemento arretik atera zen Mark, kokorikatu zen, eskua luzatu zuen lurra ikutzeko eta berriz ezpainetara eraman, Irlandako lurrari lehen pota emanez. Amodiozko musua zela sentitu nuen, eta ez neuk bakarrik: besarkatu gintuzten irlandesak ere hunkituak ziren, agian aberri zanpatuen semealabak gestu berak errepikatzerakoan elkar ezagutzen ditugulako (Legasse, 1984: 9)

Beste hiru anarkistei buruz, argibide hauek ematen ditu:

> Likiniano, berriz, Hegoaldeko anarkista proletarioen erdi erdian ibilia zen, beti aurreneko lekuetan, Gaztedi Libertarioan, CNTn, Gerla Zibileko batailoi anarkistetan; herbestean gero, nazien kontrako erresistentzian. Euskaldun «naturala» zen, berehala hartzen zuen Arrasateko toka, eta Etxaberen garaiko herrikide exiliatuak ezagutu zituen.
>
> Frankismoaren aurka armak ganoraz hartzeko gauza zirela ikusi zuenean, ez zuen duda ideologikorik izan eta egiten zutenei lagundu zien. Beti ETA militarrari hurbil, ez zuen inoiz galdu bere askatasuna. Artista eta kuriositate intelektual handiko gizona zen.

53. «Marc Legasseren Lan Idatziak» izeneko artikuluan (liburu honetan dago: *Le basque récalcitrant et le coq gaulois,* M. Legasse, Gatuzain, 2000), izenburuak salatu bezala, haren lanak jaso zituen.

> Manolo Chiapuso intelektualagoa bazen ere, militante eta aktibista zaildua zen CNTn eta Euzko Jaurlaritzan ibilia. Kasilda, nortasun handiko emaztea, gerla aurreko Emazte Libreetan ibilia, bere gizona bezain ausarta. Eta hiruek Euskadi bihotzean zuten, erreferente.
>
> Denen artean, anarkismoaren adar guztiak ukitzen zituzten: sindikalismoa, insurrekzioa, artea, eztabaida intelektuala, norbanakoaren duintasuna eta askatasuna. Eta hori guzti hori euskalduntasunari lotzen zioten maina edo muzin ideologikorik egin gabe, naturaltasun osoaz.
>
> Errealitateak atal desberdinak baditu eta identitate estu batek gaitasun eskasa ematen du munduari egoki lotzeko; sustraiak ukatzen ez dituen nortasun aberats eta plurala edozein sektarismo baino hobea da. Hori frogatzen zuten gure lagun anarkista horiek, garrantzi handirik eman gabe ere (…).
>
> Likiniano eta Legassekin euskal anarkistak ginen, bakoitza bere moduzkoa (*Ibid.:* 104-105).

F. Likiniano hil eta berehala idatzitako artikulu hunkigarrian, honela zioen hartaz Lopez Adanek:

> Adios, laguna, adiskidea. Eri zinela bagenekien, baina desagertzeko zoria beti urrun ikusi nahi dugu, eta heriotza beti sobera goiz heltzen da. Bai, arina izan dakizula lurraren pisua.
>
> Halere, ez zenuen gutxi bizi izan. Gure aitzineko historia eta gure gaurko borroka ulertu nahiaz, ordu asko eman dut zure ondoan. Errepublika eta Gerla garaietako guraso nazionalistek utzi ziguten iduria begi kritikoz, baina zeharo euskaldunen bidez, aztertu nahi izan genuenean, zure lekukotasuna preziatua izan zitzaigun; Miarritzeko merkatuaren ondoan alemanen bota astunen urrats trinkoak ezin isilarazi izan zuen erresistentziaren piru mehe eta kartsua, zuregan aurkitu genuen; fededunismo geldiaren orbel astunean ETAko lehenek Iparraldean egin zuten agerpenaren laguna zinen; ETAk bere kemen askatzailea langilerian gihar zezan, anarkismoaren libertate gosea eta marxismoaren analisi sarkorrak batzen saiatu ginenean, zu zinen gure entseguen lekuko eta partaidea; eta demokrazia triste eta zapaltzailearen kontra borrokatzeko aukera egin dutenek, beste borrokalari bat izan zaituzte.
>
> Eta zuregan gehien miretsi dudana, borrokan zuzenki eta duda gaberik sartzeko gaitasuna izan da. Bai, irakurtzen zenuen, teorietan sartzen zinen, eta zure pentsaera politikoaren zeharrak bihurriak ziren noizbehinka; baina ezagutza edo teoriaren oztopoak ez zaizkizu inoiz eszeptiko edo geldia izateko estakuru gertatu. Eta hau dut zuregan, Felix borrokalaria, Felix bihotz zabaleko gizon aktiboa, miresten eta bekaizten dizuna: zure euskalduntasuna eta iraultza sozialarekiko nahikunde bizia, nortasunaren parte ezin-berezitakoak zenituen, eta berehala non jo eta nondik joan bazenekien, egoeren aurpegi aldakorrak gorabehera.
>
> Hil zara iraultzaren garaipena ikusi gaberik, baina zure bizitzaren egun guztiak iraultza honen parte bat izan dira; mila esker[54].

54. Esteka honetan: <http://www.argia.com/siglo/prota/82felix.htm>.

7.3. TXILLARDEGI

Krutwig aipatzean esan dugu Txillardegi ere memoria-liburuaren haste-hastetik agertzen dela, eta, beraz, Lopez Adanentzat erreferenteetako bat izan zela. Erbestean, 70eko hamarkadako lehen urteetan Bruselan zeudela edo handik zebiltzala, hobeto esanda, elkarrekin gurutzatzen ziren Krutwig, Txillardegi eta Lopez Adan. Hona hemen hirurak argazki berean:

> 1970eko urteetan, Bruselan,Txillardegi tratatzeko aukera izan genuen. Gizon aparta zen, sentsibilitate pertsonal eta politiko handikoa, egundoko kultura eta jendetasunaren jabe; ezagutza pertsonalari esker, beste modu batez ulertu nuen marxismoari buruz zeukan jarrera, antitotalitario eta askatasunzalea. Haren eta Krutwigen ondoan, gizandien sorbaldetatik urrun ikusteko parada ahalen arabera baliatu genuen.
>
> Arrazismoa zela eta ez zela, behin Halleko borta ondoan Krutwigek (hark zeukan mihi zaluena) esan zigun: «Alvarez, Lopez eta Krutwig: …arrazista banda ederra osatzen diagu!» (2014a: 68).

Hil zenean, gorazarrezko testua idatzi zuen, hil berri zen adiskideaz, harekin ikasitakoaz, harekin partekatutako zerez, harekin bizi izandako ametsez; xede bikoitz honekin: hura gogoratzeko eta familiarekin bat egiteko. Euskalduntzeko tirrian Txillardegik izan zuen zerikusia ere aitortu zuen artikulu horretan:

> Hasteko, Txillardegi abertzalea. Hizkuntzan finkatu aberria eta askatasun politikoan oinarritu erresuma. Gara-n emandako azken elkarrizketan esan zuen: Estatu bat behar da… etendura puntu adierazgarriekin. Gisa guztiz, independentzia baino gutxiago deus ez, ametsetan behintzat. Eta amets horien peskizan zer bide egin duen!
>
> Hor dugu Txillardegi existentzialista, Unamuno, Kierkegaard, Camus eta Sartreren irakurlea, Carlos Santamariaren ezagutzailea. Zer sentimendu sakon haren sentimendu agonikoa, frankismoaren gau ilunean euskara galtzear zelarik, askoren (eta abertzale askoren) indiferentziaz; zer sentimendu humanista norbanakoaren eta herrien patu kontingenteen gora-behera, edo beharbada hain zuzen gaizki garelako, erreboltatu behar dela onartzeko eta jende duintasuna askatasunaren bilaketarekin lotzeko (…).
>
> Txillardegi idazlea, eta hainbeste idatzi du! Gogora ditzadan Elsa Scheelen, amodioaren absolutua, haren gizona Pierre, herri zerbitzuko emana, eta bien existentzia tragikoa… Belgikan idatzia delako aipatzen dut, bizitzak eman zigunean bera eta beraren familia ezagutzeko parada, bai eta serioski euskalduntzeko tirria ere.
>
> Gain-azalki, hitz bat haren azken konpromezu politiko desberdinen aipatzeko. Lizarra-Garazi baino lehen gauza izan zen modeloz aldatzeko beharra aldarrikatzeko eta gauza izan da gero modeloaren aldakuntza laguntzeko, beti ezker abertzale zabal baten barnean, egoera tragiko baten erdian, eta konpromezuak hartzeko gai izanki bere bizitzaren lema mantenduz: duintasuna eta errebolta.
>
> Mila esker, Jose Luis (Lopez Adan, 2012d).

Haatik, lerro horietan klarki ageri den miresmena ez dago zertan muturka egon kritika zorrotz baina begirunezkoarekin, eta, Lopez Adanek bi artikulutan kritika ere egin zion. Lehenik, *Jakin*-ek Txillardegiri omenaldi gisa eskaini zion alean: «Txillardegiren pentsaera politikoa» (1999. 114. zk.), eta bereziki bigarrenean, *Maiatz* aldizkarian agertu zen «Txillardegiren Exkixu» artikuluan (2012, 54. zk.).

> Sozialismoaren arazoa beste pisu batekoa zen (…). Bere lanetan ikusten denez, Txillardegik marxismo eta sozialismoaren bi aspektu onartu zituen. Lehena, injustiziaren aurkako errebolta; bigarrena, analisirako tresna modernoaren balioa. Alta, bietan matizatu zuen. Injustizia nagusia, hemen, euskal herriari egiten zaiona da, eta inoiz ez du onartu nazio arazoak direla langileriaren borroka orokorraren bigarren mailako partea; gero, marxismoak sobera garrantzia ematen die faktore ekonomikoei eta oso gutxi pasio, sentimendu eta irrazionalari. Txillardegi bere lehen erreferentzia filosofikoen bidetik jarraitu zen, eta ongi hautatu ere, zeren eta nortasun nazionalak oratzen baitira kulturaz, mitoaz eta ahaidetasunaren sentimendu afektiboez (…).
>
> Eduki ideologikoen aldetik, Txillardegiren sozialismoa humanista eta pertsonalista da. Ez du onartzen askatasun politikoak ukatzen dituen sozialismo sobietarra eta, oro har, edozein totalitarismori ezetza ematen dio. Gestio sozial eta ekonomikoaz, autogestioaren lilura ukan zuen, askok bezala, batez ere Branka-ren denboretan. Gisa guztiz, beti oposatua izan zen ETA alderdi langile soila bilakatzeari, bere ustez Euskal Herrian den arazo nagusia nazionala izanik, abertzaleen batasunari lehentasuna eman behar zaiolako.
>
> Bistan da nazionalismoari eta sozialismoari ematen dien tratamenduaren desoreka. Nazionalismoa gauza da Euskal Herriko nortasuna, egoera eta etorkizuna biltzeko; inplikazio estrategiko eta taktiko nabariak ditu eta, hain zuzen, estrategia zentratzen du. Sozialismoak, berriz, erreboltarako motiboa bada eta ondorio moral, legislatibo eta taktikoak baditu ere, ez du inplikazio estrategiko nabaririk. Alderantziz, estrategiaren ardatzean ezarri nahi bada, galgarria da, Fronte Nazionalaren aurka, Klase Frontea ematen baitu eta nazionalismo espainolaren jokoa egiten duelako, sozial-inperialismo bilakatua (Lopez Adan, 1999a).

Laburra baina aldi berean mamitsua. Puntu garrantzizko bat du eskas: haren pentsaera filosofikoa; hark eragin sakona eta independentea izan baitu haren ikusmoldeetan. Euskal Herriaren ikuspegi agonikoa, existentzialismoaren garrantzia:

> Laster ezagutu zuen existentzialismoa; Unamuno idazle eta filosofoa miresten zuen, eta miresmen handia izan behar zion Unamuno anti-euskalduna konpentsatzeko. Bestalde, pertsonalismoaren doktrinak Donostian hedatu zituen Carlos Santamariak, eta honen itzala bazen Iñaki Gaintzarainengan. Ekin-en sortzailea eta Txillardegirengan eragina ukan zuena (…) Txillardegik errebeldiaz eta amorruz erreakzionatu zuen (…). Egoera larri horren aurrean, dignitatez hautatu behar zen, esperantza ukan edo ez ukan. Hobendunak, barkaezinak ziren, eta erreboltatzen ez zirenak, duintasunik gabekoak (…).
>
> Existentzialismoak, hasteko, absurduaren eta konpromiso indibidualaren arteko dialektika planteatzen du. Kierkegaardengan, adibidez, argi agertzen da kontraesan

> nagusia: arrazoiak eramaten gaitu eszeptizismora, eta bihotzak jainkoaren beharra dauka. Unamuno ez dago urrun. Txillardegiren gaztaroan, jelkideek eta, oro har, konformistek, oso irakurketa razional eta eszeptikoa egiten zuten: hau galdua da! Euskal Herriaren patua, gizabanakoen existentzia bezala zen: absurdua eta desesperatua. Berriz, herriarekiko lotura afektiboak eskatzen zuen konpromisoa, esperantza gutxikoa izanik ere, eta ihardukitze hori bazterrezina zen. Filosofiatik bizitza politikora transposizioa egin badaiteke, horra zerk eman zion Txillardegiren nazionalismoari hainbeste pisu moral eta bitalista. Absurduaren aurkako errebolta horrek, beharbada, egin zuen kausa galduen zalea (…).
>
> Bukatzeko, irrazionaltasunaren lekua. Txillardegi agnostikoa da, baita bitalista ere. Badu doktrina bukatuez mesfidantza, eta eruditoen espiritu hotzari oposatzen dio bizitzaren, instintoaren zuzentasun naturala. Razionalismo modernoaren etsaia da. Hain zuzen, modernitate razionalaren fruituak dira haren bi etsai nagusiak: foruak abolitu zituen liberalismo burgesa, eta klase kontzeptuan nazioa ito nahi duen marxismoa. Etsaigo horretatik datorkio ekintzaileen goresteko eta doktrinarioen arbuiatzeko tirria (…). Antimodernismoa eta razionaltasun hotzaren arbuiatzea, korronte intelektual sakon eta iraunkorra dira. Subjektibitateak, askatasun indibidualak, aukeraren arazoek, leku handia daukate Txillardegirengan (*Ibid.*: 70-71).

90eko hamarkadaren amaierako artikulu hartan, Lopez Adanek, Txillardegiren pentsaera politiko eta filosofikoaren laburpen egokia egiteaz gainera, Txillardegiren kontraesanak ere planteatu zituen, baina garatu ez; duela gutxi argitaratuan bai. Honela planteatzen du Txillardegiren kontraesan nagusia:

> Haren pentsaera politikoa ezagutu zutenentzat eta marxismoaren etsai lanetan ikusi, nahikoa enigmatikoa izan zen Herri Batasuneko marxista-leninistekin aritu zen Txillardegi hura.
>
> Txillardegik eta Branka taldeak 1967an utzi zuten ETA, erakundearen Bosgarren Biltzar Nagusian marxismo-leninismoa onartua izan zela estakuru. 1971an herbestetik Euskal Herrira itzuli zenean, Txillardegi Fronte Nazionalaren alde ibili zen, ETAk marxismo-leninismoa garbiki onartzen zuen bitartean. Trantsizio hasieran, 1977an, Txillardegik ESB (Euskal Sozialisten Biltzarra) alderdi politikoa sortu zuen ezker abertzale marxistari alternatiba sozialista demokratikoa aurkezteko. Hots, ETAren modeloa ontzen ari zenean, Txillardegi kanpoan zen. Kontaktuak atxiki zituen, bai, hasieran Anai-Artea elkarte eta Telesforo de Monzonen bitartez, gero Herri Batasuna sortzeko: ESB izan zen HBko lehen alderdien artean. 1980an ESBtik joana, kontaktuak estutu zituen eta 1986an eta 1989an HBren izenean Espainiako Senaturako aukeratu zuten Gipuzkoan. Mahai Nazionaleko partaide izan zen ere. Bitartean, ETAk ez zuen inoiz marxismoa arnegatu, ez eta HBk ere. Zer zen «misterio» hori?
>
> Nire ustez, Txillardegik bazekien ETA eta HBrengana joateak zerbait harrigarri bazuela, eta elkar hurbiltze horren azalpenak emateko bi liburu utzi dizkigu: eleberri bat, Exkixu (Elkar, 1988), eta memoria politikoen eta saiakeraren arteko beste liburu bat, Euskal Herria helburu (Txalaparta, 1994). Bietan ukitzen du Herri Batasuna sortu baino lehenagoko denborak. Saiakeran, artikulu eta lan zaharren berrargitaratuz, ezker abertzalearen bilakabide politikoaz ari da, batez ere espainolismoaren borrokatzeko

> eta erakundetik 1967an jalgitzeko izan zituen arrazoiak agertuz; oso leku garrantzitsua ematen dio marxismoari, eta espainolismoarekin dituen harremanak ikertzen ditu. Eleberrian, ETAren modelo estrategikoa abiatzeko denborak (1969 eta 1974 artekoak) fikzioaren bidez ukitzen ditu, eta lehen aipatu arazo ideologikoekin duen lotura guztiz nabaria da. Nik gomendatuko nuke 1994ko liburua lehenik irakurtzea, 1988koa hobeki analizatzeko (Lopez Adan, 2012e).

Saiatuko naiz artikulua ondoen laburbiltzen duten zatiak hona ekartzen. Denak «ETA Txillardegiren imajinarioan», eta «*Exkixu*, eleberri errealista» epigrafe esanguratsuen ondotik ageri dira nagokion artikuluan.

> 1967an ez zuen erakunde marxistarik nahi; gehiago dena, militante abertzale zintzoen ametsen gorabehera marxismoarengan espainolismoaren atea ikusten zuen, eta ETA marxistari uko egin zion. Pertzepzioa zuzena zuen? Marxista zen ETA? Marxismoa analisi tresna bezala onartua bazuen ere, Biltzarrak ez zuen ETA alderdi marxista-leninista deklaratu. ETAko militanteen artean baziren marxista konbentzituak, baina askok marxismoa onartu zuten ez ideologia gisa, baizik eta marxismoak euskal abertzaletasunari indar iraultzailea eta eraginkortasuna ematen zizkiolako; (…) ETA marxistek sobera kontrolatuta iruditu zitzaionean joan zen, nahiz eta marxista horiek abertzaleak izan; berriz, ETA abertzale «hutsek» kontrolatuta ikusi zuenean, etxera itzuli zen, nahiz eta abertzale horiek bere burua marxista kontsideratu. Hain zuzen, ETA-militarraren denboretan bai onartu zen argi eta garbi ETAren marxismo-leninismoa, hor 1974 inguruan, eta HASI alderdia 1977koa da. Exkixuko Txillardegik ontzat emanen duen ETA hori da (…).
>
> Txillardegiren imaginarioaz ari gara, eta «imaginario» ez da hitz gutxieslea, «pertsonala» edo erran nahi du, norberaren ideietaz finkatua baina pertzepzio faltsuari ere atea zabalduz. Edo, hobe, «pertzepzio baldintzatua»: Txillardegiri bere kontzientzia abertzaleak erraten zion ETAn zegoen indar abertzalea lagundu behar zuela, eta hori egin zuen, egoki irudi zitzaion garaian eta beti abertzaletasun erradikala ardatz.
>
> Horrela, ETA militarra eta KAS erakundea egoera estrukturatu eta autoritarioaren ardatza bilakatu zirenean, alderdi komunisten zentralismo sektarioa hainbeste kritikatu zuen Txillardegi antiautoritarioak lehentasuna eman zion borroka abertzalearen indar sinesgarri eta batuari. Ahaztuak zituen kritikak? Pentsaeraz aldatua zen? Ez, nire ustez: indar harremanen eta posibilitateen labirintoan, hoberena iruditu zitzaion aukerari jarraitu zion. «Badakik —entzuna diot— politikariekin guztiz ados izatearen zain bagara, ez genikek inoiz ezer egingo» (…).
>
> Beraz, ETA militarrean ikusi zuen bere ametsen araberako Euskal Herria eraikitzeko posibilitatea. Jakinik ere egoera kontradiktorioan eta nahasian zela Erakundea, lerratze, infiltrazio edo likidazionismoen etengabeko arriskuan. Eta hemen sartuko zaigu Txillardegiren imaginarioan oso garrantzi handia izan duen gaia: nork segurtatuko du ETAn abertzaletasunaren iraupena eta lehentasuna? Erantzuna: euskaraz dakitenek, eta, puntu bateraino, doktrinak edo ideologiak kutsatu ez dituen euskaldun garbiek. Ez dezagun ahantz euskarari ematen dizkion lehentasuna eta errola. Euskara ez da soilik beste hizkuntza bat: euskaldun izateak mundua eta errealitatea ikusteko modu berezi (eta intransferiblea) ematen omen dio pertsonari. Euskal etnia kulturaz definitzen da, eta

> kultura edo mundu ikuskera hizkuntzak sortzen du: hizkuntzak funtsezko pentsakera eta munduaren ikuskera moldatzen ditu (…).
>
> Osakin guztiak bildurik, zer ateratzen zaigu? Euskaldun garbiak, ekintzaile sutsuak, doktrinetaz mesfida, sufritzeko gai, jendetasun handiko militante basa eta gordinak… Horiek dira, bai, gureak eta horiengan bazuten esperantza Txillardegik eta bere Euskal Herri euskaldunak (…).
>
> Argalaren taldeak 1974tik aitzina ondu zuen ETAren estrategia: bitan jarraitu eta higadurazko ekintza armatuaren bidez negoziazioa behartu. Txillardegi ez zen oso hurbil: ETAren barreneko eztabaida politikoetan oso garrantzia zuen alderdi marxista-leninista zuzentzailearen lekuak, ez arras berdina mili edo poli-miliengan, baina ur horietan Txillardegi ez zen laket. Gehiago dena, 1971 eta 1976 artean, Txillardegik irakurri zituen marxismo-leninismoaren kritika antitotalitario asko. Krutwigen ondoan ezagutu zituen jatorri libertariokoak, Proudhom, Bakunin, Henry Lefèbvre; gero, estrukturalisten ondorengoak, bereziki Lacan eta Foucault; bukatzeko, Morin, Touraine, Bourdet, Castoriadis, Aron,… Irakurketen zerrendak erakusten du zer bilatzen zuen: errebolta eta justiziaren arrazoia, totalitarismo eta doktrinarismoaren kritika. Aipatu dugu nola Euskal Sozialisten Biltzarrera joan zen sozialismo autogestionario, demokratiko eta anizkorra sortzeko gogoaz. Programak abertzaleen batasuna eta sukurtsalisten kanporatzea eskatzen zituen, bai eta ETArekiko mesfidatza ere jasotzen zuen ezkerkeria zela eta borroka armatuaren ondorio galgarriengatik. Esperientzia laburra izan zen (*Id.*).

Exkixu nobelara etorriz:

> Joxe Azurmendik apuntatu zuen Exkixuk errotiko biraketa bat markatzen duela Txillardegiren eleberrigintzan. Eta puntu bateraino zuzen dabil, zeren eta aurrekoen sinbolismo edo kontzeptualismoa utzita, baten batek deitu «errealismo sozialista» teknikako narrazio bat egin baitu, helburuak aitortuta, lineala eta disimulurik gabekoa. Horregatik, hain zuzen, Ezkixu ez da haren produkzioaren puntu gorena…
>
> Gehien ematen dutenekin egoteko ahalegin tragikoa, behar bada patetikoa egiten du. Egiazko ETAren ingurura itzuli da, eta ETA faltsuarekin hautsi egin dutenekin bat egiten du. Eta haren pentsaera ezagututa, liburua irakurtzen da errekortable bat bezala, puntuei jarraituz ez da galtzerik, ez eta sorpresarik ere (…).
>
> Norbaitek erran zuen *Exkixu* liburu barojiarra zela, ekintzez betea. Nik berriz unamuniano ikusten dut, paradoxaz betea, tragikoa, patetikoa. Unamuno Salamancan bezala edo. Txillardegi Donostian, euskaldun garbi, gordin eta basa horien gorazarrea egiten, modeloaren gainbehera hasten denean. Etxeko zanpatu eta galtzaileen alde, errealismoaren despit eta destenorez. Eleberri «errealista»?: Jose Luis hura eta bera (*Id.*).

Kontraesanak azpimarratzeaz gainera, Gogora Lopez Adanek idatzitako gorazarrezko testua Txillardegi hiltzean. Atal honi amaiera emateko, *Jakin*-en idatzitako artikuluan egin zuen zor-aitortza hautatu dugu:

> Zorrak kitatzeko denbora dira azken lerroak. Gure belaunaldiko abertzaleek asko zor diogu Jose Luis Alvarez Enparantzari. Errebeldia, antidogmatismoa, euskaraz bizitzeko eta ekoizteko grina, oposizioan ibiltzeari beldurrik ez, harek ereindu baloreak dira (…). Oraingo egoeran, nekez onar daiteke iraganeko hobenen erreparakuntza eta biharko injustizien prebentzioa bilatzen zituen politika baztertu beharko denik. Kontsensu bigunaren demokraziak oposizioan edukiko du atzoko eta betiko Txillardegi (Lopez Adan, 1999a: 79).

Idatzi zirenetik hogeitaka urtera indarrean diraute.

7.4. JON MIRANDE

Lopez Adanek ez zuen harekin aurrez aurreko tratabiderik izan; irakurtzetik ezagutu zuen; beraz, intelektual hurbila ez zuen izan Peillen, Ibinagabeitia, Krutwig, Lafitte, edo Xarritonek izan zuten bezala.

Joxe Azurmendi Jon Miranderen pentsamendua ulertzen, eta hura bere lagunarte intelektualean kokatzen enplegatu zaigu; esaten ariko balitzaigu bezala, espainiarrek Ortega y Gasset intelektual gorenen aldarera igo badute, eta hartaz oso harro badaude, eta gureanago, Pio Barojarekin beste horrenbeste edo antzera gertatzen bada, noiz eta haien pentsamendua Miranderena bezain eskuindar arrazista, elitista, aristokratikoagoa izan denean —Mirandek halako idazleen iturritik edan duenez gero—; guk, koitadu onbeharrok, lotsatu behar ote dugu, bada, eta ulertzen ere ez ote dugu, bada, bederen, saiatu behar, Miranderekin?

Lopez Adanek ez du hala sentitu eta pentsatu, eta ez du hala idatzi eta argitaratu. 1994an argitaratu zuen testuan, *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Miranderen pentsamenduan* liburuari buruzkoan, honela kokatzen du denboran eta pentsamenduan liburu horren irakurketa:

> Liburu hau irakurri nuen nazionalismoaren bilakabide orokorraz burua galderaz bete nenbilenean. Gutaz pentsatzeko parada eman zidan eta, beharbada, idatziko dudana ez da hainbeste irakurketaren kronika edo kritika, baizik eta ene arazo eta fantasmen esposaketa interes gabekoa. Bainan idazleak eta liburuak, gisa guztiz, lekua merezi dute azken urtetako kronika literarioan. Gizona, hasteko. Joxe Azurmendi entsegu idazle oparo eta zorrotza da; gainera, beti euskaraz idazten du. Bistan da zein tokia aukeratu duen. Erudizioa eta luma zorrotza biltzen ditu. Gure memoria historikoaren gordailua da; zanpatzen gaituztenen ahulezia kontzeptual eta intelektualak ironiaz beteriko herraz seinalatzen ditu. Holan, gehien hunkitu gaituzten arazoak eta pertsonak ikertu ditu. Hots, lehen eskuko materialak bildu eta arakatu ditu, ez soilki gure produkzioan baizik eta pentsamendu unibertsalean (eta bereziki Europa Erdikoan) ere, eta material horien analisia gurean bizienak diren oraingo arazo politiko-sozialen ezagutzera aplikatu ditu, entsegurako bizia eta aberatsa den hizkuntzaz. Hori guzti hori, eta asko da, zor diogu[55].

55. Ikus esteka honetan: <ww.susa-literatura.com/kritikak/hegats/krit0027.htm>.

Haatik, ez da teklak jotzen hasi J. Azurmendi miretsia goresteko, baizik eta liburu horretan hark Miranderekin egindakoa kritikatzeko:

> Neretzat argi da. Abiapundu desberdinetatik abiatzen dira ikertzailea eta ikertua: Miranderen abertzaletasunaren oinarrian eskuin muturreko jarrera eta ideologiak dira, ziur asko abertzaletasuna baino lehenagokoak. Hau Iparraldeko abertzale zahar nahikotxori gertatu zitzaien: eskuin-mutur frantseseraren baitan aurkitu zuten errepublika zentralista eta ezkertiarraren aurkako gorrotoa; eta jatorriak betirako markatuak egon dira. Azurmendirengan, abertzaletasuna da sustraia, eta inoiz ez da lerratu eskuin muturraren ideologia politikoa onartzera. Bainan, iduritzen zait, Mirandek beti eta Azurmendik liburu honetan behintzat, biolentziaren edukin etiko unibertsala bizitzeko beharren azpian ezartzen dute. Azurmendirengan, duen kontzientzia agonikoarengatik; Mirandek, berriz, nagusia izateko behar den biolentzia naturalaren apologia egiten du… Liburua kezkaz hartu nuela aitortzen dut (…).
>
> Aitortu behar dut nazionalismo eta faszismoaren arteko harremanek faszinatzen nautela. Euskal Herrian eta Alemanian. Miranderen kasua eta besteak. Alta, Auswitchz gertatu eta, oso tolerantzia gutxi diet faszismoaren baloreak bereganatzen dituztenei. Abertzaleak zirelako eta ustez hori zela gure aberriaren aldeko hoberena? Berdin zait: kondena gorriena.
>
> Eta, hain zuzen, hori dago eskas, nere ustez, Azurmendiren liburuan; eruditoak nabardura anitz aurkitzen du Miranderengan, eta nabardura horien izenean esaten digu Mirande faszistatzat hartzea sinplekeria dela; jelkideen lelokeriaz, espanolisten erasotaz eta demokrateen harrokeriaz asper eginda dagoen euskaldunak arrazoin funtsezkoak aurkitzen ditu Miranderen sarkasmoetan eta haren biolentziarako deietan… Bainan nabardurek ezin dezakete funtsa izkutatu: Mirande, adibidez, ez sabinianoak bezain zakarra euskal arraza eta espainol arraza kontrajartzeko, bainan beltz eta, bereziki, juduen kontra, arrunt arrazista zen, bortitza eta higuingarria; «Lizarrako progromaz borkariotu behar genduke(ela)» dioen aipamena Azurmendik berak ekartzen du.
>
> Beraz, nabarduren ikerketan diren egiak ahaztu gabe edo, hobe, haien konpainian, Miranderen egiazko faszismo arrazistaren kondena gogorra ere irakurri nahi nuen liburuan. Ez irakurtzeak durduzatu ninduen. Arazo hauek oso larriak dira, eta Azurmendiren esposaketak ongi eta sakonki zehazten ditu pentsakera irrazional eta elitistaren joan etorri guztiak, pentsakera honen kritika egin gaberik. Ados dela pentsatu behar dugu? Edo soilki esposaketa prozedura egokia dela?
>
> Kezka kezka eginda heldu nintzen bururaino, eta han Lukacsek irrazionalismoari egiten dion kritika filosofiko-politikoari buruz zera irakurri nuen: «erreparo dexente egin beharra legoke». Ados. Bainan Lukacsi emandako egurra esposaketa baino haratago doa: zergatik ez besteei? Eta Azurmendiren historian eta ibilbide intelektualean arrazoinak bilatzen saiatu naiz. Gure arteko askorentzat lagun eta maisua delako. Egoera oso gogorrean gaudela pentsatzen dut, desorientazio politiko eta etikoaren arrisku gorrian: dugun kontzientzia agonikoak, etxekoekin dugun solidaritateak ez digute lausotu behar. Piztiaren sabela oraindik dago ernai.

> Azurmendik seinalatzen duen bezala, Miranderen eragina handia da Euskal Herriko pentsamendu modernoan: «(harek) ireki zuen Pandoraren kutxatik barreiatu dira haizeak…». Haize arre batzuen aurka hesiak altxatu behar (*Id.*).

Sinplifikazioak dakarren arriskua neure gain harturik, Lopez Adanentzat ETAk bide txarra hartua zuen 1994rako, liburu honen beste atal batean jada adierazi dugun bezala, eta harekin batean esan dezagun Euskal Herriaren zati borrokalariak, eta Azurmendi bezalako maisu eta intelektual handi batek Miranderen egiazko faxismo arrazista ezin zuen argi eta garbi kondenatu gabe utzi, eta horrek klarki salatzen zuen oso egoera gogorrean geundela, desorientazio politiko eta etikoaren arrisku gorrian, eta kontzientzia agonikoak, etxekoen alderako elkartasunak ez zigun arrisku horren pertzepzioa lausotu behar[56].

1998an, *Jakin*-ek eskainitako plazatik —oraindik orain *Hegats* aldizkarian (50, 2013), Nora Arbelbideren elkarrizketan Mirandez dihardu—, jada Joxe Azurmendiren liburuaren kritika edo iruzkinean ez bezala, inoren alderako begiruneak bridatzen ez zuelarik, zorrotz jorratu zuen Miranderen ikuspegi politiko eskuindarra, «Jon Mirande, eskuin muturreko idazlea» izenburu adierazgarriaren pean. Eta horri esker, besteak beste, mota askotako testuak eta ikuspegiak ditugu euskaldunok Miranderi buruz.

> Gaurko egoeran, eskuin muturra gora Frantzian, frankismoaren ondorengoak gobernuan Espainian, eta euskaldunen artean ideologia hori goraipatzeko ahotsak altxatu direnean, ezin dut Arestiren «zabaltasuna» nireganatu. Miranderen nazismoa ez da marginal edo folklorikoa. Haren lanaren irakurketa osoa eta orokorra egitera behartuta gara, faszismoaren arazoa sobera larria delako.
>
> Mirandek Euskal Herria eta euskara maite zituen. Nazia zen, eta idazlea. Ikerketa sakon batek espresamolde estilistikoen eta faszismoaren arteko loturak erakusten ahal ditu; horren bidez ulertuko genuke nola literaturak eramangarri egin zuen izugarrikerien goraipatzea, eta nola estiloak begiko bihurtzen zigun okaztagarria (…). Bereziki, Miranderen euskaltzaletasuna nazismoarekin nola lotzen den analizatzera entseatu naiz (…).
>
> Nazia zela esaterakoan, inork ez dezan Mirande borrero nazia zenik pentsa. Inoiz ez zen egitatera pasa. Ideien eremua aipatu dut, bai eta azpimarratu eskuin muturraren barnean oso konbentzionala zela (…).
>
> Mirandek ez du biolentzia ikusten ezkertiarrek bezala. Bere pentsakera faszistari fidela da, eta biolentzia bizitzaren eduki natural bezala onartzen eta goraipatzen du; biolentzia bizitzari eduki nagusia ematen dion aktibitate gorenatzat dauka. Biolentzia goikoek praktikatzen dute, gerra beren eginkizun naturala da, eta horren bidez mantentzen dute hierarkia. Nazien «ordenu berriak» eslaboen esklabizatzea nahi zuen, arioak nobleki

56. Ohartxo bat bakarrik: Azurmendik liburu horren eduki nagusia 1981eko uztailean idatzi zuen Kolonian, liburuan bertan aitortzen duenez (ikus 7. or.); egia da 80ko hamarkadan (UEUko hitzaldia 1988koa) jarraitu zuela ildo beretik, eta jendaurrean Mirandez, nik dakidala, ez duela bestelakorik adierazi.

> bizi daitezen. Euskaldunen izaera burgoia, Miranderen ustez, antzekoa zen: enda sentho azkarr oroen antzora hauzo ahulagoren bizkarrtik hedatzera eta aberastera ekharriak (gira) Ikusmolde hori nazien filosofiaren araberakoa da, guztiz, eta, ordenu berriaren bortizkeria latzak gertatu eta gero formulatzea ez da soilki estilo kontua. Bistan dena, Miranderen biolentziak ez du zer ikusirik ezkertiarrenarekin, alderantzizkoa da.
>
> Horregatik, hainbeste goraipatu zuen biolentzia armatua bere garaietako Euskal Herrian gihartu zenean, ETAren bidez, Mirandek ez zuen batere lagundu. Aldendu zen, bere biolentzia ez baitzen ahulena eta koldarrena, baizik eta jaunena eta arrazarena (…).
>
> ETAkoek euskalduntasuna arrazatik aparte finkatu zuten eta, laster, errebolta proletarioetan eta kolonizatu koloredunen jazartzeetan kokatu nahi izan zuten mugimendua. Guztiz arrotzak zitzaizkion. Finean, proletariado internazionalistaren ideiak juduen beste asmakizun bat izango ziren…
>
> Horiek hola, batzuek uste badute demokrata zanpatzaileen aurka Miranderen mezu bortitza baliosduna dela, oker dabiltza. Euskaldunen askatasunerako borrokan, Mirandek ez du lekurik batere (Lopez Adan, 1998b: 46-58).

Nora Arbelbidek iaz *Hegats* aldizkarirako egin zion elkarrizketa honela bururatzen da:

> Mirandek zaldun bortitzen ordenu militar bat nahi zuen Euskadi askatzeko, eta horregatik zen ETAren etsaia hasiera hasieratik. Gero, informazio txarrarekin zer gertatzen da? Euskal abertzale ezkertiar batzuk despistatzen direla? Hori baino larriagoa ere: bada Espainian euskal abertzaletasun osoa arrazismoarekin nahasteko tirria. Eta gure biolentziaren sorreran aipatzen bada Mirande bezalako pertsonaia bat, bereziki guhaurrek gurea bezala aipatzen badugu, orduan bai ematen duela hasiera hasieratik ETAren biolentzia faxismoak kontaminatzen zuela. Ezker abertzaleko ideologoen artean baldin bada Mirande zuritzeko tendentzia bat, zer gertatzen da? Horrelako ideia faltsuei haizea ematen zaiela, denen kaltetan. Gutariko gehienak ez gara horrelakoak (Arbelbide, 2012: 226).

Garbi gelditzen da zergatik enplegatu den Lopez Adan Jon Miranderekin.

7.5. MURRAY BOOKCHIN

Lopez Adanen literatur erreferentzien berri ematean argibide batzuk eman ditugu Bookchini buruz. Beraren *Social Anarchism or Lifestyle Anarchism* liburuko esanetara etorriz, ikusten zuen orduko anarkismo pertsonalak[57] gehiago zuela berehalakoaren irrikatik hausnarketatik baino, eta gogoaren eta errealitatearen arteko harreman sinple batetik; eta horrek analisi arrazionala baztertzera zeramala:

> What stands out most compellingly in today's lifestyle anarchism is its appetite for immediacy rather than reflection, for a naive one-to-one relationship between mind and reality. Not only does this immediacy immunize libertarian thinking from demands

57. Gaztelaniara «Lifestyle Anarchism: anarquismo personal» gisa itzuli dute, eta hortik euskal esapidea.

> for nuanced and mediated reflection; it precludes rational analysis and, for that matter, rationality itself (…).

Azkenean ego indibiduala errealitatearen tenplo gorena bilakatzen da, eta horrela baztertzen da historia eta bilakaera, demokrazia eta erantzukizuna. Nartzisismoa nagusitzen da:

> In the end, the individual ego becomes the supreme temple of reality, excluding history and becoming, democracy and responsibility. Indeed, lived contact with society as such is rendered tenuous by a narcissism so all-embracing that it shrivels consociation to an infantilized ego that is little more than a bundle of shrieking demands and claims for its own satisfactions (…).

Itzulingururik gabe esanda, anarkosindikalismoaren eta anarkokomunismoaren pedigri sozialistaren (horiek ez dute inoiz ukatu autorrealizazioaren eta desira asetzearen garrantzia) eta anarkismo pertsonalaren pedigri indibidualista funtsean liberalaren artean bada leize bat ezin gainditzkoa, non eta ahazten ez diren biak bereizten dituzten helburuak, metodoak, eta azpiko filosofia:

> Stated bluntly: Between the socialist pedigree of anarcho-syndicalism and anarchocommunism (which have never denied the importance of self-realization and the fulfillment of desire), and the basically liberal, individualistic pedigree of lifestyle anarchism (which fosters social ineffectuality, if not outright social negation), there exits a divide that cannot be bridged unless we completely disregard the profoundly different goals, methods, and underlying philosophy that distinguish them (…).

Basatasunean ez dago askatasunik, basatasuntzat sortzetiko portaera-ereduen aginduak ulertzen badira, aberetasun soila itxuratzen dutenak, eta zibilizazioa desfamatzea askatasun kontzientearen potentzialtasun itzelak behar bezala aintzat hartu gabe, aberekeriara itzultzea da:

> There is no freedom in 'wildness' if, by sheer ferality, we mean the dictates of inborn behavioral patterns that shape mere animality. To malign civilization without due recognition of its enormous potentialities for self-conscious freedom —a freedom conferred by reason as well as emotion, by insight as well as desire, by prose as well as poetry— is to retreat back into the shadowy world of brutishness, when thought was dim and intellectuation was only an evolutionary promise[58].

Era horretako indibidualismoaren aurka egiten zuen; eta, komunalismo demokratikoaren alde.

Etorkizuneko gizartean ezkerreko ikuspegi libertarioa azpimundu bohemio eta marjinal batean desager ez dadin, hark gizarteko arazoei aterabidea eman behar die, eta ez ibili harro-harro eslogan batetik bestera hegaldaka. Eta puntu garrantzizko bat aipatzen zuen: demokrazia eta anarkismoa ez dira antitetikoak, eta ezein gizartek ezin du iraun erakundezko egiturarik gabe; anarkismo pertsonala erakundeak eta demokrazia ukaturik, gizarte-errealitatetik aldentzen da eta bihurrikeria azpikulturala

58. «Social Anarchism or Lifestyle Anarchism: An Unbridgeable Chasm». 1995. Interneten eskura.

bilakatzen da gazte sineskor eta arropa beltzaren eta poster kilikagarrien kontsumitzaile aspertuentzat:

> If a left-libertarian vision of a future society is not to disappear in a bohemian and lumpen demimonde, it must offer a resolution to social problems, not flit arrogantly from slogan to slogan, shielding itself from rationality with bad poetry and vulgar graphics. Democracy is not antithetical to anarchism; nor are majority rule and nonconsensual decisions incommensurable with a libertarian society.
>
> That no society can exist without institutional structures is transparently clear to anyone who has not been stupefied by Stirner and his kind. By denying institutions and democracy, lifestyle anarchism insulates itself from social reality, so that it can fume all the more with futile rage, thereby remaining a subcultural caper for gullible youth and bored consumers of black garments and ecstasy posters (…)

Bookchinen aditzea dutenek badakite demokraziaren eta erakundeen beharraren konbentzimendua ez zuela une ahul bateko burutazioa, baina ez haiek egun Mendebalean ardurenik ulertzen ditugun gisara ulerturik; baizik eta Vermonten praktikara eramaten saiatu zen bezala, eta sei tesitan teorizatu zituen bezala.

Labur-zurrean: munizipalismo libertarioa auzotarren batzarretan demokrazia zuzenaren bidez hautaturiko pertsonek osaturiko erakundeetan oinarritzen da, eta direlako udalak konfederazioan baturik edo komuna libreetan, haiek estatu zentralizatuaren alternatiba direla.

Munizipalismoarentzat axolazkoa ez da arlo ekonomikoa baizik eta bizikidetza, eta hartan ikusten du aldaketaren giltza. Munizipalismoa udalerriak askatzearen alde borrokatzen da, haiek estatu-boterearekiko intsumiso bilakatzen entseatuz, haiek indartu ahala, federalismo kutsuko udal-antolakuntza alternatiboa estatu zentralizatuarentzat kontrabotere eraginkorra izan dadin, eta halaber harekin erlazionaturiko sistema ekonomikoarentzat ere.

Arazoa da nola lortu udal anarkista bat estatu baten barnean. Arazo horren aurrean, batzuek udal-bozetan parte hartzea defendatu izan dute demokrazia zuzenaren bidez egituratu eta antolaturiko alderdi politikoen bitartez, alderdi burgesei tokia kendurik. Baina munizipalismoa ez da hauteskunde-estrategian agortzen: aldi berean behetik gorako gizarte-antolamenduaren bidea planteatzen du (ekoizpena, kontsumoa, ideologia, kultura eta gainerako zerbitzuena), eta aski indar metaturik duenean, udal-botere burgesa erorarazi eta gizartea berriz udalerriaz jabetzea, demokrazia zuzeneko antolamenduaren bitartez, besteak beste, ekoizpenaren, kulturaren eta aisiaren komunitate-bizitza definitzeko.

M. Bookchinek Estatu Batuetan eta Europaren zati handi batean anarkismoa atzeraka ikusten zuen, estatuarekiko desilusioa punturik gorenean zelarik, eta hori zen bereziki anarkismo pertsonalaren ikuspegi estuagatik eta haren oinarri indibidualistengatik:

> In the United States and much of Europe, precisely at a time when mass disillusionment with the state has reached unprecedented proportions, anarchism is in retreat (…). If the failure of anarchism to address this situation can be attributed to any single source, the insularity of lifestyle anarchism and its individualistic underpinnings must be singled out for aborting the entry of a potential left-libertarian movement into an ever-contracting public sphere.

Anarkismo tradizionalaren alderdi sortzaileena, Bookchinen iritzian, hark lau printzipio oinarrizko hauekin duen konpromisoa da: udalerri deszentralizatuen konfederazio, estatismoaren aurkako kontrakotasun irmo, demokrazia zuzenarekiko sinesmen, eta gizarte komunista libertarioaren proiektuarekin: «*The most creative feature of traditional anarchism is its commitment to four basic tenets: a confederation of decentralized municipalities; an unwavering opposition to statism; a belief in direct democracy; and a vision of a libertarian communist society*».

Arazo handiena da lau printzipio horiei nola eman forma eta eduki soziala? Labur esanik, anarkismo pertsonalarekin dituen aldeak erabakitasunez azpimarratu behar; goian aipaturiko printzipio horiek praktika errealera eramanik arlo publikoan gauzatzerik ez bada, haren funts sozialista iraultzaileari beste izen bat eman beharko zaio, eta jada ezin, haren iritzian, norberari anarkista izena ematea baldin eta ez bazaio anarkista pertsonaletatik bereizteko adjektibo kalifikatzaile bat eransten:

> In short, social anarchism must resolutely affirm its differences with lifestyle anarchism. If a social anarchist movement cannot translate its fourfold tenets —municipal confederalism, opposition to statism, direct democracy, and ultimately libertarian communism— into a lived practice in a new public sphere; (…) then its revolutionary socialistic core will have to be restored under a new name. Certainly, it is already no longer possible, in my view, to call oneself an anarchist without adding a qualifying adjective to distinguish oneself from lifestyle anarchists (*Id.*).

Eta adjektibo horrek, jakina, soziala izan behar, nahitaez!

Idazkien zerrenda

Zerrenda osatu da Emilio Lopez Adanek emandako zerrenda baten gainean.

Klandestinitate-garaiko lanak (1968, «Notas para una teoría del nacionalismo revolucionario», «Etude sur les conditions révolutionnaires en Pays Basque Nord» (partaidetzan); 1969, «Crítica al Iraultza», «Euskadi Ta Askatasuna»; 1970, «Universal y Particular», «La solución comunista al problema nacional»; 1974, «Historia crítica de ETA» (partaidetzan)) militanteen artean zabaltzeko eginak, nekez aurki daitezke.

Haien edukiaz eta testuinguruaz xehetasun batzuk ematen ditu Lopez Adanen azken liburuak: *Biolentzia politikoaren memoriak*, *1967-1978,* Maiatz, Baiona, 2014.

Artikulu labur eta elkarrizketa gehienak ez dira zerrendatzen, esanahitsuenak salbu.

1970

Lopez Adan, Emilio (1970a): *Gatazka,* 1 (partaidetzan).
————————, (1970b): *Zutik*, 59 (partaidetzan).

1971

————————, (1971a): *Gatazka,* 2 (partaidetzan).
————————, (1971b): «Acumulación primitiva o colonización», *Gatazka,* 2.

1973

————————, (1973): «La lucha armada», *Hautsi* (partaidetzan).

1974

————————, (1974): *El nacionalismo vasco 1876-1936*, Mugalde. Beste edizioak: Txertoa, 1976; Mugalde, 1977; Txertoa, 1977.

1976

————————, (1976): *Nacionalismo vasco y clases sociales*, Txertoa.

1977

————————, (1977a): *El Nacionalismo vasco en el exilio,* Txertoa. Beste edizio bat: Txalaparta, 2008.
————————, (1977b): «Anarkisma», *Gernika* aldizkariari elkarrizketa.
————————, (1977c): «La crisis del etnocentrismo en la Navarra industrial y el desarrollo del nacionalismo vasco», in *Iruñerria - La Cuenca de Pamplona*, Kultur Mintegia AA Salesianos, Iruñea.
————————, (1977d): «Opresión nacional y lucha de clases en Euskadi», *Revista Mensual – Monthly Review,* 1/6. bol.
————————, (1977e): «SOBRE LAS BASES del carlismo en Alava», *Saioak,* II.

1978

————————, (1978a): «El movimiento obrero en Euskadi Peninsular: de los orígenes a la República», IPES – Cursillo sobre historia y alternativas del movimiento obrero vasco.
————————, (1978b): «28koa dela eta», *Zeruko Argia.*
————————, (1978c): *Mediación y alienación. Del carlismo al nacionalismo burgués,* Txertoa.
————————, (1978d): «Ipar Euskal Herria: 150 urte historiarik gabe (1789-1934)», *Saioak,* 2.

1979

————————, (1979a): *Euskadi 1984,* Txertoa.
————————, (1979b): «Alejados de la complicidad con el sistema», *Askatasuna.*
————————, (1979c): «Desarrollo industrial, desastre ecológico», *El ecologista.*

1980

————————, (1980a): «Estatu terrorismoa eta idazlea», *Egin.*
————————, (1980b): «Anarkismoa», in UZEI, *Politika Hiztegia.*
————————, (1980c): «La revolución vasca confrontada al problema de la nación-estado», *IPES ikastaroak. Formazio-koadernoak*, 1: «Langileria, marxismoa eta nazio-arazoa Euskal Herrian».
————————, (1980d): «Nazioa eta estatua», *Zehatz*, III-1. Interneten *Lapiko kritikoa* webgunean eskuragarri: <https://lapikokritikoa.files.wordpress.com/2012/07/nazioa-eta-estatua.pdf>.
————————, (1980e): «Sartre Camusen aurka edo Iraultza eta Errebolta», *Jakin*, 14/15.

1981

————————, (1981a): «Bizi gaitezen… militantziak iraun dezala». Elkarrizketa, *Herria 2000 Eliza.*

————————, (1981b): «Hauteskundeak Ipar Euskal Herrian», *Punto y Hora,* 1981eko uztaila.
————————, (1981c): «Una conversación con Beltza». Elkarrizketa, *Indolencia* aldizkaria.

1982

————————, (1982a): *Bortu goretan lainope,* Haranburu.
————————, (1982b): «Ni ere apatxeen alde*», Argia.*
————————, (1982c): «Una alternativa no institucional a la crisis». Hitzaldia, IPES.
————————, (1982d): «Negoziaketen etika edo etikaren negoziaketa», *Argia.*

1983

————————, (1983a): «Euskal nazionalismo eta internazionalismoa», in *Nacionalismo y socialismo en Euskadi,* IPES.
————————, (1983b): «Felix Likiniano», *Argia.*

1984

————————, (1984a): *Zazpigarren alaba,* Txertoa.
————————, (1984b): «Mark Legasserekin Eiren», Hitzaurrea in *Concerto guerrillero pour un pays qui n'existe pas*, Marc Legasse, Maiatz.
————————, (1984c): «Marx eta Iraultza», *Jakin,* 30.
————————, (1984d): «Urte latzak datozkigu». Elkarrizketa Iñaki Zubiondoren eskutik, *Argia.*
————————, (1984e): «Konflikto eta komunikazio: abertzaleen arazoa», in *Violencia y política en Euskadi,* F. Reinares - Desclée de Brouwer.

1985

————————, (1985a): «Euskal Herria. (Kontra)projektu bat», in *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo,* Joseba Intxausti, Lan Kide Aurrezkia.
————————, (1985b): «Un peuple qui a toujours défendu son identité», *Euskadi Information* – EKIN.
————————, (1985c): «Nazionalismo espainolak erasotzen gaitu», *Larrun.*
————————, (1985d): «Euskaraz balantzea», *Kultur Urtekaria.*
————————, (1985e): «Britainia Haunditik nazionalismo separatisten perspektibak aztertzen». Colin H. Williamsek editatutako *National Separatism* liburuaren kritika, *Larrun.*
————————, (1985f): «Post-modernitateaz», *Larrun.*

1986

————————, (1986a): «Post-modernitateaz, 2». Mahai-ingurua, UEU. *Larrun.*
————————, (1986b): «Liburu-kritika: Dany Cohn Bendit*, Nous l'avons tant aimée, la Révolution,* Barrault, Paris, 1986», *Larrun.*

————————, (1986c): «Estatuaren fetxismoa hausten, baina optimistegi». Gurutz Jauregiren *Contra el Estado-Nación. En torno al hecho y a la cuestión nacional* liburuaren kritika, *Larrun.*

1987

————————, (1987a): «Ipar Euskadiko egoera politikoa bere osotasunean ulertzeko saio bat», *Géopolitiques des régions françaises* Yves Lacoste-k zuzendua; bigarren tomoa: *La Façade occidentale*); bosgarren kapitulua: «La question basque au nord», Pierre DUBOSCQ. Liburu-kritika, *Larrun.*
————————, (1987b): «Borroka nazionala eta klase borroka bi errealitate ezberdinetan kokatzen dira». Askapen nazionala eta sozialismoa Euskadin, mahai-ingurua, *Zutik, Larrun.*

1988

————————, (1988a): «Negoziaketak», *Larrun.*
————————, (1988b): «1968-1988: Ezkerra Europan», *Jakin,* 47.

1989

————————, (1989a): *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición: Euskadi 1976,* J.C. Jiménez de Aberasturirekin, Eusko Ikaskuntza. 1976an idatzia, zentsurak debekatua.
————————, (1989b): «Ikuspegi poliziakoaren azpian ideologia saldu», *Iparretarrak. Séparatisme et terrorisme en Pays Basque Français*, Jean-François Moruzzi / Emmanuel Boulaert. Liburu-kritika, *Larrun.*
————————, (1989c): «Iraultza eta Hexagonoko nazio ukatuak», *Jakin,* 51.

1990

————————, (1990): «Tradizio libertarioaren eskasia», *Zutik.*

1991

————————, (1991): «Biolentziarako zilegitasuna», *Argia.*

1992

————————, (1992a): «Ezinaren konstatazioa izan zen Euskadi 1984 hura», Iñigo Aranbarrirekin elkarrizketa, *Susa.*
————————, (1992b): «Borroka nazionala eta soziala, laster irabazteko bidean?», *Larrun.*
————————, (1992c): «Trantsizioaldiari buruz», *Uztaro,* 4.
————————, (1992d): «Kropotkin». Elkarrizketa, *Argia.*

1993

————————, (1993): «Borroka armatuari buruzko eztabaida sarrera», *Bultza,* 5.

1994

————————, (1994a): «Ezker abertzaletasunaren etorkizun dudagarria», *Hika*.
————————, (1994b): «Hiltzeari uztea, eztabaida erratu bat», *Egunkaria.*
————————, (1994c): *Schopenhauer, Niestzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan,* Joxe Azurmendi. Liburu-kritika, *Hegats,* 10.
————————, (1994d): «Nazionalismoaren edukin etikoa atzemangarria da?», *Uztaro,* 11.
————————, (1994e): «Esperantza eta arazoak Ipar Euskal Herrian», *Jakin,* 84.
————————, (1994f): «PNV: Euskadi ondare gisa», *Egin.*
————————, (1994g): «Federica Montseny», *Egunkaria.*

1995

————————, (1995a): «Garapena eta Askatasuna. Hitzaldia. *AHT – Kontrainformazio aldizkaria*.
————————, (1995b): «La estrategia de la izquierda abertzale», *Resiste.*
————————, (1995c): «Su-etena eta bake iraunkorra», *Egunkaria.*
————————, (1995d): «Zilegi bekit pluralean idaztea», *Argia.*
————————, (1995e): «Nazionalismoa eta Euskal Herria», *Hika.*

1996

————————, (1996a): «Euskara Iparraldean», EHE.
————————, (1996b): «Irautea ez ote den helburua kezka badut». Iñaki Gorostidirekin elkarrizketa, Elkarri.
————————, (1996c): «Rikardo Arregiren garaiko mogimendu politiko-sozialak», in *Rikardo Arregi, Gizona eta garaia*, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Andoain.

1997

————————, (1997a): «Madariaga txostenaren berri», *Herria 2000 Eliza.*
————————, (1997b): «En la vieja estación de la línea cerrada», *Hika.*
————————, (1997c): «Erbestean idaztea», *Galeuzka – Hegats,* 17/18.
————————, (1997d): «Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea», *Uztaro,* 23.
————————, (1997e): «Autonomiaren historiaz», in *Autonomoekin solasean,* J. Arrizabalaga eta A. Murias, Txalaparta.

1998

————————, (1998a): «Azkonarro», in Itxaro Borda, *Geroa oraino,* Maiatz.
————————, (1998b): «Jon Mirande, eskuin muturreko idazlea», *Jakin,* 106.
————————, (1998c): *Terrorismoa eta biolentzia iraultzailea*, Likiniano. Itzulpena eta berrargitalpena: *Terrorismo y violencia revolucionaria*, 1999, Likiniano.

1999

————————, (1999a): «Txillardegiren pentsaera politikoa», *Jakin,* 114.
————————, (1999b): «Hizkuntza Kontseilua Iparraldean», *Euskalzale*.
————————, (1999c): «Hamalau hilabete borroka armaturik gabe», *Argia.*
————————, (1999d): «Tregua y paz social», *Resiste.*

2000

————————, (2000a): «Marc Légasseren lan idatziak», in *Le basque récalcitrant et le coq gaulois,* M. Légasse, Gatuzain.
————————, (2000b): «Elkarrekin amnistiaren alde», *Argia.*
————————, (2000c): «Euskal zibilizazioa», *Argia.*
————————, (2000d): «Sofri, sofri! Merezi!», *Egunkaria.*
————————, (2000e): «Terrorismoa eta biolentzia iraultzailea», *Maiatz,* 34.
————————, (2000f): «Demokrazia eta naziotasuna», *Uztaro,* 32.

2001

————————, (2001a): «Intelektualak eta politika», *Jakin,* 122.
————————, (2001b): «Soberanía, autodeterminación, democracia», *Herria 2000 Eliza.*
————————, (2001c): «Zergatik irauten du borroka armatuak?», *Argia*.

2002

————————, (2002a): «El último cuarto de hora», *Hika.*
————————, (2002b): «Lagun izoztuei», *Egunkaria.*

2003

————————, (2003a): «Borroka desberdinak», Abertzaleen Batasuna udako kurtsoak.
————————, (2003b): «Damurik gabe», *Argia.*
————————, (2003c): «Denek dugu interesa borroka armatuaren denborari irtenbide duina emateko». Eneko Bidegainekin elkarrizketa, *Berria.*
————————, (2003d): «Euskararen egoera». Mahai ingurua, *Larrun.*
————————, (2003e): «Utopia eta kontrautopia». Lorea Agirrerekin elkarrizketa, *Hegats,* 32.
————————, (2003f): «Mark Legasse», *Argia,* 1.919, 2003-11-09.

2004

————————, (2004a): «Nazionalismoa eta anarkismoa», Buruz buru.
————————, (2004b): «Curvas peligrosas», *Hika.*
————————, (2004c): «Elkarrekin amnistiaren alde», *Argia.*
————————, (2004d): «Georges Laplace», *Argia.*
————————, (2004e): «HUMPTY-DUMPTY», *Argia*.
————————, (2004f): «Pays Basque Sud: Fin de l'Ancien Régime et abolition des Institutions Forales», in Manex Goyhenetche, *Histoire Générale du Pays Basque,* tome V, Elkar.

2005

————————, (2005a): «La del alba sería», *Hika.*
————————, (2005b): «Su-etena eta bake iraunkorra», *Argia.*

2006

————————, (2006a): «Berriz ere biktimei buruz», *Argia*.
————————, (2006b): «Bizitza ez da oroz gain dagoen balorea». Amets Arzallusekin elkarrizketa, *Argia.*
————————, (2006c): «Gatazka konponketa eta gatazka modeloa», Alda.
————————, (2006d): «Hungaria 1956», *Argia.*
————————, (2006e): «Su-etenaren inguruko gogoeta zenbait», Su-etenaren aldeko taldea.
————————, (2006f): «Una política para la autodeterminación», *Hika.*

2007

————————, (2007): «1950-1960, zapalkuntza eta errebolta», *Jakin,* 159.

2008

————————, (2008a): *El Nacionalismo Vasco en el Exilio.* Txalapartaren edizio berriko kontrazala.
————————, (2008b): «Ezker abertzale ilegalizatuaren txertatze politikoari buruz», EHU udako unibertsitatea.

2009

————————, (2009a): «Abertzaletasunaren hautu estrategikoak zaharkitu dira», *Larrun.*
————————, (2009b): «Una lección de dignidad ininterrumpida». Hitzaurrea, in *Los Anarquistas y la guerra en Euskadi*, Txertoa.

2010

————————, (2010): «Euskaldunen etengabeko erbesteaz», In Josu Txueka, *Gerra Zibilaren ondorengo erbesteaz*, UEU.

2011

————————, (2011a): «Anarquismo y nacionalismo», <http://www.sindominio.net/irola/spip.php?article1647>, La Kelo (Santurtzi).
————————, (2011b): Elkarrizketa Joxemari Velez de Mendizabalekin, <http://www.euskonews.com/0562zbk/elkar_eu.html>, Eusko Ikaskuntza.
————————, (2011c): «Eztabaida irekitzeko», *Argia.*

2012

————————, (2012a): *ETAren estrategia armatuaren historiaz,* Maiatz.
————————, (2012b): «ETAren estrategia armatuaz». Mikel Asurmedirekin elkarrizketa, *Argia.*
————————, (2012c): «XXI. Mendean libertario eta eraginkor izatea», *Ekintza Zuzena.*
————————, (2012d): «Txillardegiren gorazarrean», *Argia,* 2012-01-22.
————————, (2012e): «Txillardegi, Enigma variations», *Maiatz,* 54.

2013

————————, (2013a): «ETAren estrategia armatuaren historiaz». Elkarrizketa, *Ekintza Zuzena.*
————————, (2013b): «Jon Mirande». Elkarrizketa Nora Arbelbidekin, *Hegats,* 50.
————————, (2013c): «Beltza, l'abertzale hétérodoxe». Iban Etxezaharretarekin elkarrizketa, *Aldiz.*

2014

————————, (2014a): *Biolentzia politikoaren memoriak 1967-1978,* Maiatz, Baiona.
————————, (2014b): «Xake-matea taulak ematen du», *Argia.*

Erreferentzia bibliografikoak

A. H. (1977): «Conversación con Beltza (I) eta (II)», *Punto y hora*, 1977ko maiatza.

Agirre, Lorea (2003): «Emilio Lopez Adan "*Beltza*" Utopia eta kontra-utopia, aurkia eta ifrentzua», *Hegats*, 32.

Alvarez Enparantza, Jose Luis *Txillardegi* (1994): *Euskal Herria Helburu*, Txalaparta.

Amigo, Angel (1978): *Pertur ETA 71-76*, Hordago, Donostia.

Arbelbide, Nora (2012): «Elkarrizketa: Emilio Lopez Adan "Borondaterik ez bada izan Miranderen eskuin muturreko errealitatea argitzeko, Mirande demokraziaren etsaia izan delako da"», *Hegats,* 50.

Arzallus, Amets (2006): «Emilio Lopez Adan, Beltza: "Bizitza ez da oroz gain dagoen balorea"», ARGIA, 2006-12-10, 2.066. zk.

Asurmendi, Mikel (2007): «Angel Amigo: "Dokumentalak ez du inoren irudia garbituko"», ARGIA, elkarrizketa esteka honetan: <http://www.argia.com/argia-astekaria/2102/dokumentalak-ez-du-inoren-irudia-garbituko>.

Aulestia, Kepa (1998): «Demokratak eta biolentoak», *Argia,* 1998-02-1, 1.657. zk.

Azurmendi, Joxe (1998): *Oraingo gazte eroak*, Enbolike.

————————, (1999): *Euskal Herria krisian*, Elkar, Donostia.

Batista, Antoni (2007): *Madariaga. De las armas a la palabra*, RBA, Bartzelona.

Casanova, Iker (2007): *ETA 1958-2008 medio siglo de historia*, Txalaparta.

Cassirer, Ernst (2013): *El mito del estado*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.

Clark, Robert P. (1979): *The Basques: The Franco years and beyond*, University of Nevada Press, Reno, Nevada.

————————, (1984): *The basque insurgents ETA, 1952-1980*, The Unibersity of Wisconsin Press.

de la Calle, Luis & Sánchez-Cuenca, Ignacio (2004): «La selección de víctimas en ETA», *Revista Española de Ciencia Política*, 10, 2004ko apirila.

Garmendia, José María (2006): «ETA, nacimiento, desarrollo y crisis» in Antonio Elorza (koor.), *La historia de ETA*, Temas de hoy, Madril.

Goikoetxea, Jose Ramon *Ardotxi* (2006): *Mentxakaren aitorpena,* Elkar, Donostia.

Gurruchaga, Ander (1985): *El código nacionalista vasco durante el franquismo*, Anthropos, Bartzelona.

Halimi, Gisèle (1971): *Le procès de Burgos, Gallimard.*

Ibarra Güell, Pedro (1987): *Evolución estratégica de ETA: de la «Guerra revolucionaria» (1963) a la negociación (1987),* Kriselu, Donostia.

————————, (1989): *La evolución estratégica de ETA*, 2. ed., Kriselu, Donostia.

Iriarte, Joxe *Bikila* (1999): *Borrokaren gorrian*, Txalaparta.
Iturriotz, Joxin (2012): *Bernardo Aizpitarte «Kabra»*, Uztarria, Azpeitia.
Larzabal, P. (1999): *Nere Mendixkatik,* Txalaparta, Tafalla.
Legasse, Marc (1984): *Concerto guerrillero pour un pays qui n´existe pas*, Maiatz.
Letamendia, Francisco (1978): *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*, Ruedo Ibérico 1978, Bartzelona.
————————, (1994a): Historia del nacionalismo vasco y de ETA, II. tomoa, R&B, Donostia.
————————, (1994b): *Historia del nacionalismo vasco y de ETA. Volumen III: ETA y el Gobierno del PSOE (1982-1992),* R&B, Donostia.
Madariaga, Julen (2014): *Egiari zor,* Erein, Donostia.
Mitxelena, Salbatore (1977): *Idazlan Guztiak,* bol. I, bol. II, Arantzazu.
Onaindia, Mario (2001): *El precio de la libertad Memorias (1948-1977)*, Espasa Calpe, Madril.
Ormazabal, Sabino (2011): «Adiskidetzeari buruzko 25 gogoeta», *Argia*, 2011-01-30.
Peciña Anitua, Miguel (2004): «Los pasos perdidos», in *El Valor de la palabra - Hitzaren balioa. Hacia la ciudadanía del siglo XXI. mendeko hiritartasunerantz,* Revista anual de pensamiento, Edita Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa, 4, 179-215. Interneten eskuragarri: <http://www.bideo.info/buesa/imagenes/valordelapalabra4.pdf>.
Puente Ojea, Gonzalo (1995): *Elogio del ateísmo*, 2. ed., Siglo veintiuno editores, Madril.
Reinares, Fernando (2001): *Patriotas de la muerte. Quiénes han militado en ETA y por qué*, Taurus, Madril.
Sudupe, Pako (2013): *Eusebio Osa: belaunaldi baten lekuko*, EHU, Gasteiz.
Uriarte, Teo (2005): *Mirando atrás*. *Del proceso de Burgos a la amenaza permanente*, Ediciones BSA, Bartzelona.
Vidal-Beneyto, José (2007): *Memoria democrática*, Foca, Madril.
Wieviorka, Michel; Martínez Reverte, Jorge eta Onaindía, Mario (1991): *El terrorismo: la violencia política en el mundo*, Plaza&Janes, Bartzelona.

Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Eta tiro baltzari. Abertzaletasuna eta jauntxokeria Bermeon
Mikel Aizpuru
1990ean argitaratua
ISBN: 84-86967-22-8

Historia: Zientzia ala literatura? Historiari buruzko gogoeta sorta
Pruden Garzia eta Iban Zaldua
1995ean argitaratua
ISBN: 84-86967-66-X

Historia eta fi kzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan
Karmele Artetxe (arg.)
2001ean argitaratua
ISBN: 84-8438-016-5

Ikerketa berriak Euskal Herriko historian
Jurgi Kintana eta Karmele Artetxe (arg.)
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-027-0

Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak 1973-1984
Mikel Aizpuru Murua
2003an argitaratua
ISBN: 84-8438-041-6

Euskal Herriko Erdi Aroaren Historiarako dokumentu idatzi eta grafi koen iruzkin-ereduak
Amanda Ruiz eta Jaione Agirre
2006an argitaratua
ISBN: 84-8438-080-7

Debarroko oasi liberala
Gotzon Iparragirre Burgoa
2008an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-171-6

1936ko gerra Euskal Herrian: historia eta memoria

Mikel Errazkin eta Juantxo Agirre (argk.)
2009an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-237-9

Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak

Joseba K. Arbaiza Alvarez eta Peio Lozano Valencia (koord.)
2010ean argitaratua
ISBN: 978-84-8438-330-7

Gaur egungo munduaren historia, 1945-2009

Fernando Martínez Rueda eta Mikel Aizpuru Murua
2011n argitaratua
ISBN: 978-84-8438-334-5

Euskara unibertsitatera bidean: eragileak eta proiektuak (1939-1990)

Karmele Artetxe Sánchez
2011n argitaratua
ISBN: 978-84-8438-374-1

Gerraosteko Euskal Herrian eraikitzea. Eibarko berreraikuntza (1937-1957)

Francisco Javier Muñoz
2013an argitaratua
ISBN: 978-84-695-8668-6

Euskaldunak eta karolingiar iraultza; Akitania eta Baskonian barrena

Iñaki Lopez de Luzuriaga Martinez
2016an argitaratua
ISBN: 978-84-695-591-2

Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika

Aintzane Rincón Díez, Bakarne Altonaga Begoña, Maialen Aranguren Alonso
2017an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-639-1

Nazionalismoa eta Kultura. Entseguak eta iruzkinak Euskal Herriaren alde

Pruden Gartzia Isasti
2020an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-736-7

Historia Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Hezkuntza Gasteizen XIX. mendean
Agirre, Jaione, *Uztaro* 24 (1998), 29-47

Aditzaren aspektuaz edo gaztelaniazko orainaldi historikoaren baliagarritasuna euskaraz
Agirre, Jaione, *Uztaro* 41 (2002), 15-26

Abertzaletasuna Araban: Legutianoko jelkideak XX. mendearen lehen herenean
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* 39 (2001), 53-61

Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* 67 (2008), 33-56

XXI. mendearen hasierako euskal abertzaletasuna geldialdian. Egungo egoera politikoari buruzko hausnarketa
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* 75 (2010), 49-66

Zenbakiak eta letrak. Historia arloko lanak Uztaro aldizkarian
Aizpuru Murua, Mikel, *Uztaro* 100+ (2017), 11-20

Aro Berriko Euskal Herriko itsas ekonomiaren historiaren egoera
Alberdi Lonbide, Xabier, *Uztaro* 52 (2005), 9-32

Frantziako iraultza: modernitate eta tradizionalismoaren artean
Aldekoa, Iñigo, *Uztaro* 0 (1990), 21-35

Albert Goienetxe (1847-1900) politikari euskaltzale ia ezezagunaren barri laburra
Altonaga, Kepa, *Uztaro* 66 (2008), 43-73

Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketarako erbesteratzea. Ikuspegi orokor bat. (1898-1940)
Alvarez, Oskar, *Uztaro* 13 (1995), 69-86

Euskal hezkuntza ikastolak sortu baino lehen: Amerikako euskal ikastetxeak, egitasmoen eta errealitatearen artean (XVIII-XX)
Alvarez, Oskar, Uztaro 69 (2009), 5-22

Esklabo iraultzak erromatar errepublikaren krisialdian: gizarte gatazken eredu bat
Alvarez Pérez-Sostoa, Denis, *Uztaro* 36 (2001), 25-39

Kontrabandisten aurkako neurriak XVIII. mendeko Euskal Herrian: “leku sakratuen” desagerpena
Angulo, Alberto, *Uztaro* 21 (1997), 45-67

Arrantza-merkatuan Gasteizko merkatariek izandako partaidetza eta inbertsioak (XVII. mendearen hasieran)
Angulo, Alberto, *Uztaro* 28 (1999), 37-58

Makiak Euskal Herrian
Apaolaza, Urko, *Uztaro* 37 (2001), 105-118

Euskal Herriko inprentaren historia
Arana Martija, Jose Antonio, *Uztaro* 12 (1994), 37-53

Basoa Euskal Herriko historian zehar
Aragón, Alvaro, *Uztaro* 29 (1999), 28-38

Enirio-Aralar mendietako abereen eta basoen ustiapena aro berrian zehar
Aragón, Alvaro, *Uztaro* 38 (2011), 19-32

Bengoetxeako Anbrosio. 1552-1625
Aranburu, Pello Joxe, *Uztaro* 20 (1997), 17-69

Demokrazia Heletan Frantziako iraultza aintzin
Arbelbide, Xipri, *Uztaro* 2 (1991), 103-117

Europa bakarra, Europa anitzak
Arregi, Joseba, *Uztaro* 15 (1995), 55-66

Goi paleolitoaren hasierako faseak
Arrizabalaga, Alvaro, *Uztaro* 1 (1991), 53-75

Psikologiako artikuluen azterketa Uztaro aldizkari oinarri harturik
Artetxe, Karmele, *Uztaro* 56 (2006), 31-50

«Kristau-elizak, kristau-herriarenak»: ikerketa zail baten oinarriak
Azkoaga Lasheras, Iñazio, Larrambebere Zabala, Migel, *Uztaro* 71 (2009), 31-42

Errepublikanismoa eta euskara II. Errepublika aurretik
Belaustegi Bedialauneta, Unai, *Uztaro* 91 (2014), 23-39

1914ko hauteskunde-kanpaina Eskualduna astekarian
Bidegain, Eneko, Gostin, Andres, *Uztaro* 90 (2019), 25-40

Gizarte-mobilizazioak eta frankismoaren hondar krisia. Euskal Herriaren ekarpena
Casanellas, Pau, Escribano Riera, Daniel, *Uztaro* 81 (2012), 17-38

Txabolismoa. XII. mendearen erdialdeko auzo autogestionatuak
Castrillo, Ianire, *Uztaro* 60 (2007), 37-64

Frantziako kexu-koadernoen azterketa bat
Chueca, Josu, *Uztaro* 2 (1991), 119-128

Faxismoa Nafarroan 1936.az geroztik
Chueca, Josu, *Uztaro* 6 (1992), 77-87

Norena da herriaren ondarea?
Esparza Zabalegi, Jose Mari, Uztaro 71 (2009), 17-29

Faxismoa frantzian: 1918-1930
Gartzia, Pruden, *Uztaro* 5 (1992), 31-45

Manex Goihenetxeren oroitzapenetan
Gartzia, Pruden, *Uztaro* 72 (), 59-77

Meatzaritza nekazari-herri batean. 1844-1982
Gorrotxategi, Aitziber, *Uztaro* 45 (2003), 3-27

Europako langile-mugimenduaren protohistoria: Ingalaterrako eta Frantziako langile-elkarteak Erregimen Zaharraren bukaeran eta Aro Garaikidearen hasieran
Gracia, Juan, *Uztaro* 7 (1993), 55-75

Pobrezia eta gizarte laguntza XVIII. mendean Bizkaian
Gracia, Juan, *Uztaro* 14 (1995), 3-20

Bigarren Aintzina
Hernández, Amelia, *Uztaro* 15 (1995), 37-53

Erlijio eta politika Hego Europna Ikerketarako sei (adi)bide
Itzaina, Xabier, *Uztaro* 49 (2004), 23-42

Zuzenbide penalaren bilakaera historiko-doktrinala: Hamurabiren kodetik Hurgo Grotius-en teoriara
Jimeno, Roldan, *Uztaro* 51 (2004), 25-43

Nafarroako erlijio-erainiken jabetza: ikuspegi historiko-juridiko bat
Jimeno, Roldan, *Uztaro* 71 (2009), 71-85

Nafarroako Konkistaren justifikazio juridikoa
Jimeno, Roldan, *Uztaro* 82 (2012), 32-52

Nazionalismoaren historia eta ideologia
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* 25 (1998), 3-26

Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hiz neurtuetan (1823-1840)
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* 30 (1999), 61-84

Euskal federalismo foruzalea Seiurteko Demokratikoan (1868-1873)
Kintana, Jurgi; Alfaro, Iñaki, *Uztaro* 40 ()2002, 37-62.

‘Irurac Bat’ Konferentzien hezkuntza- eta kultura-proiektuak Artikulu osoa
Kintana, Jurgi, *Uztaro* 55 (2005), 31-46.

Ba al zekien Sabiono Aranak euskaraz mintzatzen?
Kintana, Jurgi, *Uztaro* 63 (2007), 21-29.

Real Academia Española-ren gutunaren polemika Euskal Herrian: euskara, ofizialtasuna eta hezkuntza 1916. urtean
Kintana Goiriena, Jurgi, Artetxe Sanchez, Karmele, *Uztaro* 88 (2014), 29-71.

Euskal Herriko ondare zibila eta erlijiosoa. Gai oparoa eta eztabaidagarria
Kortadi Olano, Kepa, *Uztaro* 71 (2009), 109-121.

Bizkaitar eta gipuzkoar nekazariak 1718ko matxinadan
Lamikiz, Xabier, *Uztaro* 33 (2000), 21-41.

Antzinako Erregimenaren krisian, 1765-1840
Lamikiz, Xabier, *Uztaro* 98 (2016), 55-77

EAE-ANV: sorrera eta ibilbidea errepublika-garaian (1930-1936)
Larrañaga Uranga, Aitor, *Uztaro* 85 (2013), 49-71

SOVetik STVra. ELAren eboluzioa II. Errepublikan El Obrero Vasco, Lan Deya eta Euzko Langille argitalpenen azterketaren ildotik
Larrañaga Zubizarreta, Jose, *Uztaro* 77 (2011), 43-58

Erdi Aroko gizartea gaisotasunaren aurrean: erantzunak eta jarrerak
Lema, José Angel, *Uztaro* 18 (1996), 17-39.

Aintzinako Erregimeneko herri baten giza ekonomi azterketa: Villaverde de Trucios, 1753 urtean
López, Ernesto, *Uztaro* 10 (1994), 33-59.

1993: ELA, LAB eta CCOO sindikatuen ekintza bateratua
Lopez Abasolo, Patxi, *Uztaro* 46 (2003), 11-39.

Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea
López, Emilio, *Uztaro* 23 (1997), 45-63.

Bigarren globalizazioa: amaieraren hasiera?
Manjon Lozoya, Roberto, *Uztaro* 74 (2010), 21-41.

Nazionalismoa eta bere teoria
Mees, Ludger, *Uztaro* 11 (1994), 15-27.

Langileak ba al dauka aberririk? Euzko Langileen Alkartasuna sindikatuaren sorrera eta garapena
Mees, Ludger, *Uztaro* 11 (1994), 29-36.

Paleolito ondorena Metal-arora arte Euskal Herrian
Mujika, Joxean, *Uztaro* 4 (1992), 33-84.

Metal aroak Euskal Herrian. Eneolito, Brontze eta Burdin Aroa
Olaetxea, Carlos, *Uztaro* 1 (1991), 77-103.

Euskal Unibertsitatea, UEUren 40. urteurrenetik begiratuta
Orbe Monasterio, Martin, *Uztaro* 88 (2014), 111-125.

1610. urtea. Nafarroako sorginkeriaren mitifi kazio maltzurrari buruz
Paul Arzak, Juaninas, *Uztaro* 43 (2002), 17-51.

Hamarrenak Euskal Herrian: Calahorrako eliz barrutia XI-XIII. mendeetan
Riaño, Eugenio, *Uztaro* 8 (1993), 35-52.

Euskal Herriko landakomunitateen sintaxi berria: zehar-objektu izatetik subjektu izatera. Erresilientzia-gaitasuna bi mila urtez
Rodriguez Lejarza, Ander; Narbarte Hernández, Josu, Uztaro 111 (2019), 27-38

Ideologia eta gatazka Montevideoko euskal etxeen eraketetan
Sanz Goikoetxea, Eneko, *Uztaro* 69 (2009), 25-49.

Euskaltzaindia 1960ko hamarkadan: diktadura frankistako hezkuntza publikoan euskara sartzeko ahaleginak
Ugarte Muñoz, Antton, *Uztaro* 92 (2015), 25-31.

Euskal Herriko bilakaera geomorfologikoa
Ugarte, Felix M., *Uztaro* 4 (1992), 25-31.

Euskal Herrian gizartea eta eliza
Uriarte, Luzio, *Uztaro* 71 (2009), 87-107.

Euskal nazionalismo motak –nazioaren ikuskeraren arabera–
Zabalo, Julen, *Uztaro* 26 (1998), 27-46.

Nafarroako sorginkeria berriro eztabaidagai
Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* 39 (2001), 39-52.

Bilboko Erregimendua XVI. eta XVII. mendeen bitartean: bazterketa eta erresistentzia aurrez aurre
Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* 47 (2004), 41-54.

Goi Aro Berriko Bizkaiko Jaurerriko Gobernuari buruzko hurbilketa
Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* 53 (2005), 9-29.

Ekonomi historiaren historia: sarrera bat
Zaldua, Iban, *Uztaro* 6 (1992), 59-75.

Atxikimendua ala erresistentzia? Bizkaitar gizartearen erantzuna(k) «estatu berria» finkatzearen aurrean. 1937-1945

Zubiaga Arana, Erik, *Uztaro* 101 (2017), 5-25